



Tolosaldea
Historia
Bilduma

Anoetako Baserriak



Juantxo Agirre-Mauleon



Babesleak:



Gipuzkoako Foru Aldundia Diputación Foral de Gipuzkoa

Kultura Saila
Departamento de Cultura

Lagunzaileak:



kutxa



DEPARTAMENTO DE CULTURA

Anoetako Baserriak

ZUZENDARITZA

Juantxo Agirre-Mauleon

ARKITEKTURAREN DOKUMENTAZIO LANAK

Arantza Agirre, Miren Garcia

AGIRITEGIETAN DOKUMENTAZIO LANAK

Juan Carlos Mora, David Zapiain

ANTROPOLOGIAN ETA ETNOGRAFIAN DOKUMENTAZIO LANAK

Mikel Errazkin



Anoeta 2005

Gomendatutako katalogo fitxa / Ficha catalográfica recomendada



ANOETAKO Baserriak /Zuzendaritza: Juanjo Agirre Mauleon; Arkitekturaren dokumentazio lanak: Arantza Agirre, Miren Garcia; Agiritegian dokumentazio lanak: Juan Carlos Mora, David Zapiain; Antropologian eta etnografian dokumentazio lanak: Mikel Errazkin. – Tolosa: Lizardi Kultur Elkartea, 2005.

312 or. : ir. kol. + 1 map. plg. – (Tolosaldea historia bilduma, ISSN 1579-6299; 7)

D.L. SS 00618 - 2003.- ISBN 84-933211-2-5

I. Agirre Mauleón, Juanjo (Dir.) II. Agirre, Arantza III. Garcia, Miren IV. Mora, Juan Carlos V. Zapiain, David VI. Errazkin, Mikel 1. Baserriak – Anoeta

C.D.U. 728.6(460.154 Anoeta)



Argazkiak: Bestelako aipamenik ez badago argazkien egilea Aranzadi Zientzi Elkartea da.



Tolosaldea Historia Bilduma 07

Zuzendaria: Juanjo Agirre-Mauleon

Maketazioa: Eustotem Multimedia S.L.

Inprimatzen du: Gráficas Lizarra

4. kapitulua: Mikel Errazkin

BIHUR enpresak euskaratua

ISSN: 1579-6299

ISBN: 84-933211-2-5

Lege gordailua: SS 00618 - 2003



Eskerrak:

Anoetako baserritarra
Anoetako Udala
Kutxa Fototeka
Euskaltzaindia
Gipuzkoako Artxibo Orokorra
Archivo Diocesano de San Sebastián
Gipuzkoako Foru Aldundiko
Kultura Saila
Gipuzkoako Foru Aldundiko
Lurralde Informazioa
Eusko Jaurlaritzako
Kultur Ondarearen Zentrua
Archivo Provincial de Zaragoza
Patxi Sanz, Karlis, Peio Jose Aranburu
Alberto Santana, Mikel Gorrotxategi
Fernando Rojo, Joana Garmendia
Kepa Fernandez de Larrinoa, Mertxe Labara



Zuzendu gutunak helbide honetara:

Diríjase toda la correspondencia a:

ARANZADI zientzi elkartea

Zorroagagaina 11

20014 Donostia - San Sebastián

Tel.: 943466142 Fax: 943455811

e-mail: idazkaritza@aranzadi-zientziak.org

www.aranzadi-zientziak.org

Airkazkia: Karlos



Herri guztiak dira bere historiaren eta bertako herritarrek egin dutenaren emaitza, eta horregatik ezagutu eta baloratu behar ditugu behar bezala. Aurkezten dizuegun "Añoetako baserriak" liburua, monografía gisa Añoetari buruz argitaratu den lehena da eta, nire ustez, betetzen duen funtziotako bat gure historia berreskuratzea eta gure herri-identitatea indartzea da.

Duela hamarkada gutxi arte, Añoeta nekazaritza-komunitate izateagatik gailendu da; begira zer zioen Pascual Madoz historialariak 1847. urtean: *"berrogei bat etxe eta, hauen artean, udalbatzak bilkurak egiteko erabiltzen duena. Parrokiako eliza ertaina da eta erretoreak eta bi benefiziodunek zerbitzatzen dute"*. Baserriz osatutako herri txiki izaerak duela hamarkada gutxi arte iraun du; hala ere, gaur egun, ez ditugu ia ezagutzen XX. mendean hasierako argazkiek erakusten dizkigutenean irudiak, liburu honen azalean ageri denak esate baterako.

Gure herriak oso bilakaera azkarra izan du. Herrian 1787 lagun bizi gara gaur egun eta oso gutxi dira baserritik bizi direnak. Hala ere, sortu zenetik orain dela gutxi arte, baserritarrek eraikitako herria izan da Añoeta, eta ez dut uste liburu hau baino modu egokiagorik dagoen beraien lanari eta kultur baloreei esker ona adierazteko.

Baina gauza ez da oroimen historiko berreskuratzea bakarrik, zabaltzen ere jakin egin behar da eta modu atseginean denen eskura jartzen. Horregatik uste dut liburu honek badituela dohainak: erabiltzeko erraza da eta ikusteko atsegina. Baserri guztiak alfabetoaren arabera daude ordenatuta eta, gainera, argazki askorekin ilustratu ditugu.

Material dokumentala Añoetako udal-artxiboa jaso dugu. Etorkizuneko ikertzaileek eta interesa duten herritarrek aukera izango dute baserrien kulturan, etnografian, ohituretan, gizarte-antolakuntzan eta beste hainbat arlotan sakontzeko. Etorkizunean lantzen jarraitu behar dugun bidearen hasiera izan dadila.

Ezin dugu ukatu liburua elkarlanean egindakoa dela, Aranzadiko ikertzaile-taldearen eta Añoetako baserritar eta herritarren artean, eta ekimen guztien babesle eta laguntzaile Añoetako Udala izan da. Izan ere, izugarri lagundu duzue zuen argazki, informazio eta agiriak emanet.

Benetan eskerrak eman nahi dizkizuet era batera edo bestera hau guztia gauza dadin laguntza eman duzuen guztioi, bestela ez baitzen argitaratzetik izango eta ezin izango genien ondorengoko belaunaldiei Añoetako historia eta kultura jasotzen dituen leku hau pasa.

Fidel Azpiroz

Egileek Anoetako baserritarrei eskeintzen diete liburu hau.

AURKIBIDEA

or.

Aurkezpena.....	07
1. SARRERA	11
2. ANOETAKO SARRERA HISTORIKOAK	17
3. BASERRIEN ARKITEKTURA.....	25
4. ANOETAKO BASERRITARREN ONDARE INMATERIALA	35
5. ANOETAKO BASERRIAK.....	69
1. Aginagazpikoa.....	71
2. Aginagaetxeberria	77
3. Agirre.....	81
4. Alliri.....	87
5. Apaetxe.....	91
6. Argindeggi	95
7. Arozetxea.....	101
8. Arrese	107
9. Arrutarte.....	109
10. Asuribar	113
11. Ateaga.....	117
12. Ateagaetxeberria	123
13. Barrundia.....	127
14. Bideondo	131
15. Borondegi	137
16. Buztiñaga.....	141
17. Eguzkitza	145
18. Erausia	149
19. Etxeberria.....	153
20. Goikoetxea	159
21. Idiakaitz	163
22. Igerabide	169
23. Ipentza.....	171

24. Iriarte	173
25. Iturgaitzaga	175
26. Iturralde	181
27. Katategi	183
28. Luebana	187
29. Mendigibel	191
30. Mikelasagasti	195
31. Modestoenea	197
32. San Joan	201
33. Sarobe	207
34. Tapia	215
35. Txulo	221
36. Urritzeta	225
37. Urrutinea	229
38. Zumalikardi	233
6. AGIRIEN ERANSKINA / ANEXO DOCUMENTAL.....	237

CASERÍOS DE ANOETA.....	247
1. Introducción	250
2. Orígenes Históricos de Anoeta.....	254
3. La arquitectura de los caseríos	258
4. El patrimonio inmaterial de los caseríos de Anoeta	262
5. Caseríos de Anoeta	280

1. Sarrera



Ateaga baserria



Aranzadi Zientzi Elkarteko ikerlan taldea: Juanxo Agirre, Arantza Agirre, Juancar Mora, Mikel Errazkin, Miren Garcia.



Hauxe da Anoetari buruz idatzitako lehen liburua; izan al liteke protagonista aproposagorik bertako baserriak eta biztanleak baino? Ez alferrik, baserrien inguruan antolatutako nekazariekin sortu zuten herri hau, pixkanaka antolatutako komunitate bilakatu eta berezko nortasuna lortu duena.

XXI. mendearren hasierara arte, jada ia bi mila biztanle dituen Anoetari buruzko libururik ez argitaratzeak hausnartzera bultzatzen gaitu gure historia hurbilenarekiko –gure gurasoena, gure auzu eta herriena– erakutsi dugun interesari buruz. Saia gaitezke, nolabait ere, egoera hori azaltzen duten balizko arrazoik arakatzen: esate baterako, baliabide urriak, lehentasun handiagoko xedeak izatea, gure nortasun historikoa gutxiestea, etab. Nolanahi ere, hementxe dugu lehen liburu hau, eta hurrengo Ieroetan azalduko ditugu haren jatorrizko sorburua eta testuingurua.

1992. urtean hitzaldi-sorta bat ekin zitzzion, "Aztarna. Tolosako arkeologia astea" izenburupean, gure inguruko historia eta kultura-ondaera ezagutzeko asmoz. Egitasmo honetan, jatorri bateko eta besteko ikertzaileak ekarri genituen. Jendearen parte-hartzeari eta honen interesari dagokionez, une gorena 1994an izan zen, ekimena eskualde osora zabaldu eta "Tolosaldeko arkeologia jardunaldiak" izena hartu zuenean. Ekintza hau Tolosako Oargi Mendi Elkarteak eta Aranzadi Zientzi Elkarteak antolatzen zuten. "Aztarna" egitasmoa bertan parte hartu genuen guztioan gogoan geratu da, han azaldutako datuak argitaratu ez ziren arren.

Hedatze-aldi honen ondoren, arkeologia eta arkitektura ondarea ikertzeko aldi bat ekin genion 1995ean, Aranzadi Zientzi Elkartearen inguruan elkartu baikinen gai hauengatik interesatzen genuen eskualdeko zenbait arkeologo eta historialari. Lehen hausnarketa estrategiko baten ondorioz, "Tolosaldea Kultur Ondarea eta Historia" egitasmoa martxan jarri zen 2001ean, eskualdeko herrien nortasun historikoa eta kultura ondarea berreskuratu nahian. Lehen fase honetan, Albiztur, Anoeta, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Irura, Leaburu, Lizartza, Orexa eta Villabona-Amasa aritu dira elkarlanean. Urtetako programa honi esker, artxibategi nagusietan barreiatuta dauden herri hauei buruzko agiriak aurkitu eta bildu dira. Programa bukatzean dago eta Anoeta izan da interes gehien erakutsi duen herrietako bat. Liburu hau "Tolosaldea Kultur Ondarea eta Historia" programari esker artxibategietan egindako ikerketen fruitua da eta orobat baserri guztietan eta bertan bizi direnekin egindako kanpo-lanarena.

2001ean ere, "Tolosaldea Historia Bilduma" liburu-sorta sortu zen. Xedea zen eskualdean argitaratzen diren gai honetako lanak biltzea, Tolosaldeko 28 herrien artean ahaleginak eta baliabideak partekatzetan optimizatzetan.

Anoetari buruzko monografia honekin, sei liburuki argitaratu dira jada 2002tik: "Intxur Burdin Aroko herrixka", "Altzotik Altzora. Ibilaldi historikoa Altzon zehar", "Irurako historia", "Aduna 1856-1965. Bilakaera baten kronika", "Tolosaldea bere Testamentuetan" eta "Tolosa, bordon-dantzaren ikuspegitik".

Bilduma irekita dago Tolosaldeako herriei buruz egindako lan eta ikerketei, hauxe baita haren jatorrizko eremu geografikoa. Anoetako baserriei buruzko liburu honetan egindako lanak asko erakutsi digu halako lan batek eskatzen dituen ahalegin eta prozedurei buruz eta, beraz, gaur egun eredu hau beste zenbait herritarra zabaltzeko moduan gaude. Liburu hau egin dugunontzat erronka da lortzea eskualdeko herri guztiek, txikiak izanik ere, halako monografia bat izatea. Txakur-ametsa izango da agian, baina aurreneko hazia aldatu dugu jada Anoetako baserritarrei esker.

Anoetako herritarrek erakutsitako interesaren ordainez, Aranzadi Zientzi Elkarteak jarraian aipatzen diren ekintzak egin ditu azken urteotan bertako kultur-ondarearen inguruan.

1995. urtetik, Aranzadiko arkeologo talde batek, Xavier Peñalverren zuzendaritzapean, uda guztietan indusketa-kampaina bat ekiten dio Basagain mendiaren gailurrean aurkitu den herrixkan. Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzari eta arkeologoen eta boluntarioen lanari



esker, lehen bizitegi honen errealtitate historikoa ezagutzen ari gara pixkanaka. 2003an, zenbait informazio-panel jarri ziren bisitaldi gida-tua errazteko eta arkeologia-gune honetaz gozatu ahal izateko.

2003. urtean ikerketa arkeologiko bat egin zen Anoetako Errotan. Hala, harlanduzko osagai arkitektonikoak aurkitu ziren eta haren jatorrizko izena berreskuratu zen: Ieratxulo. Horrez gain, eguneroko bizimoduan garrantzi handia zuen herri-errota zela eta XIX. mendearren hasieran saldu zutela frogatzen zuten agiriak bildu genituen. Halaber, Igerabide baserriaren oroimena berreskuratu nahian, herriguneko kale berri bati haren izena jartzea aholkatu genuen.

2002an, Udalak Anoetako udal armarriari buruzko ikerketa eta hausnarketa eskatu zigun eta Aranzadik, egin beharreko ikerketak egin ondoren, armarri berri baten proposamena egin zuen. Armarri berri honek herriaren nortasun historikoa islatzen du, baina irudi gaurkotuago batez baliatuz, XXI. mendeko anoetarren identifikazio handiagoa lortu nahi du.

2003tik 2005era baserriek bereganatu dituzte lan-talde honen ahalegin guztiak; hango eta hemengo artxibategietan zeuden agiriak bildu, hainbat argazki zahar lortu eta erreportaje grafiko eta elkarritzeta sakonak egin dira. Kaletar eta baserritarrei egindako elkarritzeta hauei esker, ohituren eta festen inguruko informazio argitaragabe asko bildu dugu, Anoetako memoria historikoa berreraikitzeko erreferente garrantzitsua izango dena. Halaber, 2003ko maiatzaren 15ean, baserriei buruzko hitzaldi bat eman zen San Joan parrokian, Anoetako baserritarrek eraiki zuten tenpluan, hain zuzen. Bertan, Jeronimo de Sotok XVI. mendearren bukaeran egin zuen Anoetako lehen planoaren kopiak banatu ziren bertaratutakoenean. 2005. urte honetan, Euskara Batzordeak sustatu duen Anoetako baserriei buruzko egutegiak ikusi du argia, gure etxeetatik baserriak eta bertako hizkuntza gogorarazteko. Azkenik, neguko solstizioarekin batera, Anoetako baserriei buruzko liburu hau izango dugu esku artean.

LAN-TALDEA

Monografia honetarako materialak Aranzadi Zientzi Elkarteko ikertzaile talde baten lanari esker lortu dira. Hain zuzen, proiektua Juantxo Agirre Mauleonek zuzendu du, Arantza Agirre eta Miren Garcia arkeologoekin batera Anoetako baserriak aztertu dituena. Baserri guztietan izan ziren eta haien jabeei elkarritzetak egin zizkieten eta informazioa, agiriak eta argazki zaharrak eskatu. Baserri bakoitzean egindako ikerketak arkitekturan, sendiaren gogoan gordetako datu historikoetan eta etxea definitzen duten elementuetan jarri zuen arreta, betiere ustekabean sortzen diren ekarpen berriak jasotzeko prest, hauek ikuspegi historikoa aberasten dute eta.

Kanpo-lan honetaz gain, baserri hauei buruzko agiriak aztertu ziren, Juan Carlos Morak eta David Zapirainek zuzendutako dokumentalista taldeak hainbat artxibategitan aurkitu dituena. Horretarako, Anoetari buruzko agiriak arakatu ziren ondorengo artxibategietan: Anoetako Udal Artxibategia, Gipuzkoako Artxibategi Orokorra, Gipuzkoako Artxibategi Historikoa – Hipoteken Kontularitza Atala, Valladolideko Errege Kantzilertzako Artxibategia, Artxibategi Historiko Nazionala, Zaragozako Artxibategi Historiko Probintziala – Ducal de Híjar Etxearen Funtsa. Halaber, Ana Isabel Rodriguez eta Maria Jose Hernandez historialariek Donostiako eta Iruñeko Elizbarrutietako Artxibategietan agertutako datu garrantzitsuenak bildu dituzte.

Hasierako talde honi Mikel Errazkin anoiarra batu zitzaien eta harrezkero, gure gidaria izan da pertsonen eta lekuengoei geografia honetan. Era berean, haren parte-hartzeari esker, ondare ez-materialen edukiak jaso dira. 4. atalean jasotako informazioa haren datu-bilketa arretatsuaren eta udalerriaren kultur-errealtitatearen ezagutza sakonaren fruitua da.

Toponimoen, baserrien izenen eta abizenen tratamendu linguistikorako, Euskaltzaindiaren laguntza izan dugu. Behin baino gehiagotan, lan-taldeko ikertzaileek zalantzak izan dituzte baserri baten, abizen baten edo toponimo baten izena idazteko orduan, zer esanik ez, agiriek forma idatzi desberdinak agertzen dituztenean denboran zehar. Halako zalantzen aurrean, eremu honetan gure herrian errefente den erakundera jo dugu, Onomastika Saileko arduradunetako bat den Mikel Gorrotxategirengana, hain zuzen ere.

Euskarri kartografiko eta planimetrikoak Gipuzkoak Foru Aldundiko Lurralde Informazioko Zerbitzuaren lagunza eta aholkuari esker lortu dira. Guk egindako argazkiei Karlis argazkilari profesionalak eta Patxi Sanz Anoetako bizilagunak egindakoak gehitu behar zaizkio.

EDUKIEN ANTOLAKETA

Liburuaren hasieran udalerriaren jatorri historikoari eta baserriaren sorrerari buruzko sarrera laburra dugu. Atal hauei esker, irakurleak dagokion testuinguruan kokatuko du jarraian deskribatzen den kultur-ondarea, lan honen zinezko xedea.

4. atalean, herriko folklorea, sinesmenak, festak, kirolak eta tradizioak aurkezten zaizkigu labur-labur. Balio handikoa da, izan ere, datuak argitaragabeak dira eta era horretan bermatuta geratzen da haien memoria historikoa. Nabarmenzekoak dira bertako argazkiak, haien bidez protagonistak zuzenean ikus ditzakegu eta hobeto baloratu urtero anoetarren gizaldi berriek osatzen duten ondarea. Liburuaren atal nagusia "Añoetako baserriak" izeneko 5. atala osatzen du. Alfabetikoki antolatuta, erabilerraza da oso, baserri bakoitza haren izenaren bidez bilatzen baita. Añoetar guztien gogoan, bertako Iurraldea antolatuta zegoen jada, etxeak eta hauen jabetzak erreferentziatzat hartuz. Honenbestez, ez dugu ezer asmatu, egin dugun gauza bakarra tradizioari men egitea izan da. Baserri guztien datuak biltzen dira: izena, kokapena eta deskribapen idatzia, oinarrizko erreferentzia kartografiko batez lagundurik.

Ondoren, historiari buruzko zenbait zertzelada eta eraikinaren ezaugarri arkitektonikoak aipatzen dira. Gure helburua ez da inolaz ere izan baserri bakoitzaren edo bertako familien historia berreraikitzea: lan ikaragarria litzateke hori eta ez letorke bat tamaina honetako lan baten helburu xumearekin. Hala eta guztiz ere, agiri historikoei buruzko hainbat erreferentzia agertzen dira bertan, balio handikoak, inondik ere, baserri bakoitzaren historian sakondu nahi duenarentzat.

Baserrien edukietan, hedadurari dagokionez egon litekeen aldeak bildutako informazioan eta gaur egungo eraikinaren garrañtzi arkitektonikoan bilatu behar dira. Baserri hauetako batzuk desagertu dira haien ezaugarri arkitektonikoen aztarnarik ere utzi gabe: hala nola Mikelasagasti, Arrese, Igerabide, Urritzeta; beste batzuk duela hamarkada batzuk berreraiki dira: esate baterako, Mendigibel, Arrutarte, Luebana,...; beste batzuk, ordea, arkitektura tradizionalaren adibide garbiak dira: besteari beste, Arozetxea, Sarobe, Etxeberria. Azken hauetan, jakina, zabalagoa da ezaugarri arkitektonikoei buruzko atal idatzi zein grafikoa. Historiari dagokionez, agiririk zaharrenak bilatzen ahalegindu gara, batez ere XVI. mendetik XIX. mendearen hasierara arte; dena den, baserri hauetako batzuk XIX.aren bigarren erdian eraiki dira eta hauetan urriagoak dira agiriak.

Atal grafikoen hedadura ere familia bakoitzak eskainitako materialaren baitan dago. Hala, sendi batzuek argazki bilduma ederra gordetzen zuten, eta beste batzuek, aldiz, hainbat arrazoi tarteko, ez zuten argazki bat bera ere.

Liburuaren amaieran, eranskin bat dago. Bertan, zenbait agiri interesgarriren transkripzio literalak ditugu, irakurleak jatorrizko informazio-iturriak konsultatzeko aukera izan dezan.

Liburu honen bereizgarrietako bat argazkiei emandako garrantzia da. Izan ere, laurehun irudi baino gehiago ditu. Haien bidez, modu zuzenago batez ezagutuko ditugu baserriak, haien biztanleen bizitzak, ohiturak, janzkera, lan-tresnak, etab. Era berean, hurbilago eta gizatiarrago zaizkigu honela. Aipatzeko da, halaber, gehien-gehienak argitaragabeak direla. Gainera, nabarmenzekoak da kanpo-lana egiten zen bitartean, Añoetako planorik zaharrena aurkitu zela, trenbidea egin aurretiak marraztutakoa eta Ateagako koadroa, Gipuzkoako baserri bat gai nagusitzat duen zaharrenetakoa.

Liburuan azaltzen diren argazkiak ikerketa egiten genuen bitartean bildutako guztien laurdena baino ez dira. Denak digitalizatu dira eta oinarrizko erreferentzia izango dira Añoetako memoria historikoa ikertu nahi duen edonorentzat.

ESKER ONA

Lehenik eta behin, baserritarrei eta oro har Anoetako biztanle guztiei eskerrak eman behar dizkiegu liburu honetan parte hartzeagatik, ikertzaileei egindako harreragatik eta erakutsitako interesagatik. Haien laguntza ezinbestekoa izan baita esku artean duzun liburu honek argia ikus dezan.

Nabarmentzekoa da, era berean, Anoetako Udalak hasiera-hasieratik eman zuen sostengua: hala Jose Mari Sarasola buru zuen udalbatzak nola Fidel Azpirozenak. Guztiei eskertu behar diegu beren laguntza eta gurekin izan duten pazientzia, lanaren edukia eta hura egi-teko epea hasieran uste baino gehiago zabaldu da eta.


Eskertzeko da orobat Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Sailaren lankidetza, eta baita Kutxako Gizarte Ekintzarena eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailarena ere, "Tolosaldea Historia eta Kultur Ondarea" egitasmoan parte hartu dutelako. Gure uez, herri-mailako ekimen hauek bultzatzeak, herri txikienen memoria historikoa eta ondarea berreskuratzeko ezinbestekoak direnez, helburu estrategikoa izan behar du, beste zenbait jarduerak duten oihartzuna ez izan arren.

Azkenik, ez ditugu inolaz ere ahaztu nahi Aranzadiko baziak eta langileak ezta ikerketa osoan zehar eskuzabaltasunez eta anonimoki datuak eta aholkuak eman dizkiguten ikertzaile eta bestelako lagunak ere. Mila esker denori.

2. Anoetako sorrera historikoak



Anoetako planoa (XVI. mendea). Archivo Histórico Provincial de Zaragoza. Casa Ducal de Hijar. Fondo Idíazquez. Egilea: Jerónimo de Soto.



Anoeta XVI mende bukaeran. Lan-taldeak aurkitu duen plano zaharra eta lehenengo aldia da liburu batean argitaratzeko dela. Jerónimo de Soto. Archivo Provincial de Zaragoza. Casa Ducal de Hijar. Fondo Idiáquez.

1. Oria ibaia. 2. Alkizako erreka. 3. San Joan eliza. 4. Erretore etxea. 5. Goikoetxea. 6. Borondegi. 7. Aginagarena (desagertuta). 8. Arozetxea. 9. Ieratxulo errota. 10. Buztinaga. 11. Idiakaitz.

Duela 5000 urte, Oriako ibarrean eta Europa osoan, landareak eta animaliak etxekotzea zabaltzen hasi zen. Berrikuntza hauek behin betiko amaiera ekarri zuten ordura arte zerabilten natura-baliabideen ekonomia ehiztari eta harrapariarentzat. Nekazaritza eta abeltzaintzarekin batera, gizarte antolatzeko eta lurraldea ustiatzeko modu berriak sortu ziren¹. Aldaketa hauen leku dira gure eskualdeko mendietan zehar sakabanatuta dauden monumentu megalitikoak. Anoetatik hurbilenak Uzturre menditik Urdelarreraino doan mendi-katean dauden sei trikuharriak dira: Belauriate, Loa, Moa, Beibatari, Basaburu Gorosmendi. Ernioko mendigunean, Munain, Otagain eta Zaingo Ordeka trikuharriak ditugu. Trikuharriak edo lurperatzeko lekuak aurkitu diren arren, Tolosaldean ez da oraindik topatu garai hartako herrixkarik.

Agirietan azaltzen diren lehenengo herrixkak hurrengo faseari dagozkio, hau da, Burdin Aroari. Kristo aurreko lehenbiziko milurtekoak dira, Basagain mendiko gailurrean topatu diren herrixkaren aztarnak bezala. Aztarnategi arkeologiko hau Aranzadiko arkeologo talde bat industen ari da, Xabier Peñalverren zuzendaritzapean. Bertan, herrixka babesten zuen harresiaren aztarnak aurkitu dira eta orobat etxebibitztzarenak: esaterako, zutabeetako falkak eta pezoak. Halaber, zaramika-ontzien pusketak berreskuratu dira, gehienak eskuz egindakoak, tornuz egindako gutxi batzuk badiren arren. Nabaria da burdina era-biltzen zela, material honetako pusketak eta zepak aurkitu dira eta². Datazio radiokarbonikoen arabera, herrixka hau duela 2000-2500 urtekoa da.

Basagainekoaz gain, gisa bereko beste hiru herrixka aurkitu dira Oriako ibarrean: Andoaingo Buruntza, Albiztur-Tolosako Iruntxur eta Beasaingo Murumendi³.

Oraindik ez dago jakiterik zerikusirik ba ote duten Burdin Aroko Basagain herrixkaren sorrerak eta Anoeta herriarenak, Erdi Aroan. Bien artean mila urte baino gehiago daude eta garai horretan oso urriak dira datu arkeologikoak eta agiriak, Anoetan ez ezik, baita Atlantikoko isurialdeko barne-ibar gehienetan ere.

Zalantzak gabe, datu arkeologiko berriak sortuko dira eta horiek ezagupen berriak ekarriko dizkigute mila urteko aldi luze honi buruz. Dena den, gaurko gizarte, gaitasun tekniko handiaz horniturik, oso

erritmo bizian ari da aldatzen lurraldearen erliebea eta testigantza arkeologiko horiek galtzeko eta hondar-guneen aztarnak garai harko adierazgarritzat jotzeko arriskua dago. Nekazaritzarako lur egoienak dira gehien aldatzen ari direnak eta mendetan zehar gehien erabili direnak: Anoeta horien adibide garbia da.

ANOETA HISTORIAN SARTU ZEN

XIII. mendean garrantzi handiko aldaketa gertatu zen, Gipuzkoa Gaztelako erresumaren dinamika politiko eta ekonomikoetan parte hartzen hasi eta Nafarroako erresumatik behin betiko banandu zean. Aldi berean, ibarraren hondotik, Oria ibaaren bideari paralelo, merkataritza-bide garrantzitsua sortu zen, barneko lurraldeak eta Kantauri Itsasoko portuak lotzen zituena. Aldaketa hauen ondorioz, merkataritzatik etorritako diru-sarrerak areagotu eta antolatzeko moduak eraberritu ziren. Hala, herrixka berriak sortu ziren Oria ibarraren hondoan. 1256an, Tolosa, Ordizia eta Segura sortu ziren, inguruau zitzuten herrixketako bizilagunen etorrerari eta Gaztelako Alfonso X.a erregeak emandako hiribildu-foruari esker.

Anoetako biztanleek ere parte hartu zuten herri berriak sortzeko prozesu honetan; horren leku, Tolosako bizilagunen errolda bat dugu, 1349ko, non zehazten den bertako biztanle gehienak inguruko herrietakoak direla, besteak beste: *"Pero Lopez d'Ahaneta e Yenego Lopez su hermano, hijos de don Lope d'Ahaneta... Martinez Yuannez e Pero Yuannez e Johan Yuannez, hijos de Johan Martinez de d'Ahanoeta"*⁴. Tolosa hiribilduko biztanleen zerrenda luze honetako izen gehienetan haien jatorrizko nekazari-komunitatea aipatzen da: hala nola, Anoeta, Elduain, Berrobi, Ikaiztegieta, etab. Erreferentzia hauetan gaur egun ezagutzen ditugun herri gehienak agertzen dira eta haien esker badakigu Tolosako biztanle berriak herri haietatik etorri zirela.

Aurreko agiriak, esan bezala, herri txiki horiek bazirela erakusten digu, baina are interesgarriagoa da 1450eko abuztuaren 19ko beste hau, Tolosa hiribilduaren eskumenean zeuden hamalau komunitateren auziari buruzkoa, bertan aipatzen baita: *"...el concejo e collacion vecindad e universidad e feligresia de Sant Juan de Ahanoeta e las personas singulares vecinos e moradores della que*

¹ Zapata Peña, Lydia. *El paisaje vegetal prehistórico en el País Vasco*. 1996. Arabako Foru Aldundia.

² Peñalver, Xabier. *Arkeokuska 00*, 77-78 or.; 02, 104-105 or.; 2003, 106-107 or.

³ Peñalver, Xabier. *San Jose, Sonia. Gipuzkoako herri harresitua*. Bertan. 2003. Gipuzkoako Foru Aldundia.

⁴ Roldan Gual, José María. *Fuentes documentales del País Vasco*. N° 36. 1991. Eusko Ikaskuntza.

son estos: Anton de Goicoechea, jurado de dicha collaçon e Lope de H[o]g[o]ategui e Juan Curi de Goicoechea e Juan Miguell Sagasti e Martin Arguina e Miguel Argina e Joan de Urreçeta e Martin de Verrobi e Juan Ynegues de Aransa e Marina de Yturgaycaga e Machin del Camino e Juan Lopes de Ançarsagasti, vecinos e moradores e personas singulares de la dicha collaçon de Sant Joan de Anueta...”⁵.

XIV. eta XV. mendeko testigantza dokumental hauei esker, esan dezakegu Erdi Aroan jada Anoeta berezko nortasuna duen nekazari-komunitatea dela, San Joan elizaren inguruan antolatuta. Eskualde osora zabaltzeko moduko eredua da hau, gainera. Ez dakigu zehatz-mehatz nola antolatzen ziren Erdi Aroan Anoetako nekazariak, gizarte-antolakuntzako Europako eredu handiak ezagutzen baditugu ere. Nolanahi ere, bertako historiarako erantzunak bilatzeko orduan, betiko arazo dugu: datu idatzirik eta erreferentzia arkeologikorik eza. Baserria izan da antolakuntza sozial eta ekonomikoaren oinarrizko elementua: baserri guztiak osatzen zuten nekazari-komunitatea eta haietako bakoitzak ordezkari bat zuen kontzejuan. Denen artean, San Joan parrokiako erretorea aukeratzen zuten⁶, edota Anoetako epaile-alkatea; era berean, auzolanean egin beharreko lanak erabakitzentzituzten: esaterako, bideak edo zubiak konpontzea, edo leratxuloren -komunitatearen irin-errota- kudeaketa⁷. XVI. mendearen hasieran, familia gehienak beren baserrien jabe ziren, baina pixkanaka, hauetako asko saldu edo alokatuko dira. Ohikoa da Aro Moderno osoan baserriaren jabea bertako ordezkaria izatea, eta ez bertan lan egiten duen maizterra.

Bestalde, baserria nekazaritza eta abeltzaintzako ustiapen-unitatea da; bertan, nekazari eta abeltzain jarduerak antolatzen dira eta hari esker bizirauten da herria, bertan ekoizten baitira elikagaiak. Familia-egitura baserriaren oinarria da; hain dago berarekin identifikatuta, non familiak baserriaren izena hartzan duen erreferentzia onomastikotzat. Hala, XV. mendearen bigarren erdian eta XVI.ean zehar, Anoetako familia ia guztiak bizi diren baserriaren izena dute deituratzat. Alabaina, eredu sozio-ekonomiko honek arrakasta izango badu, jabetzak zatiezina izan behar du nahitaez. Horretarako, maiorazko ezarri zen nekazari-ustiategiaren edo baserriaren jarraipena bermatzeko formula juridiko gisa.

Maiorazkoaren bidez, seme zaharrenak oinordetzan hartzen zituen baseria eta haren lurrik; era honetan, lurrik ez ziren zati-tzen eta nekazaritza eta abeltzaintzako ustiategiak jarraipena zuen.

LEHENDABIZIKO BASERRIAK

Gorago adierazi dugun bezala, badakigu Erdi Aroan bazirela baserri batzuk Anoetan: Argindegia, Goikoetxea, Iturgaitzaga, Mikelasagasti eta Urritzeta. Baserri gehiago aipatzen ez badira, zerrenda hori Anoetako San Joan nekazari-komunitateak 1450ean Tolosara ordezkarri gisa bidalitakoek soilik osatzen zutelako da. XVI. mendean zehar, era askotako agirietan aipatzen dira etxe edo nekazari-ustiategi gehienak: Aginagazpikoa, Agirre, Alliri, Apaetxe, Arozetxea, Arrutarte, Ateaga, Barrundia, Borondegi, Buztinaga, Erausia, Etxeberria, Idiakaitz, Ipentza, Iriarte, Katategi, Luebana, Mendigibel, Sarobe, Tapia eta Urritzeta. Guztira, 21 nekazari-ustiategi edo baserri.

Erdi Aroaren bukaeran, nekazaritzako lurrik, basoak eta larreak okupatuta zeuden eta esan daiteke XV. mendetik udalerriaren natur-balibide nagusiak XVI. mendean agertzen den era berean banatuta zeudela jada. 26 baserriko talde bat da XV. mendetik XX.aren erdiraino Anoetako komunitatearen eta antolakuntzaren muina osatu duena. Baserri hauek lehen aipatutakoak dira; hala ere, denboran zehar, jabetza pribatu eta komunalen mugak errealitate aldakor eta dinamikoa izan da. Oso interesgarria litzateke azken prozesu hau xehetasunez aztertzea eta, bestalde, egingarria, XVI. mendetik XX.aren erdiraino agiri asko ditugu eta. Modu honetan, Anoetako historia ekonomiko eta sozialaren gako nagusiak izango genituzke.

Aipagarria da Anoetari buruzko agirietan ez dela azaltzen herriko baliabideen kontrola eskuratu nahiko zuen nobleziaren botererek. Baserrien komunitatea izan da uneoro taldearen erabakiak hartu eta bilakaera zuzendu duena.

Honenbestez, hauexek dira XV. mendetik XVI. erainoko lehen fase honetako protagonistak: Aginagazpikoa, Agirre, Alliri, Argindegia, Apaetxe, Arozetxea, Arrutarte, Ateaga, Barrundia, Borondegi, Buztinaga, Erausia, Etxeberria, Idiakaitz, Goikoetxea, Ipentza, Iriarte, Iturgaitzaga, Katategi, Luebana, Mendigibel, Mikelasagasti Sarobe, Tapia eta Urritzeta.

⁵ Archivo Municipal de Tolosa. Fuentes documentales medievales del País Vasco. N° 65. 1996. Eusko Ikaskuntza.

⁶ 1541.12.28 Gipuzkoako Artxibo Orokorra, PT 2 (85a-89g). Eskribaua: Francisco Luzuriaga. Aranzadi Z. Eren Tolosaldeko Kultur Ondarea eta Historia egitasmoa.

⁷ Agirre-Mauleon, Juantxo, Ieratxulo Errota. Memoria de la Intervención arqueológica. Txostena. Aranzadi Zientzil Elkartea-Anoetako Udala. Anoeta, 2003.



1. Arozetxea 2. Borondegia 3. Igerabide 4. Goikoetxea 5. Udaletxea 6. Erretoretxea 7. Apaetxe 8. San Joan eliza 9. Iriarte 10. Urrutinea 11. Arrese

Argazkia: Indalecio Ojanguren. AGG-GAO 01A 4080



1. Urritzeta 2. Txulo 3. Mikelasagasti 4. Argindegia 5. San Joan eliza 6. Udaletxea 7. Borondegia

Argazkia: Anoetako Udalaren argazki bilduma

ANOETAKO BASERRIAREN BIGARREN ZABALKUNTZA

XVII. mendearen bukaeratik XVIII.aren hasieraraino bigarren fase bat ekin zitzaison nekazari-ustiategien sorkuntzan. Izan ere, Ateagaetxeberria, Bideondo, Eguzkitza, Igerabide eta Zumalikardi baserriak eraiki ziren garai horretan. Baserri berri hauen lurrik ez ziren besteenak bezain egokiak nekazaritzarako eta soroen eremua txikiagoa zen. Ateagaetxeberria eta Bideondoren kasuan, argi dago beste zaharrago batzuen babesean sortu zirela: Ateaga eta Aginaga, hurrenez hurren. Igerabide Anoetako erdigunearen inguruan sortu zen eta, oro har, esan daiteke bigarren fase honetako baserri hauek ez dutela inoiz izan XVI. mendetik eraikita zeudenek duten garrantzia eta bolumena.

AZKEN BASERRIAK

Baserriak eraikitzearen hirugarren eta azken fasea XIX. mendearen hasierari dagokio, Txulo, San Joan, Asuribar eta Urrutinea eraiki zirenean. Altxatu zen azkenekoa Iturrealde izan zen. XIX.aren erdialdetik aurrera ezin izan zen nekazari-ustiategi gehiago eraiki, ez baitzegoen lursail nahikorik nekazaritzaren eta abeltzaintzaren bidez familia-unitate baten iraupena bermatzeko. Txulo XV. eta XVI. mendeetan eraikitako baserri batzuen jabetzak zatitzearen ondorioz sortu zen; San Joan herri-jabetzen salmentaren ondoriozkoa da eta Asuribar eta Iturrealde, berriz, udalerri osoko nekazaritzarako lursail ez-egokienetan eraiki ziren.

NEKAZARIEN OHIKO USTIATEGIEN AMAIERA

1960. urtetik, Euskal Herriko ekonomiak prozesu atzeraezina bizi du eta honen ondorio bereizgarriena nekazaritzako eta abeltzaintzako ustiategi tradizionalak bazterrean geratzea da: hau da, "euskal baserriaren krisia" deritzona. Anoetan are sakonagoa izan da prozesu hau, hirigune handietatik hurbil eta herrialde osoko errepide garrantzitsuenetako baten ertzean dagoelako. Aldaketa guzti hauetatik bi dira gure herrian gehien nabarmendu direnak: paisaiaren aldaketa eta iraultza demografikoa. Nekazaritzarako egokienak ziren lurretan etxebizitza-eraikinak

eta industria-pabiloiak egin dituzte, eta hortaz, biztanleen kopuruak hazkunde demografiko paregabea izan du: hala, gaur egun 1787 biztanle ditu Anoetak. Hain aldaketa handi eta azkarren ondorioz, kultur eta gizarte moduak ere aldatu dira eta gure baserritar zaharrak izan dira, inondik ere, bat-bateko aldaketa hauetara okerren egokitu direnak eta gehien sufritu dutenak.

XXI. mendearen hasieran, Anoetako nekazaritzako eta abeltzaintzako ustiategi gehienek eten dute haien jatorrizko jarduera; baseria familiaren bizileku huts bilakatu da eta diru-sarrerak zerbitzuen edo industriaren sektorean –herritik kanpo, gehienbat-egindako jardueraren ondorio dira. Hala ere, eskuarki nekazaritzako ustiategi zaharreko lursaletan egindako lanak eranskin bat izaten dira familiaren ekonomiarentzat.

Ergoienen eta Elbarrenan dauden nekazaritza-lursail gehienak industriarako eta biztegirako guneak izango dira nahitaez, ondorenko faktoreek erakusten digutenez: ekonomiaren globalizazioa, baserriaren etorkizunerako aukera urriak, nekazaritzan eta abeltzaintzan lanean ari diren pertsonen eta gainerako sektore ekonomikoetako arteko bizi-kalitatean dagoen aldea, higiezinen sektorearen presioa, lursailen eskasia, Anoetaren kokapena Oriako korridore estrategikoan,...

2005ean, nabarmenzen dira nekazaritzako eta abeltzaintzako ustiategi gisa Sarobe baserriko bi familiak, eta orobat Argindegia, Bideondo, Alliri, Etxeberria eta Mendigibel baserrietakoak. Guztieta, gutxienez erretiratuta ez dagoen pertsona bat baserriko jarduerari esker soilik bizi da. Baratzea eta, hein txikiago batean, esnearen ekoizpena dira haien jarduerak. Bi baserrik espezializazioaren bidea hautatu dute: Zumalikardi, sagarrak eta sagardoa ekoizten dituena, eta Luebana, basoetarako zuhaitzen eta fruta-arbolen mintegia dena.

Baserria Anoetaren arima izan da bostehun urte baino gehiagotan, baina XX. mendearen bigarren erdian, nekazaritzako ekonomiari industria eta hirugarren sektorea gailendu zaizkio. Inondik ere, errealitate historiko baten amaieraren aurrean eta oso bestelakoa den aro berri baten ateetan gaude.




Trenbidea eraikitzeko proiektuaren planoa, 1858.urtekoa, bertan Anoetako hairbat baserri eta garaiko bideak ikusten dira. Argindegia baserri ondoan San Andres ermita jarri ordez akats bat izan zuten eta "Hermita San Juan" jarri zuten planoan. Pello Joxe Aranburu eta Luis Mari Intza ikerlarien aurkitutako planoa.



Aragazka: Zarautz. Olotzaga argazki bilduma.

Trena Agirre baserriaren zelaietan barrena. Atzean, Irurako paperolaren tximinia.



Iruarzo Udalaren argazki bilduma

Anoetako Ergoien auzoa, 60. hamarkadan. Anoetako pasaiaren aldaketaren trantsizioa irudikatzen da; nekazal lurretan enpresak eraikitzen ari dira. Gerora, N-I errepidearen zabalpena burutu zen.

3. Baserrien arkitektura





XVI. mendeko tolare baserri baten irudia. Sarobe baserrian dagoen tolarearen funtzionamendua antzekoa da. Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Sailak utzitako marrazkia. Gidoia: Alberto Santana. Marrazkia: Ramón Urain.

1. Ardatza/Husillo o eje, 2. Ganbara/Camarote, 3. Tolare-haga/Viga del lagar, 4. Gain-hagak/viga cumbre, 5. Tolare-habeak/Bernias, 6. Lastategia/Pajar, 7. Sagar-patsa/Pulpa de manzana, 8. Maser/Masera, 9. Tina/Tina, 10. Ikuilua/Cuadra, 11. Pisu harria/Pesa, 12. Sukaldea/Cocina, 13. Gelak/Habitaciones, 14. Upategia/Bodega, 15. Suaren aurkako orma/Muro medianero cortafuegos.

BASERRIEN ARKITEKTURA

Aurreko atalean, baseria aztertu dugu nekazaritza eta abeltzaintzako ustiapenerako eta gizarte-antolaketarako unitate gisa; atal honetan, berriz, eraikinari berari erreparatuko diogu: nekazaritza eta abeltzaintzako jarduerarako eta familiaren bizimodurako beharrezkoak diren toki guztiak hartzen dituen espazio fisiko gisa.

Baserriaren arkitekturari buruzko ezagupenak izugarri aurreratu dira azken urteotan Alberto Santana ikertzailearen lanari esker. Haren lana ezinbesteko erreferentzia da gai honetan eta Anoetari buruzko azterlan honek ere, noski, iturri horietatik edaten du. Hauxe dio Alberto Santanak: “*Baserria eraikin-motatzat jotzen dugu, bestela esan, azaldu berri dugun berariazko identitatea duen eraikuntza arkitektura-eredutzat, eskualdeko nekazaritzako etxea, XV. mendearen amaieran sortu zena, adieraziko dugu. Horiek aurrez zeuden Erdi Aroko etxolen aurrerapauso izan ziren, herrialdeko baldintza sozial, ekonomiko eta teknologiko berrien erantzun. Gaur egun arte iraun duten lehenengo baserrien antzinatasuna bostehun urtekoa da gehienez ere eta ez dugu ezagutzen gaur egungo etxeetan identifika daitekeen aurreko landa eraikinetako inolako eraikuntza-ezaugarririk*”⁵

Anoetan ere, izan zen Erdi Aroan zurezko etxola edo txabolarik, baina denak desagertu ziren inolako eraikin-aztarnarik utzi gabe. Segur aski, XV. mendearren bukaeran eta XVI.aren hasieran izango zen oraindik haietako etxolaren bat, baina azkenean eraikin berrieik aurreko guztiak ordezkatu zitzuten. Baliteke, behin baino gehiagotan, gaur egungo baserriak txabola zaharren toki berean eraikitzea eta hauen izena ere hartzea.

3.1. ERRENAZIMENTUKO BASERRIAK.

Anoetako lehenengo baserrien eraikuntza XV. mendearren bukaeran eta XVI. mendearren lehenengo erdian hasi zen. Garai hartan, tradizio gotikoaren eta errenazimentuaren elementuak tartekatzen ziren. Zura dugu lehen baserri hauen arkitekturaren protagonista nagusia, haritzen baso ugariek zurezko egitura eskergak egiteko beharrezko zen zura ematen zuten eta. Izan ere, garai hartako baserriean ohikoak ziren osoko zutabeak, lurretik abiatu eta teilituraino iristen zirenak. Halaber, ohikoak ziren kanpoko itxiturak, zurezko egitura eta mihiadurak zitzutenak.

Barruan, sagardoa egiteko dolareak baldintzatzen zuen espazio guztia, Alberto Santanak adierazi bezala: “*nekazaritzako etxearen*



Danimarkako Erdi Aroko kutsua duten nekazarien etxeak. Garai hartan Anoetako nekazarien etxeak antzekoak ote ziren? The National Museum of Denmark.

⁵ Santana, Alberto. [et al.]: *Euskal Herriko Baserriaren Arkitektura I. Historia eta tipologia*. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Gasteiz, 2002.

proiekta egiterakoan makinak zuen lehentasuna oso gertaera berezia da Europako landa-arkitekturan”⁶;

Beheko solairuan aziendak gordetzen ziren hala behar zenean eta goiko solairuetan uztak, garia eta artatxikia batez ere. Nekazarien bizitokiak ez zuen leku handirik hartzen.


Badira Anoetan errenazimentuko baserri-dolare mota honen bi adibide bikain: Sarobe eta Arozetxea baserriak. Biek dituzte barnean sagardoa egiteko dolare handietako zurezko zutabe eta habeen egiturako zatiak. Atal honen hasierako irudian errenazimentuko lehendabiziko eredu hauen funtzionamendua eta ezaugarri nagu-

siak ikusten dira. Gaur egun, Sarobe baserriari sagarra txikitu aurretik jartzen zen azpila eta prentsaren lana egiten zuen zutabe handia soilik falta zaizkio. Arozetxeako eredua pixka bat beranduago-koa da, baina honetan ere, dolarea etxearen erdian dago; nabarmenzekoak dira karreraren tamaina eta orobat dolarearen presioa hartzen zuten zutabeena. Jatorrian, bi eraikinek zurezko hesi bana zuten, baina denborarekin harresiek ordezkatu dituzte lehenengo haiek, fatxadetan dauden aztarnek erakusten duten bezala. Biek ala biek 300 m² zituzten gutxi gora-behera, bederatzi metroko altuera eta lau horma-arte barnean.



Ardoa egiteko dolarea Erdi Aroko margolan batean. Buonconsiglio gaztelua (Trento).

⁶ Ibid.


OINARRIZKO BASERRIA ETA ARKITEKTURAREN ELEMENTU GARRANTZITUENAK.

1. Gailur / Viga cumbre. 2. Kontragoiabeha, Goi-haga / Correa. 3. Gapiroio / Cabrio. 4. Astazaldi / Caballete. 5. Pilarea / Poste enterizo. 6. Zutabea / Pilar. 7. Oholtza / Tarima. 8. Solibak / Solibos. 9. Frontala / Carrera. 10. Txarrantxak, besoak / Tornapuntas. 11. Txinela / Zapata. 12. Zutikoa / Pie derecho. 13. Poiala, Pilareharria / Poyo. 14. Zolata / Solera. 15. Zimendua / Cimientos. 16. Ohol itxitura matxinbratuta duen hormapikoa / Hastial con cerramiento de tablas machihembradas. 17. Teillatu-hegal / Alero. 18. Jabaloi / Jabalcón. 19. Eskantzuak / Esquiniales. 20. Langeta / Travesaño. 21. Zutoin / Trámón. 22. Zeharraga / Puente. 23. Harlanduak / Sillares. 24. Gezilehio, Saietera / Aspilleria. 25. Txarantxa, Besoa / Tornapunta. 26. Ateburu / Dintel. 27. Atezango / Jamba. 28. Idi-begi / Ojo de buey. 29. Usategiak / Palomares. 30. Armarría / Escudo de armas. 31. Balkoia / Balcón.

Iturgaitzaga baseria ere baserri gotiko-erenazentista hauen belaunaldikoa den arren, ez da aurkitu sagardo-dolarearen zurezko egitura izan zela baiezatzen duen ezer; aldiz, aipatzeko da bertako upeltegia, baseria finkatuta dagoen mendi-mazelaren malda aprobetxatzen duena. Upeltegia kanpotik antzematen da, fatxadan hai-zebiderako bao zuzen bat dagoelako. Baserri honen arkitekturako nabarmenena harri zizelkatuko leihoburuak dira, arku konopialen forma dutenak.

Behin baino gehiagotan zaharerritu diren arren, hiru baserriotan errenazimentuko ezaugarri nagusiak gorde dira. Beste zenbait baserritan ere, badira adierazgarri bakan eta hondarrekoak, hala nola Luebana baserriko enara-buztan erako mihiztadura duten zutabeak edo Etxeberriako hormak eta arku dobelatu baten zatia.

3.2. BASERRI BARROKOAK.

XVII. eta XVIII. mendeetan, baserriak berritu egin ziren aurrerapen teknologikoetara eta bizilagunen behar berrietara egokitzeko. Nekazaritza eta abeltzaintzako ustiategietan sagardoaren ekoizpena moteldu zen, labore berri eta iraultzaile bat agertzen zen bitartean: artoa. Sagardo-dolarea ez zegoen jada barne-espazioaren erdian, etxearen alboetan baizik. Horrez gain, dolareak askoz txikiagoak izango ziren hemendik aurrera eta prentsatzearen teknologia berriztatu egin zen.

XVII. mendearen hasieran, elementu berriak agertu ziren Anoetako baserrien arkitekturan, hala materialetan nola eraikinen diseinuetan. 1604an eraikitzten amaitu zen Barrundia baserrian, adreilua erabili zen lehenengo aldiz, hain zuzen, aurrealde nagusiko armazoiko paramentu guztiak ixteko. Material berri hau, gainera, zurezko armazoiko baserrien tradizioregokitu zen.

1628an, Apaetxe baseriaren ikusten dugu aurrealde nagusia etxearen izen ona irudikatzeko erabil daitekeela, bertan jartzen baita familiaren armaria. Bertan, beheko solairuan, ezkaratz era-bilgarriaren sarrerak arku beheratua du, etxe osoaren irudi arran-ditsua areagotuz. XX. mendean eginiko zaharerritze sakonen ondorioz, Apaetxen ez da ageri baserri barrokoaren beste adierazgarririk; izan ere, baliteke XIX. eta XX. mendeetan berritu eta kanpoko hormak harriz egin izana. Tipologiari dagokionez, ezkarazdun baseria dugu hau.

Ateaga da arkitektura eraberritu duen beste baserri nagusietako bat eta haren aurrealde nagusia Anoetako guztiak artean monumentalena da. Eraikinak zurezko armazioen tradizioari eusten dio, beheko solairuan, leiohen eta arkuaren inguruan harlandua nabamentzen den arren. Ardatz bertikalean honakoak nabamentzen dira hurrenez hurren: goiburuko zurezko urkila alderantzikatua, familiaren armaria eta ezkaratzaren aurreko erdi-puntuko arkua.

Etxeberria eta Tapia XVII. mendearen bigarren erdian edo/eta XVIII. mendearen hasieran zaharerritu ziren baserri handietako bi ditugu. Aurreko baserriek hormei eta egituretako zenbait zatiri eutsi bazieten ere, teilitu berria eta zurezko armazioaz egindako pinoi berriak dira gaur egungo eraikinetako elementu nagusiak. Bi baserriotan ikusgarriak dira teilitupeak eta hauek eusten dituzten zutabeak eta besoak. Teilitupe edo "ganbara" hauetan uztak eta belar-bazka gordetzen ziren eta zurezko armazioan zeuden hutsuneen bidez aireztatzen zituzten. Garai hartan, baserri gehien-gehienetan arrapalak egin zituzten gurdiak kanpoko aldetik teilitupeko solairuraino igo ahal izateko.

Baserri nagusi horietaz gain, XVII. mendearen bukaeran eta XVIII.aren hasieran oin berriko hainbat etxe eraiki ziren: Aginagaetxeberria, Ateagaetxeberria, Bideondo, Igerabide eta Urrutinea. Lehenengo hiruak bi baserri nagusik eraiki zituzten: Aginagak eta Ateagak. Aipatzekoak dira zurezko armazioak eta aurrealdearen goiburuan dituzten urkila alderantzikatuak, eskualdeko baserrien arkitekturako elementu adierazgarrienetakoa dena.

Garai hartako beste eredu bat harrizko baseria da, baina Anoetan ez da honen testigantza askorik: Borondegi dugu adibide bakarra.

Laburbilduz, esan dezagun XVII. eta XVIII. mendeetan zura izan zela oraindik Anoetako baserrien protagonista nagusia; zurezko armazioak, gehienbat, alboetako fatxadetan eta aurrealdean ikus-ten dira. Harri-hormak lehen solairuetako aurrealdeetan eta iparraldeko fatxadetan izan ohi dira. Izan ere, azken hauak eguraldi txarraren eraginean daude gainerako fatxadak baino gehiago eta horregatik eraiki ohi dira harri-hormak, betiere ahalik eta bao gutxiengi eginda.

ANOETAKO BASERRIEN TIPOLOGIA ARKITEKTOKOA	
XVI. MENDEA	
Tolare-baserriak. Caseríos lagar.	 <p>SAROBE AROZTXEA.</p>
Bodegadun baserria. Caserío con bodega.	 <p>ITURGAITZAGA</p>
XVII. – XVIII. MENDEAK	
Ezkarazdun bilbezko baserriak. Caseríos de entramado con soportal.	 <p>APAETXE ATEAGA</p>
Ezkaratz gabeko bilbezko baserriak Caseríos de entramado sin soportal.	 <p>ATEAGAETXEBERRIA IGERABIDE BIDEONDO BARRUNDIA ETXEBERRIA URRUTINEA TAPIA</p>
Harri-hormazko baserriak. Caseríos de piedra.	 <p>BORONDEGI EGUZKITZA</p>
XIX. MENDEA	
Harri-hormazko baserriak. Caseríos de piedra.	 <p>AGINAGAZPIOKA</p>
Manposteria-horma eta egurrezko egitura-dun baserriak. Caseríos con muros de mampostería y estructura de madera.	<p>ARGINDEGI, ASURIBAR, ITURRALDE, KATATEGI BUZTINAGA, ERAUSIA, SAN JOAN, TXULO</p>
Etxe neoklasikoa. Casa neoclásica.	<p>BUZTINAGA</p>
XX. MENDEA	
Etxe neoerregionalista. Casa neoregionalista.	<p>MODESTOENEA</p>
Hormigoi armatuzko egitura-dun baserriak. Caseríos de estructura de hormigón armado.	<p>ALLIRI, ARRUTARTE, LUEBANA, MENDIGIBEL</p>

3.3. HARRIZKO BASERRIAK.

XVIII. mendearren bukaeran, teilatuaren mailarainoko harri-hormak zituzten baserriak zabaldu egin ziren, eta zura, hemendik aurrera, etxearen barne-egiturarako baino ez zen erabiliko.

Aginagazpikoa dugu tipologia honetako baserrien artean kalitate arkitektoniko handiena duena. Haren surrealde nagusian argi ikusten da zurezko armazoidun ereduen aldean izandako aldaketa; izan ere, honetan, aurrekoetan ez bezala, leihoburu-tako eta izkinetako harlandua gailentzen da. Zurezko urki-la alderantzikatuaren ordez ere, harrizko eserleku bat jarri zen. Zurezko baserri barrokotik harrizko baserri neoklasikorako igarotzea da. Aginagazpikoa bi ereduen artekoa da: leihoa-ak eta ate nagusia simetriko kota banatuta daude surrealdean, baoak zabalak dira eta bizitegiko gelak lehenengo solairuan daude, beren leihoa surrealde nagusian eta albo eguzkitsuean kokatuta daudelarik. Kalitate arkitektoniko handia duen azken baseria da, inondik ere.

Aginagazpikoa eraiki ondoren, Anoetako baserrien arkitektura gizartearen pentsamoldearen aldaketa islatzen hasi zen: etxea ez da jada betiereko, bertan bizi direnen ongizaterako egina da. Industrializazioa etortzean, baseria ez zen aberastasun-iturri nagusia, eta horregatik, tentuz gastatuko da haien zaharberritzen. Hiru dira garai honetan eraiki ziren oin berriko baserriak: Asuribar, Iturrealde eta Txulo. Hiruen kanpoko hormak harrizkoak dira eta barne-egitura zurezkoak; zutabeek, hala ere, harrizko zapatak dituzte. Leihotako baoak harrizko horman egina daude eta leihoburuak zuzenak dira. XIX. mendearren bigarren erdian eta XX.aren hasieran ere, beste zenbait baseria zaharberritu ziren teknika berarekin: Argindeggi, Katategi, Buztinaga, Erausia eta San Joan. Hauiek guztiek barrokoek eta neoklasikoek baino kalitate arkitektoniko txikiagoa dute, funtzionalitateak eta aurrezteak bigarren plano batean uzten baitute materialen kalitatea eta eraikinaren diseinu artistikoa. Baserri zaharberriuek beren bolumenari eta azalerari –300 m²– eutsi zieten, baina oin berrikoak –esate baterako, Asuribar, Txulo eta Iturrealde– askoz txikiagoak dira: 175 m² inguru.

Oso aipagarria da Buztinaga izeneko eraikina, arkitekturari dagokionez ez baita ohiko baseria, kalitate handiko eraikin

neoklasikoa baizik, XX. mendearren bigarren erdian gure lurradeko hirigune guztietan eraiki zirenen tankerakoa. Oin berrikoa da, Buztinaga baserri zaharraren ondoan eraikia, eta harengan-dik hartu zuen izena. Zerbait aldatzen hasia zen: eraiki zuena ez zen nekazaritzaz bizi eta trenbideari esker, herritik kanpoan lan egin ahal izan zuen, etxeak haren ohiko etxebizitza izaten jarraitzen bazuen ere.

3.4. HORMIGOIAREN GARAIA.

XX. mendean, material berri batek iraultza ekarri zuen arkitekturaren mundura: hormigoi armatuak. Anoetan, Modestoenea ize-neko etxea material honekin eraiki zen lehenengoa izan zen; ez zen baserrirako egin, Anoetatik Alkizara eta Villabonara doan bidearen ertzeko benta baizik. 1935ean eraiki zen eta haren estiloa erregionalista berankorra da, haren atzealdeari erantsirik harri-hormaz egindako estalpe zaharrago bat dagoen arren.

XX. mendearren bigarren erdian, baserri asko berritu zituzten goitiik behera hormigoi armatua erabiliz. Talde honetan soilik hartu ditugu kontuan berreraiki ondoren nekazaritzako eta abeltzaintzako jarduerari eutsi ziotenak; horregatik, ez dugu talde honetan sartu ez Arrese, ez Goikoetxea ezta Ikaitz-Berri ere, etxe arruntzat jo baititugu.

Mendigibele eta Arrutarte bi erabilpenak uztartzen saiatu ziren: beheko solairuan, ukuila eta nekazaritzako jarduerarako tokia eta goiko solairuetan, etxebizitzak. Luebanan hiru bizitzako etxe bat eraiki zen, eta eraikinetik aparteko estalpeak nekazaritzako jarduerarako utzi ziren. Allirin lehengo hormei eutsi zieten, baina barrualde guztia berreraiki zuten; beheko solairuan, berriz, baratzeko gauzak gordetzeko tokia atondu zuten. Mendigibelen, sagardo-dolarea hormigoizko egitura txertatu zuten.

Adibide hauek kontzeptu arkitektoniko berri bat erakusten digute: baserritarrek kaleko pisuetako erosotasun bera nahi dute, horregatik bereizten dituzte etxebizitzak nekazaritza eta abeltzaintzarako diren tokietatik. Baserria ez da gehiago izango gizakiak, aziendak eta lana nahasten dituen eraikina. XX. mendearren bigarren erdian, baserrietako biztanleek hirietako erosotasun bera eskatzen dute eta horregatik, baserri zaharren eredu arkitektonikoa zaharkitua geratu dela esan dezakegu. Gainera, eraikinak altuagoak egiten hasi ziren garai honetatik aurrera; hala, etxebi-

zitza bat baino gehiago lortzeaz gain, obraren gastua hobeto aprobetxatzen zuten. Eraikin berean familia bat baino gehiago bizi arren, baliteke bat bakarrik aritzea nekazaritzan. Garraio-sistema berrieik posible egin zuten landa-eremuetan bizitza eta handik urrutira lan egitea.

Mendigibel eta Alliri baserri zaharra zegoen leku berean altxatu ziren; Arrutarte eta Luebana, berriz, metro batzuk mugitu ziren aurrekoen lekuetatik, baina denok eutsi zieten baserri zaharren izenei.

Atal honetan, Anoetako baserrien arkitektura-eredu guztiak aztertu eta sailkapen bat egin dugu. Dena den, ez dugu ahaztu behar "etxea" errealitate dinamikoa dela eta mendeetan zehar, baserriek aldaketa ugari jasan dituztela: materialak hondatu direlako, suteek edo hezetasunak suntsitu dituztelako, bertan behera utzi dituztelako, etab. Horren ondorioz, baserri gehienetan garai desberdinako eraikin-aztarnak ditugu, beti eredu bat gailentzen den arren; hala, ondorengo taula egin dugu, Anoetako baserrien arkitektura-estiloak biltzen dituena.

4. Anoetako baserritarren ondare inmateriala



Baserri giroak gorde izan ditu hiriek galdu izan dituen hainbat ezaugarri. Hiriek izandako garapen eta bilakaera sozio-ekonomikoak gizarte tradisionalagoetan mantendu den ondare inmateriala gal edota ahularazi du. Ondare inmateriala, herri edo talde bezala dugun kontzientzia kolektiboaz osatzen dugun taldearen nortasunaren gordailua da; memoriaren ondare eta ondarearen memoria.

Anoetako baserrietan azken ia bostehun urtetan mantendu den gizarte tradizionalak herri-identitatea mantenarazi dute; eta herri-identitatea eusteak, herriaren altxorrik preziatuena gorde, transmititu eta eguneratzea ekarri du: ondare inmateriala alegia. Hau guztia instrumentu edo erreminta bakarrarekin, sukalde eta sutondoan gure arbasoek transmititu duten hizkuntzarekin, euskararekin. Honela jaso ditugu ahoz aho ibilitako eta belarritz belarri jasotako hainbat istorio, mito, kontakizun, festa, balore, ospakizun..., liburu atal honetan jasotzen direnak.



Zarautz Olotzaga familiaren argazki bilduma

XX. mende hasierako eskola-umeak.

Kapítulo hau ondoko lanean oinarritua dago:
Errazkin, Mikel: Kultur Saregintza Anoetan: Gizarte Zibilaren errepresentazioak tradiziotik modernitatara bidean *in* Fernandez de Larrinoa, Kepa (ed.): Intervención y Vínculo. Pamplona-Gizarte Lanerako Unibertsitate Eskola (EHV-UPV), 2006 Vitoria-Gasteiz.



1942an auzolanean eraikitako Alkartasuna pilotalekuaren inaugurazio eguneko argazkia.

Zarautz Olazaga familiaren argazki bilduma



Uztudun Balerdi familiaren argazki bilduma



Alkartasuna pilotaleku eraitsi aurretik ateratako argazkia, 1971. urtean.

Anoetako Udalaren argazki bilduma

4.1.- Auzolana, lan komunitarioa¹

Auzolana, komunitatearen garapenerako burutzen den elkar-lan antolatua da; auzoko bizitza orokorrean auzokoek dituzten azpiegitura eta baliabideen beharrak lantzko auzokoek elkarre-kikotasunean burututako ohiturazko lana. Auzolanaren bitartez auzokideen arteko elkartasun sareak eraikitzen ziren, elkartasun sare hauek giza harremanak zituzten oinarri. Normala zen herri bideak garbitzeko, belarra moztu eta biltzeko... baserrien arteko elkarlaguntza gauzatzea.

Gaur arte iraun duen auzolana, auzokoek osatutako gizarte antolamendu kolektibo haren aztarna izan daiteke; baita auzokoek berdinenean arteko berdintasun printzipioarena ere, izan ere auzolane-rako deituak izan eta elkartzen ziren auzokoek betebehar eta esku-bide berak baitzitzuten. Beraz, *etxe-jabe* edo *auzokoena* figura duela gutxi arte mantendu dela esan genezake.

Anoetan, XX. mendean, besteari bestea ondoko lanak burutu ziren auzolanean: 60. hamarkadan, San Joan Bataiatzailearen eliza-ren zati bat erre ostean, *zimitoia* edo elizako arkupearen berresku-rapena; 1942an herriko pilotalekua auzolanean eraiki zenez Alkartasuna izena jarri zitzaiion; 50. hamarkadan Madril-Irun tren-bidearen geralekua Renfek egin bazuen ere herriko baserritarrek auzola-nean berreraiki zuten Rezolak eta Orbegozo enpresen porlana eta burdina eman ostean. 1952an herriko eskolak eraikitzeko baserrita-rek laguntza emateaz gain, egurra ere eman zuten, ordu arte Kontzeju edo Udaletxeko bigarren solairuan ematen ziren klaseak. Ergoien, Goiballara eta Elbarrena bailaretako hainbat bide ireki eta urtero mantendu dira, adibidez Argindegia baserrirako bidea edota 1976an hilerrirako bidea. 2004. urtean Goiballarako bidea bailara-ko biztanleen artean zabaldu zuten.

Anoetarrak, auzolanean ere, elkartu ziren herriarentzat ezin-besteko zeritzon proiektu bat gauzatzeko. Alabaina, kasu hone-tan nekazal garapen eta helburuetatik harago, euskara, herri kul-tura eta hezkuntza baliabideak izan zituen helburu: *Anoetako*

*Herri Ikastola sortzea*². 1969an, euskara irakaskuntza mailan guz-tiz zokoratuta zegoela ikusirk, Tere Mozo, *Eskola Nazionaletako* irakasleak eta Anoetako guraso batzuek "Guraso Elkartea" osatu zuten. Ordurako gazteek osaturik zuten "Herri Gazte" taldea. Bi talde horien lanari eta Ramon Murua parrokoak utzitako lokalari esker ikastolaren aldeko asmoa egia bihurtzen hasi ziren. Honela, 1969ko otsailean, 23 ikaslekin, Anoetako Ikastola mar-txan jarri zen. Lehen bi lehendakariak Jose Mari Oyarzabal eta Patxi Ayerbe eta lehenengo andereñoa Eukene Sarasola izan ziren. 1971n, Tolosako Ikastolaren babesean, Hezkuntza Saileko onarpena lortu zuen. Urteak joan urteak etorri, ikastola da herrian dagoen ikastetxe bakarra. Egun, 3-16 urte bitarteko hau-rak jasotzen ditu.

Gurasoek ordaintzen zituzten kuotez gain, etxez etxe ere dirulaguntzak jaso ziren. Baino urteak aurrera joan ahala diru kopuru handiagoa behar zenez, zenbait zozketa, pilota partida, bertso jaialdi, herriko festetako taberna eta abesti-jaialdi antolatu ziren, besteari bestea Ez dok hamairu, Egan, Xabier Lete... hau guz-tia aurrera eramateko ezinbestekoa izan zen herritarren elkarlan antolatua, auzolana alegia.

4.1.1.- Suteen Aurkako Anaitasuna

Anoetan oraindik mantentzen den komunitatearen beste elkar-tasun baloreetako bat, baserriko Suteen Aurkako Anaitasuna³ elkar-tearena da. Elkarre hau 1946an sortu zuten ondorengo baserritar eta etxejabeek: Felix Urkola (Barrundia); Basilio Zugasti (Erausia); Ramon Amonarriz (Txulo); Joakin Uzkudun (Eguzkitza); Agustin Beraza (Buztinaga); Juan Artola (Mendigibel); Miguel Uzkudun (Idiakaitz); Jose Mari Otaegi (Barrundia); Inazio Aranzabal (Argindegia); Emilio Garmendia (Alliri); Simon Zuriarrain (Sarobe); Jose Aldasoro (Iturgaitzaga); Hipolito Iraola (Tapia); Felix Olozaga (Agirre); Balentin Maioz (Aginagazpikoa); Joxe Garmendia (Asuribar); Lazaro Saralegi (Mikelasagasti); Pedro Sarasola (Bideondo); Markos Sarasola (Zumalikardi); Martin Zugasti (Apaetxe); Jose Bidaror (Ateaga); Luis Garmendia (Arozetxea);

¹ Auzolanaren inguruan 2003ko abenduan zehar ondoko anoetarrei jaso zitzaien testigantza: Maria Goenaga Goenaga, 1930ean jaioa eta Bideondo baserrian bizi dena; Anizeto Sarasola Imaz, Zumalikardi baserrikoa, 1924an jaioa; Manuel Odriozola Otaegi, Goikoetxea baserrikoa eta 1931ean jaioa eta Joan Joxe Urkizu Beraza, 1958an jaioa eta Etxeberria baserrikoa. 2005eko maiatzean Jose Luis Garmendia Vitoriarri jaso zitzaien Testigantza, Arotztxe baserrikoa eta 1936an jaioa.

² Iraeta, Karmele. *Anoetako Herri Ikastola 25. urteurrenaren Iturriak* Bilduma. Anoetako Herri Ikastola. 1994 Anoeta.

³ Alliri baserrian, 2003ko otsailaren 13an jasotako dokumentazioa.

Jose Otaegi (Urritzeta); Maria Esnaola (Sarobe); Antonio Sarasola (Iturralde); Maria Otaegi (Etxeberria); Patxi Goikoetxea (Aginagaetxeberria); Jose Inazio Iturrioz (Urrutiña eta Iriarteburu); Antonio Garmendia (Ateagaetxeberria); Modesto Ormazabal (Modestoenea); Demetrio Irazusta (Arrutarte); Joxe Martin Uzkudun (Argindeggi); Francisco Arregi (Zubiaurre); Jose Julian Ugartemendia (Luebana); Juan Jose Lasá (San Joan); Antonio Kortajarena (Goikoetxea).

Elkarte hau suaren eraginez eroritako etxe eta baserriak berreirakitzenten laguntzeko sortu zuten. Elkarteko kideek kaltetuari ondoko eran laguntzen zioten: diru-laguntzak emanet, materiala jarriaz (batik bat haritz eta gaztainondo egurra) eta eskulana eskainiaz. Honela, urte hasieran, errege egunez, urtarriaren 6an, etxeen jabeak bildu ohi dira dagokien kuota ordaintzera. 1946an 25 pezetako kuota ordaindu zuen baziak bakoitzak. Hasiera batean, Añoetako Udaletxean bildu ohi ziren, gero Kontzejuen, 1999az gerotzik Modestoenean eta 2005. urtean Alkartasuna Añoetako jubilatuaren elkartearren egoitzan.

Elkarte honek berreraikitzenten lagundu zuen lehen baseria Alliri izan zen. Alliri 1960ko apirilaren 24ean erre zen. Baserritar bakoitzak dirulaguntza emateaz gain, auzolanean, baserritar bakoitza hamabost egunez aritu zen berreraikuntza lanean; Ian hauek apirilaren 27tik ekainaren 17ra bitartean egin zituzten. 1966ko uztailaren 9an Arrutarte baseria erre zen, kasu honetan ere auzolanaren eta dirulaguntzari esker berreraikia izan zen aipatu baseria. 1968ko abenduaren 8an Idiakaitz baserriko bi etxebizitzak erre ziren eta 1978ko azaro hasieran, Urritzeta baseria; bi kasu hauetan diruz lagundu zitzaien baserrien nagusiei. Gaur egun, elkarte honen baziak hogeita zortzi dira eta urtarriaren 6an gehienak elkartzen dira.

4.2.- Herri kultura, bizimodu tradizionalaren ikur

Añoetarrak XX. mende erdi aldera arte nekazaritza eta abeltzantzatik bizi izan dira; eta bizimodu tradizionaleko gizarte

espazioak lurra, familia, auzoa eta erlijioa izan dituzte. Gizakiak, mendeetan zehar, bere izaerari dagozkion gizarte antolamenduak eta instituzioak sortu izan ditu, eta horien barruan bizi izan da. Hori nabari izan da gizakiaren lanean, auzoaren eta auzoko-en betebeharretan, festetan, oilasko-biltzeko ibileretan, dantza tradizionalak dantzatzean, Inauterietako pantomimetan eta abarretan. Azken batean, kultura giza nortasunaren expresioa baita, mundua ulertzeko era bat eta munduan egoteko modu bat, konitzientzia kolektiboaren errepresentazioa. Anjel Lertxundik zioenez⁴, kultura testuinguru temporal eta geografiko batean gertatzen den fenomenoa da; bere hitzetan, “*kulturak egiten gaitu, kultura egiten dugu*”.

Nahiz eta ospakizunak berekin dakarren eguneroko bizimodu arruntaren etena, herriaren balore tradizionalen errepresentazio dira, beraz, jarraian ikusiko ditugun añoetarrek burutzen dituzten ospakizunak baserriak oinarri zituen gizarte tradizionalaren ikurak dira.

4.2.1.- San Joanak, Udako solstizioa⁵

Udako solstizioaren inguruan ikusten eta ezagutzen diren erritu askok bizirik diraute eta agerpen erlijioso modura heldu zaizkigu, eta, jakina, izadi-adierazpenak dira. Superstizio, magia eta mitoaren pizgarri da udako solstizioa⁶; hori guztia gertatzen da bereziki suaren, uraren partehartzearekin. Gauza baten irudia eta horrek adierazten duena gauza bera dira, suak elkartzen gaitu eguzkiaren botere bizi-emailearekin. Gogoan izan behar da, bestalde, berez, izatez, suak duen garbikuntza-eginkizuna. Garbikuntzaren izatasuna ageri da ekainaren 23ko gauean pizten den su gainetik jauzi egin aurretik agertzen den adore, irrika eta eskari-egoeretan. Eskari bat da San Joan bezperako azken orduetan suaren inguruan egiten dena.

Anoetan, San Joan Bataiatzailea egunaren aurretik, arratsaldez, bertako apaizak bi elizmutillekin lagunduta Añoetako baserriren lurrak bedeinkatzen zituen eta ondoren, baserri bakoitzaren atean bedeinkatutako argizaria zuen gurutzea jarri ohi zen. San

⁴ Anjel Lertxundi idazlea da. Hitz hauak Euskal Kultur Planaren aurkezpen ekitaldirako idatziak dira, (2004-09-28). www.erabili.com

⁵ San Joan bezpera eta San Joan eguneko usadioen alata ondoko añoetarren testigantza jasota idatzi da: Isabel Berasategi Ormazabal, Modestoeneakoa 1922an jaioa, 2005eko apirilean elkarritzetatu; Jose Luis Garmendia Vitoria, 1936ean jaioa, 2005eko maiatzean elkarritzetatu. Gregorio Irazusta Begiristain 1910ean jaioa, Sarobe baserrikoa eta Antonio Berasategi Ormazabal, 1928an jaioa, Modestoeneakoa. Azken hauak 1984ko uztailak 21an elkarritzetatuak, ondoko liburutik bildu dira: Garmendia Larrañaga, Juan. *Solsticio de verano I. Festividad de San Juan Bautista*. Kriselu. 1984, Donostia.

⁶ Barandiarán, José Miguel de. *Mitología del Pueblo Vasco*. Etor-Osoa. 1997, Lasarte-Oria.

Joan bezperan, Anoetako etxeokoandreen zeregina omen zen San Joan lore, arrosa, krabelin, arto landare, gari-buru eta etxeoko fruta ezberdinen artean *erramilletia* edo landare-sorta osatzea. *Erramilletia* hurrengo egunean bedeinkatzera eramatzen zuten.

San Joan sua

Juan Garmendia Larrañaga antropologoak Gregoria Irazustari jaso zionez, San Joan bezperan, gaueko bederatzietan, Sarobe baserrian Amasa, Anoeta, Hernialde, Irura eta Villabonako eliz-kanpaiak entzuten zituzten. Tono ezberdinako kanpai-soinu hauek *San Joan suaren* piztadera iragartzen

omen zuten. Hau omen zen Anoetako patroiaaren omenezko festen hasiera.

San Joan sua herriko plazan eta baserri bakoitzaren lekurik ikusgarrienetan pizten zen. Sua, aurreko urtean bedeinkatutako *erramilletiaren* hondarrekin pizten zuten eta belar, garo eta adarrekin elikatzen. Ondoren *Biba San Joan Bautista* deiadarrarekin jauzi egiten zuten suaren inguruan, gizon zein emakumeek; ezkongabe zein ezkonduek.

Solstizio jai honen segidan, herriko gazteek, herrian zehar barreiaturik zeuden baserriak zeharkatzen zituzten. Gazte hauek ardoz beteriko zahato edo zahagiak jartzen zituzten zeramatzen makilen izkinetan.



Uzkudun Balerdi familiaren argazki bilduma

Ignazio Uzkudun alkatea, eskuan aginte makila duelarik eta zinegotziak, San Joan eguneko ospakizunetan.



Goiballarako baserri eta etxeetan bizi
direnak San Joan bezperan elkartu ohi
dira suaren inguruan afaltzeko.
Ohituraz, bailarako zaharrenak pitzu ohi
du San Joan sua. 2005eko Zumalikardiko
Anizeto Sarasolak pitzu zuen.



San Joan baserriko
Jose Ramon Laso San Joan
sua pizten (2005-06-23).
Atzerago Barrundiko sua.



"Urteko gaurik motzena" aurreratu ahala, sua itzaltzen eta kea gutxiagotzen zelarik, plazako suaren inguruko festa alaitzen ziharduten txistulariak isildu egiten ziren eta Udalak *Kontzejura* edo herriko tabernara inguratzen zirenei zahagiko ardoa eskaintzen zien. Azken urteetan, Anoetako Udalak ardoaz gain, gailetago ere eskaintzen ditu. Ohitura zahar hau, Kontzejuaren azken aldiz 2001ko ekainaren 23an burutu zen; 2002an Udaletxe zaharra bota baitzen. 2002ko San Joan bezperaz geroztik aipatu janedanak Udaletxe berriko arkueetan burutzen dira.

Juan Garmendia Larrañagak Anoetako Agerre baserrian jaso zuenez, San Joan egunean *"eguzkiak abiadura handiarekin birak emanez ateratzen omen da"*. Gainera, San Joan eguneko basura edo ihintza oso osasuntsua omen zen, horregatik, Anoetako base-rritarrak, denbora tarte ez finko batean, belazeetan oinutsik ibil-tzea ohikoa zen.

San Joan bezperan prestatzen zen *erramilletia* San Joan eguneko goizeko zazpi t'erdietako mezetan bedeinkatzen zen 1930az geroztik gutxi gorabehera. Lehenago goizeko seietako mezetan bedeinkatzen zen. Familiakoren bat hiltzen zenean, *erramilletia* egosi egiten zen eta ur honekin hildakoaren gorpua igurtzi. Aipatu ura gaixorik zegoen ganaduari eman ohi zitzaison edan eta sendatu zedin.

San Joan eguna

Anoetan⁷, San Joan eguneko egun *txinta* edo egunsentian bedeinkatutako lizar eta elorri adarrak jartzen ziren ateetan. Haur negartiak, norbaitek begizkoa egin zielako zirela uste izan omen zen, eta horregatik San Joan egunez Anoetako San Joan ermitara eramatzen omen zituzten. Gaur egun, ermita hura baserri bihurtuta dago, San Joan izenarekin ezagutzen da.


San Joan eguneko meza nagusira joateko, herriko agintariak Udaletxetik elizara txistulariek musikatutako *alkate soiñuarekin* joaten ziren. Meza-erdiko garaian suziri bat bota ohi zen, eta jarraian, txistulariek *agur jaunak* jo ohi zuten. Meza bukatzean, *alkate-soiñuarekin* ere, Udaletxera itzultzen ziren herriaren ordezkariak. Jarraian herriko dantzarien emankizuna izaten zen

herriko plazan. Herriko zaharrenek diotenez, egun honetako prozesioa Guadalupe paper fabrika parera iristen zen, txistulariek prozesioan *"Todo por la religión"* kantaren doinu protokolarioak jotzen zituzten.

Egun honetan, arratsaldeko seietan, leku berean, dantza-soka dantzatzen zen, jarraian, txistuaren soinuarekin *sueltoan* dantzatzen zen gaueko hamaikak arte gutxi gora-behera. San Joan bigarrenez aipatu dantza ezkonduet egiten zuten eta San Joan hirugarrenez *ollasko-biltzea* eta *ollasko-jokuba* eta dantza-soka ateratzen zuten herriko gazteek.

San Joanelako batelak⁸

Garai hartan, Anoetako San Joan eguneko festek harreman handia izan zuen Tolosan ospatzen ziren batel estropadekin. Izan ere, Guadalupe paper fabrikako Anoetako langileek 1959 eta 1969 bitartean batelak atera baitzituzten Oria ibaiaren zeharreko arraun eremuan. Anoetatik eta inguruko herrietatik jende multzo handia joaten zen batelen lehiaketa ikustera, giro izugarria egoten zen. Arraunketa hasi aurretik, Tontokale, Zerkausian edo Zumardi txikian jendeak apustuak egin ohi zituen.



San Joanelako Estropadak 1930-1988

1960ko San Joan egunean Guadalupek irabazi zuen lehen banderako arraunlariak: Fermín Mendizábal, Fermín Aranzábal, Jesús Mari Aranzábal, Estanis Otaegi eta Fermín Aristondo.

⁷ Garmendia, Juan eta Mendiguren, Xabier. *Hiztegi Etnografikoa*. Ikastolen Elkartea. 2003, Donostia.

⁸ Aljostes, Sabin: *San Joanelako estropadak 1930-1988*. Aitzeta argitaletxea. 2002, Tolosa, Ibarra. Rikardo Arrieta Saizar, 1947an jaioa, iruratarra, Anoetan bizi denari 2005eko maiatzean egindako galdeketa.

Guadalupe, 1959an azkena geratu bazen ere, alkandora gorridunek zazpi bandera atera zituzten: 1960, 1962, 1963, 1964, 1966, 1967 eta 1969an. Entrenatzaile Anjel Aranburu zuten, eta hasieran tripulazioa Guadalupeko anoetako arraunlariek osatzen bazuten ere, gerora iruratar eta anoetarren artean osatzen zuten. 1962 1967 bitartean, bi talde atera zituen Guadalupek, A eta B taldea. 1964. urtean, bi taldeek lehen bi postuak lortu zituzten.

Bandera irabazten zutenean, hiruzpalau aste beranduago, arraunlari hauei herrira itzultzean, herriak izugarrizko omenaldia eskaintzen zien. Arraunlariak autobusez Apaetxera etortzen ziren jarraian, txistularien atzetik Anoetako San Joan elizara joaten ziren. Meza entzun ostean, dantzarietan dantza ezberdinak eskaintzen zizkien, eta ondoren arraunlari, Antonio San Gil Guadalupeko enpresaburua, enpresako hainbat ordezkarri, herriko agintariak langiek Modestoeneara joaten ziren bakoitzera. 1965 inguruan, herriko jendea Tolosara joaten zenez batelak ikustera, jaien eguna Korpusetara igaro zen, anoetarentzat San Joanetako batelak oso garrantzitsuak baitziren.



1964ko San Joanetako bandera atera zuten patroi eta arraunlariak: Francisco Dávila, Txomin Garmendia, David Mateo, Tomás Etxeberria eta Fermín Aranzabal.

Dantza-soka.⁹

Dantza-soka hainbat dantzaren multzoa da. Bertan ondoko dantzak egiten dira: Desafioa edo Aurrez aurrekoak; Aixeri dantza, alpargata edo esku aldatzeko soinua; Agurra; Zortziko bat,

aurreskuak inprobisatu behar duena; Fandagoa, Arin-arina eta biribilketa. Soka honen protagonistak aurreko eta atzeko dantzariak dira, aurreskularia eta atzeskularia, Anoetan aurre-atziak ize-nez ezagutuak. Dantzaren une konkretu batean, zubia egiten da, azpitik dantzari guztiek igaro behar dutelarik; honen esanahia onarpen sozialarena omen da, hau da, pertsona gizartean onartua baten, sokan ere onartuko zuten; aldiz, izen txarrekoa baten, sokatik bota egingo zuten. Historikoki zabalduna mutilena izan da, hauetan mutilek dantzatzen zituzten aipatutako dantzak eta neskak dantzatuak eta omenduak izaten ziren.

Izenei dagokienez, aurkitu den izenik zaharrena dantza-soka izan arren, beste hainbat modutara ezagutua izan da. Adibidez, esku-dantza, soka-dantza, erregelek (Bizkaian), edo Iztuetak jaso zituen gizon-dantza, galaien esku-dantza, neskatzen esku-dantza eta etxe-andre dantza; dena den, Euskal Herrian zabaldu eta hedatuena aurreko izena dugu.



Herriko dantzariak 1952an Jose Urkola, Martín Aristondo, José Luis Beraza, Lazar Errondosoro, Antonio Uzkudun, Luis Urkola, Martín Odriozola, José Luis Garmendia eta Angel Armendariz.

⁹ Rojo, Fernando eta Errazkin, Mikel. *Dantza-soka Anoetan*. Anoetako Udalak argitaratuko imprimakia. 2003, Anoeta.



Jatorria eta interpretazioari dagokionez, modu ezberdinaketa esanahiak aurkitu izan zaizkio dantza sozial honi. Zaharrenetako Gorosabel¹⁰ historialari tolosarraren izkribuetan irakur daiteke, honek dantza-soka gudarekin harremanetan ezartzen zuen; bertan aurreskuak eta atzeskuak desafioa dantzatzeko garaia bi buruzagien arteko erronkatzat ulertzen zuen. Ondoren, garrantzia emakumeari ematen hasi zitzaion; jada bi dantzarien arteko erronkak ez zuen garrantzirik, eta bakoitzak plazan zein emakume aukeratzen zuen agurra eskaintzeko. Nahiz eta Iztuetak¹¹ jaso zuen bezala (1824) herriko alkateek dantzatzen zuten, 1918az gerotik (Oñatiako Eusko Ikaskuntzen lehen kongresuan Gipuzkoako Diputatuek dantzatu zuten) oso dantza protokolarioa izan da XX. mendean zehar. Azken urteetan, antropologoek (esate baterako Urbeltzak) beste ikuspegi bat eman diote, gazteek gizartearen parte izateko sarbidea, hau da, helduen komunitatean parte hartzen hasteko erritoa. Ukaezina da, gaur egun, dantza-soka, gure arbasoengandik jasotako ohitura eta errikoak betetzen ondo pasatzeko aukera dela, eta baita komunitate edo giza-talde baten identitatearen agerpena ere.

Hasiera batean, igande eta jaieguna guztieta dantzatzen zen, eta dibertimendurako eta gizon-emakumeen harremanetarako aukera paregabea zen. Plazatik bi dantzari irteten ziren, gerora bi hauen artean nahi zuena sartzen ziohan; denen artean soka osa-

tzen zutelarik. Ohitura hau galdu egin zen. Eta gaur egun ohikoa herri bakoitzaren zaindariaren egunean dantzatzea da. Halere, egun puntualetan dantzatua izan da: Kongresuak, Euskal jaiak, inaugurazioak... Gaur egun, dena dantzatu ordez, protoko-loetarako agurra soilik dantzatu ohi da. Horregatik, agurri aurreskua deitzen zaio.

Aitzinean aipatu bezala, dantza-soka Anoetako jaietan lau aldiz dantzatzen zen; San Joan egunean meza nagusiaren ondoren eta arrats partean; San Joan bigarrenean eta San Joan hirugarrenean, ekainaren 26an alegia. Azken egun honetan, *oilaskojokuba* buritu ostean dantzatzen zen *aurreskua* edo dantza-soka. Aurresku honetan lehen dantzariak *piparerrosilla* bat zeraman ezpatan sartuta eta sokara ateratzen zuten lehen emakumeari emango zion opari gisa.

Anoetan, XX. mendeko 50eko hamarkadan, dantza-soka aurrera eramango zuen dantza talde bat sortu zen. Urte askotan, taldearen arduraduna Manuel Odriozola izan zen, Policarpo Olano, Iruratik etortzen zena, ibili ziren irakasle moduan. Taldea 16 mutil izatera iritsi zen, eta hauek egiten zuten dantza-soka San Joan eguneko meza nagusi ostean. Dantzari hauek *nabarroz* jantzia irteten ziren, hau da, zuri-gorriz. Talde honetan, Luis Urkola izan ohi zen *aurreskua*, eta Jose Luis Garmendia *atzeskua*. 1955 inguruaren galdu zen dantza-soka dantzatzeko usadioa.



Jose Antonio Agirre eta Txomin Garmendia utzilako argazkia

1960an Guadalupek irabazitako banderaren bedeinkazio egunean, herriko dantzariak dantza-soka dantzatzen.

¹⁰ Gorosabel, Pablo. *Noticia de las cosas memorables de Guipúzcoa*. La Gran Enciclopedia Vascaaren berrargitalpena. 1975, Bilbao.

¹¹ Iztueta, Juan Ignacio de. *Gipuzcoako dantza anciñacoen condaira 1824*. La Gran Enciclopedia Vascaaren argitalpena. 1975, Bilbao.



1960 inguruko San Joanetan, dantza-soka herriko dantzari taldeak atera zuen. Hamar bat dantzariz osatutako mutil talde honen irakasle Pedro Ayerza "Ezkerra" tolosarra izan zen, Manuel Odriozola laguntzaile zuelarik. Gerora, 1965 aldera herriko festak San Joanetatik Korpusetara igaro zirenean, Korpus egunean dantzatzen zen. Egun honetako prozesioan arkua egiten zuten dantzarietik, txistulariek *alkate soiñua* jotzen zuten bitartean. Meza ondoren euskal dantza tradizionalak eta arratsaldean dantza-soka plazaratzen zuten. Dantza-soka 1968 arte dantzatu zen. Azken tarte honetan bi taldek atera zuten soka, lehenaren *muturrean* Dabid Mateo aritu zen, *orpotik* berriz Iñaki Berasategi. bigarrenaren *aurre-atziak* Pedro Mari Zabala eta Eduardo Mujika izan ziren

Gerora 2003ko otsailaren 22an, ohitura zahar hau berreskura tu egin zen Añoetako Udalaren ekimenez eta herriko gazteen antolakuntzarekin. Dantza hau garai berrietara egokitzen zen, besteak beste, dataz aldatu eta inauteri garaira pasaz. Bestalde, emakumeek beren espazioa propioa eskuratu zuten. Honela, bi dantza-soka egin ziren, bat gizonena, emakumeena bestea. Añoetako nesken dantza-soka Gipuzkoako bakarra da. Berreskurapen lan hau egiteko Manuel Odriozola dantzari eta dantza irakasle ohiak azaldu zituen dantzaren pausuak eta ingurumariak. Dantza honen berres-

kurapenean Fernando Rojo¹² tolosarrak, hainbat herritarren laguntzaz, lan eskerga egin zuen datuak biltzen eta dantza irakasten.

Berreskurapen honetan, iraganeko memoria, orainaldiko zirkunstantziak eta etorkizunean sustraitua izateko proposamenak bateratzeko lana egin zen, kultura tradizionalaren formak XXI. mendeko herritarren harreman-sareen baloreetara eguneratuz. 2003an, *Egunkaria* euskarazko egunkari bakarraren itxiera zela-eta egitaraua aldatu bazeen ere, ondorengo urteetan egitaraua antzekoa izan da. Goizeko zortzietan herriko plazan taldea bildu, txupinazoa eta kalejira herrian zehar. 8:30ean, baserriz baserri axeri dantza, fandango eta arin-arinak dantzatu. Ibilbidean Añoetako ia baserri guztiak zehartzen dira, lehenik Goiballarakoak, Elbarrenakoak ondoren eta azkenik Ergoienekoak. Baserritarrei ez zaie dirurik eskatzen, aldiz, hauek sarritan jan edanak eskaintzen dituzte esker moduan. Jarraian, eguerdiko ordu batetan, herriko plazan lehen dantza-soka egiten da, lehen urtean neskena. Babarrun jatea ordu bietan Kuku elkartean eta arratsaldean, lau t'erdietan bigarren dantza-soka, estreinako urtean mutilena izan zena. Dantza soken ordena, hau da, mutilek edo neskek egitearena txandakatuz egin da orain artean. Jarraian herriko trikitilari eta musika taldeekin erromeria antolatu izan dira.

Argazkia: Fernando Rojo



Dantza sokako kalejira Sarobe baserrian.
(2003/02/22)

¹² Tolosako Udaberri Dantzari Taldeko partaidea.

Argazkia: Fernando Rojo



Dantza-sokaren berreskurapenean, Naiara Yurrita aurreskularia, berak aukeratutako omenduari agurra dantzatzen.
(2003/02/22)



Argazkia: Paitxi Sanz

Aurreskularia "Desafioa" dantzatzen, atzean "soka" (2003/02/22).

Lehen edizioan 55 herritarrek parte hartu zuten, 25 neska eta 30 mutilek. Mutilen dantza-sokan Ibon Artola eta Iban Yurrita izan ziren *aurre-atziak*, nesken kasuan, Naiara Yurrita eta Aloña Otermin. Aipatzeko da, Joxe Mari Sarasola garai hartako alkateak, herriko gazteei berreskurapena eskertzearren, bere jaiotetxean, Bideondo baserrian, egin zien harrera. 2004an ez zen Dantza-Sokarik atera. Aldi berriaren bigarren txandan, 2005ean, usadio zaharraren berri eman zuen Manuel Odriozolari omenalditxoa egin zitzaison, Alkartasuna herriko jubilatuetxearen kanpoan dantza eginez; honek omenalditxoa eskertzeko, Agurra dantzatu zien bertaratutakoei.

Oilasko-jokuba

San Joan hirugarrenean, hau da, ekainaren 26an, *oilasko-jokuba* edo *oilasko jokoa* egiten zen Anoetan. Goizean goiz *oilasko biltzea* izeneko eskean atera ohi ziren herriko gazteak. Buruan txapela, gorputzean brusa eta oinetan abarkak zituztela herriko baserri guztiak igarotzen zituzten. Herriko plazan bildu eta txistua eta atabalarekin joaten ziren baserriz baserri; baserri bakoitzean, bertakoek bizirik zegoen oilasko bat ematen zieten. Taldekideek, hankak lotu eta horretarako prestatzen zuten makinan zintzilikatzen zuten oilaskoa. Aipatu makila, bizkarrean eramaten zuten. Oilaskoak bildu ostean, Kontzejuaren oilasko kontaketa egiten zuten.



Oilasko biltzean soinua jotzen Anoetako Kontzejuaren aurrean. Juantxo Lasa Tolosako Isastegi baserríko, Jose Luis Garmendia Aroztekeroa, Inazio Garmendia Asuribarkoa eta Inazio Aldasoro Iturgaitzagakoa.


Garmendia Vitória familiaren argazki bilduma

Bazkalostean, arratsaldeko lauretan, herriko plazan, oilasko jokoa burutzen zuten. Horretarako, lurrean hiru makila sartzen zituzten. Erdikoa lurretik 15 zentimetrora luze zen, beste biak 30 zentimetro. Azken bi egur horien artean haga bat ezartzen zen, oilaskoaren burua lotzeko. Erdiko egurreko goiko zatian gauza bera egiten zen, kasu honetan oilaskoaren hankak lotzeko.

Ondoren, txistulari eta atabalari baten doinuekin mugituz, gazte batek begiak oihalaz estalita eta eskuetan ezpata zeramala, oilaskoari lepoa mozteari ekiten zion. Honela, kolpe batean ez bazen, bestean, gazte bakoitzak oilaskoen lepoa mozten zuen. Oilaskoak saskian sartu eta gaelean afaltzeko prestatzen zituzten. Jarraian, aurreskua edo dantza-soka egiten zuten gazteek. Oilasko jokoa egiteko ohitura 1945 aldera galdu zen.

San Joan zortzikoa

1984 eta 1985ean Anoetako Udaleko zinegotzi eta Alkateak suaren inguruan dantzatuaz San Joan zortzikoa eskaini zieten herritarrei. Gerora, ekitaldi hau burutu ez bazen ere 2000. urteko San Joan bezperan Udal korporazioa, ostera, suaren inguruan San Joan Zortzikoa eskaintzen hasi zen. Udalbatzak 2000, 2001, 2002 eta 2003an dantzatu zuen zortzikoa. Ohitura berritu hau 2004an eten zen.



Fernando Rojok 2000 urteko ekainaren 23an aterralako argazkia

Alkatea eta zinegotziak San Joan zortzikoa dantzatzen: Joxe Mari Sarasola, Maite Aizpurua, Mikel Zubillaga, Mikel Errazkin, Manu Odrizola eta Jose Ignacio Otermin. (2000/06/23)

Aldi honetan, honela antolatu izan da festa: arratsaldeko seietan buruhandi eta erraldoien kalejira herriko txistulariekin egin ostean, zazpietan ardoa eta gailetak eskaintzen ditu Udalak, Udaletxeko arkueetan. Zortzi t'erdietan ohiturazko San Joan bezperako herri-afaria herriko plazan. 22:45ean txalapartarien saioa, San Joan bezperako jaia iragarriz eta gaeuko hamaiketan, herriko txistulariek *alkate soinua* jotzen dutelarik. Alkate eta zinegotziak Udaletxetik ateratzen dira. Ondoren suaren izkinetan kokatu eta korporazioak sua pizten du. Ondoren herritarren aurrean San Joan Zortzikoa dantzatzen da. Jarraian, *Gora Anoeta, eresekiaren doinuapean herriko hautetsiak* Udaletxerantz hurbiltzen dira. Ondoren Udal zinegotziek eta alkateak, dantza eskolako ikasleek eta herritar boluntarioek suaren inguruan San Joan Zortzikoa dantzatzen dute. Jarraian Anoetako Kantu Taldeak San Joan Zortzikoa, "Belarrek usainak", "Atso tronpetariak" eta "San Joan San Joan" abestiak abesten ditute. Talde honek 1998az geroztik abesten ditu aipatu abestiak. Jarraian erromeria, herriko musikariek alaitua. San Joan egunez, Anoetako Udalak erretiroa hartu duten herritarrei bazkaria eskeintzen die. Bazkari honetan, herriko edadetuenari omenalditxo bat egin ohi zaio.

4.2.2.- Korpus eguna.

Corpus Christi eguneko jaia Trinitateko igandearen hurrengo ostegunean ospatu izan da orain dela urte gutxi arte, baina azkenaldian hurrengo igandera atzeratu da. Korpus edo Besta Berri eguna ospatzea, oro har, Beranduko Erdi Arotik datorren ohitura da. Urbano IV.ak ezarri zuen 1272an bulda bitartez.

Anoetan, meza ondoren, Korpuseko prozesioan arkua egiten zuten dantzariek, txistulariek Korpus zortzikoa jotzen zuten bitartean. Prozesio honetan, elizari atxikia zegoen hilerra buelta ematen zitzaión. Prozesio hau pilotalekutik ere igarotzen zen, han aldare bat kokatzen zelarik. Prozesioa igarotzen zen bidean, ezpata belarra eta mihilua jartzen ziren. Aldare horretan Kustodiaren barneko Korpusa bedeinkatzen zuten, Korpusa herriko sei pertsona esanguratsuk eramatzen zuten *palioan*. Aldarean korpusa bedeinkatu ostean, eliztarrek hainbat abesti abesten zituzten, jarraian, txistulariek *agur jaunak* jo eta azkenik korpusa altxatzen zen.

Apaize argazki bilduma



Korpus festetan motokros lehiaketa.

Oilasko biltzea Korpus bigarrenean edo korpus egunaren hurrengo egunean egiten zuten herriko gazteek¹³. Aipatu egun hau Gazteriaren eguntzat izendatzen zuten Korpus jaietan. Herriko gazteak goizeko zapietan bildu ohi ziren herriko plazan. Jarraian, Azkoitiko trikitilariekin (Epelde, Egurrola...) baserriz baserri dantzatz, oilasko biltzea egiten zuten. Nahiz eta oilasko biltzea deitu, baserrietan dirua biltzen zuten hegaztien ordez.

Jasotako diruarekin eguerdiko ordu bietan Modestoenean bazkaria egiten zuten. Arratsaldean dantza溶te lehiaketa herrikoia antolatzen zuten eta guean morzorrotzeko ohitura zuten. Garai hartan gazte zirenek azpimarratzen dutenez, herriko jaietako helburu nagu-

sien sortzen ari ziren Ikastolarako dirua biltzea zen, beraz dirua biltzeko modu batean zein bestean festetan lan egiten zuten. Halere, oilasko biltze egunean herriko gazteenek Ikastolaren aldeko tabernan txandak libra zitzaten ikasleen gurasoek lan egiten zuten bertan.



Aneetako Udale argazki bilduma

Korpus festetan, herriko gazteak festa-giroan.

4.2.3.- Dantza Anoetan¹⁴

Gure dantzak, antzinako gatazka edo ohitura erritualen aztarnak dira. Nahiz eta iraganeko ohituretan oinarrituak diren, esan liteke ez dagoela dantzarik denboraldi batean aldaketaren batzuk jasan gabe gureganaino heldu denik. Fernando Rojok dioenez *"Erritualak gizarteak une konkretu batean kosmogonian, historian, oropen kolektiboa edo naturan dituen gertaera puntual garrantzitsu batzuk gogoratzeko egiten dira. Xedea, euren ospatzea edota kontrolatzea izan daiteke."*¹⁵ Honela, dantzak, beste ohitura eta erritoak bezala, bizirik dauden bitartean gizartearen behar eta izaera espezifikoetara moldatzen joaten dira.

Iztuetak 1824ean, hogeita hamasei dantza motaren berri ematen zuen *"Guipuzcoatarren beren-bereniac, zein bere soñu eta bersoakin"*¹⁶. Iztuetaren aipamen horiek Pablo Gorosabelek berretsi eta zabaldut zituen, honela zioen dantzen inguruan: *"Todos ellos eran de plaza*

¹³ 1978 eta 1980ko herriko festen egitaraua, Aneetako Udalak argitaratua eta 2005eko apirilean zehar ondoko herritarren testigantza jasota: Ihaki Urkola Roteta, Barrundia baserrikoia, 1956an jaioa eta Periko Peñagarikano Labaka, 1955ean jaioa.

¹⁴ Testigantza 2005eko maiatzaren 3an Jesus Mari Agirre Olano, 1956an jaioa eta Jose Antonio Agirre Olanori, 1949an jaioa, 2005eko maiatzaren 5an Elena Arregi Ugartemendia, 1959an jaioa, Maria Jesus Elizegi Otaegi, 1959an jaioa eta 2002ko azaroan Manuel Odriozola Otaegiri, Goikoetxea baserrikoia eta 1931ean jaioari, jaso zitzaien.

¹⁵ Rojo, Fernando: *Emakumea euskal dantza tradizionalean*. Euskonews & Media. (1999.01.22/29) Eusko Ikaskuntza. 1999, Donostia.

¹⁶ Iztueta, Juan Ignacio de: *Gipuzcoako dantza gogoarrilac*. La Gran Enciclopedia Vasca. 1968, Bilbao.

pública con tamboril, puesto que no se conocían bailes de sara o dentro de las casas, como los hay hoy en día”¹⁷.

Anoetan, XX. mendeko 50eko hamarkadan, dantza-soka aurrera eramango zuen dantza talde bat sortu zen¹⁸. 16 mutil izatera iritsi zen taldeak, San Joan eguneko dantza-sokaz gain, ikasitako dantzak dantzatu zituen, batik bat Bizkaiko ezpata dantza, eskualdeko hainbat lekutan. Besteak beste, 1952ko abuztuaren 30ean Anoetako Escuelas Nacionalesen inaugurazioan, bertara Luis Carrero Blanco Ministroa eta Caballero Ahaldu Nagusia etorri zirelarik; Donostiako Txofreko zezen plazan, Euskal jaialdi erraldoi batean, beste 15 talderekin batera (itxuraz Falangeak antolatutakoa)... 1955 urte bitarte aritu zen talde hau dantzan.

Gerora, 1960 aldera, Pedro Ayerza “Ezkerra” tolosarra irakasle eta Manuel Odriozola laguntzaile zituen hamar mutilez osatutako dantza taldea izan zuen Anoetak. Talde hau San Joan egunean dantza-soka dantzatzeaz gain inguruko herrietañ ere aritzen zen emanaldiak ematen. Adibidez 1962 inguruhan Tolosako San Joantean *Bordon dantza eta aurreskua* dantzatu zuten, tolosar dantzariek Udalari *planto* egin eta gero. Dirudienez Tolosako

Udalak *Bordon dantza* bordoiak hori-gorriak izatea nahi zuela eta tolosar dantzariek ez zuten onartu. Anoetar dantzariek dantza egiteko jarri zuten baldintzetako bat autobusa, *urbanoa*, Anoetako plazara iristea izan omen zen, herritarrañ dantza ikus-tera errazago joan zitezen. 1967 aldera, beste San Joan egun batez ere, Tolosako dantzariek beste *planto* bat egin eta anoetarrek ordezkatu zituzten.

1966 aldera hamabina dantzariz osatutako bi talde izan zituen Anoetak, mutilena eta neskena. Mutilen dantza irakasleak Manuel Odriozola eta Jose Antonio Agirre ziren. Nesken irakasleak aldiz Maite Laskibar tolosarra eta Tolosako Udaberri dantzari taldeko kideak, gerora Jose Leon Larrarte izan zuten. Azken talde hau Tere Mozo irakasleak gidatzen zuen, eta dotriñetan edo elizaren lokalean aritzen ziren entseiatzen. Bi dantza talde hauek 1972 bitarte aritu ziren Anoetan eta inguruko herrietañ emanaldiak ematen.

Gerora, 1975 aldera, Lourdes Alberdi, Lourdes Saralegi eta Maria Jesus Elizegi aritu ziren herriko gazteenei dantza irakasten. Gerora, Arkaitz-txiki eta Txalaparta dantza taldeak sortu ziren eta egun, Udal Dantza Eskolak hartu du aurrekoek utzitako lekukoa¹⁹.



Anoetako Udal argazki bilduma

1952ko abuztuak 30ean Eskola Nazionalen inaugurazioan. Herriko dantzariak Luis Carrero Blanco geroago Espainiako gobernuko presidenteordea, Joaquin Ruiz Jimenez eta agintariei arkua egiten.

¹⁷ Gorosabel, Pablo de: *Noticia de las Cosas Memorables de Guipúzcoa*. Tomo I. Imprenta, Librería y Encuadernación de E. López. 1899, Tolosa.

¹⁸ Rojo, Fernando eta Errazkin, Mikel. *Dantza Anoetan*. www.dantzan.com/edukiak/Anoetadantza. 2003, Anoeta.

¹⁹ Urruzola, Juan Mari eta Rojo Fernando: *Euskal Dantzak Tolosaldean: Tradizioa ala ikuszkizuna*. In Sukil nº3 Cuadernos de Cultura Tradicional. Ortizadar Euskal Folklore Taldea. 2000, Iruña.



Agirre Oioko familiaren argazki bilduma

Anoetako pilotalekuaren ateratako herriko dantzarien argazkia, Korpusetan 1967an.
 Goran: Ramon Murua (erretorea), Jesus Mari Agirre, Eduardo Mujika, Martin Errondosoro, Juan Joxe Sarasola, Juan Karlos Etxebeste, Jose Antonio Zabaleta, Jose Antonio Gorostidi, Inazio Intza.
 Erdian: Marisa Iraola, Amaia Etxeberria, Bittori Zugasti, Begoña Urkizu, Rosa Mari Amondarain, Maxux Arregi, Jose Antonio Agirre (dantza irakaslea), Manuel Odriozola (dantza irakaslea)
 Beheran: Pedro Mari Zabala, Arantxa Mujika, Miren Gorostidi, Garbiñe Etxeberria, Eleni Arregi, Inma Gorostidi, Rosario Salamero, Joakin Iraola, Manu Odriozola.

4.2.4.- Txistulariak²⁰

"Ez da sortu eta asmatuco ere euscalduentzaco oslancai edo instrumento pozgarriagoric, nola diraden damboliña eta txilibilitua" dio Iztuetak. Eta Zaldibiako koreografo honek esaten zuenez, Gipuzkoako herriean txistulari eta dultzainero asko zeuden "beragatik izan da orube edo suelo maitagarri au beti, ain jostatia eta pozcarria; ala lan egunetan mendi, eche atari eta baoetan, nola jai guziaz plaza agirico- etan"²¹. Hona 1734an Andoiano danbolinteroak Anoetaren alde onartutako betebeharra²²:

"En la Villa de Anoeta a 11 de abril de 1734 ante mí el escribano de número Tomás de Angel Ventura y testigos abajo nombrados pare-

cieron presentes por la una parte los Sres. Martín de Munita (...) alcalde de esta villa de Anoeta, Juan Bautista de Munita y Andrés de Echeberria, regidores y Martín de Arano de Echeberria, síndico tesorero de ella, y por la otra Pedro de Elosegui, músico tamboril vecino de la villa de Andoain. Y dijeron que entre sí estaban ajustados y convenidos en el que citado Pedro de Elosegui como tal músico tamboril haya de servir a esta citada villa y su plaza en el discurso de nueve años corrientes desde la fecha de esta escritura en adelante, en tañer la flauta y tamboril según constumbre en las fiestas del señor San Juan Bautista (fiestas patronales), veinticuatro de junio de cada año, comenzando desde su víspera hasta el tercer día (...), pudiendo asistir por sí mismo, y no poder por causa de enfermedad u otro accidente igual,

²⁰ Testigantza ondokoei jaso zitzainen 2005eko maiatzean: Ramon Urruzola Arnaiz, 1942a jaioa, tolosarra; Jabier Sarasa Ameztoi, 1945an jaioa, iruratarra, eta Joxe Goiaren Urkia 1946an jaioa, iruratarra. Azken biak Anoetan bizi dira.

²¹ Iztueta, Juan Ignacio de: *Guipuzcoaco dantza gogoangarriac*. La Gran Enciclopedia Vasca. 1968, Bilbao.

²² Gipuzkoako Artxibo Orokorra, 2637. paper sorta. 50. orria. 1734. urtea. Aranzadi Zientzi Elkartearren Tolosaldeko Kultur Ondarea eta Historia egitasmoa.

en tal caso habrá que enviar otro músico tamboril en su lugar, que sea capaz para el intento, y por esta ocupación esta dicha villa y en su nombre su síndico tesorero le haya de pagar a dicho Pedro Elosegui o (a) su sustituto cuatro ducados de a ocho de a doce reales de vellón cada uno, y además el coste y mantenimiento de su persona, incluso el almuerzo de la cuarta mañana. Y en el caso de que el cuarto día después de los tres referidos suceda día Domingo, asimismo dicho Pedro esté obligado en tañer conforme día de San Juan y los demás y que este día se le corresponda al respectivo por esta dicha villa, dando siempre a la despedida su almuerzo como dicho es.

Asimismo asentaron por condición ambos los comparecientes de que el dicho Pedro haya de servir a esta villa por sí o por su sustituto

capaz en todas las ocasiones (que) se le ofreciese y fuese llamado por esta dicha villa sin la menor excusa, y por este trabajo se le haya que pagar o dar discrección lo que justamente mereciese y fuese justo. Y el dicho Pedro enterado de todo lo arriba contenido, dijo se obliga y se obligó con su persona y bienes muebles o raíces conforme dicho a dar cumplimiento de la obligación de suso, y dichos señores comparecientes obligaron también a lo sobredicho los propios haber y rentas de esta dicha Villa".

Herriko zaharrenek jasoa duten bezala, XX. mendearren bigarren erdira arte San Joan festetan txistu eta atabalaren soinuarekin soilik dantzatzen zen, gerora herriko gazteak hasi omen ziren eskusoinua sartzen, 1960 aldera.



Guadalupek bandera irabazi ostean, agintariak, Guadalupeko enpresaburuak, arraunlariak eta txistulariek Modestoeneako bidean: Javier García atabalaria, Joxe Goiaran eta Javier Sarasai txistulariak eta atzean Txomin Garmendia, Tomás Etxeberria eta Ramón Ayerza arraunlariak eta Anjel Aranburu entrenatzalea.

2005eko maiatzean Joxe Goiaranek utzitako argazkia

Anoetan, dantza-sokari musika jartzen eta Anoetako San Joan jaietan txistua jotzen Ramon Urruzola tolosarra ibili zen 1956tik aurrera, Juanito Gabarain tolosarra atabalari zuelarik. Gerora, Martin Laskorain villabonarra, Joanito Lertxundi villabonarra, Juan Inazio Elosegi tolosarra eta Roberto Garate amasarra aritu izan ziren.

1962an, Jabier Sarasa eta Joxe Goiaren iruratarraak hasi ziren Anoetako ospakizun ezberdinetan txistua jotzen, Ramon Urruzolak Tolosako festak zirela-eta, bertaratuz ezin zuenez. Anoetan bizi diren bi txistulari hauek hamaika urterekin hasi ziren txistua jotzen ikasten, Miguel Martinez de Lezeak irakaslearekin, Jose María Garmendia apaizak erositako txistuarekin. Aldi hartan Javier García iruratarraak jotzen omen zuen atabalari.

Gerora, 1968an Pedro Ugarte gehitu zitzainean txistu taldeari, azken honek eta Jabier Sarasak txistua jotzen zuten, Joxe Goiaranek aldiz, atabala. Hiru txistuzale hauek, Pedro Ugarte hil arte aritu ziren herriko ospakizunetan txistua jotzen, 1998 arte. Txistulari jantziarekin atera ohi ziren plazara, alkandora zuriz eta galtza urdin ilunez.

Txistulari talde honek ohitua zuenez, San Joan eguneko goizeko seietan herrian zehar goiz eresia egiten zuen eta jarraian, *Ergoien* bailarako baserrietatik zehar kalejira egiten zuen. Hainbat baserritan harrera egiten zieten, gosaria eskainiz. Hamar t'erditan Udaletxetik agintariekin meza nagusira joan ohi ziren *alkate soiñua* joaz, han meza-erdian agur jaunak jotzen zuten, eta meza amaieran agintariekin Udaletxera itzultzen ziren.



Pedro Ugarte, Jabier Sarasa eta Joxe Goiaren Anoetako txistulari eta atabalariak.

Joxe Goiaren argazki bilduma



Jabier Sarasak 1987tik irakasten du txistua jotzen, hasieran Añoetako Udal Musika Eskolan eta 2002az geroztik eskualdeko Loatzo Musika Eskolan. 2003. urtean, musika eskolako ikasleekin Udal Musika Banda osatu zen, bederatzi txistularirekin. Orduz geroztik, herriko jai esanguratsuenetan ez ezik, hileko azken igandean burutu ohi dute goiz eresia.

4.2.5.- Santa Ageda bezpera²³

Badirudi XIV. mendekoa dela Siziliako Quiciano gobernadorearekin ezkondu nahi ez eta, bularak moztu eta hil arte torturatu zuten santa martiriaren debozioa Elizaren barnean.

Dena den, Euskal Herrian ospatzen den Santa Agedak mito paganoetan du oinarria. Emeterio Sorazu²⁴ Euskal Herriko ohitura zaharrak aztertu dituen adituak dioenez, egun horretan egiten diren afariekin eta Santa Agedaren inguruko festa osoak zerikusi handia dute inauterienkin. Inauteriak inausketa-garaian ospatzen ziren, zuhaitz-adarrak kimatzzen ziren garaian. Badirudi, jai horien sustraian gizon-emakumeen arteko harreman amodiozkoak zirela nagusi. Eta hala, mutilak koplak kantatzetik janariz ondo hornituta etortzen ziren bitartean, herriko emakumeek piper-opilak, intxaurrek eta gozokiak eraman eta afaltzeko lekua prestatzen zuten. Kristau doktrinak lizunkeriazko bekatua gaitzesten zuenez, Elizak bekatzeko giro hori garbitu eta nolabait "bataiatzeko" Santa Agedaren jaia antolatu zuen.

Martiri honen omenezko ospakizunak, "*legiarekin konplitzu*" kantu eta eskean ibiliz burutzen zen Euskal Herriko herri askotan, koblestan santuaren bizitzaren berri emateaz gainera etxekojaunei eta etxekoandreei jakia eskatzen zitzaien.

Añoetan, gaur egun bi talde ateratzen dira kantari, Añoetako Ikastolako haurrak eta Añoetako Kantu Taldea. Nahiz eta indar handia duen "santa eskea" deituriko honek, nahiko ohitura berria dela esan daiteke.

Añoetako Ikastolako haurrak eta irakasleak XX. mendeko 70. hamarkada amaiera 80. hamarkada hasieran hasi ziren Añoetako kale-etxe eta herrigunetik gertuen kokatuta dauden baserrietan zehar abesten. Azken urteetan Loatzo Musika eskolan musika tresnak jotzen ikasten duten ikasleen musika soinuarekin eta Euskalaz Bizi ekime-

naren barnean DBHko ikasleek osatutako koplak kantatz betetzen dute santa eskea. Ospakizun honetan jasotako dirua hasiera batean Ikastolaren beharretarako erabiltzen bazeen ere, egun, bildutako dirua Añoetako Ikastolako azken ikasturtean ikasten ari direnen ikasbidaia ordaintzen laguntzeko bideratzen da.

Helduagoei dagokienez, Añoetan lehen aldiz 1970eko otsailak 4an atera zen talde bat kantari, Txomin Garmendia bertsolaria koplak kantatzen aritu zelarik.



Argazkia: Paitxi Sanz

²³ Santa Ageda bezperako usadioaren inguruaren 2005eko apirilean zehar ondoko añoetarrei jaso zitzaien testigantza: Loli Mujika Arregi Iriarteberu etxearen 1948an jaioa; Mari Jose Iturrioz Urkiztar 1956an jaioa, Manuel Odriozola Otaegi, Goikoetxea baserrikoa eta 1931ean jaioa. Periko Peñagarikano Labaka 1955ean jaioa, Isabel Berasategi Ormazabal Modestoeneakoa 1922an jaioa eta Anjel Mari Peñagarikano Labaka 1957an jaioa

²⁴ Sorazu, Emeterio: *Antropología y religión en el pueblo vasco*. Caja de Ahorros Provincial de Guipúzcoa. 1979, Donostia.



Gerora, 1981an, hogieren bat eliztarrek osatutako talde bat Felix Atxega akordeoia jotzen zutelarik eta Anjel Mari Peñagarikano bertsolaria koplak kantatzen Anoetako kaleetan eta herrigunetik gertuen kokatuak dauden baserriean kantatzen atera ziren hiruzpalau urtetan. Santaeskean jasotako diruarekin elizako bankuak erosi ziren ordura arte Anoetako San Joan parrokian aulkietaen esertzen baitziren bertako kristauak.

1989an hasi eta bizpahiru urtetan Kuku elkartearen ekimenez hogeita hamarren bat herritar atera ziren ohiko jantziarekin (brusa beltz, lepoko zapia eta txapela mutilek eta soinekoia eta buruko eta lepoko zapia neskek). Aldi honetan Andoni Argoitiak²⁵ zuzendu zuen kantu taldea eta Anjel Mari Peñagarikano herriko bertsolariak kantatu koplak. Talde honek Anoetako ia baserri guztiak igarotzen zituen kopla kantari, baita herriko taberna eta kale-etxeren bat ere. Bildutako saria-rekin afaria egiten zuten, egunean bertan Kuku elkartean.

1994an Kontxi Luluaga zuzendari zelarik, Anoetako Ikastolaren ekimenez helduen santa-eskeko taldea berrantolatu zen; ordudanik, huts egin gabe, urtero-urtero, atera da kantari Kantu Taldea. Talde hau Xalbador Garmendiak zuzentzen du, akordeoia Ainhoa Elizondok jotzen eta koplak Anjel Mari Peñagarikano bertsolariak abesten. Hogeita bost kantariz osatutako talde hau otsailaren 4ean, hiru t'erdi-tan geratu ohi da herriko ikastolan, kafea hartu eta azken entseua egin ostean *Goibaillaruntz* abiatu ohi da auto ezberdinetan banatuta.

Lehen geldialdia Zumalikardiko baserritarrek duten Sarasola sagardotegian burutzen da, bertan *poltseroari* diruaz gain, taldeki-deei sagardoa eskaintzen diente bertakoek. Ondoren Bideondo eta Asuribar baserriean kantatzen dira Santa Ageda koplak. Handik Elbarrena bailaran, Ateagaetxeberria, Luebana, Etxeberria, Arrutarte, Tapia, Sarobe baserriko bi etxebizitzak eta Allirin burutzen dira geldialdiak. Ezinbesteko beste kantu saioa anoetarrentzat historian zehar bilgune izan den Modestoenean egi ohi da. Ondoren, Ergoien bailaran, Barrundia baserriko bi etxebizitzetan, San Joan, Txulo eta Argindegia baserriean kantatu ohi da. Ondoren kaleko hainbat etxe eta auzotan abesten dira koplak, azkenik herriko Izarti, Itzuli, Haizea eta Arkupe tabernetan abesten delarik.

Baserritarrek ordain bezala diruaz gain ardoa eta gaietak atera ohi dituzte. Arratsaldean zehar jasotako diruarekin, gaueko bederatzia-

aldera Kuku elkartean bertako baskideek prestatzen duten afaria egiten dute taldean parte hartutako guztiekin.

Anoetan, *Santa Ageda eskian* taldeak eta bertsolariak ondoko koplak abesten dituzte: Lehenik eta behin taldekoek ondoko abestia abesten dute:



Argazkia: Paitxi Sanz



Argazkia: Paitxi Sanz

²⁵ Andoni Argoitia, *Argoitia anai-arrebak* musika taldeko kantaria izateaz gain Anoetako alkatea izan zen 1979-87 bitartean.

*Zorion etxe ontako denoi
oles egitera gatoz;
aterik ate oitura zarrak
aurten berritzeko asmoz.
Ez gaude oso aberats diruz
ezta ere oiñetakoz;
baiña eztarriz sano gabiltza
ta kanta nai degu gogoz.
Santa Ageda bezpera degu
Euskalerriko eguna;
etxe guztiak kantuz pozteko
aukeratua deguna.*

Jarraian ondoko koplak kantatu ohi ditu taldeak:

*Bedeinkatua izan dedilla
etxe ontako jendea
pobre ta umil dabiltzanentzat
badute borondatea*

*Otsailaren lauean
Santa Ageda bezperan
usriorik galdu ez dedin
etorri gera ustean.*

*Santa martiri maitea
dago errukiz betea
berak alkantzatuko digu
osasuna ta pakea.*

Ondoren, bertsolariaren koplak eta taldearen ondoko kopla tartekatzen dira:

*Dios te Salbe ongi etorri
gau on Jainkoak diela,
gabon Jainkoak diela eta
bihar egun on digula.*



Argazkia: Patxi Sanz



Argazkia: Patxi Sanz



Anjel Mari Peñagarikano bertsolariak hasiera batean 8A, 8A, 10, 10A bertso egitura erabili izan bazuen ere, azken urteetan "lauko handia" erabiltzen du, 10, 8A, 10, 8A egitraduna, bedeinkatua izen dedilla izeneko doinuarekin²⁶. Bertsoaren estetikari dagokionean, kale hizkerako erroregistroa erabiltzen du, ia eduki poetikorik gabea, bertako hizkeran oinarritua, erreferentzia lokal eta aipamen pertsonalez betea, bat batean jasotzeko mezuekin; herritarrentzat oso gertua den erroregistroa darabil. Jarraian jasotzen den lehen bertsoa 1981ean abestu zuen, herrian nahiko berria zen usadioaren berri emanet. Bigarrena aldiz, 2003an Zubiaurre etxe-ko hiru bizitzako balkoietan kopla entzuten ari zirenei euren ize-nak aipatzen zituen ondoko kopla kantatu zien:

*Biraka dabil deztera²⁷,
gu batera ta bestera;
etxerik-etxe ospatzent degu,
Santa Ageda bezpera.*

*Agur Pakita, agur Kristina,
Bittori ta Mari Tere,
hola ikusi nahi zintuzketet
datorren urtean ere.*

Argazkia: Patxi Sanz



Ohitura handia dago baserrietan osasunik onena opatuaz bertako pertsona nagusienei zuzendutako bertsoak kantatzeko, ondoko bertsoa 2002. urtekoa da, urtebete lehenago Zumalikardiko nagusia santa-eske bezperan gaixotu zenez, ezin izan zituen kopla kantarien kantak entzun, urtebete beranduago, usadioari jarraituz han zegoenez, ondokoa abestu zion bertsolariak:

*Esan zidaten dexente gaizki
zebilela Anixeto,
eta hara non aurkitzen dedan
sekula baino hobeto.*

Kopla askotan bertsoa eskaintzen zaionaren langintza ere aipatu ohi da. Lehen adibidea 1981 urte aldera Anoetan Kasto izeneko errementari ohiari botatakoa da. Bigarrena aldiz 2000. urtean Asuribarko Inazio Garmendiari botatakoa da, Inazio etxegilea izana da, eta oso itxura osasuntsua lanbidearekin uztartuaz kantatutakoa da. Hirugarrena aldiz, Modestoenean abestua da, Modestoenea, denda eta taberna da, urte guztian irekita egoten zena, 2002an, bertan ondoko bertsoa kantatu zen:

*Zure tenaza ta hauspo
zenbat burdin eta trasto
errerotzan ta balkoi konpontzen
moldatzen al zera Kasto.*

*Ongi dakizu zeran ezkero
etxegile izandua
osasuna da bizi izateko
beharrezko zimendua.*

*Urdailazpiko ta txorizoak
hemen sapaian zintzilik
taberna batzuk ixten dituzte,
Moxtone beti zabalik*

²⁶ Bedeinkatua izen dedilla izeneko doinua Manuel Lekuonak jasoa da. Dorronsoro, Joanito. *Bertso Doinutegia*. Euskal Herriko Bertsolari Elkartea. 1995, Donostia.

²⁷ Deztera edo gezteria-harría alzkorak zorrozteko erabiltzen den harri birakaria da.

Bertsoan erabili izan den beste gaia, nesken edertasunari goratzarre egitea da.

Ondoko bertsoa, gutxi gorabehera 1982an kantatua da:

*Garbitasuna zuriz jazten da
ta itxaropena berdez,
zeinen neskatxa zoragarria
etxe honetako Lourdes.*

Umorea oso erabilia den erregistroa da Santa eskean, lehenengo kopla 2005eko Santa Ageda bezperan Arrutarten abestua da, bigarrena, aldiz, 2001ean Zumalikardikoek duten Sarasola sagardotegian botatakoa:

*Joan dan urtean asko eskatu
eta gutxi eman zendun,
ea ba aurten gutxi eskatu
ta asko ematen dezun.*

*Ziri freskotik edan nahi degu
ez iturri epeletik,
trago bat pozik egingo nuke
zazpigarren kupeletik.*

Santa Ageda bezperako itzulia nagusiki baserriean egiten denez, baserriaren egoera, baserritarren arazoak eta baserriko kontuak oso presente izaten dira bertsolariaren jardunean, jarraian aipatzen den adibidea Etxeberria baserrian 2005ean abestutakoa da:

*Etxeberrian badago hainbat
berdura eta barazki,
beti hortatik jaten duena
ez da ibiliko gaizki.*

Baina ez dira beti gai alaiak Santa Ageda bezperan abesten direnak, 2002an Modestoeneako alabetako bat hil berria zen kantu taldea bertaratu zenean, testuinguru horretan erlijiozko erregistroa erabili zuen Anjel Marik:

*Zoritxarrean Moxtoenean
daude malko dariela
zuek pentsatu falta dan hura
goitik begira dagola.*

Kale-etxtetan eta auzoetan abesten direnak aldiz, balkoira atera ohi direnei zuzenduak izaten dira, oso bertso nominalak. Jarraian jasoa agertzen den lauko nagusia, Anjel Mari Peñagarikanok bere ama eta ilobei botatakoa da, 2003an:

*Ama Felisa hor ikusten det
bigarrengo etxebizitzan,
Alex ta Ane gustora daude
bere amonaren gerizan*

Tabernetan umorezko bertsoak izaten dira nagusi, tabernan daudenei botatakoak. 2002an Izarti txokolategian ondokoa bota zuen Peñak:

*Goizetan beti Gararen bila
etortzen naiz Izartira,
maxiatu nahi duten andreak
hementxe elkartzen dira*

Amaitzeko, ohiturazko da, gizalegez, afaria jarri duten Kuku elkarteko bazkideei esker bertsoak abestea. 2003an, kanta saioa inoiz baino gehiago luzatu zenez, aurrikusitako ordua baino beranduago heldu zirenez kantu taldekoak zera kantatu zien sukaldariei bertsolariak:

*Zuek lanean eta gu berriz
orduan ezin iritsi,
eskerrik asko zuri Etxarri,
berdin Periko ta Patxi.*


Bertsolariak geldialdi bakoitzean hiruzpalau kopla abestu ohi ditu, taldeak “*dios te Salbe*” abesten duelarik kopla artean. Amaieran, hartu beharreko saria hartu ondoren, eskean dabilen taldea urrundu egin ohi da ondoko kopla abestuaz:

*Eskupekoak hartu degu ta
orain joan gaitean
adiosikan eztegu eta
agur urrengoko artean.*

2.6.- Eguberri bezpera²⁸.

Euskal Herriko baserritarrek udako solstizioan ezezik, negukoan ere suarekin ematen zioten azken agurra urteari, eta, garai hartan, neguko solstizioaren ohorez jai handiak egiten ziren, eguzkiaren jaio-tza zela-eta. Gabon gaua eta neguko solstizioa irudikatzen dituen euskal pertsonaia mitologikoa Olentzero edo Olentzaro da. Ohitura pagano hori kristautasunak bereganatu zuen. Honela, Olentzero, Jesusen jaiotzaren berri ematera jaitsitako artzain edo ikazkin bezala irudikatu izan da. Kanta eta ohitura ugari sortu dituen pertsonaia honi izen desberdinak eman zaizkio, Anoetan Olentzaro eta Olentzero izenak erabiltzen direlarik. Ahozko tradizioak dioenez, Gabon gauean portaera zintzoa izan duten haurrei opari eta jostailuak ekartzen dizkie.

"Olentzaro"²⁹ gabonetako erretzen zen enborrari deitzen zitzzion hasiera batean. Gerora, Euskal Herriko ekonomia eta bizimoduari



Argazkia: Anoetako Udala

2004ko abenduaren 24a, Olentzero Anoetako umeei harrera egiten.

dagokionez, lehen mailako jarduera izan zenez ikazkintza. Olentzero bera ere ikazkin bihurtu zuen herri gogoak. Basoa, sua, eguzkia... betiere gizakiaren eskuerakoak eta aldi berean misteriotsuak. Julio Caro Baroja³⁰, Olentzaroren mitoaz dioenez, naturaz gaindiko ikazkina eta solstizioaren garaian mundura datozen hildakoen ordezkarri izateaz bestalde, gure Olentzarok eguzkia berarekin zerikusirik badu.

Halere Olentzeroren sinesmena XX. mende hasieran ez zegoen batere errouta Anoetan eta XX. mende amaieran joan da txertatzen. 80eko hamarkadaz geroztik Olentzero astoaren gainean pipa hortzeta dula Isasti menditik jaitsi ohi da, herriko pilotalekuaren herriko hau-rei harrera egiten die, baita urte horretan nola portatu diren galdu ere.

Anoetan, abenduko hilaren hogeita lauean, eskean kantatzen ateratzeko ohitura oso zaharra da. Herriko zaharrenek jaso dutenez, XX. mende hasieran gazte taldeak eguberri bezperako inolarrean eskean ibili ohi ziren garai hartako baserri eta kale etxe bakanetan. Kantuz eskean ibiltze hori gauean oso berandu arte luzatzen zuten, gaueko ordubiak edo hirurak arte. Oso talde gutxik eramatzen zitzutzen musika tresnak. Esate baterako, Jose Luis Garmendiak, Arozetxekoak, gaz-taroan ondokoa abesten ibiltzen zirela dio:

*Inzentsua ta mirra
uriarentzako
zedozer guretzako
ez al da faltako*

Gerora, XX. mende erdira arte elizako koruan kantatzen zuen talde bat baserriz-baserri atera izan zen hainbat urtetan. Eliztar talde hau anoetar eta iruratarrez osatua zegoen, eta Patxi Arregi anoetarraren akordeoi-soinuaz lagunduta irten ohi ziren eskean. Urteren batean Olentzero ere atera zuten Potxoko astoaren gainean.

Eguberri edo Olentzero bezperan etxez-etxe eskean ateratze-ko usadioak ez du etenik izan Anoetan, eskola nazionala (gerora Eskola Publikoa) eta Anoetako Herri Ikastola urtero, goizetan atera izan baitira herriko gazteenekin. Gainera herriko gazteenak arratsaldetan, lagun taldetan banatuta ibili ohi dira etxez etxe eskean. XX. mendeko 80. hamarkadan, hainbat urtetan, aben-

²⁸ Eguberri bezperako eskearen inguruan 2005eko apirilean zehar ondoko anoetarrei jaso zitzaien testigantza: Loli Mujika Arregi 1948an jaioa, Iriarteburukoa eta Isabel Berasategi Ormazabal, Modestoeneakoa 1922an jaioa.

²⁹ Caro Baroja, Julio. *Euskal Jainko eta Jainkosak, Olentzero eta sorginak*. Gaiak argitaletxea. 1989 Donostia.

³⁰ Caro Baroja, Julio. *Ekialdeko Gipuzkoan eta Nafarroako mendialdeko herri batzutan neguko solstizio-jaiak*.

duaren 24ko arratsaldeetan herriko katekesi irakasleak atera izan ziren hainbat haurrekin. 1993az geroztik Añoetako Kantu Taldea ere atera ohi da Ollentzeroren etorrera abestera.

Añoetako Gazte Asanbladako gazteak urtero atera ohi dira eskean. Goizeko zortzietan geratu ohi da berrogei bat gaztez osatutako taldea. Talde honetako hainbat kidek trikitixa, akordeoia eta panderoa jotzen dute. 2003an talde hau Ollentzero eta Mari Domingirekin, Ollentzeroren laguna, atera zen. Lehen geldialdiak Goiballarako base-

rri eta etxeetan egite dituzte, ondorengoak Elbarrenan eta azkenik Ergoienen. Herriguneko auzoetan abesteko ohiturik ez dute, soilik herriko tabernetan. Herriko hiru bailaretako baserri eta etxeetan, bertakoek diruaz gain jan-edanak ere eskaintzen dizkiete taldekideei. Jasotako diruarekin gazteek Añoetako Goikoetxea tabernan egiten dute bazkari-legea. Arratsaldean, soinujoleen musikarekin kalejiran ibili ohi dira; jarraian Ollentzeroren jaitsieran parte hartzen dute, bertan, euren aldarrikapenak burutzen dituzte.



Añoetako Gazte Asanblada



Añoetako Gazte Asanblada



Añoetako Gazte Asanblada



Añoetako Gazte Asanblada



2002ko abenduaren 24a, Añoetako Gazte Asanbladako kideak baserriz-baserri eskean.

4.3.- Balore tradizionalen bilakaera.

XX. mendean, Euskal Herria bizimodu herritarretik bizi-modu hiritarrera lehenik eta bizimodu globalizatzailera ondoren igaro da. Honek gizarte moldeetan aldaketa nabi-riak bultzatu ditu: erlijiotik zientziara, landa guneetatik ingurune urbanora, nekazaritza ekonomiatik industria-ekonomiara. Honela, Anoetan, kultura tradizionalak bilakaera bat izan du. Bilakaera hau eragin duten faktore nagusiak populazioaren hazkundea, 20 urtetan biztanleria laukoitzuz, eta industrializazioa izan dira. Bilakaera horren eraginez, herritarren harreman sareak aldatu egin dira eta azken honen eraginez baita kultur espazioa ere. Honela, anoetarrek kultura tradizionala garai berrietara egokitutako dute. Kultura tes-

tuinguru geografiko eta temporal batean gertatzen den giza errepresentazioa izanik, denboran zehar etengabeko birko-katze bat behar baitu.

Gaur egun anoetako gizarte eragile ezberdinaren artean, XXI. mendeko giza adierazleei atxikitako adierazmoldeak, kultur errepresentazio modu ezberdinez kaleratzen dituzte: Anoetako gazte Asanbladak "*txirriskas*" gauean antolatutako kontzertuak; Anoetako Ikastolak inauterietan antolatutako antzerki-musika ikuskizuna; Ateaga Elkarreteak antolatutako lehiaketa gastronomikoa; Anoetako Udala Zuberoako Altzürükü herriarekin antolatutako kultur-elkartrukatze emanaaldiak; Anoetako herri-kirolzaleek *Bentaldean* antolatutako idi-apustua, Anoetarrok Auzolanean plataformak antolatuta-



Ignazio Garroñalaren argazki bilduma

1943ko Anoetako eskola-umeen argazkia.

ko dantza-soka, Loatzo Musika Eskolak antolatutako Kalderero kalejira, Kuku Elkarteak antolatutako 4½ barneko pilota txapelketa, AHT Gelditu! Plataformak antolatzen duen herriko nekazarien produktuen azoka, Anoetako 19 koadrilen artean antolatutako Koadrila eguna edo herriko talde eta herritar ezberdinen artean antolatutako bertso antzerkiak.

4.3.1.- Anoetarrak, kukuak³¹

Euskal Herrian eta Tolosaldean bereziki, oso ohikoa da herrietako biztanleei ezizenak ezartzea: Amezketakoak euliak, Alegiakoak txintxarriak... eta Anoetakoak kukuak. Kuku, beraz, ahoz aho jaso den eta izendapenerako erabili izan den izengoitia da. Ahozko literaturaren lekukoa. *Cuculus canorus* izeneko hegazti hau ugaria da gure Iurraldean; eta, agidanez, inguru honetan Anoetan egiten ditu lehen ku-ku hotsak, horregatik inguruko herrieananoetarrak kukuak bezala gara ezagutuak. Lehen kuku hotsak Osintzulo eta Basagain mendi inguruan entzuten omen dira, Goibailaran.

Neguko loalditik udaberriko susperraldira dagoen urratsa ezin hobeto agertzen digu kukuak, kukuaren kantuak, eta hutsik egin gabe egiten digu bisita martxoaren bukaera aldeera "Kukuak Andre Mari Martxozkotan kuku ..." eta gurekin igarotzen du udaberria "... ta San Pedrotan mutu" (martxoaren 25etik ekainaren 28ra, herri jakintzaren esanetan). Izua da oso eta hegan egiterakoan izutasun hori islatzen du, oso era berezian egiten baitu hegan; halere, oso zaila da hegan ikustea. Aditu aditzen bada ere, nekez ikusten da, 30 bat centimetro luze, gaina eta paparraldea gris urdinak ditu, azpia zurixka, marra ilun batzuk dituela eta isats luzea. Gainerako hegaztiek ez bezalako ohiturak ditu; hasteko, ez du habiarik egiten eta arrautzak txantxangorriaren edo beste txori baten habian erruten, jartzen ditu.

Kukua Anoetan oso sustraitua dagoen hegazti bat da, horren erakusle da bere inguruan jaso den esaera kopurua. "Kukue aittuit", esaten badu norbaitek; "Diruik ba al huan patrikan?", galdetuko dio besteak; izan ere, kukua aurreneko aldiz entzutean patrikan dirua daukanak urte guztian izango omen du dirua. Kuku hotsak udaberrian entzuten direnez, eguraldi ona datorrenean edo jendeak asmo berriak dituenean, agian kukua entzutearen poz horrekin erlaziona daiteke. Herri sineskeran kukua neguaren bukaera iragarriz, natura berpiztearen aitzindaria da³².

Beste kuku batek joko liguke esamoldea ere oso erabilia da, jokamoldea aldarazteko edo zerbaitetan oker ari garela adierazteko. Anoetako ereserkian ere, "Gora Anoeta"³³ ize-nekoan kukuaren aipamena ere nabarmena da:



Marrazkia: A. Domínguez. Patrónor-Aranzadi

Ezkerrik hasita, Kukuak, lehena arra eta bigarrena emea.

³¹ Maria Goenaga Goenaga, 1930ean jaioa eta Bideondo baserrian bizi dena eta Isabel Berasategi Ormazabal, Modestoeneakoa 1922an jaioari, 2004ko otsailean jasotako testigantzak.

³² Etxegoien, Juan Carlos "Xamar": *Orhipearan. Gure Herria ezagutzen*. Pamiela. 1992, Iruñea.

³³ Letra: Anjel Mari Penagarikano; Musika: José Luis Añcín.

Anoeta herria
ederra bezain zoragarria
kukuak ku-ku baso ertzetik
erreka garden, Ernio aldetik
zeruko intzez bustia
Uzturre aldetik dator eguzkia
baso, erreka, mendiz
zoratzen nauzu egiz
zuk dezun edertasun haundiz

1996az geroztik, elizaren kanpandorretik udaletxe aurrera Kukuaren jaitsiera egin ostean hasten dira Anoetako jaiak. Ondoren, haur danborradan lehen abestia, Gora Anoeta ereserkia, kantatu eta danborrez jo ohi dute herriko gaztetxoenek. Anoetako armarrian ere, kukuak leku garrantzitsua betetzen du.

Anoetarrei kuku ezizena esleitu izana Pello Errötaren Anoetako astoa izeneko ondoko bertsoetan ere garbi ikusten da. 1868. urtean iruratar batzuek anoetar batzuekin kartetan jokatu zuten, Anoetan. Partida bat amaitu eta ezin utzi, hurrengoan duro bana jokatza proposatu zen. Anoetarrak ez zeukan dirurik eta astoa jarri zuen jokoan. Irurarrek irabaztea gertatu zen eta astoarekin itzuli ziren herrira. Iruratarrek Pello Errötari gertaeraren berri ematen zuten bertso-paperak sortzea eskatu zioten³⁴. Bertso hauetan anoetarrak irrigarri uzteko herritarren identitate ikurra erabiltzen da. Bertso hauetan argi nabarmentzen dira anoetar eta iruratarren artean historikoki egon den lehia.

1.-
*Irurogei ta zortzi
milla zortzireun da.
Kristo mundura zala
garai onetan da, ku-ku, ku-ku.
Txiste politagorik
gertatutzen lan da,
guk nola egin genduben
Anoetara juanda.*

2.-
*Martxuaren lenengo
igande onetan, .
iruratar batzuek
giñan Anoetan, ku-ku, ku-ku.
Pelia maiz oi degu
ango lagunetan,
arraiskatubak gera
jokuko lanetan.*

3.-
*Gure jokuba etzan
izan jolasian,
azkenerako giñan
beruen klasian, ku-ku, ku-ku,
aberri jokatzen
dirurik ezian;
astua irabazi
diyegu musian.*

4.-
*Bost pezetaren prendan
astua zan jarri,
jokatuta okerrik
etzedin etorri, ku-ku, ku-ku.
Irabazi ta laister
Iruratara arri,
kontsuelo txikia
ez gendun ekarri.*

5.-
*Astua ona dago
erozeñentzako,
ernari dago beintzat
gure iritzirako, ku-ku, ku-ku.
Oraiñ asto bat eta
bi maiatzerako,
beste iru egingo ditu
oso zartzerako.*

³⁴ Zavala, Antonio. *Anoetako Astoa. in Pello Errota. Bizitza, Bertsoak eta Itzala*. Auspoaren sail nagusia. Doinua: "Hirurogei ta zortzi". Dorronsoro, Joanito. Bertso Doinutegia. Euskal Herriko Bertsozale Elkartea.

6-
*Zaldalia jateko
 onak dauzka ortzak,
 arrantzaz ta saltoka
 ortxen dabil pozak, ku-ku, ku
 tera zaizkiola
 barrunbeko otzak;
 eztauzka egun txarrak
 asto buztan motzak.*

7.-
*Asto mantent erreza,
 tranpak badakizki,
 libre uzten bazaio
 soruan da aurki, ku-ku, ku-ku.
 Topatzen dubenetik
 jango du galanki
 esi txarrak badaude
 ezta aren aitzeki.*

4.3.2.- Anoetarren armarri berria³⁵.

Anoetako Udalak gaur egungo anoetarren herri-identitatea indartzeko asmoa zuen; honela, herriaren ikurra, armarria alegia, berraztertea erabaki zuen. Eta herriaren ikur izanik, herri-tarren esku utzi zuen ordu arteko armarria herriaren sinbolo

bezala mantendu, egungo baloreak armarriari egokitu edo egungo gizartearren isla diren identitate sinboloak dituen gizarte berri-tuaren ikurra aukeratzea, hau da, armarri berria proposatu eta aukeratzea. Herriaren esku utzi zuen erabaki ahalmena.

Anoetako Udalak gaur egungo anoetarren herri-identitatea indartzeko asmoa zuen; honela, herriaren ikurra, armarria alegia, berraztertea erabaki zuen. Eta herriaren ikur izanik, herri-tarren esku utzi zuen ordu arteko armarria herriaren sinbolo bezala mantendu, egungo baloreak armarriari egokitu edo egungo gizartearren isla diren identitate sinboloak dituen gizarte berri-tuaren ikurra aukeratzea, hau da, armarri berria proposatu eta aukeratzea.

Herriko zaindariaren ikonografiatik...

XIX. mende erdialdetik, Anoetako armarriko gai nagusia arkume bat izan zen. Ebangelioen gainean, kokatua dagoen arkume honek bere hankapetik abiatzen den gurutze bat sostengatzen du. San Joan Bataiatzailearen ikonografia tradizionalaren isla zen, zeina kristautasunak gehien erabilitakoa duen. San Joan Bataiatzailea Mesiasen, Jesukristoren, etorreraren aurrendari eta berriemaile gisa irudikatzen da. Pazko Arkumea eukaristiaren sakramentuaren errepresentazio da; ebanjelioaren irudiak, aldiz, kristau dotrina, teofania eta agerpenaren edukiak azaltzen ditu. San Joan Bataiatzailea Anoetako patroi edo zaindaria izateaz gain, herriko parroquia bere omenez eraikia da.

ARMARI ZAHARRAK



³⁵ Agirre-Mauleon, Juanjo: *Udal armarriari buruzko txostena*. Aranzadi Zientzi Elkarte-Añoetako Udala. 2003, Añoeta. Eta Joxe Mari Sarasola Goenagaren, 1999-2003 urteetako Añoetako alkatearen testigantza, 2003ko urtarrilaren 10eko *Tolosaldean Egunero* egunkarian jasoa, Aloña Ipintzak idatzia.

Gutxi gorabehera azken 150 urteetan, Anoetako armarriaren motibo nagusia arkumea izan da, 1868tik tintazko zigiluetan dago dokumentatua. Motibo nagusi hori orla edo erramuen bidez dotoretua agertu izan da. Armarri horrek azken mende eta erdian, 50 eta 60eko hamarkadetan izan ezik errepresentatu ditu anoetarrak. Bi hamarkada hauetan Aragoiko Fernando eta Gaztelako Joanaren heraldikan inspiratutako diktadura frankistaren armarria erabili baitzen.

...lurraldetasuna, historia eta herritarren irudikapenera.

Behin *armari zaharraren* ikerketa burtu ostean, herritarren artean parte hartze dinamika bat abian jarri zen. Bertan zera lortu nahi zen, herritarren errepresentaziorik egokiena zen ikurra aukeratzea. Herriarrak balizko armarri berriaren ideiak aurkeztu zitzaten dinamizatu baziren ere paraleloki Anoetako Udalak Aranzadi Zientzi

Elkarteari herritarren identitatea islatzen zuten proposamen gaurkotuagoak egin zitzan eskatu zion. Aranzadi Z. E.ren proposamenak bi baldintza betetzea eskatzen zen. Lehena, herritarren errepresentazioa izan zedila noski, eta, bestetik, herritarren arteko desberdintasun ikurrak alboratzea. Bi balore horiek konstantetzat harturik, ondoko programaketa ikonografikoa burutu zen.

Oria ibaia eta Basagain mendia: Lurraldetasunaren errepresentazioa, Anoetaren geografia fisiko eta Naturaren adierazle. Oria ibaia Anoetari buruz existitzen den lehen irudi grafikoan azaltzen da, XVI mende amaierako plano batean. Anoeta Oria ibaiaren inguruari antolatu izan da historian zehar: bere errotentzat energia hidraulikoen indar iturria izan da, eta bere muga iriko garrantzitsuena. Basajaun udalerriko mendi altuera da eta bere hegalak, berriz, politikopoliki jaisten dira puntaren ezker-eskuineko ertzetarantz, erliebe biribilduxe eta suabe bat osatuz. Urdin eta zilar koloreak txandakatzen dituzten bost banda izurtu eta paralelok armarriaren punta zeharkatzen dute. Elementu honek Oria ibaia errepresentatzet du eta mendiaren edo erliebe fisikoaren berde edo sinople koloreari gainjartzen zaio.

Basagaingo herrixka: Historiaren errepresentazioa, gizakiak denboran zehar Naturaren osagaiak transformatu eta etxekotzean osatutako kultura materiala. Burdin Aroko herrixka hau Basagain mendiarren tontorrean kokatzen da, lurralde guztiaren gainean nagusituz. Herriko historian orain artean ezagutu den herrixkarik zaharra da. Oraindik burutzen ari diren indusketa arkeologikoak bi mila urte baino gehiagoko kastro edo gotortutako herrixka honen garrantzia azalerazten ari dira. Motibo ikonografikoak zera islatzen du: harrizko eta egurrezko defentsa elementuz inguratutako harresi barnean egur eta landarez eratutako txabolak. Burdin Aroko herrixka baten silueta idealizatua agertzen da, landarezko teilatua duten hiru etxe-bitzizaren gaineko irudi eskematizatuaren bidez errepresentatua eta erremate horzduen batekin kanpotik itxia, aipatu garaian herrixka hauek babeserako erabili ohi zituzten hesiak imitatu nahirik. Herrixkaurre edo hori kolorekoa da eta zilarrezko hondoari kontrajartzen zaio kromatismoz

Kukua: Herritarren errepresentazioa, anoetarrena alegia. Aitzineko atalean ikusi den bezala Cuculus canorus edo kukua ahozko literatura tradizionalak herriarrak izendatzeko jaso duen ezizena da. Armarrian kukua hegan irudikatzean denbora sinbolizatzen du,



ANOETAKO
UDALA

Añoetako geografia eta historia igaro duten belaunaldien sinboloa. Kukua kolore sable edo beltzez marraztearen arrazoia zera da. Kuku arra eta emea koloreengatik bereizten dira, kuku emea marroixka eta kuku arra grisaxka izanik armarrian añoetarren sexu bazterketarik ez irudikatzeko kolore neutral bat aukeratuta. Ingrune fisiko honetan eta Historiaren iragaten etengabean, herri edota komunitate proiektu honen alde jardun duten eta bizi diren pertsona eta auzoko belaunaldi ugari izan dira. Prozesu dinamikoa da, beti etorkizunari begira burutua, eta kukuaren irudia guztioren adierazgarria da, zeruertzantz beti hegan egiten, eta hain zuzen izengoiti horrekin dira ezagunak añoetarrak.

Beraz hiru ideiak honela lotzen dira: *lurraldearen barneko natura eraldatzean osatzen da historia, herritarrek osatzen dutena*. Gauzak honela, herritarren artean ordu arteko armarriaren egunertze edo balizko armarri berrien proposamenik ez zenez aurkeztu hurrengo fasea herri galdeketa antolatzea izan zen. Añoetan erroldatuta zeuden herritar guztiak parte har dezaketen galdeketan herriko armarriari buruz ondoko bi aukera zeuden: lehena, aurreko armarria mantentzea eta, bigarrena, Añoetako Udalaren ekimenez Aranzadi Zientzi Elkartea proposautua aukeratzea. Parte hartzerik handiena emakume eta helduena izan zen; eta, azkenik, bigarren proposamentua aukeratu zen. Añoetako Udalbatzak ahobatez onartu zuen 2003ko apirilaren 4an egindako ezohiko bilkuraren armarri aldaketa³⁶. Udalbatzaren bilkura jai giroan bideratu zen; Euskararen Udal Ordenantzak eta Hizkuntza Eskubideen Deklarazioa Unibertsala ere onatu ziren besteak beste. Jarraian Jone herriko kantariak hainbat kanta eskaini eta herriko hiru bailaren zehar Egunkariaren aldeko "korrika" herrikoia burutu zuten herriko talde eta kuadrilek eta gauen kontzertu bat burutu zen Gaztetxean.

4.3.3.- Hizkuntza, kultura, ahoz-aho transmititutako ondareak

Ahozko transmisioa, herri edo talde bezala dugun kontzientzia kolektiboaz osatzen dugun taldearen nortasunaren herentzia kulturala da. Ahoz aho ibilitako eta belarritz belarri jasotako hainbat istorio, mito, kontu eta kontakizun. Baita sukalde eta sutondoan gure

arbasoek transmititu diguten hizkuntza ere: euskara. Aspaldidanik esan zuen Mitxelenak³⁶, harritzeko zela nola bizi izan den euskara gizaldiz gizaldi gaur egun arte; inguruko herri guztiak beren hizkuntza galdu eta beste bat hartu dutenean. Alde horretatik, Erizek³⁷ dioden bezala, euskaldunen herri kontzientziari eta hiztun-entzuleen nortasuna gorde nahiari zor zaie, hein handi batean, euskarak oraindik ere hainbat denbora pasa ondoren bizirik irautea.

Naturaren dibertsitateak aurpegia asko ditu. Gizakiak ere munduan egoteko, bizitzan egoteko forma asko garatu ditu. Bizitzaren aurrean gizakiaren erantzuna, zorionez, ez da bakarra izan, anitza baizik. Erantzun desberdinak sortzen dira, munduan egoteko modu desberdinak, hori da gizateriaren aberastasuna, kolore ezberdinako itzal ezberdinez osatutakoa. Bizitzan egoteko erantzun desberdin hauek hizkuntzetan, kulturan kristalizatu dira.

Wilhelm Humboldt, 1801. urteko gutun batean Markinan ostatu eman zion Jose María Murgari zioenez, hizkuntza bakoitzaren barne egitura hizkuntza hori mintzo den herri edo nazioaren bereizgarria da, eta egitura horrek eraginik badu hiztunen munduareniko ikuspuntu moldatzeko orduan. Eta bizikizun horren espiritu hizkuntzak gordetzen zuen. Humboldten ustetan, gure bizitzeko erak eta hizkuntzak bazuten elkarren arteko lotura ezkuturik. Euskara zen gure identitate bereizgarria, mendez mende añoetako baserritarrek ahoz-aho komunitatearen adierazle bezala gorde duten sinboloa.



2000. urteko Korpusetan antolatutako lehen bertsotan antzerkiko zenbait aktore.

Argazkia: Iker Ugaldé

³⁶ Mitxelena, Koldo: *Lengua e historia*. Paraninfo. 1985, Madrid.

³⁷ Erize, Xabier: *Nafarroako euskararen historia soziolinguistika (1963-1936)*. Nafarroako Gobernua. 1997, Iruña.

³⁸ Añoetako Udal. 2003-04-04ko Udalbatzaren ezohiko bilkuraren akta. 2003, Añoeta.



Olozaga familiaren argazki bilduma

"Sociedade SHAREko laguntaldia, abenduaren 24 gaubian 1.951 garren urtian bere abestiak bildu zutenak 1.303 pezeta Irura ta Anoetako beartzuai laguntzeko.
Goran: Jose Arrieta (Irura); Leonardo Larrinaga (Irura); Carlos Bonilla (Irura); Migel Itsaso (Irura); ?: Jose Olartzabal (Ortzaika); Luis Izagirre (Irura); Felix Olano (Irura); Joanito Mujika (Iriarteburu); Jose Luis Ameztoi (Irura).
Beheran: Domingo Ameztoi (Irura); Patxi Arregi (Zubiaurre); Gregorio Ameztoi (Irura); Pako Bidaror; German Berasalegi (Modestoenea); Felix Olozaga (Agirre)".
Anoetako Eguberri bezpera eta Olentzeroren ospakizunarekin zerikusia duen argazkirik zaharrena. Astoaren izena: Potxoko (Anoetako Agirre baserriko).

Olotzaga Zarautz familiaren argazki bilduma



Olotzaga Zarautz familiaren argazki bilduma

Agirre baserriko familiaren argazki sorta honetan hainbat usadio errepresentatzen dira: emakumeak astoarekin azoka bidean, San Joan lizarrak baserriko atezaingoetan, Ernioko iraileko erromerian eta etxekek lursorotan lanean.

Olotzaga Zarautz familiaren argazki bilduma



Olotzaga Zarautz familiaren argazki bilduma



Olotzaga Zarautz familiaren argazki bilduma



Olotzaga Zarautz familiaren argazki bilduma

Anoetako herritarrok auzolanean. Pilotalekuaren inaugurazioaren egunean. 1942an. Modestoenearen aurrekaldean.




Olotzaga Zarautz familiaren argazki bilduma

Hainbat anoetarrekin egindako argazki montaia.
Tartean Nikasio Urkizu alkatea.

5. Anoetako baserriak



Anoeta, Tolosa eta Irura arteko bideen mapa. 1782. Gipuzkoako Agiritegi Orokorra.



1782. Asteasu, Zizurkil, Villabona, Andoain eta Tolosa bitarteko bideen mapa. G.A.O. (JD IM 2/7/105)

" N° 17: La casa llamada Eguzkiza en Anoeta.

Nº 18: Aguinaga Echeverría en Anoeta.

Nº 19: La casa llamada Bionda.

Nº 20: Las casas Zabalar en Asteasu.

Nº 21: La casa llamada Zabala Echeverria.

Nº 25: La villa de Anoeta.

Nº 26: La villa de Tolosa.

Nº 27: El lugar de Irura en el Camino Real de Coches.

Nº 28: La casa de Lasquibar en Irura.

Nº 31: Camino que baja a la regata y pasan la ría los de a caballo y caminos y carreteras sobre el ca..... por no haber puente.

Nº 32: El puente de Anoetta sobre la ría Oria que sale al camino real."

Izenaren esanahia



Baserri honen izena "(h)agina" (*Taxus baccata*) terminoak eta lekua adierazten duen "aga" atzizkiak osatzen dute. Hagina da Gipuzkoako armarrian ageri den zuhaitza.



Kokapena

Anoetako udalerrian kokatzen den altuera garaieneko baseria da, 310 m-tara kokatua. Belkoain, Buruntza eta Adarra mendien arteko espazioa bista izugarriak ikusgai dira bertatik. Goiballara auzoko baserri hau, Alkizako udalerriko mugatik oso gertu dago, 150 m eskasetara.

Hauexek dira bere koordenatuak:
X: 574462 Y: 4780619 Z: 273
Long.: -2 5 2 Lat.: 43 10 26
Altuera: 273 m.



Historia


Aginaga oinetxea Alkizan sortu zen XV. mendearren bukaeraren eta XVI. mendearren hasieraren artean. 1527an, jada, "Joanes" Aginaga bat azaltzen da Alkizako kontzejuaren zinpeko gisa. XVI. mendean, baserri berri bat eraiki zen aurrekotik hurbil, baina Anoetako Iursailetan. Gutxienez 1567tik existitzen da Anoetako Aginaga etxea eta 1592an "Aguinaga de Yuso" edo "Aguinaga Azpicoa" gisa azaltzen zaigu, hegalean gora zegoen etxe zaharretik bereizteko.

Hauxe da jabeen zerrenda: Julian Aginaga (1567), Maria Aginaga (1592), Gaspar Maioz eta Magdalena Urruzola (1657), Martin Arano Maioz Aginaga eta Maria Agirre (1690), Juan Maioz Aginaga eta Maria Jacinta Zuaznabar (1726), Migel Antonio Maioz Aginaga (1759), Juan Antonio Maioz (1804), Juan Bautista Maioz (1827). Nekazaritza eta abeltzaintza lanetan aritu zen azkena Faustino Maioz Sarasola izan zen, Juan Maria Arsuaga Eizmendirekin ezkon-duta, 1998an hil zen. Bost seme-alaba izan zituzten: Inmaculada, Isabel, Antonio, Paulino eta Margari. Jatorrizko abizena Aginaga bada ere, Maioz abizena baserriari dago lotuta XVII. mendearren lehen erditik. Hasieran konposatura izan zen, "Maioz eta Aginaga", baina urteen poderioz, Aginaga abizena galdu egin zen.

Maria Aginagak, 1594an, baserriaren Iursailak deskribatzen ditu: etxea inguratzen zuten "Yturriadas y Esaazpia" deitutako baratza eta lurrik ziren. Goitik, Alkizako Aginaga etxea zuten mugakide eta atzetik Anoetako kontzejuaren lur batzuk, "Otaçelai" deitutako soroan. 1690ean lur guztiak egiten zuten muga Ateaga baserriaren Iurrekin edo Anoetako kontzejuaren herri-Iurrekin. Juan Maioz Aginagak borda bat eraiki zuen 1728an. Baserri hau sortu zenetik eta 1835.urtera arte, Aginagaetxeberria baseria Aginagazpikoarena izan zen.

Egungo eraikina XVII. mendearren bigarren erdian nekazaritzaz-ustiarenak izan zuen garrantziaren eta indarraren leku da, bere eraikuntza inbertsio ekonomiko handia izanik. Halaber, gogoratu behar dugu produkzio-gunea zela eta 1797an hamazazpi lagun bizi zirela bertan eta hamabi 1802an.

XX. mende hasierako protagonistak Balentin Maioz Roteta eta Maria Sarasola Aranzabe, Bideondo baserrian jaioa, izan ziren. Ondoren semea Faustino Maioz Sarasola eta bere emaztea Juana Maria Arsuaga Eizmendi, azken hau Alkizako Saletxe baserrikoa.



Balentin Maioz Roteta

Maioz familiaren argazki bilduma



Maria Sarasola Aranzabe

Arkitekturaren ezaugarriak

Oinplano angeluzuzena eta bi isurkiko teilatua duen eraikin honen gailurra surrealde nagusiarekiko perpendikular dago. Kanpoko murruak harri-hormak dira, eskantzua izan ezik; hauek kateatutako kareharri harlanduzkoak dira. Nabarmentzekoa da eskantzuen eta leihoen inguruan dagoen harlanduzko harria. Sarrera nagusiak erdi-puntuko arkua du, nahiz eta egun goialdea hormatu eta ateburua egin dioten. Barrualdeak hiru solairu ditu, hiru hormarte dituen zurezko egitura baten gainean daudenak eta beraien artean eskailera baten bidez lotzen direnak. Hegal batean dagoenez, zuzenean sar daiteke ganbarara, uztak eta nekazaritza-lanabesak erraz garraiatuz.

Ondoren, mendebaldeko surrealdean bi estalpe atxiki zizkioten, bata XIX. mendean eta bestea XX. mendean azken hamarkadetan. Baserrien eraikuntzak XVIII. mendean lortzen du kalitate arkitektoniko handienetakoa. Aginagazpikoa dugu,

ezbariak gabe, XIX. mendeko Neoklasizismorako trantsizioan dagoen Anoetako harrizko baserri barroko garrantzitsuen lekuokirik hoherena. Surrealde nagusiko lehioak erregularki banatuta daude eta sarrera nagusiaren inguruan zentratuta. Lehio hauen ugaritasunak eta handitasunak etxearen aireztatzea eta argitzeko konzeptuetan eman den aurrerapausoa islatzen dute. Proiektu arkitektoniko honen beste agerpen bat surrealde nagusian duen eguzki-erlojua dugu.


Baserri hau eraikitzeo, segur asko, ondoan dagoen Aginaga Garaikoa (Alkiza) baserrian inspiratu ziren. Pello Jose Aranbururi eta honek Alkizari buruz egin zuen monografia historikoari esker dakigu 1655ean Migel Irazusta maisu eskultore barroko ospetsua jaoi zela bertan. Alkizako eraikin honek antzeko konposizio arkitektonikoa du. Landuagoa, horma pikoan idi-begi bat eta armari bat ditu. Ondoren, XVIII. mendearren bukaeran, egungo Aginagazpikoa etxea eraiki zen.



Teilitupeko baoen xehetasuna



Hegoaldeko aurrealdearen erdiko atalaren xehetasuna



Baserriaren Hegoaldeko fatxada nagusiaren aurretikoa bista

1. Aginagazpikoa

Juantxo Agirre-Mauleon




Baserriaren
Ekieldeko alboko
urrealdearen
ikuspegia orokorra



Baserriaren
Iparraldeko
urrealdearen
ikuspegia partziala



Goioko
solaruko
atea



Agiri zaharren aipamenak

- **1567 - 03 - 23:** Tolosako Antonio Asuragak, Anoetako Pedro Idaikatzi, Julian Aginagari, Domingo Iturgaitzagarri, Domingo Goikoetxeari, Joanes Argindegiri eta Joanes Arrutarteri 98 dukat zentsuan mailegatuak. 7 dukat urtero. Ordainketa bermatzeko: Anoetako Idaikaitz, Aginaga, Iturgaitzaga, Goikoetxea, Argindegia eta Mikelesagasti etxeak. GAO; pt; sorta17; orriak 239 a. - 242 g.
- **1571- 10 - 27:** Tolosako Bernart Katategik Anoetako Joanes Antzieta eta Katalina Arozetxea senar-emaztea eta Julian Aginaga eta Alkizako Juanes Aginaga eta Katalina Alkizalete senar-emaztei 56 dukat zentsuan mailegatuak. 4 dukat urtean. Ordainketa bermatzeko: Anoetako Arotzetxea eta Aginaga etxeak eta Alkizako Alkizaleteko. GAO; pt; sorta 47; orriak 74 a. - 77 g.
- **1589 - 05 - 12:** Anoetako San Joan Goikoa baselizan serora den Domenja Argindegik Tolosako Joanes Iriarteri emandako ordainagiria. 15 dukat Anoetako Argindegia etxeko erdiaren truke. Etxea 350 dukaten truke saldu zion. GAO; pt; sorta 89; orriak 46 a. - 46 g.
- **1592 - 05 - 23:** Esteban Zubiaurrek, Maria Aginagari mailegatutako 28 dukaiko zentsoa. Mailegariak berme gisa, Anoetako Aginaga Goikoa baseria hipotekatu zuen Altzibar Jauregi; Zentsu zergak; 1 sorta orriak 33.
- **1594 - 02 - 26:** Maria Aginagak, Anoetako Aginaga baseria hipotekatu zuen. Lur sail ezberdinen izenak aipatzen dira. Altzibar Jauregi; Zentsu zergak; 1 sorta 1; orria 47(1AF14 Mikrofilma).
- **1657 - 01 - 13:** Katalina Montefloridok Tolosako parrokian sortutako kaperautzak, Gaspar Maiozi, Magdalena Urruzola bere emazteari, eta Frantzisko Lizarraga eta Domenja Arteaga bermetzaileei, mailegatutako 100 dukaiko zentsoa. Mailegariak berme gisa, Anoetako Aginaga eta Ateaga baserriak, euren ondasunekin batera hipotekatu zituzten. Altzibar Jauregi ; Zentsu zergak; 3 sorta, 220.
- **1690 - 09 - 02:** Martin Aranoz Maioz Aginaga Aginaga baseria hipotekatzen du. Altzibar Jauregi; Zentsu zergak; 4 sorta orria 304. (1AF17 Mikrofilma).
- **1707 - 07 - 04:** Maria Agirre 350 dukaten truke bere ondasunak hipotekatzen ditu. Altzibar Jauregi; Zentsu zergak; 5 sorta orriak 333-347. (1AF18 Microfilma).
- **1711- 08 - 29:** Maria Josefa Maioz Aginagak, Juan Maioz Aginagari eta Maria Jazinta Zuaznabar bere emazteari, mailegatutako 100 dukaiko zentsoa. Mailegariak berme gisa, Anoetako Aginaga oinetxea hipotekatu zuten.ikus: ibidem. 6 sorta, 395 zbka; 5 sorta, 348; 6 sorta, 401; 6 sorta, 404 zbka; ibidem, zentsu berrerosketa, 1 sorta, 167 zbka. Altzibar Jauregi; Zentsu zergak.; 5 sorta, 335
- **1726 - 11 - 09:** Juan Arrutartek Anoetako parrokian sortutako oroitza eta kaperautzak, Juan Maioz Aginagari mailegatutako 44 dukaiko zentsoa. Mailegariak berme gisa, Anoetako Aginaga baseria eta bere ondasunak hipotekatu zituen. Altzibar Jauregi; Zentsu zergak.; 5 sorta, 353.
- **1727 - 03- 16:** Antonio Arrutarte presbiteroak, Juan Maioz Aginagari mailegatutako 100 dukaiko zentsoa. Mailegariak berme gisa, Anoetako Aginaga baseria eta bere ondasunak hipotekatu zituen. Altzibar Jauregi; Zentsu zergak.; 5 sorta, 354.
- **1728 - 06- 13:** Juan Maioz Aginagaren hipoteka, Aginaga etxea eta berreraikitzen ari zen borda izeneko etxea. Altzibar Jauregi; Zentsu zergak.; 5 sorta, 358. (1AF18 Mikrofilma).
- **1746 - 08 - 16:** Pedro Bidason Urrizeta eta Maria Elola bere emazteak Anoetako parrokian sortutako kantatutako oroitzek, Juan Maioz Aginagari mailegatutako 40 dukaiko zentsoa. Mailegariak berme gisa, Anoetako Aginaga oinetxea eta bere ondasunak hipotekatu zituen. Altzibar Jauregi ; Zentsu zergak; 5 sorta, 390.
- **1759 - 01- 25:** Miguel Antonio Maioz Aginagaren zentsu zergak 1800 dukaten truke, Aginaga etxea, Aginagaetxeberri eta Abaltzizketako Sasiaingien etxeak hipotekatzen ditu. Zentsu zergak; Altzibar Jauregi 6 sorta, 425. (1AF19 Mikrofilma).
- **1804 -10 - 22:** Anoetako Juan Urdanbidelus eta Maria Katalina Maiotz senar-emazteek, bertako Juan Antonio Maiotzi emandako ordainagiria. 200 dukat Aginaga azpikoa eta Aginaga-Etxeberria baserrietan zegozkien senipartea ordaintzeagatik. GAO; PT; sorta 2775; orriak 214 a. - 215 g.
- **1804 -11 08:** Tolosako Pedro Juan Izurkok Alkizako Martin Jose Tapiari Tolosako Etxe Zaharra izeneko etxea saldu dio, Anoetako Juan Antonio Mayor bermatzailea delarik. Etxearen ordainketa bermatzeko Juan Antoniok Anoetako Aginaga eta Aginagaetxeberria etxeak aurkeztu ditu. GAO; PT; sorta 2156; orriak 301 a. - 307 g.
- **1827 -12- 24:** Anoetako Aginaga eta Aginagaetxeberria baserrietako jabea den Juan Bautista Maiozek, parrokiako erretoritzako Miguel Munitaren alde bozkatzen du. GAO; PT; sorta 2805; orriak 179 a. - 179 g.


Izenaren esanahia

"Maioz eta Aginaga" familiak etxe berri bat eraiki zuen inguruan eta horregatik deitu zioten Aginagaetxeberria edo gaztelaniaz "la casa nueva de Aginaga". Honela, aurreko bietatik, hau da, hegalean gora ehunka metrora zeuden Aginagagaraiko eta Aginagazpikoa baserrrietatik bereizi zuten. Lagunartean "Aginetxeberri" edo "Aginaetxeberri" deitzen zaio.




Kokapena

Goiballara auzoan, mendi-hegalean dago kokatuta. Metro gutxi batzuk beherago, Asuribar, Aritzondo, Maldabe, eta Bideondo baserriak lotzen dituen eta Zumalikardiraino eta Asteasuraino doan errepidea dago.



Hauexek dira bere koordenatuak:
X: 574663 Y: 4780660 Z: 221
Long.: -2 4 53.1 Lat.: 43 10 27.2
Altuera: 221m.



Historia

Jatorriz, baserri hau Aginagazpikoa baserriaren borda zen eta Juan Maioz Aginagak 1728. urtean "berreraiki" zuen. Hortik aurre, nortasun propioa hartzen du eta agirietan argi eta garbi bereizten da. "Aguinaga Echeverria" basetxea Migel Antonio Maioz Aginagaren hipoteka batean azaltzen da jada 1759an.

Baserri honen lehen jabeak Juan Maioz Aginaga (1728), Migel Antonio Maioz Aginaga (1759), Juan Antonio Maioz (1802) eta Juan Bautista Maioz izan ziren. Ikus daitekeenez, baseria gurasoengandik seme-alabengana transmititzen zen Aginagazpikoa baseriarekin batera.

Eraiki ondoren, baserri hau behin baino gehiagotan eman zen errentan. 1809an Ana Josefa Ateaga bizi zen eta 1824an Juan Antonio Agirreri alokatu zioten sei urterako. Azkenik, baserriaren jabe Juan Bautista Maiozek bere semeari oparitu zion 1835ean. 1797an bost lagun bizi ziren.

Nekazaritza eta abeltzaintzako jarduera amaitu ostean, baseria saldu eta bi etxebizitzako eraikin bat bihurtu zen. Gaur egungo jabe berriek balio historikoak errespetatuz eta estimatuz berritu zuten, aurrealdeko itxura berreskuratuz eta barruko zurezko egiturari eutsiz.

Ezaugarri arkitektonikoak

Oinplano angeluzuzena eta bi isurkiko teilatua duen eraikin honen gailurra aurrealde nagusiekiko perpendikular dago. Kanpoko murruak harri-hormak dira, ekialdeko alboko aurrealdearen goiko solairuen zurezko egitura izan ezik. Egurrak hormen zurituan osatzen duen konbinazio kromatikoa da aurrealde honi balio estetikoa ematen diona. Eskantzueta eta jatorrizko baoen inguruan harlanduzko harri kateatuak daude, gaineko baoak berriki eraikitakoak dira, aipatutako zurezko egiturak daudenak izan ezik. Azpimarratzekoak dira gezileiho moduan ukuilua aireztatzen zuten bao txaranbelduak.

Aginagaetxeberria oraindik sostengatzeko funtzioa duen zurezko egitura zati bat fatxadetan azalarazten den baserri barrokoetako bat da. Denborarekin, baserri hauek desagertu egingo dira, ondoan dagoen Aginagazpikoa bezalako eredu arkitektonikoei bide emanez, non kanpoaldeko itxura guztia harrizkoa den.

Familian argazkia



Jatorrizko eraikinaren Mendebaldeko aurrealdea



Mendebaldeko aurrealdea egun




Mendebaldeko aurrealdearen sarrerako atea

Baserriaren Hegoaldeko alboko aurrealdea



Baserriaren Hegoaldeko alboko aurrealdea egun



Agiri zaharren aipamenak

- **1802 - 06 - 13:** Aiako Jazinta Iribarrek, 400 dukat mailegatzen dizkio Anoetako Juan Antonio Maiozi. Mailegua bueltatzeko Aginagaetxeberria baserriko errentak lagatzen dizkio. Mailegua 20 urtetan ordaindu behar da. Aginagaetxeberriko maizterrak: Maria Katalina Maiotz eta Juan Bautista Urdanbide ama-semea. GAO; PT; sorta 2775; orriak 116 a. - 117 g.
- **1804 - 10 - 22:** Anoetako Juan Urdanbidelus eta Maria Katalina Maioz senar-emazteek, bertako Juan Antonio Maiotzi emanda-ko ordainagiria. 200 dukat Aginagazpikoa eta Aginagaetxeberria baserriean zegozkien senipartea ordaintzeagatik. GAO; PT; sorta 2775; orriak 214 a. - 215 g.
- **1804 - 11 - 08:** Tolosako Pedro Juan Izurkok Alkizako Martin Jose Tapiari Tolosako Etxe Zaharra izeneko etxea saldu dio, Anoetako Juan Antonio Maioz bermatzailea delarik. Etxearen ordainketa bermatzeko Juan Antoniok Anoetako Aginaga eta Aginagaetxeberria etxeak aurkeztu ditu. GAO; PT; sorta 2156; orriak 301 a. - 307 g.
- **1824 - 12 - 15:** Anoetako Juan Bautista Maiotzek Amezketako Juan Antonio Agirreri Anoetako Aginagaetxeberria etxea alokatuta 5 urtez 29 dukaten truke urte bakoitzeko. Baldintzak zehazten dira.GAO; PT; sorta 2803; orriak 639 a. - 640 a.
- **1825 - 12 - 24:** Anoetako Juan Bautista Maiozek Igeldoko Juan Antonio Agirreri alokatutako Anoetako Aginagaetxeberria base-rria 6 urtez 30 dukaten truke urte bakoitzeko. Baldintzak zehazten dira.GAO; PT; sorta 2804; orriak 243 a. - 244 a.
- **1827 - 12 - 24:** Anoetako Aginaga eta Aginagaetxeberria baserrietako jabea den Juan Bautista Maiozek, parrokiako erretoritzako Miguel Munitaren alde bozkatzen du. GAO; PT; sorta 2805; orriak 179 a. - 179 g.
- **1835 - 03 - 02:** Anoetako Aginagazpikoa eta Aginagaetxeberria baserrietako jabea den Bautista Maiozek bere semeari oparitzen dio Aginagaetxeberria baseria. Baldintzak zehazten dira. Baserriko tasazioa zehazten da. GAO; PT; sorta 2813; orriak z/g.

Familiaren argazkia



Jatorrizko eraikinaren Ekialdeko aurrealdea



Ekialdeko aurrealdea egun

Izenaren esanahia

Agirre izen arrunta da eta Euskal Herrian zabalduen dagoen abizenetako bat. Bere izenak "leku garaia edo agerian dagoena" esan nahi du, oso aproposa gurea bezalako herrialde malkartsu batean. Konsultatutako agiri guztietaan Agirre izenarekin azaltzen da, "Aguerre" terminoarekin azaltzen den 1817ko aipamen batean izan ezik.



Kokapena

Elbarrena auzoan dago, ibar emankorraren gainean dagoen muino txiki batean eta Sarobe baserriaren ondoan. Baserriaren eta Oria ibaiaren ibilguaren artean, 200 metrora, trenbidearen ibilbideak zeharkatzen dituen nekazaritza-lurrik hoherenak daude.

Hauexek dira bere koordenatuak:
X: 576168 Y: 4780711 Z: 72
Long.: -2 3 46.4 Lat.: 43 10 28.4
Altuera: 72m.



Historia

Segur asko, nekazaritzako ustiategi hau XVI. mende hasieran sortu zen, izan ere, 1541ean jada aipatzen da baserri hau. XVIII. eta XIX. mendeen artean, baseria aitengandik semeengana transmititzen joan da: Francisco Iturrioz (1726), Manuel Iturrioz (1749), Jose Ignazio Iturrioz (1802), Manuel Iturrioz (1814). Eskualdatze hau maiorazkoari esker gertatu zen. Maiorazkoak jabetzaren zatiezuntasuna bermatzen zuen eta eskuarki seme zaharrena zen baseria oinordetzan hartzen zuena.

XX. mende hasieran Agirre baseria erre egin zen, gerora, Iturrioz familiak baseria berreraiki zuenean, Olotzaga familia maizter gisa bizi izan zelarik. Juan Jose Olotzaga, Ateagan jaioa, Etxeberria baserrira joan zen, ondoren, Agirre baseria berreraiki zutenean, Agirrera joan zen maizter. Juan Jose Olotzaga Ezeiza, 1870ko apirilaren 7an jaioa, Erausiko Josefina Aiestaran Agirrerekin ezkondu zen eta bederatziz seme-alaba izan zituzten: Martzelina, Ines, Zelestina, Felix, Julian, Pilar, Florentino, Bittor eta Maria Jesus. Juan Jose Olotzagaren aita, Juan Bautista Olotzaga Iguaran, Ameriketan ibilia omen zen.


Arkitekturaren ezaugarriak

Eraikina bi ataletan antolatzen da; bata nagusia, oinplano angeluzuzena eta lau isurkiko teilatua duena, eta bestea mendebaldekourrealdeari atxikitako eranskina, isurialde bakarreko teilatua duena.urrealde guztien berriztatze modernoak eta berritu-tako estalkiak eraikinari itxura uniformea ematen diote. Egungo jabeek, sute bat jasan eta ondoren berreraiki zutela dute gogoan. Azken berreraikuntza honen ondorio dira lau isurkiko teilatua, hiru solairuko egungo barne-antolamendua eta ate zein leihoen kokapen erregularra. Berriztatzearen azpian nekez ikus daiteke eraikuntza-xehetasunik, lehio eskartza-noak izan ezik. Leho hauen deskarga-arkua adreilu trinkoz egina dago. Agirre baseria XIX. mendearen bukaeran edo XX. mendearen hasieran berreraiki zen.

Baserriaren atarian Juan Jose Olotzaga eta bere ondoan eserita bere arreba. Seme-alabak zutik, ezkerretik hasita: Florentino, Pilar, Marcelina, Maria Jesus eta Felix

Zarautz-Olotzaga familiaren argazki bilduma





Felix Olotzaga
baserriko
gurdia-rekin



Maria Jesus eta Pilar Olotzaga lurra lantzen.
Atzean, trenbide eta ibaiaren beste aldean,
Irurako Laskibar baseria eta jauregia




Maria Jesus Olotzaga baserriko
idiekin eta karramarroarekin lurra
lantzen. Atzeko herria Amasa da



Martzelina eta
Florentino Olotzaga
belarra biltzen

Argazkiak Zarauz-Olotzaga familiaren argazki bilduma



XIX. mendeko
argazkia, Juan
Bautista Olotzaga
Iguaran izan liteke

Argazkak: Zarautz-Olotzaga familiaren argazki bilduma.



Agirre baserria XX.
Mende erdialdean



Agirre baserriaren
ikuspegia panoramikoa.
Atzean Sarobe baseria

Agirre baserriaren kokapena,
N-1 errepidearen parean.
Ondoan Sarobe baseria



Agiri zaharren aipamenak

- **1726 - 10 - 22:** Franzisko Iturriotzek Domingo Sarasola salatzen du. Anoetakoak Agirre etxeko maizterta dela eta. 1721an Agirre etxea Sarasolari maiztertan eman zion. Maizterta baldintzak azaltzen dira. GAO; CO ECI; 2153.
- **1749 - 11 - 15:** Anoetako Manuel Iturriotzek Adunako Andres Abalia salatzen du. Agirre etxeko maizterta ordaintzeko. Etxearen erdia alokatu zion.GAO; CO UCI; 1199
- **1802 - 07 - 11:** Anoetako Juan Miguel Insausti eta Maria Ignazia Antonia Iturrioz senar-emazteek, bertako Jose Ignazio Iturriozti emandako ordainagiria. 240 dukat Agirre baserrian zegozkien senipartea ordaintzeagatik.GAO; PT; sorta 2775 ; orriak 124 a. - 125 g.
- **1814 - 10 - 26:** Jose Ignazio Iturrioz eta bere semea den Manuel Iturriozten arteko hitzarmena. Agirre baserriaren maiorazkoa jasoko du bere semeak. Hitzarmenaren baldintzak zehazten dira. Anoetakoak dira biak. 1814ko egindako hitzarmena baliorik gabe gelditzen da. GAO; PT; sorta 2779 ; orriak 363 a. - 364 a.



Iparraldeko aurrealdearen ikuspegia orokorra



Ganbarara sartzeko arrapalaren azpiko arkua

Izenaren esanahia


Agiri zaharrenetan "Alliri" esaten zaio, nahiz eta bere izen arrunta "Allegi" izan eta ekialdeko aurrealdean duen marmolezko plakan honela idatzita egon.



Kokapena

Ordeka txiki batean dago kokatuta, Oria ibaiaren eta Basagain mendiaren gailurrera doazen hegal aldapatsuen artean sartuta eta metro batzuk iparralderantz, trenbide-pasagune bat dago.

Hauexek dira bere koordenatuak:
X: 575715 Y: 4780321 Z: 74
Long.: -2 4 6.6 Lat.: 43 10 15.8
Altuera: 74m.



Historia

Baserri honen kokalekua ez da aproposa laborantza-lanak egiteko. Bere kokapenaren eta existentziaren arrazoia XVI. mendetik Anoetako hirigunea eta Elbarren auzoa lotzen zituen eta Villabonaraino zihuan bidea izan daiteke.

Lehen datua oso bitxia da, izan ere, XVI. mendean Martin Alirik eta Pablo Erausik baserriak trukatu zitzuten. Bi jabeek beren etxeen abizena zuten, baina oinetxearekin zuten lotura familiar hori ez zen oztopo izan aldaketa egiteko.

1750. urtean, Anoetako kontzejuak baserriaren jabetza eskuratu, eta Jose Landa maisuaren proiektu arkitektoniko bat jarraiki, berreraiki egingo du. Lehenik eta behin, hargintza jarri zen enkantean eta lanak Anoetako Juan Bautista Ezeizari esleitu zitzaizkion. Ezeizak, berriz, Aginagazpikoa baserriko Juan Miguel eta Juan Maiozi eman zion kontratua. Eskrituretan baserria berrekitzeko baldintzak zehazten dira: "... que dicha villa (de Anoeta) haia de entregar todo el materal de cal, arena, piedra labrada y de mampostería ,siendo de cuenta del maestro el sacar ambos jeneros de piedra de la cantera y poner en el paraje en donde se puedan cargar los carros, y que tamvien sea de cuenta de el maestro rebocar las paredes nuevas y viejas por dentro y fuera...". Udalak harrobietarako sarrera eta materialaren garraioa doan eskaintzen zituen. Hargintzaren salneuria 1.634 erreal koartotan finkatu zen.

Jarraian, Anoetako Andres Bidaorri esleitu zitzaion arotzeria. Baldintzak ere aipatzen dira: "...haia de hacer los Basalanes en los parajes que le señalaran los señores capitulares de esta villa: que esta haia de ponerlo tamvien a su cuidado todos los acarretos y

poner todo el material necesario al pie de pie de la obra...", hau da, arotza izango da kontzejuak adierazitako basoetatik enborrak moztu behar dituena, baina azken hau izango da obraren leku-raino gurdietan garraiatuko dituena. Gainerako zurgintzako lanak egitea, "etxe zaharra" desegitea, teilaberritzea, etab., esleipendunari dagozkio. Arotzeriaren salneuria 2.298 erreal koartotan finkatu zen.

Esleipenak Juan Francisco Etxeberria alkateak eta Juan Antonio Goieneta eta Miguel Antonio Maioz zinegotziek egin zitzuten. Hamalau hilabete ondoren, lanak 1751ko apirilaren 21ean amaitu ziren.

Aliri baserria udalarena izan zen, harik eta 1810ean Pedro Juan Izurkori saldu zion arte. Gipuzkoako kontzejuek jabetza asko saldu behar izan zitzuten ezegonkortasun politikoaren eta Napoleonen soldaduen presentziaren ondorioz ordaindu behar zitzuten ohiz kanpoko zergei aurre egiteko. Testuinguru honetan eta urte horren bukaeran, kontzejuak San Joan Goikoa baseliza ere saldu behar izan zuen.

Ezaugarri arkitektonikoa

Egungo eraikina oso berrituta dago, 1960an sute bat jasan baitzuen. Baserria berreraitzeko, Anoetako baserritarrek auzolana egin zuten. Duela gutxi birgaitu egin dute berriro, hormak berriztatzetako eta barneko gelak bizilagunen behar berrietara egokituz. Barnean ez dago zurezko egiturak eta kanpoan, surrealdeak zuri-tu eta leiohen, ateen eta izkinen inguruan kareharrizko lauzak jarri dira. Murruak, oinplano angeluzuzena eta antolaketa salbu, ez da eraikin zaharraren aztarnarik bereizten.



Arsuaga Garmendia familiaren bilduma



Emiliano Garmendia eta Josefa Tolosa



Emilio Garmendia eta Josefa Tolosaren arteko ezkontza



Agiri zaharren aipamenak

- 1555 - 05 - 21: Anoetako Sebastian Arozetxearen hilburuko. Oinordeko: Katalina Arozeetxera Anoetako Sebastian Arozetxearen hilburuko. Oinordeko: Katalina Arozetxea.
- XVI. mendean: Pablo Erausiak Martin Aliriri Anoetako Erausia etxea trukean ematen dio. Berak Anoetako Aliri etxea hartzen du. Truken baldintzakin egiten da. GAO; PT; sorta 37; orriak 566 a. - 572 g.
- 1750 - 02 -05: Aliri baserriaren berreraikuntzaren hargintzako lanen hitzarmena. Baldintzak eta enkantea zehazten dira. DEAH; Fondo Municipal , Anoeta, P003-33 (165r.167v.).
- 1750 - 02 -05: Aliri baserriaren berreraikuntzaren zurgintzako lanen hitzarmena. Baldintzak eta enkantea zehazten dira. DEAH; Fondo Municipal , Anoeta, P003-33 (162r.167v.).
- 1750 - 04 -21: Aliri baserriaren berreraikuntzaren lanen bukaera. Ikuskatzailearen tasazioa zehazten da. DEAH; Fondo Municipal , Anoeta, P003-33 (168r.169v.).
- 1810 - 01 -12: Anoetako Udalbatzak Pedro Juan Izurkori saldutako Alliri etxea. Baldintzak eta enkantea zehazten dira. Ikuskatzailearen tasazioa zehazten da. GAO; PT; sorta 2777; orriak 1 a. - 9 a.



Izenaren esanahia

XVI. mende osoan eta XVII. mendearren lehen erdian "Apaezchea" gisa azaltzen da agirietan, eta ondoren, alegia, 1692. urtetik XIX. mendera arte, "Apaetxea" gisa. Lagunartean "apatxe" esaten zaio. Ez du inolako loturarik "apaizetxea" terminoarekin. Anoetako erretoretxea beti egon da elizaren ondoan eta "erretoretxe" deitu da.


Eraikinaren ikuspegia orokorra



Kokapena

Anoetako hirigunean dago. Aurrealdea baseria zeharkatzen duen eta Tolosa Anoetarekin eta Irurarekin lotzen dituen errepiderantz begira dago. Ehun metrora, San Joan parroquia dago. Parroquia eta Apaetxe baserriaren artean trenbidearen eta errepidearen ibilbideak igarotzen dira. Bere ingurunea pabiloiez betetzen ari da.

Hauexek dira bere koordenatuak:
X: 575788 Y: 4779381 Z: 68
Long.: -2 4 3.9 Lat.: 43 9 45.4
Altuera: 68m.



Historia

XVI. mendean jada existitzen zen baserri honen jabe Migel Apaetxeak testamentua egin zuen 1556an. Bere oinordeko Julian Luebanarekin ezkondua zegoen Maria Apaetxa izan zen. Une horretan, harreman familiar honek lotzen ditu bi baserrien interesak. XVI. mendearen bukaeran, baseria alokatu egiten da eta 1604an, jada, Idiaketz familiaren esku geratzen da. San Joan parrokiako erretore Migel Idiaketz Joanes Zabala eta Maria Migel Galatas senar-emazteei alokatzen die baseria. Senar-emazte hauek Hernaldeko Joanes Urdanbidelusen semearen manetuanz ere arduratuko dira. 1619an erretoreak gramatikako eskolak eman zizkion Urdanbidelusen semeari. 1809an, baseria Teresa Gorosabelena da eta, 1832an, jabea Sebastian Mendizabal eta maizterrak Bautista Agirre eta Jose Agustin Ezeiza izango dira.

Ezaugarri arkitektonikoak

XX. mendean erdialdean baseria birgaitu egin zen. Lau etxebizitzako eraikina bihurtu, eta ondorioz, nekazaritza eta



Idiaketz leinuko armaría

abeltzaintzako izaera galdu zuen. Egungo berriztatzea, baoen antolamendua eta baliskoien motibo apaingarriak azken berritze honen ondorio dira.

Hauxe da jatorrizko baserritik mantendu dena: oinplanoa, harlanduzko bao zuzen batzuk dituzten horma perimetralak, gezi-leiho bat eta arku karpanel handi bat duen arkupe bat. Nabarmentzekoa da ere Idiaketzarren ikur heraldikoa duen aurrealde nagusiko armaria: idi bat eta esku bat adarrak helduz. Armarri honi dagokionez, zalantzak daude, izan ere, joan den mende hasierako argazkietan armaria egungo lekuaren zegoela egiaztatu da. Segur asko, hauxe da gertatuko zena: 1601. eta 1604.

urteen artean baseria Idiaketz familiaren esku geratu zen. Migel Idiaketz, dudarik gabe, komunitatean eragin handiena zuen pertsona zen, izan ere, parrokiaren erretorea zen eta bere familia Austriar erregeen gortearen aurrean herriko sendirik boteretsuenetako. 1625. eta 1628. urteen artean, Migel Idiaketzek lan garrantzitsuak egin zituen baserrian eta ez da harritzeko aurrealde nagusian armari familiarra jaritzeko agindua ematea. Segur asko, garai hartakoa izango da ere arku beheratua duen arkupea, kalitate bikaina duen harlanduzko sarrera zuzenari bide ematen diona.




Joséfa Zugastiaren argazki bilduma

Apaetxeren ikuspegia panoramikoa



Josefa Zugastiren argazkia



Agiri zaharren aipamenak

- 1556 - 11 - 17: Anoetako Miguel Apaetxearen hilburukoa. Apaetxea etxean egina. Oinordekoak: Bere seme-alabak Pedro, Maria eta Elena Apaetxea. Beterazleak: Juanes Argindegia eta Pedro Apaetxea (koinatua). GAO; pt; sorta 7; orriak 44 a. - 48 g.
- 1556 - 11 - 17: Domingo Katategik Miguel Apaetxearen aldeko obligazio-gutuna. Anoetakoak. 4 urrezko dukat. Apaetxea etxeari dotean Miguel Argindegik agindutako 100 urrezko dukateko kenketagatik. GAO; pt; sorta 7; orriak 9 a. - 9 g.
- 1577 - 02 - 15: Errezilgo Martin Arzallusek, Anoetako Julian Luebanari eta bere emaztea Maria Apaetxeari eta Miguel Luebanari 42 dukat zentsuan mailegatuak. 3 dukat urtero. Ordainketa bermatzeko: Anoetako apaizetxea eta Luebana etxeak. GAO; pt; sorta 26; orriak 468 a. - 471 a.
- 1578 - 01 - 29: Tolosako Martin Sanchez Anzietak, Anoetako Miguel Luebanari eta bere emaztea Maria Argindegiri, Juanes Argindegiri eta bere emaztea Madalena Goikoetxeari, Joan Urkidiri eta bere emaztea Jurdana Goikoetxeari, Julian Luebanari eta bere emaztea Maria Apaetxeari, Domingo Iturgaitzagari eta Miguel Ateagari 112 dukat zentsuan mailegatuak. 8 dukat urtero. Anoetako Apaetxea etxean egina. Ordainketa bermatzeko: Anoetako Luebana, Argindegia, Goikoetxea, Apaetxea, Iturgaitzaga eta Ateaga etxeak. GAO; pt; Ssorta 25; orriak 486 a. - 489 g.
- 1579 - 02 - 10: Bartolome Mendigibelek, Julian Luebanari eta bere emaztea Maria Apaetxeari eta Miguel Luebanari eta bere emaztea Maria Argindegiri 42 dukat zentsuan mailegatuak. 3 dukat urtero. Anoetakoak. Ordainketa bermatzeko: Anoetako Luebana eta Apaetxea etxeak. GAO; pt; sorta 26; orriak 149 a. - 153 a.
- 1596 - 04 - 10: Anoetako Santiago Igorrek Joanes Txintxurreta eta Maria Joaniz Urreizeta senar-emazteei alokatutako Anoetako Apaetxea etxea 5 urtez. Baldintzak zehazten dira. GAO; pt; sorta 132; orriak 706 a. - 707 a.
- 1598 - 03 - 28: Anoetako Maria Apaetxea alargunak Tolosako Maria Lopez Asurziari Anoetako Apaetxe etxea ematen dio dohaintzan, nahiz eta etxearen jabetza auzian egon, Anoetako Santiago Igorri etxea saldu baitzion eta gero salerosketa hau salatu zuen, engainuarekin egin zuelarik. GAO; pt; sorta 103; orriak 522 a. - 523 g.
- 1601 - 10 - 15: Anoetako Santiago Igorren deklarazioa: Apaetxea etxearen salmentari buruzkoa. GAO; PT; sorta 29; orriak 63 a. - 66 a.
- 1604 - 12 - 02: Anoetako Pedro Idiaketz eta Migel Idiaketzen arteko hitzarmena. Migelek Pedrori saldutako Anoetako Apaetxea etxea 200 dukaten truke itzultzen dio Pedrok Migeli, Pedrok salmentaren epeak ordaintzeko dirurik ez dueilarik. GAO; PT; sorta 153; orriak 198 a. - 199 a.
- 1619 - 09 - 24: Anoetako Apaetxea baserrian maizterrak diren Joanes Zabala eta Maria Migel Galatas senar-emazteek Alkizako Joanes Ezeizari Iuzatutako ahalordetza. Anoetako Martin Idiaketz erretorearekin gramatika ikasteko Hernialdeko Joanes Urdanbidelusen semea euren etxean bizi ari dela eta, Urdanbidelus berak zor dizkien 52 dukatak bereganatzeko. Ezeizak Idiaketzi saldu dizkio Iursail batzuk 52 dukaten truke. GAO; PT; sorta 168; orriak z.g.
- 1625 - 03 - 09: Anoetako Migel Idiaketz erretoreak Tolosako Bartolome Luzuriagari eskualdatzen dio 120 dukateko zentso bat, Anoetako Apaetxea etxean egindako obragatik. Anoetako Joanes Aldabalde eta Maria Lopez Luzuriaga senar-emazteek zor zioten zentsoa. GAO; PT; sorta 157; orriak 450 a. - 451 g.
- 1628 - 05 - 02: Anoetako Migel Idiaketz erretoreea eta Hernialdeko maisu Domingo Saizarren arteko hitzarmena. Saizarrek Anoetako Apaetxea etxean egindako obrak aztertzeko ikuskatzaila izendatzen dituzte (Tolosako Franzisko Azpillaga eta Asteasuko Martin Irarreta). GAO; PT; sorta 159; orriak 102 a. - 103 g.

Izenaren esanahia

"Hargin" terminotik eta -tegi "etxea" edo "leku" atzizkitik dator eta harginaren etxea esan nahi du.



Kokapena



Anoetako gunerik zelaienean dago, nekazal-ritzako lanetarako egokienak diren lursailetan. Parrokiatik 250 metrora eta parrokiaren eta San Joan Goikoa baselizaren erdibidean dago. Egun, trenbidearen ibilbidea eta Anoeta eta Tolosa lotzen dituen eskualde-errepidea direla eta, ibaiaren ibilgutik urru-tiago dagoela dirudi. Ergoien auzoan dago.

Hauexek dira bere koordenatuak:

X: 575790 Y: 4779165 Z: 71

Long.: -2 4 3.9 Lat.: 43 9 38.4

Altuera: 71m.



Historia

Argindeggi oinetxea Anoetako lehen baserrieta bat da. 1450eko lehen agirian ez da espresuki aipatzen, baina "Martin Arguina e Miguel Arguina" auzotarrak azaltzen dira. XVI. mendearren hasieran, jada, lehen jabeetako bat Joanes Argindeggi zela eta San Joan parrokiaren ondoan zegoen izen bereko baserriko alaba Magdalena Goikoetxearekin ezkondu zela dakigu.

Joanes eta Magdalena senar-emazteek ez zuten seme-alabarik izan eta, beraz, 1578tik aurrera, baserriaren jabeek ez dute inolako loturariik izango etxearen abizenarekin. Une honetan, Joanes eta bere seme Antonio Iriarte lizentziadunak –1587an Tolosako alkate izan zenak– baseria eskuratu eta, hainbat obra egin ondoren, alokatu egingo dute. Iriartetarrak Tolosan bizi dira eta Argindeggi baseria zenbaitetan alokatuko dute: 1591n Amezketako Domingo Arteseri, 1596an zortzi urtez Domingo Amunarro feasaindarri eta 1617an Martin Biurrun nafarrari.

XVIII. mendearren bukaeratik, jada, bi etxebizitzatan dago banatuta. Baserri osoan 1797an 16 lagun bizi ziren eta 1802an, 14. Egun, Garmendia familiak ekialdeko alboko aurrealdean du sarrera eta Uzkudun familiak aurrealde nagusiaren mendebaldean.

Arkitekturaren ezaugarriak

1589an, Domingo Iturgaitzagak –ondoan dagoen izen bereko baserriko maisu harginak– hainbat lan egin zituen murruetan eta ateetan. Egun, ez da eraikin horren aztarnarik ikusten. Lan horiek Joanes Argina harginak jarraitu zituen 1593an. Egungo baseria XIX. mendearren bukaeran edo XX. mendearren hasieran berreraiki zen, barruko zurezko egiturak zein hormen akaberak kronologia honekin bat egiten baitute. Jatorrizko baserritik orientazioa mantendu da eta baliteke aurrealdean harri-horma batzuk ere jatorrizkoak izatea.

Egungo baserriak 275 metro koadroko oinplano angeluzuzena eta bi isurkiko teilitua ditu. Kanpoan, partzialki berriztatutako harri-hormak ditu. Barruan, bi etxebizitza ditu eta zurezko egituraren zati bat mantentzen du. Leihoen eta ateen baoak zuzenak dira eta hiru altuera dituzte.

Denboran zehar, lekuaren beharra zela eta, zenbait eraikin atxiki zaizkio. Hego-mendebaldeko angeluan 1960an eraiki zen oin berriko eraikina nabarmentzen da. Hormigoizko egitura duen eraikin honen goiko solairuak familiaren bizilekuak dira eta Ignacio Uzkudunen aginduz eraiki zen. Hemen ere modu tradizionalean eraikitako estalgune bat ikus daiteke, harri-hormak eta zurezko teilitua dituena. Azkenik, atzeko aurrealdeari atxikita, hormigoizko egitura duen pabilioi handi bat du. Bi solairu ditu, behekoa ukuilua da eta goikoan lanabesak eta bazka gordetzen dira. Kanpoko arrapalak traktoreak eta gurdiai goiko solairura zuzenean sartzea ahalbidetzen du.



Uzkudun Balerdi familiaren bilduma




Argindegia baserriaren ikuspegia panoramikoa

Argindegia baserriaren ikuspegia orokorra



Uzkudun Balerdi familiaren argazkia



Baserriaren ikuspegia
orokorra zubitik.
1953ko argazkia



Pakita Garmendia eta
Jose Aranzabal,
Jose Luis semearekin

Pakita Garmendiaren argazki bilduma



Agiri zaharren aipamenak

- 1567 - 02 - 03: Domingo Goikoetxea eta Joanes Argindegiren arteko hitzarmena. Anoetakoak. Joanes Argindegia Madalena Goikoetxearekin ezkonduko da. Argindegik eraman behar dituen ondasunak aipatzen dira. GAO; pt; sorta 17; orriak 528 a. - 528 g.
- 1567 - 03 - 23: Tolosako Antonio Asuragak, Anoetako Pedro Idiaketzi, Julian Aginagari, Domingo Iturgaitzagari, Domingo Goikoetxeari, Joanes Argindegiri eta Joanes Arrutarteri 98 dukat zentsuan mailegatuak. 7 dukat urtero. Ordainketa bermatzeko: Anoetako Idiakaiz, Aginaga, Iturgaitza, Goikoetxea, Argindegia eta Mikelesagasti etxeak. GAO; pt; sorta 17; orriak 239 a. - 242 g.
- 1570 - 07 - 10: Juanes Argindegia eta Madalena Goikoetxearen arteko ezkon-hitzarmena. Anoetakoak Gurasoak: Domingo eta Grazia Goikoetxea. Dotean: Anoetako Argindegia etxea. GAO; pt; sorta 19; orriak 106 a. - 108 g.
- 1578 - 04 - 05: Anoetako Madalena Goikoetxearen hilburukoa. Juanes Argindegiren emaztea da. Anoetako Argindegia etxeen egina. Oinordekoa: Jurdana Goikoetxea (ahizpa). Goikoetxea etxearen erdia jaso du. GAO; pt; sorta 25; orriak 451 a. - 452 g.
- 1589 - 08 - 20: Anoetako Domingo Iturgaitzagak Tolosako Joanes Iriarteri emandako ordainagiria. 38 dukat Anoetako Argindegia baserrian egindako lanagatik. Atea eta horma berriak egin ditu Iturgaitzagak. GAO; PT; sorta 89; orriak 24 a. - 24 g.
- 1591 - 11 - 10: Tolosako Antonio Iriarte lizentziatuak Amezketako Domingo Arteseri alokatutako Anoetako Argindegia etxea 18 dukaten truke. Baldintzak zehazten dira. GAO; pt; sorta 128; orriak 419 a. - 419 g.
- 1591 - 11 - 10: Tolosako Antonio Iriarte lizentziatuak Amezketako Domingo Arteseri alokatutako Anoetako Argindegia etxea 18 dukaten truke. Baldintzak zehazten dira. GAO; pt; sorta 128; orriak 419 a. - 419 g.
- 1593 - 01 - 24: Tolosako Antonio Iriarte lizentziatura eta Joanes Araiz harginaren arteko hitzarmena. Anoetako Argindegia etxeen horma bat egiteko. Baldintzak zehazten dira. GAO; pt; sorta 129; orriak 264 a. - 264 g.
- 1596 - 07 - 03: Tolosako Antonio Iriarte lizentziatuak Beasaingo Domingo Amunarrori alokatutako Anoetako Argindegia etxea eta Irurako Ormaesea etxea 8 urtez. Baldintzak zehazten dira. GAO; pt; sorta 132; orriak 708 a. - 709 a.
- 1597: Tolosako Maria Estanga zenak eginiko dohaintza baten hartzekoduna den Tolosako Maria Lazkano alargunak, Anoetako Juan Argindegiren ondasunen, bere lagunen eta Tolosako auzokidea eta alkatea den Antonio Iriarteren aurka izandako auzia. Zentsu batean Maria Estangari zor dizkion interesak direla medio, egiten den Juan Argindegiren ondasunen exekuzioa. Argindegia baserriaren edukitzalea den Antonio Iriarte, ondasun exekuzioaren aurka ageri da. Antonio Iriarte, auzitara aurkeztu zen. 1595 etik 1597 artekoa. Valladolideko; Pleitos Civiles; Pleitos; orriak 100.



- 1597 - 11 - 19: Tolosako Maria Lazkano alargunak Anoetako Argindegia etxeen maizterra den Domingo Arteseri emandako ordainagiria. 7 dukat zentso baten errentagatik, Anoetako Argindegia etxeak zor duena. GAO; pt; sorta 133; orriak 286 a. - 287 a.
- 1606 - 05 - 20: Anoetako Argindegia baserrian maizterra den Domingo Amunaburuk eta bere anaia Sebastian Amunaburuk Urnietako Joan Lopez Etxeberriari emandako ordainagiria. 16 dukat eta 10 erreal. GAO; PT; sorta 142; orriak 196 a.
- 1617 - 11 - 21: Aiako San Joan Aranburuk eta bere fideatzai-le Joanes Aranburuk Anoetako Argindegia baserrian maizterra den Martin Biurrun nafarraren aldeko obligazio-gutuna. 24 dukat zaldi baten truke. GAO; PT; sorta 168; orriak z.g.
- 1621 - 10 - 07: Anoetako Argindegia baserrian maizterra den Martin Biurrok eta bere fideatzai-le Tolosako Joanes Aroztegiak Orendaingo Joanes Apaetxearen aldeko obligazio-gutuna. 108 erreal 15 ardiren truke. GAO; PT; sorta 169; orriak 125 g.

Izenaren esanahia


"Arotz", "etxe" eta artikuluaren konbinaziotik dator. Literalki "arotzaren edo errementariaren etxea" esan nahi du. Etimologikoki Arozetxe behar luke, baina arrazoi fonetikoak, alegia, esateko zailtasunak medio, Arozetxea bihurtu zen.



Kokapena

Hirigunean dago, San Joan parrokiaren atzealdetik Oria ibairantz jaisten diren zelaietan. Injurunea asko aldatu da, eskualde-errepidearengatik handitu eta trenbidearen ibilbidearen lubakiengatik erdigunetik banandu egin baita.

Hauexek dira bere koordenatuak:
X: 575721 Y: 4779504 Z: 67
Long.: -2 4 6.8 Lat.: 43 9 49.4
Altuera: 67m.



Historia

Arozetxea Anoetako jatorrizko baserrieta bat da. Segur asko, XV. mendean bertako biztanleren bat maisu zurgina izango zen, baina XVI. mendean, jada, ez zegoen zurgintzan lan egiten zuenik. Ezagutzen dugun lehen jabea 1555ean hil zen Sebastian Arozetxea da. Bost seme-alaba izan zituen –Margarita, Maria, Migel, Domingo eta Catalina– baina azken hau izango da baserria oinordetzen hartuko duena. Bere aita hil eta hilabete batzuk igaro ondoren, Catalina Alkizako Joanes Antzietarek ezkondu zen. Hauen seme batek –Domingo Antzieta Arozetxeak– eskuratuko du baserriaren titulartasuna eta Catalina Agirrerek ezkonduko da 1583. urte inguru. Catalinaren anaia Domingo Agirre Arozetxea baserriaren zenbait zor hartuko ditu bere gain, segur asko, bere arrebaren ezkonsariaren zati gisa.

1589an Arozetxea baserriak sute bat jasan zuen eta, halako ezbeharraren aurrean, Anoetako kontzejuak hitzarmen bat sinatu zuen jabeei baserria berreraikitzen laguntzeko. Hau gutxi balitz, hurrengo urteko udaberrian Domingo hil egiten da eta bere alargun Catalina Agirrek baseria gobernatzen jarraituko du, harik eta 1609an bere alaba Mariari ezkonsari gisa ematen dion arte. Maria Orendaingo Domingo Jauregirekin ezkondu zen. Beste bi alabei - Gracia eta Mariari- dagokien herentziaren zatia emango die.

Baserria berreraikitzeko lanak Iuzatu egin ziren, izan ere, 1612an Hernialdeko maisu zurgina den Asencio Saizar kontratatzen dute eta bi urte beranduago Migel Idiaketz parrokoak zentsuan dirua mailegatzu laguntzen die. Arozetxean ikus daiteke nola Anoetako komunitateak –kontzejuak eta elizak– bere kideak laguntzen dituen suteak eragindako suntsidurak bezalako zorigaitzen aurrean. Halaber, 1618ko agiri batean, etxean hainbat lan egin zituen maisu Domingo Etxabegurenekin izandako auzi bat jasotzen da.

Baserri honen oinordetza bitan geratzen da alaben esku eta, hala ere, etxearen izenari eusten zaio familiaren ezaugarri gisa, alegría, abizen gisa. Catalina Agirre alarguntzen denean ere, agirietan Catalina Arozetxea gisa azaltzen da. Alabaina, ondorengo mendeetan etxeari lotutako abizena galdu egingo da.

1797. eta 1802. urteetan, baserrian zazpi eta bederatzi lagun bizi ziren, hurrenez hurren eta, 1832an, Zubimendiren alarguna da jabea eta Ignazio Portu maizterra.

Arkitekturaren ezaugarriak

Eraikinak, bai barrutik bai kanpotik, batez ere egurra erabiliz eraikitako baserrien ezaugarri orokorrak ditu, oso zaharra den adierazle. Arozetxea mota honetako baserrien adibide da eta 1590. eta 1618. urteen artean eraiki zen. Barruan nabarmentzekoa da zurezko egitura izugarria. Hiru hormartetan antolatutako egitura honek enara-buztana formako mihiadurak ditu, bai beheko solairuan bai goikoan. Lehen solairuan, azpila eta dolarea zeuden. Hau dela eta, tolarearen zama eta presioa jasateko gai izango zen egitura bat diseinatu zen. Horretarako, zuraje zabalagoa jarri eta beso gehiago egin ziren.

Ondorengo mendeetan, teilitua konpontzeko zenbait lan egin ziren, zurajearren piezak, gapiroak, eta antzekoak ordezkatuz. Halaber, kanpoko surrealdeak harrizko hormaz estaltzen joan ziren. Surrealde nagusiarri arretaz erreparatuz gero, ikusiko dugu, orain dela hamarkada gutxi batzuk lehenago, zurezko zurajea beltzez margotutako zementuarekin estali eta sendotu zela. Halaber, baoak ireki ziren leihontzat eta ateentzat. Egun, baserriak barroko itxura zaindu du kanpotik, harlanduzko eskan-tzuaren eta murruen zurituaren arteko kontraste kromatikoarekin. Alabaina, barrutik zaharragoa da eta Sarobe baserriaren egiturarekin batera, Anoetako zurezko landa-arkitekturaren lekukorik hoberenak dugu.

Aurrealde nagusitik metro gutxira bi solairu eta bi isurkiko teilitua dituen eraikin txiki bat dago. Bertan tolarea dago. Lehen aipatu dugun moduan, hasieran, dolarea baserriaren barruan zegoen, baina XIX. mendearen bukaeran edo XX. mendearen hasieran, egun ezagutzen dugun hau eraiki zen. Azpila goiko solairuan dago eta zementuzko da, tolarearen ardatza eta prentsa fabrikazio industrialekoak dira eta prentsatzea egiteko motor txiki bat du. Behoko solairuan sagardoa jasotzeko erabiltzen zen upela dago. Nahiz eta jada sagardorik ez egin, esan behar da multzoa oso garbi eta ondo zainduta dagoela.

Indalecio Ojanguren AGG-GAO OA 4079




Baserriaren eta tolarearen ikuspegia
panoramikoa, XX. mende hasierakoa

Jose Luis Garmendiaren bilduma




Baserriaren fatxada nagusia
60ko hamarkadan



Baserriaren fatxada nagusiaren aurretiko bista, eta zaresko egituraren xehetasunak

7. Arozetxea

Juantxo Agirre-Mauleon





Jose Luis Garmendiaren
gurasoen ezkontza



Garmendia
anai-arrebak
Aroztxearen
aurrean

Agiri zaharren aipamenak

- 1555 - 05 - 21: Anoetako Sebastian Arozetxearen hilburukoa. Oinordekoak: Katalina Arozetxea (alaba). Arozetxea etxea uzten dio. Beste seme-alabak: Margarita, Maria, Miguel eta Domingo. Betearazleak: Martin Katategi, Martin Gorria (bere suhia) eta Joanes Argindegia, Anoetakoak. Anoetan dagoen Grazialurra deitutako lursaila erosi zuen. GAO; pt; sorta 71; orriak 34 a. - 137 a.
- 1556 - 01 - 12: Alkizako Joanes Antzieta et bestek, Anoetako Maria Mikelesagastiren aldeko obligazio-gutuna. Katalina Arozetxearen dotea dela eta 116 urrezko dukat. GAO; pt; sorta 7; orriak 414 a. - 414 g.
- 1571-10 - 27: Tolosako Bernart Katategik Anoetako Joanes Antzieta eta Katalina Arozetxea senar-emaztea eta Julian Aginaga eta Alkizako Juanes Aginaga eta Katalina Alkizalete senar-emaztei 56 dukat zentsuan mailegatuak. 4 dukat urtean. Ordainketa bermatzeko: Anoetako Arozetxea eta Aginaga etxeak eta Alkizako Alkizaletekoak. GAO; pt; sorta 47; orriak 74 a. - 77 g.
- 1572 -10 - 04: Anoetako Juanes Antzieta eta bere emaztea Katalina Arozetxeak Maria Arozetxearen aldeko obligazio-gutuna. Anoetako Arozetxea etxean seniparteak: 30 dukat. GAO; pt; sorta 19; orriak 363 a. - 366 a.
- 1574 - 01 - 10: Martin Urrutiaren emaztea den Tolosako Grazia Tapiak, Anoetako Joanes Antzieta eta Katalina Arozetxeari 28 dukat zentzuan mailegatuak. 2 dukat urtero. Ordainketa bermatzeko: Anoetako Arozetxea etxea. GAO; pt; sorta 21; orriak 452 a. - 455 a.
- 1575 - 03 - 19: Tolosako Martin Urrutiak Anoetako Joanes Antzieta eta Katalina Arozetxea senar-emaztei 28dukat zentsoan mai-legatuak. 2 dukat urtero. Ordainketa bermatzeko: Anoetako Arozetxea etxea. GAO; pt; sorta 85; orriak 66 a. - 71 a.
- 1583 - 01 - 11: Tolosako maisu Franzisko Olaesea eta Maria Martin Urrutia senar-emazteek Anoetako Domingo Agirreri eman-dako ordainagiria. 40 dukat Anoetako Arozetxea etxeak zor zituenak. GAO; pt; sorta 87; orriak 297 a. - 298 g.
- 1585 - 02 - 05: Tolosako maisu Franzisko Olaesea eta Maria Martin Urrutia senar-emazteek Anoetako Domingo Agirreri eman-dako ordainagiria. 70 dukat Anoetako Arozetxea etxeak zor zien zentso bat berreskuratzeko. GAO; pt; sorta 88; orriak 358 a.- 360 g.
- 1585 - 05 - 09: Tolosako Madalena Iriartek Anoetako Domingo Arozetxea eta Katalina Agirre senar-emaztei 63 dukat zentso-an mailegatuak. 4,5 dukat urtero. Ordainketa bermatzeko: Anoetako Arozetxea etxea. GAO; pt; sorta 65; orriak 28 a. - 33 a.
- 1589 - 07 - 30: Anoetako Domingo Antzieta eta Katalina Agirre senar-emazteak eta Anoetako kontzejuaren arteko hitzarme-na. Anoetako bizilagunek egindako hitzarmenaren arabera, Antzieta Arozetxea etxa konpontzera lagunduko du kontzejuak, erre delako. GAO; pt; sorta 89; orriak 35 a. - 36 a.
- 1590 - 02 - 14: Anoetako Domingo Antzieta eta Katalina Agirre senar-emazteek Anoetako kontzejuari emandako ordainagiria. 24 dukat Arozetxea etxea konpontzeko, erre delako. GAO; pt; sorta 89; orriak 145 g.
- 1590 - 06 - 30: Anoetako Katalina Arozetxea alargunak eta bere semea Domingo Antzieta eta Tolosako Bizente Zunzunegi fideatzaileak Baigorriko Migel Torre eta Grazia Antzieta aldeko obligazio-gutuna. 20 dukat Graziari Arozetxea etxean zego-kion seniparteagatik. GAO; pt; sorta 95; orriak 86 a. - 87 a.
- 1609 - 05 - 02: Orendaingo Domingo Jauregi eta Anoetako Maria Arozetxearen arteko ezkon-hitzarmena. Gurasoak: Maria Joaniz Etxeberria eta Martin Jauregi (hila); Katalina Agirre eta Domingo Arozetxea (hila). Ezkontsaria: Anoetako Arozetxea etxea. GAO; PT; sorta 113; orriak 316a.- 317g.
- 1612 - 08 - 18: Anoetako Domingo Jauregi eta Maria Arozetxea senar-emazteak eta Hernialdeko Asenzio Saizarren arteko hitzarmena. Saizarrek. Anoetako Arozetxea etxean egingo du arotzaren lana, etxe hau erre baitzen. Baldintzak zehazten dira. GAO; PT; sorta 116; orriak 468 a. - 469 g.
- 1614 - 04 - 08: Anoetako erretorea den Migel Idiakerek bertako Domingo Jauregi eta Maria Arozetxea senar-emazteei 140 dukat zentsoan mailegatuak. 7 dukat urtean. Ordainketa bermatzeko: Anoetako Arozetxea etxea. Dirua jaso dute etxearen kon-ponteka egiteko. GAO; PT; sorta 153 ; orriak 414 a. - 417 a.
- 1618 - 07 - 26: Anoetako Domingo Jauregi eta Maria Antzieta senar-emazteak eta Alkizako Jordana Urruzolaren arteko hitzarmena. Hieki izango duten auzia konpontzeko, Maisu Domingo Etxabegurenak Anoetako Arozetxea etxean egindako obraren inguruan, Jordana Urruzola bere oinordekoak delarik. GAO; PT; sorta 155; orriak 135 g. - 136 a.
- 1626 - 09 - 12: Anoetako Maria Migel Galatasek bertako Domingo Jauregi eta Maria Arozetxea senar-emazteei 40 dukat zentsoan mailegatuak. 2 dukat urtean. Ordainketa bermatzeko: Anoetako Arozetxea oinetxea. GAO; PT; sorta 170; orriak 85 a. - 86 a.

Izenaren esanahia

Agiri historikoetan Arrese gisa azaltzen da. XX. mendetik aurrera, berriz, "Arretxe" esango zaio lagunartean.



Kokapena

Anoetako hirigunea eta Tolosa lotzen dituen errepidearen ertzean zegoen, Urrutinea baserriaren parean. Egun Argoen kalea kokatzen da bertan.

Hauexek dira bere koordenatuak:

X: 575786 Y: 4779355 Z: 68


Long.: -2 4 4 Lat.: 43 9 44.5

Altuera: 68m.



Historia

Agiriei jarraiki, Joan Arrese eta bere emazte Katalina izan ziren XVI. mendetik existitzen zen baserri honetako lehen familia. Baserriaren izena bat dator bizilagunenarekin. 1624an Magdalena Arresek bere iloba Martin Munitari eskualdatu zion baseria. XIX. mendearen hasieran Martin Jose Mendizabal izan zen alokatuta zeuden Arrese eta Sarobe baserrien jabea. Tomas Errandosoro eta Anttoni Altolagirre senar-emazteak izan ziren azkenak baseria gobernatzen. Bost seme-alaba izan zituzten: Martin, Maritxu, Angel, Maria Angeles eta Lazaro. XX. mendearen 80ko hamarkadan baseria erautsi eta jabeek oinplano berriko etxebizitzak eraiki zituzten hirigunetik gertuago zegoen orube batean. Egun, hainbat pabilioi ditu ondoan.



Agiri zaharren aipamenak

- **1560 - 05 - 28:** Tolosako Domingok eta Miguel Mendizorrozek Anoetako Arrese etxearen egindako berdinketa-gutuna onartzen dute. Beraien ama den Maria Sarobe eta maisu Joan Arrese eta bere emaztea Katalina Arresen artean berdinketa-gutuna egin zen. GAO; pt; sorta 11; orriak 211 a. - 212 a.
- **1624 - 11 - 21:** Anoetako Madalena Arrese alargunak bere iloba bertako Martin Munitari dohaintzan ematen dio Anoetako Arrese etxea, Munitak egindako zerbitzu onagatik. Madalena Arresek bere aurpegian minbizia zeukala esaten da sarreran. GAO; PT; sorta 157; orriak 394 a. - 395 g.
- **1803 - 12 - 26:** Hernaldeko Juan Bautista Arregi eta Maria Katalina Irazustak, Anoetako Sarobe eta Arrese etxeetako jabea den Martin Jose Mendizabali emandako ordainagiria. Seniparteen zati bat ordaintzeagatik. GAO; PT; sorta 2775; orriak 180 a. - 185 g.

Anoetako Baserriak

Izenaren esanahia


Kontsultatutako agiri idatzietan, esaterako, 1692an, 1578an, 1817an, etab., beti azaltzen da "Arrutarte" gisa. Aurrealde nagusian duen 1967ko plakan "Arrotarte" jartzen du. Lagunartean "Arruarte" edo "Arrotarte" esaten zaio. Bere izena arru/arro (-sakan, - harri) eta -tarte (espazioa) hitz-elkarketatik datorrela dirudi. Alabaina, kokalekua ez dator bat izenaren esanhaiarekin.



Kokapena

Elbarrena auzoan dago, Tapia baserriaren ondoan. Nekazaritzako lanak egiteko lekurik aproposeneko batean dago, Oria ibaiaren ibilguaren ondoan dauden alubioi-ordokietan, hain zuzen ere. Laborantzako alorren artetik trenbidearen ibilbidea igarotzen da.

Hauexek dira bere koordenatuak:
X: 576284 Y: 4780856 Z: 72
Long.: -2 3 41.2 Lat.: 43 10 33
Altuera: 72m.



Historia

Arrutarte oinetxea XVI. mendetik existitzen da. Udalerriaren ibarrik hoberenetako batean dago. Ibar hauetan eraiki ziren lehenengo baserriak XV. mendearen bukaeran edota XVI. mendearen hasieran.

XVI. mendearen bukaeran, jada, nekazaritzako ustiategi hau bi zatitan banatuta eta arazo ekonomikoekin azaltzen da. Erdi batean Domingo Arrutarte bizi da eta beste erdian Domingo Erausia eta Catalina Etxeberria senar-emazteak. Bi familiak tratu ekonomikoak izan dituzte Tolosako Martin Ibarrarek. Domingo Arrutartek bere zatia berreskuratzen du 1578an eta ondoren San Joan parrokiko erretorea hautatzeko bozka-eskubidea.

1762an, Anoetako alkatea Arrutarte baserrian bizi den Juan Bautista Ezeiza da eta 1789an Juan Bautista Ezeiza Arrutarte azaltzen da jabe gisa. Azken honek Arrutarte baserriaren zati bat alokatzen du eta Tapia baserriaren jabea ere da. Dena den, zorrekkin lotutako arazoak direla medio, administratzaile bat izendatu beharko du bi baserrientzat. 1832an jabea Francisco Garmendia da eta maizterra Joaquin Arana eta Francisco Telleria.

Arkitekturaren ezaugarriak

1965ean baserri zaharra erre eta oin berriko etxe bat eraiki zen aurrekoa zegoen tokitik metro batzuk gorago.

Eraikin berriak oinplano angeluzuzena, hiru solairu eta bi isurkiko teilatua ditu. Beheko hiru solairuetan, baoak aurrealde nagusian dituzten hiru etxebizitza daude. Baserriaren atzealdean nekazaritza-lanabesak eta bazka gordetzen dira eta arrapala batek lehenengo solairura sartzea ahalbidetzen du. Halaber, nekazaritza-erabilera zuzendutako hainbat eranskin ditu atxikita. Kanpotik baserria soila eta funtzionala da. Bao zuzenak eta bi balkoi luze ditu aurrealde nagusian. Aurrealdeak berriztatuta eta zurituta daude gris-tonuetan.





Agiri zaharren aipamenak

- **1578 - 10 - 28:** Anoetako Domingo Erausiaak Pedro Arrutareren aldeko obligazio-gutuna. 10 dukat Arrutarte etxearen seniparteagatik. GAO; pt; sorta 26; orriak 343 a. - 343 g.
- **1579 - 02 - 02:** Tolosako Joanes Pedro Arrutareren ordezkarria den Iriartek Anoetako Martin Erausiari emandako ordainagiria. 40 dukat Arrutarte etxearen seniparteagatik. GAO; pt; sorta 26; orriak 177 a. - 177 g.
- **1584 - 08 - 25:** Tolosako Martin Ibarrak Anoetako Domingo Erausia eta Katalina Etxeberria senar-emaztei 21 dukat zentsoan mailegatuak. 1,5 dukat urtero. Ordainketa bermatzeko: Anoetako Arrutarte etxea. GAO; pt; sorta 89; orriak 161 a. - 164 g.
- **1585 - 07 - 09:** Tolosako Martin Ibarrak Anoetako Domingo Arrutarteri Anoetako erretoreea hautatzeko eskubidea lagatzen dio. Duela 7 urte Ibarrak Arrutarteri Anoetako Arrutarte etxeko erdia eman zion, baina eskubide hori gabe. GAO; PT; sorta 90; orriak 101 a. - 101 g.
- **1789 - 10 - 16:** Anoetako Juan Antonio Ezeiza Arrutartek Alkizako Manuel Arregiri alokatutako Anoetako Arrutarte etxearen zati bat 9 urtez 40 dukaten truke urte bakoitzeko. GAO; PT; sorta 2774; orriak 20 a. - 21 g.
- **1808 - 06 - 26:** Anoetako Juan Antonio Ezeizak Alkizako Juan Franzisko Olozaga Tapia eta Arrutarte etxeen administrazalea izendatzen du. Era horretan, Ezeizak Olozaga eta besteekiko dauzkan zorrak amaitzen dira. Ezeizak Berastegiko Migel Saizarrekin eta Andres Lizartzarekin, Hernialdeko Santiago Amunarrizekin eta Anoetako Juan Miguel Insaustirekin zorrak dauzka. GAO; PT; sorta 2776; orriak 103 a. - 105 g.
- **1810 - 05 - 29:** Juan Antonio Ezeiza Arrutarte eta Tapia-txikia baserrian maizterra den Martin Antonio Lasaren arteko auzia. Anoetakoak. Arrutartek Lasa baserritik kanporatu nahi du. Uztailaren 9an bien arteko hitzarmena: Lasa, Sarobe etxera joangoda, 200 errealdinduz. GAO; PT; sorta 2777; orriak 41 a. - 41 g. / 47 a.



Eraikinaren Hegoaldeko alboko aurrealdearen ikuspegia



Mendebaldeko aurrealdea karga-atearekin

Izenaren esanahia

"-Asura"(asuna, sasia) eta "-ibar" hitzek osatzen dute. XIX. mende hasierako agirietan, "Asuribar", "Azuribarburu", "Asuribarborda", "Azulibar", eta antzeko izenekin dago jasota. Ahozko izenik ohikoena "Axibar" da.



Kokapena

Bi ibar txikiren buru den muino batean dago. Ibar horien artetik, hegoalderantz, Sorginzuloko erreka eta iparraldetik Zumalikardi ur-laster xumea jaisten dira. Muinoak Basagain mendiaaren hegala eta Alkizatik jaisten direnak ere elkartzen ditu.



Hauexek dira bere koordenatuak:
X: 574688 Y: 4780544 Z: 217
Long.: -2 4 52 Lat.: 43 10 23.4
Altuera: 217m.



Historia

Jatorriz, Asuribar baseria borda bat zen. Borda hau eta bere lurrik 1834. urtean azaltzen dira agirietan. XIX. mendearren bukaeran, egun ezagutzen dugun baseria eraiki zen. Baserri honek, ordea, ez ditu inoiz izan Anoetako gainerako baserrien aukerak, izan ere, baserri hauek laurehun urte lehenago hoberen orientatutako eta nekazaritza-lanentzat egokien kokatutako lurrik okupatu zituzten. XIX. mendearren bukaeran, lehenengo baserri horietako baten ondasunetatik banatutako Asuribarrenak bezalako lursailak besterik ez ziren geratzen. XX. mendearren hasieran, Aginagazpikoa baserriko Jose Garmendia Tolosa eta Maria Maioz Sarasola dira jabeak. Segur asko, baserri honena zen Asuribar borda. Ignazio Garmendia Maioz da egungo jabea, alegia, aipatutako senar-emazteek 1934an izandako semea.

Esan daiteke Anoetan eraiki zen azken baseria dela. Alabaina, ez dago nekazaritza eta abeltzaintzara soilik zuzenduta. Bere eraikuntzak zerikusia izan zuen Anoeta eta Aitzondo bailarako herriak lotzen zituen eta garai hartan dezente erabiltzen zen komunikabidearekin. Bide hauurrealde nagusiaren aurretik igarotzen zen eta "Asuribar Benta" ere deitu izan zaio. Kontuan hartu behar den beste alderdi garrantzitsu bat Meatzetako burdina-meatzeetatik gertu dagoela da. Meatze hauek XX. mendearren azken hamarkadetan egon ziren irekita eta baliteke langileei zerbitzuren bat eskaintza.

Arkitekturaren ezaugarrak


Eraikinak famili bizileku baten beharrei erantzuten die eta batez ere etxeko kontsumora zuzendutako nekazaritza eta abeltzaintzako ustiapen txiki bat du. Beheko solairuan behi batentzat edo bi behirentzat ukuiluak eta sukaldea zeuden eta goiko solairuetan logelak eta bazka eta nekazaritza-lanabesak gordetzeko lekuak. Hegalean egotean, atzekourrealdetik zuzenean sartzea zegoen ganbarara gurdia-rekin. XX. mendearren lehen hamarkadetan, iparralderantz handitu zen, aurrealdean lerroa jarraituz eta baoen azken ardatz bertikalarekin bat etorri.

Kanpoaldean, kareztatutako harri-hormak eta bi isurkiko teilatua ditu eta bao guztiak zuzenak eta zurezkoak dira. Barrutik, zurezko egitura du, aurrealde nagusiekiko perpendikular dauden hiru hormarte dituena. Teiltatuaren azpian zapatak eta gailurrak dituzten zurezko zutabeak ditu, heme-retzigarren mendeko eraikinetan oso tipikoak direnak. Luzeagoa den atzeko isurialdearen teiltatuak zutabe gehiago behar izan zituen eusteko. Nabarmentzekoa da aurrealdeko kanpoko dekorazioa, Jose Garmendia Tolosak kateekin apaindu baititu ateen inguruak. Zurgintzan oso trebea izan zen eta XX. mendeko 40ko eta 50eko hamarkadetan garia garbitzeko tresnak egin zituen eskuz. Metalezko engranajeak, berriz, Ipenza baserriko Jose Sarasolak egiten zituen.





Ignazio Garmendia garia
garbitzeko tresnarekin



Izenaren esanahia


Ateaga hitza "ate" terminoak eta lekua adierazten duen euskarazko "-aga" atzizkiak osatzen dute. Esaterako "Oteaga" otadia da. Ahozko hizkeran eta lagunartean "Atia" esaten zaio.



Kokapena

Baserria Goiballara auzoan dago, bertatik 200 metrora. Villabona eta Asteasuaren ingurunea ikus daiteke. Bere lurrek Asteasu eta Villabonarekin egiten dute muga eta hirigunetik urru-tien dagoen baserrietako bat dugu.

Hauexek dira bere koordenatuak:
X: 575325 Y: 4781250 Z: 207
Long.: -2 4 23.5 Lat.: 43 10 46.1
Altuera: 207m.



Historia

Ateaga familia eta beren baseria XVI. mendetik azaltzen da agriean. Agiri hauek huxe islatzen dute: altuago dauden eta -Oria ibaiaren ibarretakoekin alderatuz gero- nekazaritza-lanetarako hain egokiak ez diren lursail hauen okupazioa. Ateagatarrek oinordetzaren bidez transmititzen doaz baseria. Familiako kide Pedro Ateaga maisu hargina izan zen eta 1576. urteran arte Anoetako San Joan eliza eraikitzen aritu zen.

XVII. mendearen hasieran, Ateaga familiak harreman onak zituen bere ingurune sozialarekin, izan ere, Migel Ateaga izen oneko inguruko baserriko Maria Juana Aginagarekin zegoen ezkonduta. Lau seme-alaba izango dituzte: Lorenzo –baserria oinordetzan hartuko du 1622an–, Maria, Juan eta Migel. Maria Anoetako serra izan zen eta Migel, berriz, San Joan parrokiako erretore hogeita hamar urtetik gora. 1666an, familiaren oparoaldiari esker, Ateaga baseria berreraiki zen, egun ezagutzen dugun arkitektura bikaina islatuz.

Huxe da urtetan zehar izan dituen oinordekoen zerrenda: 1657an Domenja Ateaga Francisco Lizarragarekin zegoen ezkonduta, 1726an baseria Maria Josefa Lizarraga Ateaga eta bere senar Andres Etxeberriaren esku zegoen, 1809an eta 1822an Santiago Etxeberria zen jabea. Alabaina, oinordekoen Ierro zuzena eteten dela dirudi eta 1832an Juan Bautista Gaiztarro izango da jabea. Honek baseriaren ustiapena bi kolonori, alegia, Migel Olozagari eta Jose Pagolari alokatzen die. Lehen Karlistaldiaren ondorioz, Gaiztarrotarrek Ameriketara emigratu zuten.

Hemendik aurrera, Migel Olozagarekin hasiko da oinordekoen Ierroa. Olozaga bat izango da Bidaror batekin ezkonduko dena, huxe izanik egun arte Ateagari lotuta mantendu den abizena. Migel eta honen emaztea hiltzean, beren familia ugaria umezurtz geratu zen eta bi alaba Isabel II.aren gortean aritu ziren lanean. Francisca izan zen erreginaren armazainak eta honen emazteak adoptatu zuten lehena. Ondoren, bere ahizpa Josefari deitu eta biak erreginaren konfiantzazko etxeko zerbitzariak izan ziren. Francisca, Isabel II.arekin egon zen Ginebrako erbestealdian. Bi ahizpa hauek Ateaga baserrian jaiotako lau iloba (Petrica, Martina, Agustina eta Vitoriana) eraman zituzten Madrilgo gortera zerbitzatzen. 1880an, Maria Cristina erreginak uda Donostian igarotzen zuela aprobetxatz, (garai hartan Donostia zen lekurik gustuko netakoa), Eulalia infantak Ateaga baserrian eman nahi izan zuen denboralditxo bat bere osasuna sendotzearren. Atsedernaldian, Alliri baserriket ekartzen zioten asteme-esnea edaten zuen. Egonaldian, Maria Cristina erregi-

nak berak zenbait bisita egin zituen isilean. Gertaera hauetan Anoetaren jakin-mina eta imajinazioa piztu zuten.

1920an Bidarortarrak Ateaga baserriaren jabe bihurtu ziren eta Ierro zuzuenean transmititu zuten: Jose Ignazio Bidaror Olozaga, Jose Bidaror Iguaran eta egungo jabea den Victor Bidaror Zabalo.

Arkitekturaren ezaugarriak

Atega baseria aurrealde nagusiaren itxurarengatik nabamentzen da. Aurrealde hau beheko solairuak duen erdi-puntuko arkuak, lehenengo solairuak duen armarriak eta teilatuaren gailurraren azpian dagoen alderantzizko urkilak osatzen duten ardatz bertikalaren inguruan dago antolatuta. Osagai arkitektoniko hauetan izaera monumental ematen diote.

Gainerako aurrealdeak ez dira nabamentzen. Atzeko aurrealdeak, iparraldera dagoenak, bi leihoko txiki ditu ganbaran eta, beheko solairuei atxikita, modu tradizionalean egindako bi estalgune ditu teilazko teilatuarekin eta harri-hormekin. Mendebaldeko alboko aurrealdean, bi arrapalek bazka eta lanabesak ganbarara garraitzea ahalbidetzen dute, eta kontrako fatxadan, hainbat akabera eta kronologia berriak dituzten lehioak daude. Barruan, zurezko egitura hiru hormartetan antolatzen da. Nabamentzekoak dira beheko solairuko zutabe bertikalak, aurrealde nagusian ikusten direnekin bat datozenak. Eraikina zurezko baserri barrokoa da. Tolosaldeko eskualdean horma pikoan alderantzizko urkila duelako bereizten da

tipologia hau. Anoetan antzeko baserriak daude, hala nola, Bideondo, Ateagaetxeberria, Etxeberria eta Tapia.

Aurrealde nagusira itzuliz, nabamentzeko da harrizko eta zurezko osagaien konbinazioa. Hauexek dira harria landuz egindako osagai arkitektonikoak: aurrealdearen etxearen IZKINAK, arkua eta armarriaren eta arkuaren bi aldeetara dauden lau lehio. Leihoko hauetek ez dira egun nabamentzen karez zuritu dituztelako. Alboko bi atalen zurezko egitura ia simetriko da zurajearen antolamenduari dagokionez, eta atentzioa ematen duen gauza bakarra huxe da: armarriaren gainean dagoen erdiko atalaren frontala ez dago albokoekin altuera berean. Armarriak latinez grabatutako inskripzio bat du; huxe dio: "Alabado sea Dios. El Señor guarde esta casa y sus visitantes. Me hizo Miguel el año del señor de 1666". Urte horretan, Migel Ateaga Anoetako erretorea zen eta Domenja Ateaga jabea eta orduantxe berreraiki zen Ateaga baseria.



Aurrealde nagusiko armarria

Victor Bidaor margotako argazki bilduma



Ateagako bizilagunak




Kartis argazkiak

Petra Bidaor. 1880. urte
inguruan Gabriel
Palencia margolariak
egindako lana



Gabriel Palencia margolariak
1880. inguruan egindako koadroa



Ateaga baserriaren fatxada nagusiaren aurretiko ikuspegia



Baserriaren Ekialdeko
alboko aurrealdearen
ikuspegi orokorra



Agiri zaharren aipamenak

- **1574 - 06 - 05:** Anoetako Grazia Ateagak bere iloba den Miguel Ateagari emandako ordainagiria. 40 dukat Ateaga etxeko seni-parteagatik.GAO; pt; sorta 21; orriak 136 a. - 136 g.
- **1600 - 05 - 01:** Anoetako udalbatza eta Alkizako Maria Aginaga alargunaren arteko hitzarmena. Anoetako Ateaga etxearen lur-sail batzuen salmentaren inguruan. Bildutako bizilagunen zerrenda.GAO; pt; sorta 136; orriak 664 a. - 665 g.
- **1622 - 11 - 25:** Anoetako serora Maria Ateagak bere anaia Lorenzo Ateagaren mesederako bertako Ateaga etxearen zegokion eskubideari uko egiten dio. Honek ordaindutako 120 dukaten truke Gurasoak: Migel Ateaga eta Maria Juan Aginaga (hilik).GAO; PT; sorta 157; orriak 213 a. - 214 g.
- **1622 - 11 - 27:** Anoetako Lorenzo Ateaga eta bere amaginarreba Asteasuko Domenja Bergelandi alargunaren arteko hitzarmena. Maria Perez Bergelandirekin ezkontzarako Anoetako Ateaga etxea eramatzen du Lorenzo Ateagak. Gainontzeko baldintzak zehazten dira.GAO; PT; sorta 157; orriak 211 a. - 212 g.
- **1622 - 11 - 27:** Anoetako Juan Ateaga, apaizak eta bere anaia Migel Ateagak euren anaia Lorenzo Ateagaren mesederako bertako Ateaga etxearen zegokion eskubideari uko egiten diote. Gurasoak: Migel Ateaga eta Maria Juan Aginaga (hilik). GAO; PT; sorta 157; orriak 215 a. - 216 g.
- **1657 - 01 - 13:** Katalina Montefloridok Tolosako parrokian sortutako kaperautzak, Gaspar Maiozi, Magdalena Urruzola bere emazteari, eta Frantzisko Lizarraga eta Domenja Ateaga bermetzaleei, mailegatutako 100 dukateko zentsoa. Mailegariek berme gisa, Anoetako Aginaga eta Ateaga baserriak, euren ondasunekin batera hipotekatu zituzten.
Alzibar Jauregi ; Zentsu zergak.; 3 sorta, 220.
- **1726 - 03 - 09:** Andres Etxeberria eta Maria Josefa Lizarraga y Ateaga, Ateaga baserriaren jabeak hainbat ondasuna hipoteka-zuten. Alzibar Jauregi ; Zentsu zergak.; 5 sorta, 353.
- **1791 -12 - 21:** Anoetako Santiago Etxeberria eta Martin Antonio Ezeiza Txapartegi eta Ana Maria Etxeberriaren arteko akordioa. Anoetako Ateaga eta Ateagaetxeberria etxeetako seniparteen inguruan GAO; PT; sorta 2766; orriak 104 a. - 108 g.
- **1811 - 08 - 19:** Anoetako apaiza den Juan Bautista Etxeberriaren hilburukoa. Ondasunak: Ateaga etxea, Alkiza eta Amasa-Billabonan artean dagoen mintegi bat, eta Igerobide etxeko erdia.Oinordekoak: bere arreba Franziska Antonia eta bere morroia Maria Juana Goia. GAO; PT; sorta 2777; orriak 192 a. - 195 a.
- **1827-12 - 24:** Anoetako Buztinaga, Ateaga, Ateagaetxeberria eta Errota baserrietako jabea den JuanBautista Gaiztarrok, parrokiako erretoretzarako Miguel Munitaren alde bozkatzen du.GAO; PT; sorta 2805; orriak 175 a. - 175 g



Baserriaren Ekialdeko aurrealdearen ikuspegia

Izenaren esanahia

Baserri honen izenak Ateaga baserriak denboran izan duen lehentasuna eta garrantzia erakusten du. Ez da salbuespena jatorrizko baserriaren lursailetan eskuarki familia berak baserri berri bat eraikitzea, horregatik "Ateaga" oinetxearen izenari eutsi eta "etxeberria" eransten diote ezberdintzeko. Ateagaren etxe berria esan nahi du. Agirietan, "Ateaga Echeberri" gisa jasotzen da eta lagunartean "Atiaetxeberri" deitzen zaio.



Kokapena

Garaiera ertainean dago, iparraldetik Basagain mendira jaisten diren hegaletan. Hegal hauen artek Akolodierreka erreka igarotzen da. 300 bat metrora Ateaga baserria dago.


Bertara iristeko aldapa handia dago, non berrogeita hamar metroko aldea gainditu behar den. Baserritik, Villabonarantz hedatzten den Oria bailararen ibarra ikusten da eta metro batzuk beherago Iturralde baserria dago.

Hauexek dira bere koordenatuak:

X: 575499 Y: 4781063 Z: 153

Long.: -2 4 15.9 Lat.: 43 10 40

Altuera: 153m.



Historia

Nekazaritzako lanak egiteko lursail kaxkarretan dagoenez, berandu okupatu zen. Nekazaritzako ustiategi zaharrenak lursail hoberenak kolonizatuzitzenak izan ziren eta prozesu hau Anoetan amaituta zegoen jada XVI. mendearren hasieran. Ondoren eta hazkunde demografikoaren ondorioz, beste lursail batzuk joan ziren okupatzen. Geratzen ziren lursail gutxi hauek baserri bat irauteko aukerak eskaintzen zitzuten, nahiz eta nekazaritzarako hain onak ez izan.

Ateagaetxeberria XVII. mendearren bigarren erdian eraiki zen eta 1692an jada aipatzen da Anoetako etxeen zerrendan. Garai honetan erdietsi zuen Ateagatarren leinuak osperik handiena. Ateaga baseria 1666an berreraikitzeaz gain, kokapenari eta tamainari dagokionez xumeagoa den baserri berri hau eraiki zuten. Ateagaetxeberria Ateagaren mende egongo da. Aziendari zuzenduta batik bat, haren ondasun bat gehiago izango da.

Ateaga oinetxearekin duen lotura mantendu egingo da 1791. urtera arte behintzat. Urte horretan, Santiago Etxeberriak eta bere arreba Ana Mariak azken honi dagozkion Ateaga eta Ateagaetxeberria baserrien herentziaren zatiak adosten dituzte. Santiago Etxeberria Lizarraga Ateaga oinetxearen ondorengo zuzena zen.

1822. eta 1827. urteen artean Juan Bautista Gaiztarro Ateaga eta Ateagaetxeberria baserrien jabe bihurtzen denean, ez dakigu zein izan zen prozedura, baina Juan Bautista Gaiztarrok aurrera bi baserriek jabe ezberdinak izango dituzte. 1832an, baseria eta ustiapena Jose Rotetari alokatzen zaio, egungo jabeak honen ondorengoa izanik.

Arkitekturaren ezaugarriak

XVII. mendearren azken herenean egurrez egin-dako baserri barrokoen arkitekturaren adibide dugu Ateagaetxeberria. Nabarmentzekoa da aurrealde nagusia, non zurezko egitura ikusten den, Tolosaldeko baserriek hain berezkoa duten alderantzikozko urkila eta guzti. Alboko harri-hormek barruko zurezko egitura eusten dute. Egitura honek gailurraren lerroaren azpian osoko zutabeak besterik ez ditu. Eskantzuetan harlanduzko hareharri kateatuak daude eta orobat sarrera nagusiko dobeladun arkuan.

Ondoren, handitu egin zuten hegoaldeko aurrealdeari atxikitako eranskin baten bidez. Egun, eranskin hori etxebizitzat da. Atxikitako eraikin berri honek oraindik harlanduzko hormatal batzuk ditu, XIX. mendean egindako obra baten lekuko direnak. Alabaina, XX. mendearren azken hamarkadetan guztiz berritu egin da. Berriki konpondutako teilatuak uniformetasun handia ematen dio baserri osoari.

Bere kokapenak eta aurrealdeak Anoetako baserririk politenetakoa bihurtzen dute.






Agiri zaharren aipamenak

- **1791 -12 - 21:** Anoetako Santiago Etxeberria eta Martin Antonio Ezeiza Txapartegi eta Ana Maria Etxeberriaren arteko akordioa. Anoetako Ateaga eta Ateagaetxeberria etxeetako seniparteen inguruan GAO; PT; sorta 2766; orriak 104 a. - 108 g.
- **1827-12 -24:** Anoetako Buztinaga, Ateaga, Ateagaetxeberria eta Errota baserrietako jabea den Juan Bautista Gaiztarrok, parrokiako erretoretzarako Miguel Munitaren alde bozkatzen du. GAO; PT; sorta 2805; orriak 175 a. - 175 g



Izenaren esanahia


Araban bada izen hau duen udalerri eta ibai famatu bat J.P. Lazarragaren sorleku izateagatik. Lizarraga dugu gurera iritsi den euskarazko bigarren liburuaren autorea. Agirietan "Barrundia" gisa azaltzen da, nahiz eta lagunartean anoetarrek Barrundi deitu, azken –a hori ez esateko ohiturari jarraiki. 1781ean "Barrundia Echeberria" esaten zitzaion eta 1805ean "Echeberria Barrundia".



Kokapena

Tolosako bidetik abiatuz gero, Anoetako lehen baseria zen. Oria ibaiaren ibilgura jaisten den hegalarren ordeka batean dago, San Joan Goikoa baselizatik ehun metrora. Ergoien auzoan dago.

Hauexek dira bere koordenatuak:
X: 575578 Y: 4778791 Z: 108
Long.: -2 4 13.5 Lat.: 43 9 26.3
Altuera: 108m.



Historia

XVI. mendean jada "Barrundichipi" deitutako nekazaritzako ustiategia azaltzen da. Bertan ez dira bere jabeak bizi eta, garai hartako Anoetako baserri gehienetan ez bezala, bere abizenak ez du lotura etxearen izenarekin. Ezagutzen diren lehen jabe Pedro eta Migel Apaetxe Adunan eta Leaburun bizi dira, hurrenez hurren. "Barrundichipi" baserriak bi etxebizitza zituela, sale-rosketa prozesu batean sartu zen 1573. eta 1588. urteen artean. Prozesu horretan parte hartu zuten Anoetako kontzejuak, Bartolome Buztinaga apaizak eta Tolosako Joanes Iriarte mailegu-emaileak; baserriaren inguruan interesa zegoen seinale.

1588. eta 1604. urteen artean, baseria berreraiki zen, agirietan Barrundiaren etxe berria gisa azalduz. Martin Intxaurrealde da ezagutzen dugun lehen maizterra. 1681ean pauso garrantzitsu bat eman zen, baseriaren jabea zen Juan Olazabal Akorda kaptainak, baseria zatitzen ez joateko, maiorazkoa fundatu baitzuen Barrundian. Honela, baseriaren herentzia kudeatu zen, harik eta 1781ean, Agustin Añorga Olazabal hil ondoren, bere semeen artean maiorazkoaren banaketak eragindako auzia hasi zen arte.



1805ean jabea den Tomas Joaquin Añorgak bederatziz urtez alokatzen dio baseria Juan Martin Egileorri. 1832an Juan Martin berari eta Sebastian Egileorri alokatzen die. Egun baserriak bi familia ezberdinak diren bi etxebizitza ditu. Metro gutxira oin berriko eraikin bat egin da. Lau etxebizitza dituen eraikin honek "Bearzana" du izena.


Arkitekturaren ezaugarriak

Askotan berritu arren, Barrundiak XVI. mendearen bukaeran eraikitako baserriaren erdiguneari, hau da, bere oinplanoari eta barruko zurezko egituraren zati bati eusten dio. Aurrealde nagusiaren berriztatzearen azpian jatorrizko zurezko egitura ikus daiteke, gailurreraino doazen osoko zutabeekin eta adreilu trinkoz egindako paramentuekin. XVI. mendearen bukaeran eta XVII. mendearen hasieran, boladan jarri zen adreilu trinkoa eraikitzeko material gisa eta Barrundia dugu Anoetan dagoen mota hone-tako adibide bakarra. Sarrera eta leihoguztiak, ganbaran daudenak salbu, berriak dira eta ez dute zerikusirik jatorrizko baserriarekin. Barruan, hiru hormarte eta hiru solairu ditu.

Barrundia mendebaldeko alboan bi isurkiko eraikin bat erantsiz handitu zen. XIX. mendeko eranskin honen teilitua jatorrizko baserriarenari gainjartzen zaio. Atzeko aurrealdean, terraza moduko teilitua duen hormigoi armatuzko estalpe bat du ganbara-sartzeko.

Aurrealde nagusiaren aurrean modu tradizionalean egindako eraikin txiki bat dago, harri-hormak eta bi isurkiko teilitua dituena: tolarea da. Segur asko XX. mendearen hasieran eraiki zen. Prentsara joateko, kanpoan dagoen harrizko eskailera bat igo behar da eta beheko solairuan upelak daude. Ondo kontserbatuta dago eta balio etnografikoa handia du.





Baserri zaharraren mugua



Dolarearen eraikina

Agiri zaharren aipamenak

- **1573 -11 -15:** Adunako Pedro Apaetxeak eta Leaburuko Miguel Apaetxeak, Tolosako Martin Sanchez Anzietari luzatutako aha-lordetza. Anoetan Barrunditxipi deitutako etxea saltzeko. Honek, Anoetako Bartolome Buztinaga apaizari 45 dukaten truke sal-tzen dio. GAO; pt; sorta 20; orriak 292 a. - 296 a.
- **1575 - 02 - 07:** Tolosako Joanes Iriartek Anoetako udalbatzari Anoetan saldutako Barrunditxipia etxea 50 dukaten truke. Mugak aipatzen dira. Anoetako Bartolome Urrutia apaizari etxea erosi zion Iriartek. GAO; pt; sorta 85; orriak 23 a. - 24 g.
- **1588 - 03 - 22:** Adunako Mari Martin Eleizalde alargunak eta bere alaba Katalina Eleizaldek Tolosako Joanes Iriarteri Saldutako Anoetako Barrundia txiki etxearen erdia eta bi lursail 45 dukaten truke. Anoetako udalak Eleizalde eta bere senarra zen Joanes Eleizalderi saldu zioten etxea. GAO; pt; sorta 124; orriak 221 a. - 223 a.
- **1604 -10 -11:** Anoetako Barrundia etxe berrian maizterra den Martin Insaurraldek eta Tolosako Martin Ierabide fideatzaileak Urnietako Domingo Aierdiren aldeko obligazio-gutuna. 15 dukat zaldi baten truke. GAO; pt; sorta 140; orriak 68 a. - 68 g.
- **1604 - 10 - 19:** Urnietako Domingo Aierdik Tolosako Martin Ierabideri emandako ordainagiria. 9,5 dukat zaldi baten truke, Anoetako Barrundia etxe berrian maizterra den Martin Intxaurralderen zorra kitatzeko. GAO; PT; sorta 108; orriak 87 a. - 87 g.
- **1781:** Donostiako Jose Anjel Añorga, gainontzeko Agustin Añorgaren semeen, eta Donostiako Jose Manuel Anorga Olazabalen arteko auzia. 1681 eko urtarilaren 27an Juan Olazabal Akorda Kapitainak fundaturiko Anoetako Barrundia Etxeberria baserriaren malorazkoaren zatiketa eta edukitzari buruzko Baserri honen azken edukitzalea, kontrajarririk dauden bi aldeen alta zena, Agustin Añorga izan zen. 1780 tik 1781 artekoa Valladolideko; Pleitos Civiles; Pleitos ; 175, 2 ale.
- **1805 - 06 -16:** Anoetako Tomas Joakin Añorgak, bertako Etxeberria Barrundia baseria 9 urtez ematen dio alokairuan bertako maizterra den Juan Martin Egileorri 49 pesoko errentaren truke. GAO; PT; sorta 2775; orriak 246 a. - 247 g



Izenaren esanahia


Baserriaren izenak Anoeta eta Aiztondo bailara lotzen zituen bidearen ondoan dagoela adierazten du. "Bide" eta "ondo" (-ren ondoan) elkartuz sortzen da, eta hitzez hitz "bidearen ondoan" esan nahi du.



Kokapena

Anoeta eta Asteasu lotzen dituen bidearen ertzean dagoen azken baserri hau Goiballara auzoan dago. Aurretik Aginagaetxeberria eta Asuribar ditu. Hegalean gora, Aginagazpikoa eta Aginagagaraikoa daude.

Hauexek dira bere koordenatuak:
X: 574511 Y: 4780870 Z: 223
Long.: -2 4 59.7 Lat.: 43 10 34.1
Altuera: 223m.



Historia

Joan Martinez Irazusta Ateagak 1681. eta 1689. urteen artean eraiki zuen Bideondo baserria bere semeak ziren Joan eta Pedroren laguntzarekin. Joan Martinez Alkizako Aginaga baserriaren jabea zen eta Tolosa Isastegi baserriko Madalena Arizetegirekin zegoen ezkondua. Hamar seme-alaba izan zituzten. Semeetako bat Migel dugu, Euskal Herriko barrokoaren maisu eskultorerek ospetsuenetakoa.

1689an egindako testamentuan, Joan Martinez Irazustak Aginaga eta Bideondo baserriak hurrenez hurren uzten dizkie bere seme Joan eta Pedrori. Alabaina, azken hau Larraulgo Zumitze baserrira doa bizitzera. Azkenean, Aginaga baserriaz gain, Joanek eta bere emazte Marian Urkidizarrek Bideondo hartu zuten oinordetzan. Bideondo baserriaren eraikuntza Aginaga baseria gobernatzen zuen Irazusta familiaren botere ekonomikoaren ondorio da eta haien lurretan eraikiko da.

Bideondoren historiaren bigarren aldi garrantzitsua 1841ean hasiko da, alegia, Tolosako Jose Sarasola Mujikak alokatzen duean. Jose Sarasola Mujikak –Albizturko Catalina Antonia Ezeiza Garmendiarekin ezkondu ostean– gaur egun arte iritsi den Sarasolatarren lerro familiarrari eman zion hasiera. Ondorengoak, 1881ean ezkondu ziren Jose Antonio Sarasola eta Maria Bautista Aranzabe izango dira. Jose Antonio alargundu ondoren, berriz ezkondu zen Albizturko Santa Marinako Juana Bautista Otaegirekin. 1907an, senar-emazte hauek Madrilen bizi zen Alfonsa Agirrezabala Lasari erosiko diote baseria 8.423 pezeten truke. Zorrari aurre egiteko, Jose Antonio Sarasolak 8.000 pezetako mailegu pertsonal bat eskatu behar izan zion Antonio Otegiri, urteko %4ko interesarekin sei urtetan ordaintzeko baldintzaren mende. Alabaina, ezin izan zuen kreditua kitatu 1918ra arte. Ondorengoak 1919an ezkonduak Pedro Maria Sarasola eta Maria Celestina Roteta izango dira. Urte horretan jaio zen beren seme Markos, 2002an hil zena. Markosen alarguna den Alkizako Garmendi baserriko Maria Goenaga da Bideondoko egungo jabea.



Arkitekturaren ezaugarriak

Zurezko egitura duen baserri barroko honek ez du arkuperik. Eraikin xumea da, beheko solairu osoan harri-horma perimetralak eta goiko solairuetan zurezko egitura baititu. XVII. mendearren bukaeran eraikitako baserri bikain honek zurezko egiturari eusten dio.

Aurrealde nagusian zurezko egitura eta gailurraren azpian dagoen alderantzizko urkila –garai honetan Tolosaldeko baserriek duten berezko osagaianabamentzen dira. Egituraren etxearena logolei dagozkien jatorrizko lehio bakarrak daude. Hasieran, ez zegoen lehio gehiagorik. Alboko aurrealdeek baserria dagoen hegalarren aldearen aprobetxamendua islatzen dute. Goiko aurrealdean, teilatupeko solairura gurdiaik sartzea ahalbidetzen duten bisarrera daude. Beheko aurrealdean, berriz, sotora sartzeko dobeldadun arku bat dago. Lurrean erdihondeaturiko sotoan tolarea zegoen, aldeari esker, sagardoa garraitatzeko eta egiteko lanak asko erraztuz. Atzoko aurrealdea harri-hormekin ixten da estalki-lerorra arte, eguraldi txarraren aurrean babestuz. Ondoren, harri-hormak eta isuri bakkareko estalkiak dituzten bi estaldura handi erantsi zitzaiatzion.





Baserriaren Ekialdeko
alboko aurrealdearen
ikuspegia partziala



Bideondo baserriaren Hegoaldeko fatxada nagusiaren aurretiko bista

14. Bideondo

Juantxo Agirre-Mauleon




Sarasola Goenaga familiaren argazki bilduma




Bideondokoak
erromeria batean

Bideondo baserriaren sarrera
nagusiaaren aurrean. Atzetik
zurezko egitura ikus daiteke



Agiri zaharren aipamenak

- 1681-09 -13: Alkizako Joan Martinez Irazusta Ateagaren lehengo testamentua. GAO; pt; 303sorta; orriak 197a. - 200a.
- 1689 -03 -19: Alkizako Joan Martinez Irazusta Ateagaren bigarren testamentua. GAO; pt; 2091sorta; orriak 46 a. - 47 a.
- Sarasola Goenaga familiaren agiriak konsultatu dira.



Izenaren esanahia

Hainbat modutan azaltzen da agirietan, hala nola, "Bohondegui" eta "Burundegui". Hala ere, "Borondegia" da hedatuena.



Hareharitzko piezek
aurrealde nagusiaren
baok inguratzen dituzte

Kokapena

Anoetako hirigunean dago,
Arozetxea baserriaren ondoan eta
San Joan parrokiatik 100 metrora.
Egun, oso sartuta geratu da trenbi-
dearen nasara doazen oinezkoen-
tzako sarbideengatik. Azpiegitura
honen gertutasunak kaltetu egin
du nolabait bere aurrealde polita.

Hauexek dira bere koordenatuak:
X: 575740 Y: 4779457 Z: 70
Long.: -2 4 6 Lat.: 43 9 47.9
Altuera: 70m.



Historia

Borondegia Anoetako lehen baserrietako dugu. Berari lotuta dago izen bereko abizena. 1555ean, jada, herentziaren transmisioetan sortutako arazo batzuk ikus daitezke. Eraikinaren erdia Mariatxo Borondegirera zen eta, hiltzean, Albizturren bizi zen bere iloba Catalina Olazari utzi zion. Herentziaz gozatzeko baldintza bakarra etxearen bizi behar zuela zen, bestela, Anoetako parrokiari eman beharko zion. Alabaina, Catalina Olazak ez zuen baldintza bete eta bere lehengusina zen Catalina Borondegiria saldu zion.

XVIII. mendearren bukaeran eta XIX. mendearren hasieran baserriaren erdia alokatuta zegoen. 1783an, jabea Francisco Etxeberria da eta maizterra Jose Antonio Olano. XX. mendearren hasieran, Ateaga eta Ategaetxeberria baserrien jabea ere zen Santiago Etxeberriaren esku geratzen da. Santiago Etxeberriak Gabriela Ugalderi alokatzen dio baseria 1832an. Azken honek taberna bat jarri eta ardoa saltzen hasten da. Herrian bigarren taberna bat irekitzeak ezusteko lehia izateaz gain, irabazi gutxiago ekarri zizkion Hernialdeko Francisco Bartzarrikari. Bartzarrikon kontzejuaren taberna hiru urterako alokatu zuen eta, haserre bizian kexatu arren, ez zuen ezer lortu.

Halaber, XX. mendearren hasieran, herriko eskola izan zen.


Arkitekturaren ezaugarriak

Borondegia, jada, harriaren erabilpena –baserriak eraikitzeko material nagusi gisa– goieneko unean dago. Kanpoko karga-horma guztiak harrizkoak dira teilatura arte. Gainera, harlanduzko hareharri kateatuak harri-hormak sendotzen ditu ertzetan eta orobat leihoen bao guztiak.

Barnealdeak bi hormarte eta hiru solairu ditu. Frontalen muturrak harrizko murru perimetraletan sartzen dira eta teilatuaren gailurrak besoak dituzten zutabeak ditu euskal.

Ukuilua gezileihoa ditzu airezta- tzeako. Gainera baoak zuzenak dira eta ugariagoak hegoaldeko aurrealdean. Iparraldetik, eraikina trinkoagoa da eta atentzioa ematen du arbelezko lauzaz egindako mai- lak dituen kanpoko eskailerak. Harlanduzko baoa izan ezik, gaime- rakoa XX. mendean zehar egin da. Egungo baseria XVIII. mendearren bukaeran eraiki zen eta barroko esti- loko landa-arkitekturaren eredurik zabalduena da.

Ondoren, baseria handitu egin zen eta, atzealdean, harri-hormak eta zurezko egitura dituen isurki baka- reko eraikin bat erantsi zitzaion. Teilitupeko solairua ganbara nagusiarekin lotzen da, ez baitago trenkadarik.





Baserriaren Hegoaldeko
alboko aurrealdearen
ikuspegia orokorra



Teillatu-egitura
eta zutikoa

Agiri zaharren aipamenak

- 1555 - 05 - 23: Albizturgo Katalina Olazak Anoetan daukan Borondeggi etxearen erdiari Anoetako elizaren alde uko egiten dio. Bere izeba izan zen Anoetako Mariatxo Borondegik bere hilburukoan Borondeggi etxearen erdia utzi zion. Jabetza lortzeko etxe-an bizitzeko baldintzarekin. Bestela, Anoetako elizarentzat izango zen. GAO; pt; sorta7; orriak 200 a. - 201 g.
- 1555 - 05 - 23: Albizturgo Katalina Olazak Anoetako Katalina Borondegiri Anoetan saldutako Borondeggi etxearen erdia eta baratza, 42 dukaten truke. GAO; pt; sorta 7; orriak 202 a. - 203 g.
- 1783 - 03 - 19: Zizurkilgo Jose Antonio Olanok, Anoetako Borondeggi baserriko erdiaren maizterrak, baserriaren jabea den Anoetako Franzisko Etxeberriaren izenean, Franzisko Ignazio Etxeberriaren alde bozkatzen du bertako elizako erretore postura-ko. GAO; PT; sorta 2765; orriak 30 a. - 30 g.
- 1815 - 01 - 22: Anoetako Santiago Etxeberriak, bere alaba den Josefa Joakina Etxeberria izendatzen du Borondeggi etxeko erdi-ko ustiaketaren jabe. Santiago Etxeberria Ateaga primutzaren jabea da. GAO; PT; sorta 2780; orriak 115 a. - 115 g.
- 1832 - 08 - 21: Anoetako udala eta Hernialdeko Franzisko Baztarrikaren arteko hitzarmena. Anoetako Gabriela Ugaldeko Borondeggi etxearen jarri behar duen ostattua dela eta, udaletxearen alokairua daukan Franzisko Baztarrikari eragingo zaizkion kal-teak konpontzeko. GAO; PT; sorta 2810 ; orriak 335 a. - 336 a.
- 1833 - 07 - 02: Anoetako Udalbatzak udaletxeko alokairua jartzen du enkantean. Aurreko errentaria zen Hernialdeko Franzisko Bazterrikak alokairua utzi du eta, ondoko etxe batean (Borondeggi deitakoa) Gabriela Ugaldeko ardoa saltzen hasi baita. GAO; PT; sorta 2811; orriak 78 a. - 79 g.



Izenaren esanahia


Bere izena "buztin" terminoak eta lekua adierazten duen –aga atzizkiak osatzen dute eta buztinen lekua esan nahiko luke.



Kokapena

Anoetako plazatik abiatuta Alkizara eta Asteasura ziendo bide nagusiaren bazterrean dago, eta bertatik Alkizako errekkara jaits daiteke. Gaur egun, San Joan kalean eraiki diren etxebizitzak blokeen gertutasuna dela-eta ezkutuan geratu da. Berrogeita hamar metrora trenbidearen ibilbidea igarotzen da.

Hauexek dira bere koordenatuak:
X: 575564 Y: 4779574 Z: 74
Long.: -2 4 13.7 Lat.: 43 9 51.
Altuera: 74m.



Historia

Buztiñaga XVI. mendean jada agirietan jasotzen diren Anoetako lehen baserrietako bat dugu. Bertako biztanleek etxearen abi-zena hartu zuten, baina 1632an oinordetza Migel Buztiñagarengandik bere alaba Franziskarengana igarotzen da eta, denborarekin, Buztiñaga abizena desagertzen joango da.

XVIII. mendearen bukaeran eta XIX. mendearen hasieran, baseria lotuta zegoen XVII. mendean zehar Ateaga baserriaren inguruau sortutako oinordekoien lerroari. Hortaz, 1822. urtera arte egiaztatzen da Santiago Etxeberria dela Buztiñagaren, Ateagaren, Ateaga Etxeberriaren eta Borondegiaren jabea. Alabaina, 1827an Juan Bautista Gaiztarro azaltzen da Buztiñagaren, Ateagaren, Ateaga Etxeberriaren, Goikoetxearen eta errotaren jabe gisa. Une honetatik aurrera, Gaiztarrotarrak izango dira baserri honen historiaren protagonistak. Anoetako familiarik aberatsenetakoa izango da XX. mendearen erdialdera arte, bere eragina Donostiaraino eta Probintziako gobernuraino iritsiz.

Baserri honetan sortu zen Hilario Gaiztarro kirurgialaria. Donostiako San Ignazio klinikaren fundatzailea eta lehen zuzendaria, 1909ko urriaren 15ean zendu zen 50 urte zituela.

Arkitekturen ezaugarriak

Egungo Buztiñagak bi etxebizitza ditu, bata eraikin zaharenari dagokiona –bertan, horma perimetralak baino ez dira mantendu– eta bestea berriagoa, trenbidearen ibilbideetik gertuago dagoena.

Harlanduzko eskantzuek baseria zaharra dela adierazten dute. Beheko solairuan Maite janaridenda dago. Gainerako surrealdea XX. mendearen erdialdean berriztatu zen eta hormigoi armatzeko terraza moduko arkupe bat erantsi zioten orain dela hogeita hamar urte. Baserriak oinplano angeluzuzena eta bi isurkiko teilatua ditu. Barrualdea birmoldatu egin da etxebizitzak egiteko.

Eraikunza berria Anoetan egindako lehen etxebizitza eraikina izan da herritarrentzat. "Jauregia" ere deitu diote, izan ere, Tolosako edo Donostiako hirigune historikoan zeuden etxeen antzeko eraikin bat Anoetan eraikitzeak harridura sortu zuen baserritarrengan. Haien baserriekin alderatuz gero hain zen ezberdina, ez zuen ukuilurik ere. Buztiñaga berri hori arkitektura neoklasikoari jarraiki eraiki zen 1860. eta 1871. urteen artean, Beasain eta Donostia lotzen zituen trenbidea inauguratu ondoren eta Bigarren Karlistaldia hasi aurretekik, hain zuzen. Estiloari dagokionez, bere ezaugarriak oso antzezoak dira Jose Eleuterio Eskoriatza arkitektoarenekin. Arkitekto honek, besteak beste, Tolosako Justizia Plaza eraiki zuen 1853an.

Nabarmentzekoa da banda bertikalak dituen surrealde nagusia eta orobat kalitate eta lanketa bikaineko kareharri harlanduzko beheko solairua. Surrealdea bi ardatz simetrikoen bidez antolatuta dago eta burdin sareak dituen hegalkin-balkoi bat du. Solairuen bereiztea inposta-banden eta harlanduzko lana imitatzen duen entokaduraren tratamendu ezberdinaren bidez lortu da. Baoen neurriak eta kopuruak eta balkoiek etxeko erosotasun kontzeptuan aldaketa sakona gertatu dela islatzen dute, izan ere, barnealdeen aireztapena eta argitasuna balioesten dira.

Hilario Gaiztarro Ezeiza





Eraikin berriaren
Hegoaldeko
aurrealdearen
ikuspegia



Jatorrizko
eraikinaren
ikuspegia



Agiri zaharren aipamenak

- **1623 - 09 - 15:** Anoetako Buztiñaga baserrian maizterra den Martinez Zabalak Tolosako Pedro Munitaren aldeko obligazio-gutuna. 105 erreal oihalen truke. GAO; PT; sorta 168; orriak z.g.
- **1731 - 08 - 07:** Tolosako Santa Klara komentuak Anoetako Buztiñaga etxea bahitu eta enkantean jartzeko eskatzen du. Zentso bateko errenta ordaintzeko. XVII. mendean Tolosako Antonio Hernandosoro-Franziska Bustinaga senar-emazteek sortu zuten zentsoa. Franziska Bustinagak bere aitarengadik, Migel Bustinagarengandik, 1632an jaso zituen hau eta Iriarte etxea. 1726an Hernandosoro-Bustinagaren alabak Ibarrako Migel Barrenetxea saldu zion Iriarte etxea. Barrenetxea auzian tartekatzen da Izan ere, ea Iriarte etxeak ere Bustinaga etxeak duen obligazioaren partaidea den ala ez argitu behar da. Epaiaren arabera, Iriarte etxea ez da zordun. GAO; CO UEJ; 920
- **1827-12 -24:** Anoetako Buztiñaga, Ateaga, Ateagaetxeberria eta Errota baserrietako jabea den Juan Bautista Gaiztarrok, parrokiako erretoretzarako Miguel Munitaren alde bozkatzen du. GAO; PT; sorta 2805; orriak 175 a. - 175 g



Izenaren esanahia


Euskal Herrian oso arrunta den baserri-izena eta toponimoa dugu. Izena "Eguzki" hitzak eta ugaritasuna adierazten duen *-tza* atzizkiak osatzen dute. "Egutera" edo "leku eguzkitsua" esan nahiko luke.



Kokapena

Alkizara doan errepidearen egungo ibilbideetik goraxeago dago Eguzkitza baseria. Atzean, Basagain mendiaren gailurrerantz daramatzaten hegal aldapatsuak ikus daitezke. Alkizako ubidea hamar metro beherago dago eta, pareko ertzean, baserri honen jabeek beren etxebizitza berria eraiki dute. Ondoan, udal-biltegiak, Txolarre Irratia, musika-taldeentzako lokalak eta Anoetako gaztetxea daude.

Hauexek dira bere koordenatuak:
X: 575280 Y: 4779626 Z: 83
Long.: -2 4 26.3 Lat.: 43 9 53.5
Altuera: 83m.



Historia

XVII. mendearen bukaeran jada existitzen zen baserri hau. Hauxe da baseriaren jabe Andres Bidarorrek 1730ean agindu zuen obraren zati baten deskribapena: "...primeramente se a de deshacer toda la obra bieja, apuntalando los que se han de quedar; y tambien se debera conponer un postecillo al frontal biejo que se ha de quedar en el puesto de antes. Yten se ha de entrar cinco frontales nuebos a su costa, menos el balor y la conducion de dichos frontales. Yten se ha de conponer el galdr nuevo y los cabrios que faltaren tanbien nuebos. Y el dicho galdr con sus ostecillos y con sus rezunas necesarios. Yten se debera conponer las çapatas y cabrios con las maderas biejas que se pudieren aprobechar en dicha obra. Yten se debera conponer el tejado con ripia y con teja dando los materiales necesarios el dicho Martin. Yten se conbenieron para dar Martin diez ducados conforme se bendiere la sidra o para nuestra señora de agosto; y la restante cantidad para nabidad primero que biene...". Arotzeriaz ari da. Lan hauek baseria garai hartan berreraiki zela eta jabeak ahalegin ekonomiko handia egin zuela adierazten dute. Arotzeriaz arduratu zena Martin Munita Mendigibel izan zen.

Hamarkada batzuetan, baseria Munita familiaren esku egongo da eta bere maizterrak Begiristaindarrak izango dira. Jabetza eta alokairua gurasoengandik seme-alabengana transmititzen joango dira. 1790ean Miguel Antonio Munita dugu jabea eta Juan Antonio Begiristain maizterra, 1809-22 artean Martin Antonio Munita da jabea eta 1832an Francisco Ignacio Munita da jabea eta Felipe Begiristain maizterra.

Arkitekturaren ezaugarrak

Egungo eraikinak XVIII. mendean eraikitako tamaina txikiko baserri batean du jatorria. Harlanduzko eskantzuek kareharriaren eta lanke-taren kalitatea islatzen dute, XVIII. mendeko baserri barrokoen eraikuntza-joeren lekuko. Garai horretakoak dira ekialdeko aurrealdean dagoen ukuiluko arku zuzeneko sarrera eta lehen solairuko baoa.

Egungo aurrealdea XX. mendearen erdialdean egindako berritzearen ondorio da. Ordukoak dira aurreko baserri barrokoaren horma lodie-tan ireki ziren ia leihoa eta ate guztiak.





Ekialdeko aurrealde nagusiko atea

Agiri zaharren aipamenak

- **1730-11-20:** Andres Bidarorek Martin Munita Mendigibel salatzen du. Anoetakoak. Eguzkitza etxearen egin dituen zurgintza lanak ordaintzeko. GAO; CO UCI; 956
- **1797 - 01 - 12:** Anoetako Migel Antonio Munitak Juan Antonio Begiristainari Anoetako Eguzkitza baserria alokatuta 9 urtez 40 dukaten truke urte bakoitzeko. Baldintzak zehazten dira. GAO; PT; sorta 2774; orriak 48 a. - 49 a.
- **1814 - 04 - 06:** Villabonako Martin Lejaristik Anoetako Migel Antonio Aranzabali Eguzkitza Etxeberria etxea 9 urtez maiertzan emana. Baldintzak zehazten dira. GAO; PT; sorta 2779; orriak 31 a. - 32 a.



Izenaren esanahia


1541. urtetik "Erausia" gisa azaltzen da. Lagunartean "Erausi" esaten zaio.



Kokapena

Oria ibaiaren ibilguarekiko paralelo igarotzen den errepidearen aldamenean dago. Errepide honek Anoetako hirigunea eta Elbarrena auzoa lotzen ditu. Metro gutxira, trenbide-pasagune batek trenbidearen ibilbidea zeharkatzten du eta hortik behera Oria bailaran ibar zabal eta emankorra dago.

Hauexek dira bere koordenatuak:
X: 575910 Y: 4780397 Z: 64
Long.: -2 3 58 Lat.: 43 10 18.3
Altuera: 64m.



Historia

Baserri honen aipamenak XVI. mendekoak dira. Horietako lehena Pedro Erausiak eta Martin Alirik baserriak trukatu zutenekoa da. Bi baserrien arteko distantzia berrehun metro ingurukoa da eta, beren abizenek adierazten duten moduan, biak ziren baserri horietako familietako kideak. 1809an Juan Antonio Zubiaurre da jabea, 1832an Pedro Zatarain da jabea eta Juan Antonio Aranburu maizterra.

Baserri hau "Ruiz de Arcaute y Cía" enpresarena izan zen. 1907an eratu zen enpresa honek "La Esperanza" paper-fabrikaren -Tolosako Arramele auzoan zegoen Euskal Herriko paper jarraituko lehen lantegiaren- lekukoa jaso zuen. Baserriaren maiztetrak ziren Basilio Zugasti Ayestaranek eta Juana Josefa Otañok nekazaritzako egitekoak eta pareko ibaiertzear zegoen zentral hidroelektrikoaren mantentze-lanak uztartzen zituzten. Baserriaren ondoan zegoen presari esker, energia elektrikoa ekoizten zuten zentralarena zen paper-fabrikaren funtzionamenduarentzat. Mantentze-lanak egiteko, Etxezarreta paper-fabrikaren zubia erabiltzen zuten, duela gutxi eraitsitakoa, nahiz eta agorraldian ibitik igaro zitekeen Oria ibaia. 1911n Erausian jaiotako Basiliok eta 1913an Bidaniako Bengoetxea baserrian jaiotako Juana Josefak hamar seme-alaba izan zituzten eta baserri honen azken nekazariak izan ziren. Orain dela hogeita hamar bat urte egin ziren baserriaren jabe.

Aspaldi dolarea izan zuen eta sotoa beheko solairuan zegoen. 1936. urtearen aurretik, benta txiki bat ere izan zuen.

Arkitekturaren ezaugarriak

Eraikuntza XIX. mendearen bukaeran eta XX. mendean zehar egindako berritzeen ondorio da. Aurrealdeetan kareztatutako harri-hormak ditu eta hego-mendebaldeko ertzean soilik ikus daitezke harlanduzko harri kateatuak dituzten eskantzuak. Bai barnealdeko zurezko egitura bai leihoak eta ateak berritze horien ondorio dira. 1791n baserriaren jabe Martin Juan Irazustak solairu bat egiteko zortzi gapiro eskatu zizkion Anoetako kontzejuari.

Eraikina alde batetik ibairantz zabaldu egin dela dirudi, estalki-lerroak eta aurrealdeak handituz. Iparraldeko aurrealdea trinkoa da eta bertan eransten joan diren isurki bakarreko estalpeak atal bakarra osatu dute.



Basilio
Zugasti eta
Juana Otaño



Isabel Armonarizen bilduma



Isabel Armonarizen bilduma

Agiri zaharren aipamenak

- XVI. mendean: Pablo Erausiak Martin Alliri Anoetako Erausia etxea trukean ematen dio. Berak Anoetako Alliri etxea hartzen du. Trukea baldintzakin egiten da. GAO; pt; sorta 37; orriak 566 a. - 572 g.



Erausia
baserriaren
aurreko
fatxadaren
ikuspegiak



Izenaren esanahia


"Etxe", "berri" eta artikuluaren konbinaziotik dator eta "etxe berria" esan nahi du. Lagunartean anoetarrek "Etxeberri" esaten diote, azken -a hori ez esateko ohiturari jarraiki. Echeberria (1541), Echeverria (1569), Echeverria (1626), Echeverria (1692), Echeverria (1802), Echeverria (1817), Echeberria (1832), Etxeberri (1974), Etxeberri (1997).



Kokapena

Hegal batean egotean, errazagoa da eraikinaren hainbat solairutara sartzea. Baserri honetatik, Oria ibaiaraino iristen den ibar osoa ikus daiteke. Gorago, Luebana baseria eta Basagain mendiaino daramatzaten hegalak topa daitezke. Baserria inguratzen duen errepidea Goiballara auzoraino doa.

Hauexek dira bere koordenatuak:
X: 576196 Y: 4780983 Z: 88
Long.: -2 3 45 Lat.: 43 10 37.1
Altuera: 88m.



Historia

Ergoieno ibarrean dagoen baserri hau nekazaritzako ustiategia da duela bostehun urte. Ezagutzen dugun lehen jabea Domingo Etxeberria da eta, berri ere gertatzen da, familiak baserriaren abizena hartu eta belaunaldi etxeari lotuta mantentzen dela. Azken Etxeberriatarrak 1811n hartutako zorrei ahal duten moduan aurre egiten dieten Juan Bautista eta bere arreba Maria dira. 1809an Juan Francisco Ezeiza da jabea, eta 1832an, berriz, Lorenzo Ezeiza. Lorenzo Ezeizak Francisco Ignazio Ezeizaren eta Jose Antonio Barrenetxearren familiei alokatzen die baseria.

Urtetan zehar, baserriari eusteko sortzen diren arazoak jasotzen dira agirietan: 1577an Joanes Etxeberria eta Domingo Legarra auzitan sartzen dira. Etxeberriak Legarrari baserritik eraman dituen nekazaritzako lanabesak itzultzeko eskatzen dio.

1617an, Aiako Simon Aizperrokin hauxe eskatzen du: Joanes Etxeberriaren ondasunak konfiskatzeko eta enkantean jartzeko ez dizkiolako bi idi ordaindu, izan ere: "...avia avido concierto berbal entre ellos de pagar los dicho doce ducados en ganado cabruno...".

Arkitekturaren ezaugarriak

Egungo eraikina XVII. mendearen azken herenean XVI. mendeko jatorrizko eraikinean egindako berritze-lan sakonen ondorio da batez ere. XVI. mendeko jatorrizko harrizko baserritik beheko solairuaren barnealdeko zurezko egituraren aztarnak gelditzen dira, zurezko zutabe handi bat batez ere, eta orobat honako osagaiak: jatorriz kanpoan zeuden harri-horma batzuk eta dobeladun arku baten erdia, eta iparraldeko aurrealdean, harlanduzko kareharritzko dobelak dituen erdi-puntuko arku bat. Osagai hauek guztiekin hauxe islatzen dute: XVII. mendearen bukaeran baseria handitzeko egindako lanetan aurreko baseria aprobetxatu zela. Baserria gorantz eta ekialderantz handitzen, hau da, egun bere aurrealde nagusia dagoen tokira arte. Aurrealde nagusian, beti izan da nabarmenzekoa hiru alderantzizko urkila dituen horma pikoa. Horma piko honek eta adreiluzko hormatalekin izaera osoa ematen diote eta Euskal Herriko adibiderik hoberenetakoa bihurtzen dute. Berritzetik honi dagozkio lasto-koloreko hareharri-harlanduzko bao zuzenak, sarrerak dituen arku txaranbeldua –gurdien sarrera errazteko zeiharra dena– eta iparraldeko aurrealdean dagoen beheko solairuko beste arku hormatu bat.

Ondoren egindakoak dira, ordea, barnealdearen eta hiru isurkiko teilatuaren berregituraketak.

Balio etnografiko handia du ganbaran dagoen tolareak. Tolare honen argazkiak jarraian eransten dira. Tolare hauek eraiki zuen XX. mendean eta prentsari zurezko gurpil trinko baten bidez presioa egiten diotelako bereizten dira. Beste leku batean eta baserriaren barnealdeko zurezko egituraren parte izanik, aurreko tolare batena zen bernia gordetzen da.

Ekialdeko aurrealdea







Aurrealde nagusiko teilatupeko xehetasuna




Aurrealde nagusiko teilatupeko solairuaren barrualdea



Etxeberri baserriaren fatxada nagusiaren aurretikoa




Egurrezko estalkiaren egitura





Tolarea. Egurrezko prentsa zaharraren ikuspegia orokorra

Argazkia: Paitxi Sanz



Prensatzea
eragiten duen
mekanismoa

Agiri zaharren aipamenak

- **1569 - 09 - 14:** Tolosako Martin Urrutiak, Pedro Arrutareren emaztea den Anoetako Domenja Urreizetari, Domingo Etxeberriari eta Amasako Miguel Galatasi dukat 56 zentsuan mailegatuak. 4 dukat urtero. Ordainketa bermatzeko: Anoetako Urreizeta eta Etxeberria etxeak eta Amasako Galatas etxea. GAO; PT; sorta 18; orriak 86 a. - 90 a.
- **1577 - 02 - 16:** Joanes Etxeberria eta Maria Miranda senar-emazteak eta Domingo Legarra eta Migel Mirandaren arteko hitzarmena. Anoeta eta Amasakoak. Etxeberriako etxearen jabetzari buruzkoa. GAO; PT; sorta 55; orriak 678 a. - 680 a.
- **1577 - 03 - 06:** Joanes Etxeberria eta Domingo Legarraren arteko auzia bitartekariei esker hitzartuta. Anoetakoak. Etxeberriak Legarrari Etxeberria etxean egindako dohaintza 220 dukaten truke, baliorik gabe uzteko. Epailea eta hitzarmena. Bitartekariak: maisu Joan Rekalde eta Joan Barrena. GAO; PT; sorta 24; orriak 416 a. - 425 a.
- **1577 - 10 - 19:** Anoetako Joanes Etxeberriak Domingo Legarrari Etxeberriako etxetik eramandako nekazaritza-lanabesak bueltatzea eskatzen dio. GAO; PT; sorta 55; orriak 527 a. - 527 g.
- **1598- 12-03:** Anoetako Maria Miranda alargunak bere semea Joanes Etxeberriari dohaintzan ematen dizkio Anoetako Etxeberria etxea eta Ipenza baserria, bere ezkontza hobetzeko asmoarekin. GAO; PT; sorta 134; orriak 49 a. - 51 g.
- **1598 - 12 - 06:** Anoetako Joanes Etxeberriaren semeak diren Joanes Etxeberria eta Bitor Etxeberriaren arteko hitzarmena. Anoetako Etxeberria etxean bakoitzari zegokion senipartearen inguruan. GAO; PT; sorta 134; orriak 126 a. - 129 g.
- **1599 - 01 - 02:** Tolosako Joan Ruiz Iurramendik Anoetako Joanes Etxeberriari 42 dukat zentsoan mailegatuak. 3 dukat urtero. Ordainketa bermatzeko: Anoetako Etxeberria etxea eta Iromendi borda. GAO; PT; sorta 104; orriak 20 a. - 22 g.
- **1602 - 01 - 05:** Anoetako Bitor Etxeberriak bere anaia Joanes Etxeberriari emandako ordainagiria. 40 dukat Anoetako Etxeberria etxean bere senipartearen truke. GAO; PT; sorta 138; orriak 200 a. - 200 g.
- **1617 - 01 - 13:** Aiako Juan Simon Aizperro Anoetako Joanes Etxeberriaren ondasunak bahitu eta enkantean jartzeko eskatzen du. Idi batzuk ordaintzeko. Etxeberriak onartzen du zorra: "y avia avido concierto berbal entre ellos de pagarlos los dichos doce ducados en ganado cabruno..." GAO; CO UEJ; 219
- **1619 - 04 - 07:** Anoetako Grazia Tapiak bertako Joanes Etxeberria eta Mari Migel Etxaondo senar-emazteei 40 dukat zentsoan mailegatuak. 2 dukat urtean. Ordainketa bermatzeko: Anoetako Etxeberria etxea. GAO; PT; sorta 155; orriak 242 a. - 245 g.
- **1811 - 03 - 19:** Juan Bautista Etxeberria eta bere arreba Maria Etxeberriaren arteko kontu-kitaketak. Etxeberria etxeko seniparte eta zorren inguruan. Anoetakoak. GAO; PT; sorta 2777; orriak 180 a. - 180 g
- **1827 -12 - 24:** Anoetako Etxeberria eta Ipenza baserrietako jabea den Juan Lorenzo Ezeizak, parrokiako erretoretzarako Migel Munitaren alde bozkatzen du. GAO; P; sorta 2805; orriak 167 a. - 167 g.



Izenaren esanahia

Goikoetxea edo "goiko etxea", "goiko", "etxe" eta artikuluaren konbinaziotik dator.




Indalecio Ojanguren AGG-GAO OA 4075

Kokapena

Goikoetxea baseria zegoen orubean eraiki ziren etxebizitza berriak Anoetako Herriko Plazan daude, parroquia aurrean dutelarik. Beheko solairuan aski ezagunak diren establezimenduak daude, hala nola, Itzuli taberna, Odriozola supermerkatua eta Arantza arrandegia.

Hauexek dira bere koordenatuak:
X: 575644 Y: 4779420 Z: 75
Long.: -2 4 10.2 Lat.: 43 9 46.7
Altuera: 75m.



Historia

Baserri hau XV. mendetik existitzen da, ezagutzen den lehen jabea "Juan Çuri de Goycoechea" izanik. XV. mendearen bukaeran, Migel Goikoetxeak eta bere emazte Mariak beren ondorengoak diren Migel eta Mariari uzten diete baseria oinordetzan. Azken honek bere eskubideei uko egiten die bere anaiaaren mesederako. XVI. mende guztian zehar, baseria Goikoetxeatarren esku geratzen da, baina 1593an Martin Munita eta Madalena Mendigibel senar-emazteek baseria jasotzen dute, abizenaren eta etxearen arteko lotura galduz.

XIX. mendearren hasieran, Juan Bautista eta Sebastian Munita arazo ekonomikoak dituzte eta, maileguak eskatu ondoren, baseria galtzen dute. Azkenean, Bautista Gaiztarrok erosiko du 1828an. 1891n jabeak Claudio Gaiztarro eta bere anai-arrebak izango dira. XX. mendean Juan Maria Odriozola eta Francisca Otaegi izan ziren etxearen jabeak, zazpi seme-alabak izan zituzten.

Arkitekturaren ezaugarriak

XIX. mendean zehar hainbat aldaketa jasan zituen eta 1912. urtean plazara begira zegoen eraikinaren zatiaren jabeek guztiz berreraiki zuten. Berreraiketa honi dagokio argazkietan azaltzen den berriztatutako aurrealdea.






Indalecio Ojanguren AGG-GAO OA 4080



Indalecio Ojanguren AGG-GAO OA 4077

Agiri zaharren aipamenak

- **1531 - 02 - 05:** Domenja Goikoetxeak bere anaia Domingoren mesederako Anoetako Goikoetxea baserriare eskubideari uko egiten dio senipartearen truke. Gurasoak: Miguel eta Maria Goikoetxea. GAO; pt; sorta 2; orriak 281 a. - 282 a.
- **1567 - 03 - 23:** Tolosako Antonio Asuragak, Anoetako Pedro Idiakiazi, Julian Aginagari, Domingo Iturgaizagari, Domingo Goikoetxeari, Joanes Argindegiri eta Joanes Arrutarteri 98 dukat zentsuan maillegatuak. 7 dukat urtero. Ordainketa bermatzeko: Anoetako Idiakaiz, Aginaga, Iturgaizaga, Goikoetxea, Argindegia eta Mikelesagasti etxeak. GAO; pt; sorta 17; orriak 239 a. - 242 g.
- **1571 - 03 - 19:** Anoetako Domingo Goikoetxearen hilburuko. Anoetako Goikoetxea etxean egina. Oinordekoa: Jordana Goikoetxea (alaba). Goikoetxea etxea jasoko du. GAO; pt; sorta 19; orriak 258 a. - 260 g.
- **1575 - 05 - 14:** Anoetako Domingo Goikoetxearen hilburuko. Anoetako Goikoetxea etxean egina. Oinordekoak: Anoeta eta Irurako erretoreak. GAO; pt; sorta 22; orriak 216 a. - 218 a.
- **1578 - 05 - 27:** Anoetako Maria Domingo Goikoetxearen hilburuko. Anoetako Goikoetxea etxean egina. Oinordekoak: Madalena Goikoetxea (ahizpa). Goikoetxea etxeak jaso du. GAO; pt; sorta 25; orriak 398 a. - 400 g.
- **1579 - 04 - 20:** Anoetako Madalena Goikoetxearen hilburuko. Juanes Argindegiren emaztea. Oinordekoak: Maria Domingo Goikoetxea (ahizpa). GAO; pt; sorta 26; orriak 120 a. - 121 g.
- **1579 - 06 - 07:** Anoetako Madalena Goikoetxearen hilburuko. Anoetako Goikoetxea etxean egina. Oinordekoak: Irurako erretorea den Joan Goikoetxea (bere lehengusua). GAO; pt; sorta 26; orriak 251 a. - 252 a.
- **1593 - 04 - 20:** Anoetako Maria Domingo Goikoetxeak Martin Munita eta Madalena Mendigibel senar-emazteei dohaintzan ematen dizkie Anoetako Goikoetxea etxea eta Iursail batzuk. Baldintzak zehazten dira. GAO; pt; sorta 129; orriak 546 a. - 548 g.
- **1815 - 04 - 12:** Anoetako Goikoetxea etxeko jabeak diren Juan Bautista eta Sebastian Munita aita-semeek, etxearen gain dagoen 40 duka-teko zentsoa onartzen dute. GAO; PT; sorta 2780; orriak 94 a. - 95 g.
- **1828 - 03 - 08:** Azpeitiako Bixente Iruretak, Anoetako Goikoetxea baserria saltzen dio Anoetako Juan Bautista Gaiztarrori 23000 errealeen truke. Otsailean erosi zuen baserriaren salmenta, argitu gabeko zentsu batzuren existentziaz jabetzen denean erabakitzentzu du. GAO; PT; sorta 2806; orriak 41 a. - 42 a.
- **1828 - 09 - 22:** Anoetako Maria Katalina Lete eta bere semeak diren Ignazio Antonio eta Juan Bautista Munitak dauzkaten zorrak direla medio, Anoetako Goikoetxea baserria saltzen diote bertako Juan Bautista Gaiztarrori 23000 errealeen truke. GAO; PT; sorta 2806; orriak 104 a. - 145 a.
- **1878:** Registro de la Propiedad. Tomo 20. fol. 15. Finca nº 3.
- **1891:** Goikoetxea baserriaren jabe diren Anoetako Klaudio Gaiztarro eta bere anaiek, Anoetako Juan Krutz Porturen aurka izandako auzia. Goikoetxea baserriaren salerosketaren konplimenduari buruzkoa. 1889 tik 1891 artekoa Tolosako Udal ; Udal; E/6/III - 4.
- **1912:** Tomo 332. fol. 216. Finca nº 134.



Uzkudun familiaren grabatua.

Izenaren esanahia

"Idi"- "iri" (iratze) eta "gaitz" (aldapatsu) hitzetatik dator eta "iraleku aldapatsua" esan nahiko luke. Gogoratu behar dugu, Buztinagatik Idiakaitzeraino aldaera handia dagoela. Ondoren, termino honetatik XV. mendean jada aipatzen zen Idiakez abizen ezaguna sortu zen, bere oinetxearen jatorrizko izena Idiakitz izan arren. Lagunartean "ekaitz" edo "ikaitz" esaten zaio.



Kokapena

Gaur egun etxebizitzaz osatutako auzo bat dago aspaldi Idiakaitz baserria zegoen lekuan. Bertan, Alkizako errekkak Oria ibaiaren isurtzen ditu urak eta azken ur-laster honek bihurgune itxi bat osatzen du, bere higaduranorabidea aldatuz eta pareko ertzean Irurako lautada osatuz.

Hauexek dira bere koordenatuak:

X: 575554 Y: 4779639 Z: 67

Long.: -2 4 14.1 Lat.: 43 9 53.8

Altuera: 67m.



Historia

Baserri honetatik sortu zen Idiaketz leinua. Idiaketz tarrak Gipuzkoako familiarik boteretsuenetakoa bihurtu ziren XVI. mendean eta XVII. mendearren hasieran. Baserri honetako zen Juan Idiaketz Tolosara bizitzen joan eta han hiribilduko leinurik zaharrenetako kidea zen Catalina Iurreamendirekin ezkondu zen. Bi seme izan zituzten: Lope eta Alonso. Lehena Ameriketara joan zen eta Alonso Carlos V.a enperadorearen idazkari eta kontseilari izatera iritsi zen, Austriar erregeei eskainitako zerbitzuan garrantzi handiko erantzukizunak bere gain hartuz. 1539ko urtarrilaren 12an, Alonso Idiaketz jatorri garrantzitsuko beste familia baten kidea zen Gracia Olazabalekin ezkondu zen eta Tolosako bizileku nagusia Donostiarra aldatu zuen. Alonso 1547an hil zen Alemaniako gerra-gatazken testuinguruauan. Bere anaia Lope izan zen oinordeko. Lope Petronila Idiaketzezin (Azpeitia) ezkondu eta Juana izeneko alaba bat izan zuen, zeinak, Antonio Lopez Isasirekin (Eibar) elkartu ondoren, Idiaketz-Isasi maiorazakoa osatu zuen 1580an. Ezkontza-politika eta erregeei emandako zerbitzuak izan ziren Idiaketz arrek bi belaunaldietan besterik ez arrakasta izateko arraioi nagusiak. Alabaina, oinetxe bat behar zuten, alegia, haien leinuaren erreferentzia izango zen etxe bat. Lehen saiakera Alonsok egia zuen Juan Mosquera de Molina arkitektoari Tolosako Santa Maria parroquia-elizaren ondoan jauregi errenazentista izugarri bat eraikitzeko agindu zionean. Jauregi hau ez zen eraiki. Halaber, Alonsok eta bere emazte Graciak Donostiako San Telmo komentua eta Antiguako mojen monasterioa eraikitzeko agindua eman zuten.



Idiaketz Olazabal familiaren armaría

Familiak ez du Anoetako jaiotterria ahazten eta 16???. urtean Juan Idiaketzez - erregearen idazkari ere izan zenak- Idiakitz base-riaren alboan jauregi berri bat eraikitzeko proiektu bat egiteko agindua eman zuen. Sorlekura egindako itzulera honek ez zuen fruiturik eman, jauregia ez baitzen eraiki. Ondorengo orriean erreproduzitu ditugun plano bikainak besterik ez dira geratzen. Egitasmo honi esker, Anoetako planorik zaharrena dugu.

XVI. mendean zehar baserria Idiaketz familia-ri egon zen lotuta, baina XVII. mendetik aurrera, alokatuta eta Idiaketz abizenarekin loturarik ez duela agertzen da. XIX. mendearen hasieran jabea Aguraingo kondea den Tomas Añorga da eta maizterrak Martin Juan Saizar, Bautista Gorostidi eta Jose Manuel Etxeberria.

Arkitekturaren ezaugarriak


Ez dugu daturik 1969ko abenduaren 8an sute batek kiskali zuen baserriaren arkitekturari buruz. Baserriaren lursailetan Idiakitz kaleko etxebizitzen auzoa eraiki zen eta Alkizako ubidearen ibaitik apur bat gora "Ekaitz-berri" izeneko etxebizitza familiabakarra dago. Argazki zaharretan hiru solairuko eraikin bat ikus daiteke, aurrealde nagusian armaria eta lehen solairura sartzeko arrapala dituena. Bere leihoen eta ateen baoak XIX. mendearen bukaeran egindako berritze-lanen ondorio dira. Atzealdeko fatxadak leihoko ugari ditu, barneko espazioa bir-moldatu den seinale.




Alonso Idiaketzen hilobia
Donostiako San Telmo elizan.
XVI. mendeko artelan bikaina.
Errenazimenduko estilokoa



Garbileku eta atzekaldean Idiakaitz baseria. Indalecio Ojanguren. AGG-GAO OA 4078



Idiaketarrek Anoetan altxatu behar zuten jauregiaren egitasmoa. XVI. mende bukaera. Marrazkiaren egilea: Jerónimo de Soto.
Archivo Histórico Provincial de Zaragoza. Casa Ducal de Híjar. Fondo Idiaquez



Idiakaitz baseria eta jauregi berriaren egitasmoa, sekulan eraiki ez zena. Alkiza erreka eta Oriaren tartean jauregi berri bat eraikitzeko asmoa zuten. Jerónimo de Soto. XVI. mende bukaera. Archivo Histórico Provincial de Zaragoza. Casa Ducal de Hijar. Fondo Idiáquez

Agiri zaharren aipamenak

- **1556 - 01 - 27:** Pedro Idiakaketzek Martolo Mendigibelen aldeko obligazio-gutuna. Anoetakoak. 24 urrezko dukat Idiakaitz etxearen seniparte-ari ordaintzeko. GAO; pt; sorta 7; 88 a. - 89 a.
- **1567 - 03 - 23:** Tolosako Antonio Asuragak, Anoetako Pedro Idiakaitzi, Julian Aginagari, Domingo Iturgaitzagari, Domingo Goikoetxeari, Joanes Argindegiri eta Joanes Arrutarteri 98 dukat zentsuan mailegatuak. 7 dukat urtero. Ordainketa bermatzeko: Anoetako Idiakaitz, Aginaga, Iturgaitzaga, Goikoetxea, Argindegia eta Mikelesagasti etxeak. GAO; pt; sorta 17; orriak 239 a. - 242 g.
- **1587-10 - 03:** Tolosako Pedro Armendia lizentziatuak, Joan Idiaketzen izenean, Anoetako Pedro Idiaketzi alokatutako Anoetako Idiakaitz etxea. Baldintzak zehazten dira. GAO; pt; sorta 92; orriak 298 a. - 298 g.
- **1591 - 09 - 30:** Anoetako Pedro Idiaketzez Erret-aholkularia den Joan Idiaketzen aldeko obligazio-gutuna. 96 dukat Idiakaitz etxeko alokairuaren truke 6 urtez. GAO; pt; sorta 75; orriak 223 a. - 223 g.
- **1591 - 09 - 30:** Joanes Idiaketza Erret-aholkulariaren ordezkarria den Tolosako Migel Perez Aburruzak Anoetako Pedro Idiaketzi alokatutako Anoetako Idiaketza 16 dukanen truke urtean. 2 urterako. Baldintzak zehazten dira. GAO; pt; sorta 76; orriak 785 a. - 786 a. / 912
- **1607 - 01 - 20:** Anoetako Idiaketza etxearen maizterra den Martin Zubillagak Tolosako Martin Ruiz Zaldibiaren aldeko obligazio-gutuna. 12 dukat idi baten truke. GAO; PT; sorta 143; orriak 160 a. - 160 g.
- **1615 - 03 - 11:** Tolosako Petronila Idiaketza alargunak Madrilen bizi den Joan Manuel Lopez Estorri Iuzatutako ahalordetza. Erregearen idazkaria zen Tolosako Juan Idiaketzez zor zizkion 1200 dukatak kobratzeko, Anoetako Idiakaitz etxearen gainean jarritak baitzeuden, Juan Idiaketzena zena. GAO; PT; sorta 119; orriak 349 a. - 350 a.
- **1616 - 07 - 15:** Anoetako Pedro Idiaketzez bertan bizi diren Franzisko Iriondo eta bere amaginarreba Maria Etxeberriari alokatutako Anoetako Idiaketza etxearen 4 urtez. Baldintzak zehazten dira. GAO; PT; sorta 154; orriak 73 a. - 74 g.
- **1616 - 07 - 15:** Anoetako Pedro Idiaketzez bertan bizi den Maria Etxeberria alargunari emandako ordainagiria. 161 dukat Anoetako Idiaketza etxearen alokairuaren truke (6 urtekaoa). GAO; PT; sorta 154; orriak 74 g.
- **1654 - 05 - 10:** Donostiako Domingo Hoak, Anoetako Maria Urkola eta Jeronimo Abaliari, Idiaketza oinetxea alokairuan ematen die 6 urtez, urte bakoitzeko 40 dukanen truke. Domingo Abalia, Mariaren senarra da. Eta biak, Jeronimoren gurasoak. GAO; PT; sorta 2070; orriak 239 a. - 240 g
- **1695 - 12 - 30:** Gaspar Felipe Iurreamendik Anoetako Madalena Goikoetxea eta Migel Abaliaren alde emandako ordainagiria. Anoetako Idiaketza baserriaren maiztza ordainduta. Goikoetxea eta Abalia seme-alabak dira. GAO; PT; sorta 2093; orriak 93 a. - 93 g.



Idiakaitz baserriaren atzekaldeko ikuspegia. RIEV. XII. Tomoa. 1931

Izenaren esanahia

"Igera"(eihera/errota) eta "bide" hitzek osatzen dute. Lehen, errota izendatzeko erabiltzen ziren terminoak "ihera" edo "igara" ziren. Añoetako herri-erotak "Iheratxulo" zuen izena eta baserri hau errotara zihohan bidean zegoen, hau da, "Igerabidean". Herri ahozkeran "Irabide" esaten zuten.



Kokapena

Gaur egun etxebizitzak daude aspaldi Igerabide baseria zegoen lekuan. San Joan Kaleko 4. zk.



Historia

Datu gutxi bildu ditugu baserri honi buruz. Segur asko, XVII. mendean eraiki zen, Anoetako hirigunea eta kontzejuaren Iheratxulo errota lotzen zituen bide-bazterrean. 1801ean, udalarena zen. Gertaera honek eta errotatik gertu egoteak errotarekin zuen loturari buruzko zalantzak sortu ditu. 1810ean berritze-lan batzuk jasotzen dira agirietan. Urte horretan, Juan Bautista Etxeberria Ateaga presbiteroak Anoetako kontzejuari zura eskatzen dio Igerabiden egin behar ziren lanentzat gapirioak, oholak eta habeak egiteko. Igerabideko azken bizilagunak ondoko hauek izan ziren: Felix Alberdi lehenengo solairuan, José Sarasola eta Gloria bigarrengoa eta hirugarren pisuan Pablo Alberdi eta Frantziska Sarasola. Beheko plan-tan Jose Sarasolak Anoetako baserrien segak eta lanabesak konpontzen zituen.

Arkitekturaren ezaugarrriak

Agiri fotografikoei jarraiki, esan daitete XX . mendearen hasieran baserriak bi zati zituela. Oinplano angeluzuzena eta bi isurkiko teilatua zituen eraikin bat zen. Etxebitzatzak ziren lau solairu zituen eta beheko solairuan ukuiluak zeuden. XIX. mendeko azken hereneko eraikin hau zen nekazaritzako ustiategi baten beharretara baino gehiago etxebitzatza-eraikin baten beharretara zegoen egokitura. Bere iparraldeko surrealdeari erantsita, bi solairuko eta isurki bakarreko eraikin bat zegoen. Seroretxe izeneko eraikin bat zegoen, hain zuzen ere 1676. urtean berreraikitakoa. Bide alde-ra begira zegoen surrealde nagusia XVII. mendeak hain berezkoak dituen zurezko bilbadurak eta harlanduzko eskantzuek apaintzen zuten. Egun, San Joan kaleko 4. zenbakia duen etxebitzatza-eraikina dago orubearen gainean.

Agiri zaharren aipamenak

- 1801 - 09 - 22: Anoetako udalak, Igorazpia barrutiko bi lursail lagatzen dizkie bertako Asensio Irazusta eta Altzako apaiza den Jose Antonio Irazusta anaiei, Frantziaren aurkako azkeneko gudan emandako mailegua eta Igerabide udal baserrian egindako konponketen ordainetan. GAO; PT; sorta 2775; orriak 77 a. - 83 a.

Anoetako Udalaren argazkia



Igerabide baserria Indalecio Ojanguren argazkietan. AGG-GAO OA 4079-4080

Anoetako Udalaren argazkia



Izenaren esanahia



Zumeen lekua esan nahi du. Leku hezeetan hazten diren sahatsaren familiako zuhaixka hauek bi edo hiru metro izan ditzakete eta beren adarrak saskigintzarako erabiltzen dira.



Kokapena

Basagain mendiaren iparraldeko isurialdean dago Anoetatik urrutien dagoen baserri hau. Hegal baten erdian, goialdean Ateaga baserria eta behean Zumalikardi ubidea ditu.

Hauexek dira bere koordenatuak:
X: 575128 Y: 4781295 Z: 163
Long.: -2 4 32.2 Lat.: 43 10 47.6
Altuera: 163m.



Historia


Nekazaritzarako lekurik aproposenean ez egon arren, baserri hau XVI. mendetik existitzen da. 1598tik XIX. mendera arte, Elbarren auzoko Etxeberria baserriari lotuta dago. Bi baserriek jabea bera zuten. 1809an jabea Juan Francisco Ezeiza zen eta 1822-1832 urteen artean Lorenzo Ezeiza. Garai honetan, baserria alokatuta zegoen, maizterra Martin Otegi izanik. 1797-1802 urteen artean 6 lagun bizi ziren bertan.

Arkitektuaren ezaugarriak

Egungo baserriak harri-horma perimetralak eta kareharri harlanduzko eskantzuak ditu oraindik. Aurrealde nagusiak erdi-puntuko arku dobeladun bat mantentzen du. Ondoren, arku honen baoa birmoldatu egin zen, arku zuzeneko sarrera bihurtuz. Arku hau XVI. mendearen bukaerako edo XVII. mendearen hasierako eraikinari dagokio. Iparraldeko aurrealdeak ukuiluetara sartzeko kareharri harlanduzko arku zuzeneko ate bat du. Aurrealdeetan ikus daitekeenez, XX. mendearen hasieran berritze-lan garrantzitsuak egin ziren baserrian, hormak berriztatuz eta plakaz estalitako markoak dituzten bao zuzenak irekiz. Ondoren, hormetan egindako berriztatzea kendu eta egun harri-horma biluziak ikus daitezke.

Agiri zaharren aipamenak

- **1598- 12-03:** Anoetako Maria Miranda alargunak bere semea Joanes Etxeberriari dohaintzan ematen dizkio. Anoetako Etxeberria etxea eta Ipentza baseria, bere ezkontza hobetzeko asmoarekin. GAO; pt; sorta 134; orriak 49 a. - 51 g.
- **1827 -12 - 24:** Anoetako Etxeberria eta Ipentza baserrietako jabea den Juan Lorenzo Ezeizak, parrokiako erretoritzarako Miguel Munitaren alde bozkatzen du. GAO; P; sorta 2805; orriak 167 a. - 167 g.



Izenaren esanahia

(H)iri hitzak –egun “hiribildu” edo “hiri” gisa erabili arren, beste garai batzuetan “bizileku” eta baita “etxe” ere esan nahi zuen– eta “arte” (artean) preposizioak osatzen dute. Anoetako herrigune aldera dagoen eraikuntzaren zatia “Iriarteburu” deitzen zaio. Anoetako hirigune-rantz dagoen eraikinari “Iriarteburu”deritzo.



Indalecio Ojanguren AGG-GAO OA 4079

Kokapena

Urrutinea baserriaren ondoan
zegoen. Gaur egun, Argoin
kalea kokatzen da bertan.

Hauexek dira bere koordenatuak:
X: 575791 Y: 4779285 Z: 68
Long.: -2 4 3.8 Lat.: 43 9 42.3
Altuera: 68m.



Historia

XVI. mendetik aipatzen da baserri hau salmenta-agirietan. Lehen aipamena 1569koa da. Urte horretan, Maria Iriartek Anoetako apaiza zen Bartolome Buztiñagari saltzen dio baserria. 1801ean Villabonako Antonio Elola Martin Garaialderi saltzen dio etxea eta honek, berriz, Jose Antonio Maiozi 1814an. Azken bi hauiek Anoetakoak.

XVIII. mendearen bukaeran, baserria batez ere errementaritza-lanetara zegoen zuzenduta eta sutegia, baratzea eta laborantza-lursail txiki bat zituen. Baseriaren diru-sarrera iturriak inguruko nekazaritzako ustiategiei emandako zerbitzuekin zeuden lotuta. Baliteke hau izatea 1864an udaletxearen hegoaldean kokatutako "errero-echea" baserria. Egun, XX. mendearen erdialdean eraikitako etxebizitza-eraikin bat dago bertan. 1932an baserria Martin Goena Arruabarrenarena zen, zeinak bere aitarengandik jaso zuen oinordetzan. 19th. urtean Jose Maria Maioz Kortajarenak erosi zuen. Kortajarenak Eusebio Juana Garciari saldu zion 1940an eta azken honek, berriz, Jose Ignazio Iturrioz Abaltzisketari 1945ean. Azken hau izango da baserria berreraikiko duena.

Agiri zaharren aipamenak

- **1569 - 08 - 23:** Anton Arizmendiren alarguna den Tolosako Maria Iriartek Anoetako Bartolome Buztiñaga apaizari Anoetan saldutako Iriarte etxea 51 dukaten truke. Mugak aipatzen dira. GAO; pt; sorta 18; orriak 245 a. - 247 g.
- **1571 - 04 - 10:** Anton Areizmendiren alarguna den Maria Iriartek Bartolome Buztiñaga apaizari emandako ordainagiria. Anoetakoak. 51 dukat eta 5 erreal Anoetako Iriarte etxearen truke. GAO; pt; sorta 19; orriak 209 a. - 209 g.
- **1797 - 02 - 05:** Amasa-Billabonako Antonio Elolak bere Anoetako Iriarte etxea Anoetako Miguel Antonio Ugalderi alokatzen dio. Etxeak sutegi bat dauka. 6 urtez, 20 dukat urteko gehi kapoi bat gabonetan. GAO; PT; sorta 2754; orriak 30 a. - 31 g.
- **1801-06-21:** Anoetako Martin Garaialderi Iriarte etxea saltzen diote.
- **1801-09-14:** Martin Garaialde Iriarte etxearen jabegoaren erregistroa.
- **1806 - 09 - 19:** Juan Bautista Ateagak Martin Lejaristiren aldeko obligazio-gutuna. Billabonakoak. 92 dukat eta 9 erreal Anoetako Iriarte etxea saldu ondoren. GAO; PT; sorta 2776; orriak 32 a. - 33 g.
- **1814 - 01 - 31:** Martin Garaialdek Iriarte baserria Jose Antonio Maiotzi salduta. Anoetakoia ikuskatzalearen balorapena zehazten da. GAO; PT; sorta 2779; orriak 15 a. - 19 g.
- Jabego erregistroa. 452 Tomoa. Anoetako 6. Liburua: fol. 201. finca nº 196 / fol. 237. finca 203.



Iriarte gaur egun

Izenaren esanahia


"Itur" (iturri) eta "-gaitz" (aldapatsu edo maldan gora). Lursail aldapatsuan dagoen iturria esan nahiko luke. Baserria hegala alda-patsu batean egokitutako zelaigune batean dago. 1450. urteko lehen aipamenean "Yturgaycaga" gisa azaltzen da eta Iturgaizaga gisa mantentzen da mendeetan zehar. Duela gutxi eta modu okerrean, "Iturzarraga" izan esan zaio.



Kokapena

Ergoien auzoan dago. San Joan parrokiatik hirurehun metrora egon arren, urruagiago dagoela dirudi hegalean gora dagoelako. Bertatik hirigune osoa ikusten da. Iturgaitzara iristeko Anoeta eta Hernialde lotzen dituen GI-3411 errepidearen saihesbide bat hartu behar da.

Hauexek dira bere koordenatuak:
X: 575478 Y: 4779145 Z: 111
Long.: -2 4 17.7 Lat.: 43 9 37.8
Altuera: 111m.



Historia

Baserri hau duela seiehungo urte gutxinez Anoetan eraikitako lehenengo baserrietako bat da. Marina Iturgaitzaga da 1450eko data duen pergamino batean azaltzen den lehen jabea. Bertako biztanleek eragina izan zuten Anoetako gizarte-bizitzan eta 1585ean Domingo Iturgaitzaga alkateak San Joan parrokia-eliza eraikitzeko lanen kontratua eskuratu nahi izan zuen. Horren aurka azalduz, Domingo Arrutarte eta Domingo Arozetaea auzotarrak erretorearengana joan ziren kexatzeria, hauxe esanez: "... que no lo podían ni devian fazer sinque primero hubiese consentimiento de la dicha tierra y de los vecinos della por ser como ellos son patronos merelegos de dicha yglessia y que para hazerse la dicha obra como ellos pretenden primero era nescessario ponella en almoneda publica como se acostumbra en todas las demás villas y lugares desta província de Guipuzcoa...".

XVI. mendearren erdialdetik azaltzen da baserriari lotutako "Luzuriaga" abizena, segur asko Iturgaitzagarrekin ezkontzeagatik ahaidetutakoa. Azken abizen hau XVII. mendearren hasieran jada desagertu egingo da. 1621an, jabeek Ibarrako Juanes eta Migel Anduturiri alokatzen diete baseria.

1797. eta 1802. urteen artean, sei lagun bizi ziren bertan. 1832an, jabea Jose Joaquin Garmendia zen eta maietta Sebastian Saizar. Egun, jabeak Rufino Aldasoro Saizar eta Maria Francisca Saizar Aranaren seme-alabak dira. Hauek, maiiterrak izanik, joan den mendearren erdialdean erositzen zuten baseria. Garingo (Beasaingo) Jose Aldasoro Urteaga aitonak Anoetako alkate izan zen.

Arkitekturaren ezaugarriak

Egungo eraikina XVI. mendekoa da. Urteak pasatu ahala, ordea, baserrian konponketa eta berritze lanak egin dira. XVI. mendeko eraikinetik zurezko egituraren zati bat mantentzen da eta orobat "enara-buztana" formako mihiadurak dituzten barruko zutabe eta habe batzuek eta kanpoan, lehenengo solairuan, zurezko bilbadurak betetzen dituzten harri-hormetan dauden hiru bao konopial. Halaber, Hegoaldeko aurrealdean zeuden bi leihoburu konopial gordetzen dira desmuntatuta. Hasieran, baserriaren barruan zeuden tolarea eta sotoa, honetarako hegalarren aldea aprobetxatzuz. Sotoa aireztatzeko hegoaldeko aurrealdeko bao zuzena lurraren arrasean dago.

Baserri honen balio etnografikorik garrantzitsuenetako bat azken tolarean datza. Baserritik hogeita hamar metrora dagoen eraikin batean dago. Lau isurkiko teilatua duen eraikin honen barruan, ezin hobe kontserbatutako dolarea dugu. Dolareak burdin-turtuzko urkila du eta 2000. urtean jarri zen azken aldiz martxan. Hegalarren aldeaz baliatzen da sagarra garraiatzeko eta sagardoa egiteko lanak errazteko.


1599an, baserriaren jabea Domingo Iturgaitzaga zenean, baserrian eta bere lurretan hargintza-lanak egin ziren. Ipar-ekialdeko arkua barroko estilokoa da, segur asko XVIII. mendekoa. 1999an teilatua berritu eta 2001ean ordura arte harri-horma kareztatuak ziren aurrealdeak zarpiatu egin ziren.



Aldasoro Saizar familiaren bilduma

Baserriaren
jatorrizko aurrealdea

Baserriaren alboko aurrealdea egun



Baserriaren alboko fatxadaren aurretikoa. Tolarearen sotoaren leioha





Argazkia: Patxi Sanz

Prentsaren eragingailua



Argazkia: Patxi Sanz

Tolarearen ardatza eta
prentsa mekanikoa

Agiri zaharren aipamenak

- 1558 : Anoetako Joan Luzuriagak, ikasleak, bere anaia Domingoren mesederako Anoetako Iturgaizaga etxearen eskubideari uko egiten dio. Bere aita den Martin Luzuriagak hilburukoan etxearen jabetza utzi zion, nahiz eta berarena ez izan. GAO; pt; sorta 9; orriak 76 a. - 76 g.
- 1567 - 03 - 23: Tolosako Antonio Asuragak, Anoetako Pedro Idiakiazi, Julian Aginagari, Domingo Iturgaizagari, Domingo Goikoetxeari, Joanes Argindegiri eta Joanes Arrutareri 98 dukat zentsuan mailegatuak. 7 dukat urtero. Ordainketa bermatzeko: Anoetako Idiakaiz, Aginaga, Iturgaizaga, Goikoetxea, Argindegia eta Mikelesagasti etxeak. GAO; pt; sorta 17; orriak 239 a. - 242 g.
- 1582 - 06 - 27: Tolosako Domingo Galarragak, Alkizako Pedro Garaikoetxeari eta Anoetako Domingo Iturgaizagari 14 dukat zentsuan mailegatuak. Dukat bat urtero. Ordainketa bermatzeko: Alkizako Garaikoetxea etxea eta Anoetako Iturgaizagakoa. GAO; pt; sorta 28; orriak 501 a. - 503 a.
- 1599 - 05 - 06: Anoetako Domingo Iturgaitzagak Antonio Iriarte korregidoreari emandako ordainagiria. 43 dukat Anoetako etxeen eta lursailetan egindako hargintza obragatik. GAO; pt; sorta 135; orriak 340 a. - 340 g.
- 1614 - 08 - 06: Tolosako Bartolome Luzuriaga eta Anoetako Joanes Aldabalde eta Mari Lopez Luzuriaga senar-emazteen arteko hitzarmena. Bere gurasoak ziren Domingo Luzuriaga eta Maria Areizniare herentziaren inguruan, baina batez ere Anoetako Iturgaitza etxearen jabetza. GAO; PT; sorta 118; orriak 473 a. - 478 g.
- 1616 - 10 - 03: Tolosako Bartolome Luzuriaga eta Anoetako Juanes Aldabalde eta Maria Perez Luzuriaga senar-emazteen arteko hitzarmena. Anoetako Iturgaitza etxearen eskubideak direla eta, senar-emazteek Luzuriagari ordainduko diote 40 dukat. GAO; PT; sorta 154; orriak 120 a. - 121 g.
- 1621 - 07 - 10: Tolosako Bartolome Luzuriagak Ibarrako Juanes eta Migel Andutiri alokatutako Anoetako Iturgaitza etxea 8 urtez. Baldintzak zehazten dira. GAO; PT; sorta 156; orriak 726 g. - 727 g.

Atzoko fatxada



Izenaren esanahia


Iturriaren ondoan dagoen lekua esan nahi du. "Iturri" -arrunki "itur"- eta "alde" (lekua edo -ren ondoan) hitzen konbinaziotik dator.



Kokapena

Basagain mendiaren iparraldeko hegaletan zehar Elbarren eta Goiballara auzoak lotzen dituen errepidearen bihurgune baten alboan dago. Metro batzuk gorago, Ateaga Etxeberri baserria dago. Akolodiko erreka txikia ondotik igarotzen da eta Oria ibaiaren urak isuri arte egiten duen ibilbideak bat egiten du Anoeta eta Villabona arteko mugarekin.

Hauexek dira bere koordenatuak:
X: 575500 Y: 4780967 Z: 137
Long.: -2 4 15.8 Lat.: 43 10 36.9
Altuera: 137m.



Historia

XIX. mendearen bigarren erdian eraiki zen. Hau dela eta, ez dago lehenagoko aipamenik. Lursail kaxkarretan dauden eta baserri errenazentisten edo barrokoen aberastasun arkitektonikorik ez duten XIX. mendearen bukaeran eraikitako baserrien azken belaunaldiko baseria dugu.

Arkitekturaren ezaugarriak

Bi isurkiko bi teilatuek bi fasetan eraiki zen baserri batenurrean gaudela erakusten digute. Aurrena, ubiderantz dagoen eraikina egin zen eta, ondoren, beste bat erantsi zitzaion aurrealdean lerroa errespetatuz. Bakoitzak bere teilatua du; estalkian egin-dako konponketek eta aurrealdean kareztatuak, ordea, itxura uniformea ematen diote. 2003an aurrealdeak berriz ere berriztatu egin ziren eta ikusi ahal izan zen harri-horma arruntak lehen eraikinaren harlanduzko eskantzuek mugatuta zeudela. Goiko solairuetako baoek zurezko leihoburuak dituzte. Beheko solairukoak, berriz, berriki eraikitakoak dira, XX. mendearen bigarren erdian, hain zuzen. Barruan, gapiroak hormetan bermatzen dira eta, beharrezkoa denean, zapatak dituzten zutabetan. Eraikina bidearen beste aldean dagoen eranskin batek osatzen du. Eranskin honek ere harri-hormak eta teila kurbatuak dituen bi isurkiko estalkia ditu.




Izenaren esanahia

"Kate" eta -tegi "leku" edo "etxea" hitzek osatzen dute, beraz, Katearen etxea esan nahiko luke. Baliteke bidetik garraiatzen ziren produktuak kontrolatzeko gune izatea. Gainera, Hernialderekin lotzen duen bidean, Anoetako lehen baserria dugu.



Kokapena

Hernialdera iritsi baino lehen dagoen azken baserria da. Bere aurrealde nagusiaren paretik bi herriak lotzen dituen GI-3411 errepidea igarotzen da. Katategi baserritik Anoetako hirigune osoa ikus daiteke.



Hauexek dira bere koordenatuak:
X: 575508 Y: 4778915 Z: 106
Long.: -2 4 16.5 Lat.: 43 9 30.4
Altuera: 106m.



Historia

XVI. mendearen hasieran Domingo Katategi zen jabea, bere seme-alabak Simona eta Martin –Anoetako apaiza azken hauoinordekoak izan zirelarik. Hauek baserrian bizi ez zirenez, 1574an Joanes Bustiola eta Maria Mendizabal senar-emazteei eman zieten errentan. Ondorengo errentetan Katategi Handiaren eta Katategi Txikiaren arteko bereizketa ikusten da. Alabaina, bereizketa honek ez du garrantzi handirik, izan ere, ondorengo erreferentzia guztietan baserri bakartzat hartzen da. Aurkitutako agirietan jabeak aldatu direla ohartzen gara: 1587an Joanes Iriarte lizenziaduna, 1790ean Tolosako apaiz Juan Bautista Arenas eta ondoren bere arreba Juana Maria, 1805ean Anoetako Milian Bereterbide eta Irurako Pedro Antonio Sasiain senar-emazteak, 1822an Manuel Gorostegi. Guztion ezaugarri komuna da ez direla baserrian bizi eta ez dituztela bere Iurrak lantzen, denek errentan eman ohi dute. Izan ere, etxaldeak erostea eta errentan ematea oso ohikoa zen aberatsen artean. Gaur egun Sabino Etxabegurena da.

Arkitekturaren ezaugarriak


Katategiren gaur egungo irudia XIX. mendearen bigarren erdian eta XX. mendearen hasieran egindako aldaketa garrantzitsuen emaitza da. Harri-horma perimetral berrituak iparraldeko haize eta hotzez babestutako eraikin trinko baten euskarri dira. Aurrealde nagusiko balkoien eta leihoen baoak barneko espazioa aireztatze eta argiztatze aldera ireki ziren XX. mendearen erdialdean.

Berriztatze-lan hauek gorabehera, baditu oraindik barnealdean lehenengo garaietako habe frontal pare bat eta zutabe bat. Bitxia da burdinako zutabe batek nola eusten dio gaineko habeari. Orobat, deigarria da zenbait horma harkaitzen azaleratzeen gainean zimendatzetan direla. Aurrealdeetako batean, harlanduzko leihoburua duen leihoko bat zegoen, gerora hormaz estali zutena.

Azkeneko zabalkuntza handian, mendebaldeko surrealdeari eraikin berri bat erantsi zitzzion. Honen ondorioz, barneko espazioa gehitu eta beste sarbide bat eman zitzion etxebizitzari, ukuilutik igaro behar izan gabe.



Baserriko jabea, Sabino eta bere iloba Josune



Baserriko ukuilua

Agiri zaharren aipamenak

- 1551 - 02 - 24: Anoetako Pedro Katategik bere arreba Simonaren mesederako Katategi etxearen eskubideari uko egiten dio, bere aita Domingo Katategik ordaindutako senipartearen truke. GAO; pt; sorta 03; orriak 496 a. - 496 g.
- 1574 - 09 - 29: Anoetako Martin Katategi apaizak eta bere arreba Simona Katategik Anoetako biztanleak diren Joanes Bustiola eta Maria Mendizabal senar-emaztei alokatutako Anoetako Katategi etxea 3 dukaten truke urtean. 3 urterako. GAO; pt; sorta 51; orriak 683 a. - 684 g.
- 1585 - 02 - 17: Tolosako Joanes Iriarte Anoetako Maria Katategiri alokatutako Anoetako Katategi handia etxea. Baldintzak zehazten dira. GAO; pt; sorta 88; orriak 462 a. - 463 a.
- 1593 - 09 - 29: Tolosako Iriarte lizentziatuak Anoetako Juanes Bustinagari Anoetako Katategi txipia etxea dohaintzan ematen dio. GAO; pt; sorta 98; orriak 335 a. - 336 a.
- 1608 - 06 - 12: Anoetako Katategi handia baserrian bizi den Marina Ezkamendik bere anaiordea Hernialdeko Juanes Ezkamendiren aldeko ordainagiria. Hernialdeko Ezkamendi etxaren senipartea ordainduta. GAO; PT; sorta 112; orriak 348 a. - 349 g.
- 1771 - 12 - 20: Anoetako Katategi baserriaren jabea eta Tolosako apaiza den Juan Bautista Arenasek Anoetako Urrizetako maizterra den Santiago Barrena salatzen du. Bi baserrien arteko mugariak aldatu dituelako. GAO; CO CRI; 155-157 (3).
- 1796 - 01 - 13: Tolosako Juana Maria Arenasek Anoetako Migel Ignazio Ugartemendiari alokatutako Anoetako Katategi baseria 9 urtez. Baldintzak zehazten dira. GAO; PT; sorta 2774; orriak 3 a. - 4 a.
- 1805 - 07 - 29: Irurako Milian Bereterbide eta Anoetako Franziska Antonia Etxeberriaren arteko ezkon-hitzarmena. Senargaiaren gura soek Amasako Muñoki, Irurako Seroretegi eta Katategi baserrietako maiorazkoa ematen diote oinordetzan. GAO; PT; sorta 2775; orriak 250 a. - 256 g.
- 1806 - 07 - 05: Anoetako Milian Bereterbidek Irurako Pedro Antonio Sasiani Katategi etxeko erdia alokatuta 9 urtez. Baldintzak zehazten dira. GAO; PT; sorta 2776; orriak 18 a. - 19 a.
- 1808 - 08 - 08: Anoetako Milian Bereterbidek Irurako Pedro Antonio Sasiani Katategi etxe erdiko maiztza berrituta; 9 urtez. baldintzak zehazten dira GAO; PT; sorta 2776; orriak 108 a. - 109 a.



Izenaren esanahia

XVI. mendetik XIX. mendera arte erabiltzen den izena Luebana da. XX. mendean, berriz, "luemane" gisa azalduko da. Dirudienez, "lur" eta "eban" (ebakia) terminoek osatzen dute, hau da, "lur ebakia". Lagunartean "lumane" eta "umane" esaten zaio.



Kokapena

Villabonara heldu baino lehen dagoen Elbarrena auzoko azken baseria da. Oria ibaiaren ibarrerantz jaisten den hegalaren zelaigune batean dago. Gertuen duen baseria Etxeberria da eta, errepitean gora eginez, Goiballara auzoa topatzen dugu.

Hauexek dira bere koordenatuak:
X: 576277 Y: 4781099 Z: 91
Long.: -2 3 41.4 Lat.: 43 10 40.9
Altuera: 91m.



Historia

Bere orientazio eta kokapen egokiak, Anoetako ibar emankorrenetako batean, azaltzen du Erdi Aroaren bukaeratik bertan egon izana. Agirietan aurkitu dugun lehenbiziko jabea Maria Luebana da, Migel Luzuriagaren alarguna, zeinak 1534an bere alabak Maria eta Katalinaren aldeko testamentua egin zuen. Luebana abizenak bizirik dirau XVI. mendearen bukaeran, eta hala, Julian Luebana Maria Apaetxerekin esposatu zen; era honetan, Apaetxe eta Luebana baserrien interesak batu egin ziren. Bere anaia Migel, berriz, Maria Argindegirekin ezkondu zen.

XVI. mendearen bukaeraren eta XVII. mendearen hasieraren artean, baserriaren jabeak aldatu egin ziren eta hemendik aurrera-ko nagusiek bertan bizitzeari utziko diote. 1617an, jabea Amasako Sandra baserrian bizi da eta lau urterako ematen du errentan. 1630ean Anoetako erretore Migel Idiakoz dugu jabea, obra garrantzitsuak egin zituena. Horretarako, Hernialdeko Domingo Saizarrek haritzak bota zituen eta Francisco Azpillagak arotzeria egin zuen.

1791n, parrokiako erretore Jose Antonio Laskibarrek baserriaren eta honen dolaren zaharberritzerako behar zuen zura eskatu zion Anoetako kontzejuari. Alkateak adierazi zion ez ukitzeko Elormendiko udal mintegiko arbolak.

Ondoren, San Joango parrokiarekin zerikusirik ez zuten jabe berrien izanean azaltzen da; esate baterako, 1809an Teresa Gorosabel dugu nagusia eta 1832an, Sebastian Mendizabal.

Gaur egungo jabea Urkizu familia da. Baserriko lursailetan zuhaitzen mintegiak daude, basoak berritzeko eta fruta-arboletara-ko. Hauxe da, gainera, egun eskualdean dagoen mota honetako ustiategi bakarretakoa. Familia honek 1992.urtean erosi zuen baseria eta aita, Roman Urkizu Otaegi, aldameneko Etxeberria baserrian jaiotakoa da.

Arkitekturaren ezaugarrak

Hiru etxebizitzetako eraikin berria 1963. urtean egin zen baserri zaharraren orubearen ondoko lurretan. Hala eta guztiz ere, badira orain-dik lehengo baserri zaharraren zenbait aztarna: zutabe bat eta habe frontal bat, hain zuzen ere; azken hau, gainera, XVI. mendearen ohi-koak ziren enara-buztan formako mihiztadura-ahoak ditu, ondoko argazkietan ikus daitekeen bezala. Honek adierazten du, 1630ean eta 1790ean baseria berritu arren, XX. mendearen bukaera arte eutsi ziotela XVI. mendeko zurezko egiturari.






Zurezko pieza "enara-buztan"
formako ahoarekin



Jatorrizko egituraren aztarnak
ikusten diren aurrealdea



Agiri zaharren aipamenak

- 1534 - 06 - 08: Anoetako Maria Luebanaren hilburukoa. Anoetako Luebana etxearen egina. Maria eta Katalina Luebana, bere alabak, oinardekoak izango dira. Miguel Luzuriagaren alarguna. GAO; pt; sorta 2; orriak 75 a. - 78 a.
- 1574 - 04 - 20: Anoetako Julian Luebanak, bere anaia den Miguel Luebanari eta Tolosako Miguel Alegriari luzatutako ahalordetza. Leaburuko Miguel Etxeberriari 23 dukat kobratzeko, Amasako maisu Pedro Ateagarentzat Anoetako karobia egiteagatik. GAO; pt; sorta 21; orriak 356 a. - 356 g.
- 1577 - 02 - 15: Errezilgo Martin Arzallusek, Anoetako Julian Luebanari eta bere emaztea Maria Apaetxeari eta Miguel Luebanari 42 dukat zentsuan mailegatuak. 3 dukat urtero. Ordainketa bermatzeko: Anoetako apaizetxea eta Luebana etxeak. GAO; pt; sorta 26; orriak 468 a. - 471 a.
- 1579 - 02 - 10: Bartolome Mendigibelek, Julian Luebanari eta bere emaztea Maria Apaetxeari eta Miguel Luebanari eta bere emaztea Maria Argindegiri 42 dukat zentsuan mailegatuak. 3 dukat urtero. Anoetakoak. Ordainketa bermatzeko: Anoetako Luebana eta Apaetxea etxeak. GAO; pt; sorta 26; orriak 149 a. - 153 a.
- 1617- 09 - 03: Irurako Juanes Berruetak Amasako Sandran etxearen bizi den Orendaingo Joanes Andutiri alokatutako Anoetako Luebana etxea 4 urtez. Baldintzak zehazten dira. GAO; PT; sorta 154; orriak 359 a. - 360 a.
- 1629 - 08 - 17: Anoetako Migel Idiakez erretorea eta Tolosako Franzisko Azpillaga arotzaren arteko hitzarmena. Anoetako Luebana etxearen egin behar den zurgintzazko lana aztertzeko ikuskatzaileak izendatzen dituzte (Anoetako Lorenzo Ateaga eta Tolosako Martin Larzabal). GAO; PT; sorta 159; orriak 284a. - 285 g.
- 1790 - 12 - 28: Tolosako Antonio Ignazio Barrena Sarobek Anoetako Migel Etxeberriari alokatutako Luebana baseria 9 urtez. Baldintzak zehazten dira. GAO; PT; sorta 2774; orriak 71 a. - 72 g.
- 1791 - 03 - 20: Jose Antonio Laskibar erretoreak Luebana baserrian egin behar diren zurgintza lanak eta tolareak Anoetako udalari eskutako egurra. DEAH, Fondo Municipal, P001-03, s.f.
- 1793 - 08 - 27: Anoetako elizako erretorearen Franzisko Ignazio Etxeberriak Maria Gabriel Arozarenari alokatutako Luebana baseria 9 urtez 20 dukaten truke urte bakotzeko. Etxeberriak Migel Antonio Barrenaren izenean egiten du alokairua. Arozarena, bere senarra den Migel Etxeberriaren izenean. GAO; PT; sorta 2774; orriak 116 a. - 122 a.



Izenaren esanahia


Hegalaren erdian eta mendiaren atzealdean dagoela esan nahi du. "Mendi" edo "leku garai" terminoak eta atzean adierazten duen "gibel" preposizioak osatzen dute. Gogora dezagun toponimoen artean *Jaizkibel* ezaguna. Anoetako hirigunetik ez da ikusten, hegalaren atzean baitago. Lagunartean *Mendibel* esaten zaio.



Kokapena

Gaur egun Anoetako hirigunearen kanpoaldean dago eta Isasti kaletik iristen gara bertara. Bertatik, Alkizako ubideak osatzen duen bailara txikia igotzen da, pixkanaka itxiz.

Hauexek dira bere koordenatuak:
X: 575437 Y: 4779537 Z: 87
Long.: -2 4 19.3 Lat.: 43 9 50.6
Altuera: 87m.



Historia


Ezagutzen ditugun lehengo biztanleak, 1541ekoak, Juan eta Dominga Mendigibel dira. Martin Munita Mendigibel semea izan zen hauen oinordekoak. 1645ean Migel Barrenetxea da maizterra eta 1809an eta 1822an Martin Antonio Munita dugu jabea eta 1832an Francisco Ignacio Munita. XVI. mendean Mendigibel abizenak bizirik dirauen arren, mende horren bukaeratik XIX. mendera arte oinordekoek Munita abizena hartzen dute.

Arkitekturaren ezaugarriak

Berritu baino lehen baserriak oinplano angeluzuzena eta bi isurkiko teilitua zituen. Aurrealde nagusia Anoetako hirigunera begira zegoen. Harri-hormak zituen eta sarbide eta leihoetarako baoak XX. mendearren bukaeran edo XX. mendearren hasieran eginkizunen ziren. Honek adierazten du zaharberritzearen helburua etxearen barneko espazioak garaiko confort berrira egokitzea zela. Aipatzekoak da aurrealde nagusiko gailurraren azpian zegoen arku termala, gerora estalia izan zena.

Egungo eraikina XX. mendeko 70eko hamarkadako eredu arkitektonikoen zordun da: hormigoi armatuzkoa eta bost solairurekin. Erdiko solairuak etxebizitzetarako dira eta etxabea eta atzeko zenbait gela nekazaritza eta abeltzaintzako jarduerari loturik daude. Atzeko aldean ezarri zen segur aski Anoetan egin zen azkeneko tolarea. Aipatzekoak dira azpila eta burdinazko torlojuak, dena hormigoi armatuzko egiturak txertatuta.

Atzeko aldeko fatxadaren beheko aldean oin berriko eraikina eginagatik, baserri zaharraren hormaren zati bat aprobetxatu zen. Azpimarratzekoak da horma honetan dagoen harlanduzko erdi-puntuko arkua, juntura nabarmenduak dituena eta segur aski XVIII. mendearren erdikoa dena. Halaber, lehendabiziko solairuan harlanduzko zenbait bao zuzen gorde dira, etxaurrea berritua egonik, bereizteko zailak diren arren.



Ukuilura sartzeko atea.
Kareatuta izan arren harrizko arku bat da



Jesús Artolaren argazki bilduma



Jesús Artolaren argazki bilduma

Juan Mari Artola eta bere emazte Antonia Saralegi

Jatorrizko baserriaren aurrealde nagusia

Agiri zaharren aipamenak

- **1541-12-28:** Anoetako bizilagunek Iruñeako Elizbarrutiko prokuradoreei luzatutako ahalordetza San Juan elizako erretorea hautatzeko. Bertan Mendigibel baserriko jabeak aipatzen dira.
- **1594 - 01- 08:** Altzoko Joanes Goikoetxea eta Grazia Goikoetxea senar-emazteek Tolosako Joan Asurzia eta bere fideatzaileak Joan Hernandosoro, Albizturgo Juanes Urreta eta Anoetako Martin Munitari 98 dukat zentsoan mailegatuak. 7 dukat urtero. Ordainketa bermatzeko: Tolosako Asurzia etxea, Otsaraingo erreka ondoan dagoen errota, Etxanoeta baseria, Hernandosoro etxea, Albizturgo Urretakoa eta Anoetako Mendigibelgoa. GAO; pt; sorta 99; orriak 42 a. - 45 a.

Baserriaren ikuspegia orokorra egun




Baserriaren Hegoaldeko alboko aurrealdearen ikuspegia



Izenaren esanahia

Lehen bizilagunaren izenak eta abizenak osatzen dute baserri honen izen bitxia. Deitura oso interesgarria da bi arrazoirengatik: batetik, bere geneesia ez delako batere arrunta, izan ere, oso arraoa da honelako izenik topatzea, eta bestetik, Mikel izen euskaldunaren eta Miguel gaztelaniazko itzulpenaren arteko alternantziaengatik. Bada Sagasti baseria Hernialden, Idiazabalen, Legorretan, Ormaiztegin, Urnietan, Zizurkilen, Diman eta Leioan. Agirietan honela azaltzen da: Miquelesagasti (1541), Miguelesagasti (1590), Micaelasagasti (1792), Miquelasagasti (1809), etab.



Añoetako Udalaren argazkia

Kokapena

Baserria Argindegia baserriaren aurrealde nagusitik hamabost metrora dago gutxi gorabehera. Alboko aurrealdea eta Txulo baseria Anoetako erdigunea Iturgaitzaga baserriarekin lotzen duen egungo errepidearen ibilbideak banatzen zituen.



Historia

Erdi Aroaren bukaeratik Anoetako nekazaritzarako lursail hoberenetan zeuden baserri sortako bat da hau. Nekazaritzako ustiategi hauen lehenengo aipamenak XVI. mendekoak dira. Segur aski 1450eko agirian jasotzen den "Juan Migell de Sagasti" baseria da, hain zuzen.

XVII. mendetik aurrera baserri hau errentan ematen hasi zen eta jada ez da agertzen Mikelasagasti abizenari lotuta. Horrez gain, XIX. mendetik aurrera Mikelasagasti "handia" eta "txikia" agertzen dira agirietan. 1832an Juan Antonio Soroeta eta Dolores dira bi baserrietako jabeak, eta Juan Bautista Urreta eta Jazinto Mendiguren maizterrak, hurrenez hurren. Ez da inor bizi 1974tik.

Arkitektuaren ezaugarriak

XX. mendearen hasieran baserriak oinplano angeluzuzena eta harri-hormak zituen eta surrealdea ekialdera edo bide nagusira begira zegoen. Etxaurrea XIX. mendean egindako zaharberritze lana da. Bertan, lehen solairuko etxebitzako balkoa eta leihoiak eta orobat teilatupeko solairuko baoak bereizten dira. Erori eta gero ez da inolako aztarnik ikusten.

Agiri zaharren aipamenak

- **1529-03-27:** Miguel Mikelesagastik bere anaia Martini emandako ordainagiria. Anoetakoak. Anoetako Mikelesagasti etxearen dotea dela eta 6 urrezko dukat. GAO; PT; sorta 2; orriak 994 a.
- **1557 - 03 - 07:** Alkizako Katalinak, Mariak eta Martin Mikelesagastik bere ahizpa Mariaren mesederako Anoetako Mikelesagasti etxearen eskubideari uko egiten diote. Bere ama Maria Joan Insaurandiagak ordaindutako senipartearen truke GAO; PT; sorta 8; orriak 307 a. - 308 a.
- **1564 - 01- 20:** Anoetako Joanes Mikelesagastik, bere suhia den Joanes Arrutarteri emandako ordainagiria. 120 dukat Mikelesagasti etxearen dotearen truke. 40 dukat Arrutartek Martin Mikelesagatiri ordainduko dizkio. GAO; PT; sorta 14; orriak 393 a. - 394 a.
- **1567 - 03 - 23 :** Tolosako Antonio Asuragak, Anoetako Pedro Idiakiazi, Julian Aginagari, Domingo Iturgaizagari, Domingo Goikoetxeari, Joanes Argindegiri eta Joanes Arrutarteri 98 dukat zentsuan mailegatuak. 7 dukat urtero. Ordainketa bermatzeko: Anoetako Idiakaiz, Aginaga, Iturgaizaga, Goikoetxea, Argindegia eta Mikelesagasti etxeak. GAO; pt; sorta 17; orriak 239 a. - 242 g.
- **1607 - 06 - 11:** Anoetako Mikelesagasti etxean maizterra den Joanes Zabalak Hernialdeko Baltasar Igorri emandako ordainagiria. 18 dukat eta bi erreals idibaten truke. GAO; PT; sorta 112; orriak 219 a. - 219 g.
- **1803 -11 - 29:** Tolosako Frantzisko Jose Santiago Elizaranek Martin Elizaran eta Maria Madalena Nazeutal bere gurasoen aldeko ordainagiria. Anoetako Mikelasagasti eta Tolosako Txatxarrokoa etxeen seniparteak jaso dituelar esanaz. GAO; PT; sorta 2155; orriak 487 a. - 489 g.

Izenaren esanahia

Antzina Buztiñaga baserriaren dolarea zen, horregatik deitzen zaio "tolaretxe", alegia, dolarearen etxea. Modesto Ormazabalek Anoetako estanko eta denda bihurtu zuen. Hori dela-eta "Modestoenea"deitu zitzaison. Lagunartean, "Mostoenea" esaten diote.

Fatxada nagusia.




Kokapena

Anoetako hirigunea Alkizako ubidearekin lotzen duen errepidea-ren ertzean zegoen, Buztiñagaren eta Idiakaitz auzoaren artean, non izen bereko baserria zegoen.

Maldan bertan, egun San Joan kaleko 10. zenbakian dago kokatua.

Hauexek dira bere koordenatuak:
X: 575546 Y: 4779585 Z: 72
Long.: -2 4 14.5 Lat.: 43 9 52.1
Altuera: 72m.



Historia

1925era arte, Tolaretxea Buztiñaga baserriaren zatia zen, sagardoa egiteko dolareak eta upeltegia hartzen zituena, 1881ean zehazten den bezala. 1925ean, Isabel Arbelaitz Soroa eta Pedro eta Maria Angelga Gaiztarro Arbelaitz dira jabeak, denok Claudio Gaiztarro Ezeizaren oinordekoak dira eta. XX. mendearren hasieran Irurako Modesto Ormazabal eta Alkizako Maria Saralegi ditugu maizterrak. Modesto morroia zen Buztiñaga baserrian eta Maria Igerabiden bizi zen. Ezkondu ondoren, hiru seme-alaba izan zituzten: Ignazio, Karmen eta Jose Mari. Karmen 1925ean Tolaretxea erosiz zuten Zegamako Luis Berasategi Azurmendirekin ezkondu zen. Senar-emazte hauen hamar seme-alabak izan dira XX. mende ia osoan zehar establezimendu hau gobernatu dutenak.


Modestoeneak funtzio sozial garrantzitsua bete du XX. mendean, anoetarren zenbait belaunaldirentzat bilgune izan baita eta orobat estankoa, denda eta taberna hamarkada luzetan.

Arkitektuaren ezaugarriak

Hasiera batean teilapea eta ukuilua zituen 310 metro koadroko eraikina zen.

Egungo eraikina 1935. eta 1936. urteen artean eraiki zen. Pedro Gaiztarro Arbelaitz arkitektoaren proiektuari jarraiki, hormigoizkoa eta euskal neorregionalista estilokoa da. Aipatzekoak dira euskal baseria gogora dakarten osagai arkitektonikoak, hala nola, bi isurkiko estalkia, erdi-puntuko arku bat duenurrealde nagusiko ataria, harri-horma imitatzen duen oinaldea, adreiluzko hormatalak dituen horma pikoa, zurezko bilbadura faltsuak, eskantzu irtenak, etab. Hauen ondoan, ordea, modernitatea erakusten duten zenbait elementu ikusten ditugu:urrealde eraberrituak, plakazko estaldura leunezko leihoburuak eta bao ugariak, espazio argiagoak eta aireztatuagoak ahalbidetzen dituztenak. Etxe hau, dudarik ere, etxebizitzako eroso eta moderno bat izateko pentsatu zen, ostalaritzako erabilpena izango zuena, gainera.

Atzeko fatxadaren kontra isurki bakarreko eraikin tradizional bat atxiki zen, non dolarea, ukuilua eta baratzearren ustiapenarekin loturiko gauzak jasotzen ziren.





Argazki emaitza Inazio Garmenda (Asuribar baserritik)

Pilotalekuaren inaugurazioaren argazkia, 1942an.

Anoetako Modestoenea sarrera nagusiaren aurrean

ZBK.	IZENA	BASERRIA	ZBK.	IZENA	BASERRIA	ZBK.	IZENA	BASERRIA
1	Maria Lasa		26			51	Antonio Amunarriz	Txulo
2	Margarita Eizmendi		27			52		Aginagazpikoa
3	Modesto Ormazabal	Modestoenea	28			53	Juan Maioz	Arrutarte
4			29			54	Demetrio Irazusta	Errota
5	Valentin Maioz	Aginagazpikoa	30			55	Joxe Iturzaeta	
6	Antonio Sarasola	Iturralde	31			56		
7	Florentino Olozaga	Agirre	32	Jazinto Altuna	Mikelasagasti	57	Antonio Urkia	Idiakaitz
8			33	Joxe Otaegi	Urritza	58	Joakin Mendizabal	Borondegi
9			34			59	Manuel Odriozola	Goikoetxea
10			35	Joxe Antonio Mendizabal	Borondegi	60	Joxe (?)	Borondegi
11	Luis Garmendia	Arozteaxa	36	Nikolas Soroa	Ibiakaitz	61		
12			37	Joxe Etxabeguren	Katategi	62		
13	Felix Olozaga	Agirre	38			63		
14			39			64	Emilio Garmendia	Alliri
15	Joan Mari Artola	Mendigibel	40	Joxe Garmendia	Asuribar	65	Simon Zuriarrain	Sarobe
16			41	Joxe Otaegi	Barrundia	66	Juan Jose Lasa	San Joan
17	Inazio Uzkudun	Kontzejua	42			67	Felix Urkola	Barrundia
18	Patxi Goikoetxea	Aginagaetxeberria	43	Uztapide	Bertsolaria	68	Mariano Ciriquiain Gaiztarro	Diputazioko Idazkaria
19	Ramon Amunarriz	Txulo	44			69	Migel Etxabeguren	Katategi
20			45			70	Tomas Otaegi	Barrundia
21	Faustino Maioz	Aginagazpikoa	46			71	Dionisio Telleria	Anoetako erretoreoa
22			47	Joaquin Uzkudun	Eguzkitza	72	Inazio Aranzabal	Argindegia
23	Joxe Sarasola	Ipenzta	48	Anjel Zugasti	Apaetxe	73		
24			49			74	Isabel Berasategi	Modestoenea
25			50			75	Rosario Zirolalde	



Izenaren esanahia


Jatorrizko izena San Joan Goikoa da eta horrelaxe azaltzen da agiri zaharretan, esaterako 1666an: "San Joan Goicoa". 1450ean ere udalerrria "Sant Joan de Anueta" gisa azaltzen da. Azken belaunaldietan, "San Juan" esan zaio.



Kokapena

Tolosatik gatozela Oriaren bailaratik barrena, herriaren sarreran dugu, muino baten gainean. Horri esker, hirigune guztitik ikusten da baserri hau. Gainera, puntu honetatik aurrera zabaltzen da gune historikoa hartzen duen ibarra. Baserri honetatik gertu Hernialdeko errepidea igarotzen da eta horixe da hain zuzen ere San Juanera joateko hartu behar dugun bidea.

Hauexek dira bere koordenatuak:
X: 575659 Y: 4778861 Z: 102
Long.: -2 4 9.9 Lat.: 43 9 28.6
Altuera: 102m.



Historia

San Joan baserria behinola izen bereko baseliza zegoen orubean dago.

Baselizari buruzko lehen aipamen idatziak XVI. mendekoak dira, nahiz eta bere kokapena eta izena direla-eta baseliza segur aski Erdi Aroan fundatu.

Pablo Gorosabel historialariak hauxe idatzi zuen 1862an Anoetari buruz: "...hay una ermita denominada *San Juan* a la cual las mugeres recien paridas acudian a untarlas en el ombligo con el aceite de su lampara , por ser una creencia vulgar que les es muy provechoso para su salud. La primitiva -iglesia- estuvo en el lugar donde en el dia existe la caseria llamada *San Juan* que es paraje mas apartado y alto". Garai horretatik XVIII. mendera arte serora bat arduratzentzen zen baseliza zaintzeaz. 1581ean Domenja Argindeggi izan zen serora eta ondoren, 1605ean, Katalina Tapia. Ikus daitekeenez, biak ziren beren abizenek islatzen dituzten baserrietakoak.

1726ko artzain-bisitaren mandatuetan Anoetan egindako letania-prozesioak aipatzen dira. Prozesioak herritik kanpo eta urrutti egitea debekatuta zegoen, izan ere "*desordenak eta lizunkeria*" gertatzen ziren. Lehen prozesioa San Joan baselizara eta bigarrena San Andres Apostoluaren baselizara egin behar ziren. Hirugarren prozesioa, berriz, elizaren kanpotik bira ematean zetzan. Eta Pazko-egunean Tolosan zegoen Izaskungo Andre Mariaren baselizara egiten zen letania-prozesioa San Andres baselizara egindakoak ordezkatu zuen. Letania hauentara bertako apaiz guztiak joan behar zuten. "Preste"-ak kapa morea eraman behar zuen prozesioa bukatu arte eta gainerako apaizek eliz atorra eta birretak eskuetan. San Joan Goikoa baselizari buruz hauxe esaten zen: "hai mucha devucion y frequencia de gentes, no solo de la cirunferencia sino tambien de lugares extraños..." .

Hauexek dira, Anoetako erretore zen Juan Antonio Etxeberriaren esanetan, ermitak 1770ean zituen erritu-objektuak eta ondasunak: "...dos pares de corporales, un alba con su amito y cíngulo, una casulla blanca con su estola y manipulo, un misal antiguo y cuaderno de los santos de España, seis frontales, tres paños largos para el altar, cuatro candeleros dos de estaño y otros dos de madera, una lámpara de estaño ordinario, una cruz de madero con palo largo para las procesiones, un cimbalillo para llamar a misa, cuatro toallas de mano, una sacra con su cruz y atril para el altar, catorce cruces de madera para visitar el calvario, un arca para guardar el grano, una mesita con su tirador que sirve para revestirse". Garai hartan serora zen Felipa Olanok, berriz, baselizak etxe bat zuela esan zuen. Serora bizi zen etxe horrek Iursail bat zuen, honako eremua hartzen zuena: "ocho celestines de sembradía". Lursailak baratzea, fruta-arbolak eta sagarrondoak zituen: "seis pies de manzanos, su huerta y otros árboles frutales". Hau da, baselizak liturgia erlijiosoarentzat eta serorarentzako baratze txiki bat eta fruta-arbola batzuk mantentzeko beharrezkoa zen guztia zuen. Hauxe da txostenak jasotzen duena: "no combiene profanar las mencionadas hermitas por no ser perjudiciales ni gravamen su existencia a los vecinos y moradores de esta dicha villa que si una salida en rogativas generales y particulares, que se hacen de la Parroquia en necesidades urgentes con advertencia que en tiempos de las rogaciones generales la cruz de esta parroquia salia a diferentes lugares cunvecinos".


Baseliza baserri bihurtzen hasi zen 1810ean. 1789ko Frantziako Iraultzaren ondorioak Europa osotik hedatu ziren, Euskal Herrian eta baita Anoetan ere. Napoleonen tropen presentziaren eta haien mantenuaren ondorioz, udalek beren ondasunak, lurrrak eta baselizak saldu behar izan zitzuten. Gainkarga fiskal horren ondorioz, Anoetako kontzejuak San Joan baseliza eta Alliri baserria saldu behar izan zituen.

1810eko azaroaren 1ean, Udalak gutun bat bidali zion Gipuzkoako Probintziako Kontseiluari San Joan baseliza eta haren ondasunak saldu zitzakeen eta parrokiarenak edo Anoetarenak ziren galdeztuz. Jabetzari buruzko agiririk aurkitu ez eta Udalak hauxe adierazi zuen: bera zen mantentze-gastuak ordaintzen zituenta eta, ondorioz, jabea. Orobak argudiati zuen azken 18 hilabeteetan ez zela erabili. Argudio hauek kon-tuan hartuz, 1810eko azaroaren 4an udalak San Joan baseliza zaharra saltzeko baimena lortu zuen Anoetako zergak errazago ordaindu ahal izateko.

1832an Joakina Esnal eta 1844an Joakina Begiristain izan ziren San Joan baserriaren jabeak eta bizilagunak. XX. mendean, Juan Jose Lasaren eta Joana Lasaren familiaik berritu eta mantendu du San Joan baserria. Lau seme-alaba izan zitzuten: Jose Ramon, Pedro, Maria eta Bittori.

Arkitekturaren ezaugarrak

XX. mendearen erdialdean egin ziren berritze-lanen ondorioz, ezin dira paramentuak aztertu. Barruan, berriz, aurreko eraikuntzei dagozkien harri-hormak ikus daitezke ipar-mendebaldeko aldean, baina ezin dira jatorrizko funtzioka zehaztu. Zoruan kare-harrizko hilari edo lazu zati bat dago. Erliebedun gurutze latindar bat du eta oinean "ANO" hitza eta irakurtezinak diren zen-baki batzuk ageri dira harrian landuta. Argi dago lekuaren izen erlijioso zaharraren testigantza zuzena dela.





San Joan
baserriaren
ikuspegia
panorámikoa



José Ramón Lasa baserriko sarreran

Pedro edo José Ramón Lasaren argazki bilduma



Jose Ramon Lasaren argazki bilduma



Jose Ramon Lasaren argazki bilduma

Agiri zaharren aipamenak

- 1581 - 06 - 21: Anoetako Diego Buztinobiagak eta San Joango baselizan moja den Domenja Argindegik Martin Bunitaren aldeko obligazio-gutuna. 13 dukat idi baten truke. GAO; PT; sorta 59; orriak 202 a. - 202 g.
- 1605 - 01 - 09: Anoetako San Joan Goikoa baselizan serora den Domenja Argindegik bere kargua uzten du, bere adina dela eta ezin duelako ondo zerbitzatu. Gidariekin Katalina Tapia umezurtza izendatzen dute serora berria. GAO; PT; sorta 153; orriak 203 a. - 204 a.
- 1666: Cuentas de Fábrica 1576-1674.DEAH, 1238/002-00 158v.
- 1695 - 06 - 16: Anoetak Oreretako Blas Alzega salatzen du. Anoetako San Joan baselizako mugariak direla eta. Alzega, Anoetako Sabadina Olazabalen alarguna da. Honen baserria, Etxeberria Barrundia, ermitarekiko mugakidea da. GAO; CO ECI; 1784.
- 1770: DEAH, 1241/009-00 sf.
- 1810 - 11 - 01: DEAH, 1241/033-00, s.f.
- 1844 - 02 - 14: Anoetako Aginaga azpikoako jabea den Juan Bautista Maiotz, Iriarteko jabea den Franzisko Maiotz, Agirreko jabea den Jose Maria Iturrioz, Igerabideko jabea den Maria Juan Goialde eta San Joango jabea den Joakina Begiristainek, guztiak Anoetakoak, Anoetako Jose Ramon Gaiztarro teologiako ikaslearen alde egiten du bozka berako elizako erretoretzarako.GAO; PT; sorta 2822; orriak 96 a. - 96 g.



San Joan baseria
azaltzen den olio-pintura

Izenaren esanahia

"Sarobe" edo "sroe" abereekin eta artzaintzarekin lotutako lekuei deitzen zaie. Saroietan abereak gordetzen dira eta abereentzako txabolak ere aipatzen dira. Batzutan, mugatutako lursail zirkularrak dira.


Sarobe (1541), Sarove (1630), Sarobe (1692), Sarobe (1747), Saroue (1792), Sarobe (1802, 1822, 1832), Sarobe (1974), Sarobe (1997).



Kokapena

Elbarrena auzoan ondoan Agirre baseria dago. Bereurrealde nagusia Oria ibaiaren ibilguan bukatzen den udalerriko eremu lau eta emankorrenetako bati begira dago. Gibelean, Basagain mendiko hegal basotsuak ditu.

Hauexek dira bere koordenatuak:
X: 576145 Y: 4780737 Z: 76
Long.: -2 3 47.4 Lat.: 43 10 29.2
Altuera: 76m.



Historia

Nekazaritzako ustiategi hau XV. mendetik dator eta agirietan azaltzen den aurreneko jabea –1547an– Joanes Sarobe dugu. Sarobe abizena baserriari loturik azaltzen da gutxienez XVIII. mendera arte, nagusiek behin eta berriz errentan ematen duten arren. Bitxia da, esate baterako, Katalina Saroberen eta Martin Barrenetxearen seme Joanes Sarobek baserriaren abizena hartu zuela, altarena hartu beharrean (1581). 1630ean, Anoetako erretore Migel Idiaketzek testamentua egin zuen, bertan bere iloba Domingo Sarobe lizenziaduna oinordeko unibertsal izendatuz eta orobat lekuko gisa bere lehengusu Migel Buztiñaga ezarriz. Honek adierazten du berriz ere Anoetako baserrietako biztanleak kasu askotan familia artekoak zirela.

Bitxikeria gisa aipa dezagun 1573an Joanes Agirre baserriko jabe Katalina Sarobe hiltzen saiatu zela: "...el dicho acusado con poco temor de Dios e de la justicia el dia domingo primero que paso estando ella segura e sin reçelo de cosa alguna que fuese mala le avia querido matar asi de un puñal que en su cinta traya e amenazandola que le pagaria echando desafios y llamandola que era una puerca mala e otras palabras feas e ynjuriosas sin que por la dicha Catalina le obiese dado ocasión para ello (...) y le mandase dar fiança de que no le ara daño ni le tocara en su persona poniéndola so el anparo real...".

1747an, Martin Mendizabal Sarobe dugu jabea. 1802. urtetik bi etxebizitza azaltzen dira agirietan eta 1822an Sebastian Mendizabal da nagusia, Bautista Zuaznabar eta Bautista Errandosoro maizterrak izanik.

Gaur egun Anoetako baserririk aktiboa da nekazaritza eta abeltzaintzari dagokionez, eta hau ez da gutxi, Gipuzkoan sektore horrek dituen zaitasun handiak kontuan hartzen baditugu.


Jose Antonio Zuriarrain Irazusta –Simon Zurrarrain eta Gregorio Irazusta senar-emazteek izan zituzten zortzi seme-alabetatik zaharrena– baserriaren erdi batean bizi da.

Sarobeko beste ustiategiaren arduraduna Gregorio Zuaznabar Urkola da, Benito Zuaznabar eta Maria Cruz Urkolak –Barrundia baserriko hau– izan zituzten sei seme-alabetako bat. Ustiategi hau nekazaritza eta abeltzaintza ekologikoaren aitzindarietako bat da eskualdean.

Arkitekturaren ezaugarriak


Sarobe baseria tolare-baserriaren eredu garbia da. Egitura zurezkoa du, XVI. mendean eraikia. Barne-egitura lau hormartetan antolatzen da eta eraikinaren erdialdean dagoen sagardo-tolare handi baten inguruan. Harrigarria da zein ederki gorde den tolare gehiena: egitura, bi bernia pareak eta are prentsako torlojurako zuloa. Zurezko arkitekturak perfektio maila handia hartu zuen baserri hauetan, oraindik zeuden haritz handiei eta garai hartako espezialistak ziren arotz-maisuen trebetasunari esker eraikiak. Tolare hauen funtzionamendua eta ezaugarriak zehatzago ezagutu nahi duen irakurleak jo beza liburuaren sarrerako orrialdeetara. Gaur egungo tolarea 1936. urtean eraiki zen baserriaren ondoko txabola batean eta orduko makineria guztiari eusten dio.

Kanpotik, baseria zuri-zuria eta berritua ageri da, azkeneko mendeetan behin eta berriz konpondu behar izan baitute. Aurrealde nagusian jatorrizko egitura nabarmentzen da eta hegoaldeko etxaurrean, oraindik bereiz daiteke haberen batean XVI. mendeko zurezko baserriean ohikoak ziren enara-buztan formako mihiztadurak. Atzeko fatxadan aipatzeko da alderantzizko urkila, hain ohikoa zena XVII. mendeko bigarren erdiko Tolosaldeko baserrietan. Saroben antzematen da espacio osagarriaren beharra eraikin nagusiari estalpeak edo eranskinak gehituz konpondu izan dutela.





Enara-buztan
formako mihiatzadura






1- Tolarearen zurezko egitura, ardatzaren zuloa





2- Ardatza aldera luzatzen diren habeak
3- Ukuiluaren ikuspegি orokorra tolarearen egiturarekin

Argazkiak. Karils





4- Telaituraino doazen dolarearen berniak
5- Berniaren xehetasuna erregulazio-zuloekin
6- Gailurreko habeia





Baserriaren
atzekaldeko
fatxada


Baserriaren Hegoaldeko alboko aurrealdea



Baserriaren Iparraldeko alboko aurrealdea



Gregorio Zuaznabarren bilduma



Argazkia: Karlos

Agiri zaharren aipamenak

- **1559 - 04 - 02:** Anoetako Joanes Argindegik Tolosako Franzisko Saroberi emandako ordainagiria. 36 dukat Saroberen etxe berria egite-agatik. GAO; pt; sorta 10; orriak 249 a. - 249 g.
- **1573 - 04 - 22:** Martin Barrenetxearen alarguna den Katalina Sarobek Joanes Agirre salatzen du eta babesa eskatzen du. Honek Katalina sasta batekin akabatzen saiatu zen. Lekukoak aurkezten ditu. Anoetakoak. GAO; pt; sorta 80; orriak 106 a. - 108 g.
- **1581 - 05 - 19:** Tolosako Baltasar Iriarte apaizak, Martin Barrenetxearen alarguna den Anoetako Katalina Saroberi eta bere semea Juanes Saroberi, Irurako Pedro Arreseri eta Alkizako Martin Insaurandiagari 98 dukat zentsuan mailegatuak. 7 dukat urtero. Ordainketa bermatzeko: Anoetako Sarobe etxea, Irurako Arresekoa eta Alkizako Intsaurandiagakoa. GAO; pt; sorta 28; orriak 309 a. - 312 g.
- **1590 - 05 - 14:** Anoetako Juanes Sarobe eta Orendaingo Martin Jauregiren arteko hitzarmena. Bere arreba Maria Sarobe Anoetako Sarobe etxearen bizitzeko, Jauregik alokairuan daukana. Orain arte, Maria Agirre etxearen bizi zen, eta hori ez zitzaison ondo iruditzen Juanesi. GAO; pt; sorta 95, orriak 374 a. - 375 a.
- **1590 - 05 - 31:** Anoetako Martin Munitak, Juanes Saroheren ordezkariak, Martin Jauregiri emandako ordainagiria. 12 dukat Sarobe etxearen alokairuagatik. GAO; pt; sorta 95; orriak 250 a. - 250 g.
- **1591 - 08 - 08:** Anoetako Sarobe etxearen bizi den Martin Jauregik Ibarrako Juanes Zufritiaren aldeko obligazio-gutuna. 24 dukat 2 idiren truke. GAO; PT; sorta 96; orriak 134 a. - 134 g.
- **1629 - 06 - 16:** Anoetako Madalena Agirrek bertan bizi den Domingo Arramendiri alokatutako Sarobe etxea 4 urtez. Baldintzak zehazten dira. GAO; PT; sorta 159; orriak 261 a. - 262 a.
- **1630 - 04 - 26:** Anoetako Migel Idaiketz erretorearen hilburukoa. GAO; PT; sorta 159; orriak 364 a. - 369 a.
- **1747 - 02 - 27:** Juan Lopez Pagadik Anoetako parrokian sortutako kaperautzak, Sebastian Arrese Igorri eta Jazinto Arres, Juan Anjel Gorostidi eta Martin Mendizabal bere bermetzaileei, mailegatutako 100 dukaiko zentsoa. Mailegariet berme gisa, Irurako Etxeberria, Arrese eta Etxetxo etxeak eta errortaren zatitxo bat; Billabonako Goikoetxea Goikoa etxea eta Anoetako Sarobe etxea hipotekatu zituzten. ikus: ibidem. zentsu berrerosketa. 1 sorta, 144 zbk. Alzibar Jauregi; zentsu zergak; 6 sorta, 391.



Gregorio Zuaznabarren argazki bilduma

- **1803 - 12 - 26:** Hernialdeko Juan Bautista Arregi eta Maria Katalina Irazustak, Anoetako Sarobe eta Arrese etxeetako jabea den Martin Jose Mendizabal emandako ordainagiria. Seniparteen zati bat ordaintzeagatik. GAO; PT; sorta 2775; orriak 180 a. - 185 g.
- **1810 - 07 - 28:** Andoaingo Sebastian Mendizabalek senipartea ordaintze-ko Anoetako Maria Ignazia Etxeberriaren alde emandako obligazio-gutuna. Mendizabal Anoetako Sarobe etxearen jabea da GAO; PT; sorta 2777; orriak 48 a. - 49 g.


Izenaren esanahia

Lagunartean "Tapi" esaten zaio, agiri historiko guzietan Tapia gisa azaldu arren.



Kokapena

Elbarrena auzoko ibarraren labore-lurren erdian eta Oria ibaiaren urgoraldietatik salbu dago. Atzealdean, egungo Arrutarte baseria du eta hirurogei metrora trenbidearen ibilbidea-rekin egiten dugu topo.



Hauexek dira bere koordenatuak:
X: 576300 Y: 4780808 Z: 71
Long.: -2 3 40.5 Lat.: 43 10 31.4
Altuera: 71m.



Historia

Erdi Aroan jatorria duen nekazaritzako ustiategia. Aurkitu diren lehenengo agiriak 1529koak dira eta ezagutzen diren aurreneko biztanleak Domingo eta Magdalena Tapia dira. 1565ekoa dugu lehen errentamenduaren lekukotza. XVI. mendearren bukaeran, agiriek diote jada bi baserri zirela: bata, Tapia Bekoa edo Tapia Txikia eta Tapia Handia bestea. XIX. mendean Tapia handia eta Tapia txikia bereizten dira.

Bitxikeria gisa aipa dezagun 1616an San Joan Goikoa baselizako serora Katalina Tapia dela.


XVIII. mendearren bukaeran, Tapia baserrian ere maiorazkoaren figura juridikoak galarazten du oinordekoek herentzia banatzea, era honetan Tapia baseriaren batasuna bermatuz. 1798an maiorazkoa Juan Bautista Irazustarena da eta honi dagokio ere Barandiaran izenez ezagututako etxea. 1809an Ascencio Irazusta da maiorazkoa eta 1832an Martin Jose Irazusta da jabea. Tapia txikia baseriaren nagusia, berriz, Juan Antonio Ezeiza da 1809tik.

Arkitekturaren ezaugarriak

Nabarmenzeko da teilatuak duen zurezko egitura, XVII. mendearren bigarren erdian ohikoa zen zurezko arkitekturaren lekuko aparta. Gipuzkoako basoak ziren probintziaren aberastasunaren baliabiderik garrantzitsuenetakoak, burdinoletan erregai edo egur-ikatz gisa erabiltzeko ez ezik, ontziak eta eraikinak egiteko ere. Zuhaitzak aukeratzen ziren eta gizaldiz gizaldi zaintzen. Hala, Tapiako ganbara ikustek adierazten digu –eta alderantzizko urkilen profil kurbatuen berezko balio estetikoaz gain– izugarria zela zuhaitzak eta egituretarako zurezko piezak aukeratzen egiten zuten lana. Eraikinaren barne-espazioa lau hormartean antolatzen da eta, esan bezala, aipatzeko da alderantzizko urkilen erabilera bikaina bi aurrealde nagusietan. Gaur egungo itxura XVII. mendearren lehen erdiko zaharberritzeei zor zaie. Nolanahi ere, badira ere aurreko aldaketen aztarnak eta orobat zurezko zutabeak, ondorengo hargintza-lanetan izan direnak. Halaber, antzeman daitezke beranduagoko obrak, hala nola, leihotarako bao berriak edo aurrealde nagusiko erdi-puntuko arkua estaltzea. XXI. mendearren hasieran ere, bere horretan dago XVII. mendeko nekazarien etxe baten xarma eta balio kulturala.

Teilatu-zurajearen ikuspegia zentrala





Tapia baserriaren fatxada nagusiaren aurretiko bista



Argazkiak: Kanlis





Agiri zaharren aipamenak

- **1529 - 03 - 31:** Domingo Tapiak, Joanes Leiza eta bere emaztea Magdalena Tapiaren aldeko obligazio-gutuna. Anoetakoak. Anoetako Tapia etxea erostean 6 urrezko dukat. GAO; pt; sorta 2; orriak 995 a. - 995 g.
- **1565 - 03 - 19:** Miguel Tapiak Julian Aginagari Iuzatutako ahalordetza. Martin Luebana eta bere emazteari 19,5 dukat kobra-tzeko. Tapia etxea alokatzeagatik. Anoetakoak. GAO; pt; sorta 41; orriak 712 a. - 712 g.
- **1567 - 12 - 22:** Miguel Tapiaren ordezkarria den Julian Aginagak Lukrezia Tapiari emandako ordainagiria. Anoetakoak. 3 dukat Tapia etxea alokatzeagatik. GAO; pt; sorta 43; orriak 140 a. - 140 g.
- **1591 - 07 - 15:** Maria Tapiak Domingo Arrutarte eta Katalina Etxeberria senar-emaztei emandako Anoetako Tapia etxea. Dohaintzaren baldintzak zehazten dira. GAO; pt; sorta 75; orriak 482 a. - 483 g.
- **1591 - 09 - 14:** Anoetako Domingo Arrutartek Amezketako Pedro Agirreri alokatutako Anoetako Tapia bekoa etxea eta Iursail batzuk 6 urtez. Baldintzak zehazten dira. GAO; pt; sorta 127; orriak z.g.
- **1616 - 02 - 05:** Anoetako San Juan Goikoa baselizan serora den Katalina Tapiak bere anaia bertako Andres Tapiari emandako ordainagiria. 40 dukat Anoetako Tapia etxearen zegokion eskubidearen truke. GAO; PT; sorta 154; orriak 9 g.- 10 a.
- **1785 - 01 - 16:** Juan Antonio Arrutartek Andres Arruebarrenari Tapia-txikia etxea alokatuta 9 urtez. Anoetakoak. Baldintzak zehazten dira. GAO; PT; sorta 2773; orriak z/g.
- **1798 - 01 - 02:** Juan Bautista Irazustak bere semea Asencio Irazustari Tapia etxeko maiorazkoa uzten dio. Anoetakoak. Tapia etxeko maiorazkoan barruan Barandiaran etxea dago. Etxean konpoketak egin ziren. GAO; PT; sorta 2774; orriak 81 a. - 83 g.
- **1799 - 03 - 11:** Juan Irazustak bere aita Juan Bautista Irazustari Iuzatutako ahalordetza. Tapia etxeko maiorazkoa Juan Bautistari itzultzen dio, berak ez baitu nahi. Anoetakoak. GAO; PT; sorta 2774; orriak 115 a. - 116 a.
- **1804 - 11 - 19:** Anoetako Domingo Gorostidi eta Maria Ana Irazusta senar-emazteek, bertako Asensio Irazustari emandako ordainagiria. 13 dukat Tapia handia baserrian zegozkien seniparteak osatzeko falta zen dirua ordaintzeagatik. GAO; PT; sorta 2775 ; orriak 224 a. - 225 a.
- **1808 - 01 - 18:** Anoetako Maria Ana Joakina Irazustak bere anaia Asencio Irazustari emandako ordainagiria. Tapia etxeko seniparteak dela eta 100 dukat ordainduta GAO; PT; sorta 2776; orriak 81 a. - 83 g.
- **1808 - 06 - 26:** Anoetako Juan Antonio Ezeizak Alkizako Juan Franzisko Olozaga Tapia eta Arrutarte etxeen administratzailea izendatzen du. Era horretan, Ezeizak Olozaga eta besteekiko dauzkan zorrak amaitzen dira. Ezeizak Berastegiko Migel Saizarrekin eta Andres Lizartzarekin, Hernialdeko Santiago Amunarrizekin eta Anoetako Juan Migel Insaustirekin zorrak dauzka. GAO; PT; sorta 2776; orriak 103 a. - 105 g.
- **1810 - 02 - 24:** Anoetako Juan Antonio Ezeiza Arrutartek Tolosako Juan Kruz Zalduari saldutako Tapia Txikia etxea 2629 erre-alen truke. GAO; PT; sorta 2777; orriak 14 a. - 17 g.
- **1810 - 05 - 29:** Juan Antonio Ezeiza Arrutarte eta Tapia-txikia baserrian maizterra den Martin Antonio Lasaren arteko auzia. Anoetakoak. Arrutartek Lasa baserritik kanporatu nahi du. Uztailaren 9an bien arteko hitzarmena: Lasa, Sarobe etxera joango da, 200 erreal ordainduz. GAO; PT; sorta 2777; orriak 41 a. - 41 g. / 47 a.
- **1810 -12 - 20:** Juan Antonio Ezeiza Arrutartek Tapia-txikia baseria Migel Ignazio Karrerari 9 urtez maizterta emana. Anoetakoak. Baldintzak zehazten dira. GAO; PT; sorta 2777; orriak 153 a. - 155 g.

Izenaren esanahia


Ramon Amonarriz Otaegiren iritziz, baserriaren baratzaren ondoan zegoen sakonune batetik hartzen du bere izena.

Txulo baserriaren ikuspegia orokorra



Kokapena

Hernialdera doan errepidea Iturgaitza baserrirantz doan adarrarekin gurutzatzen den bidean dago. Errepidearen beste aldetik, trenbidearen ibilbidea igortzen da. Txulotik oso gertu Mikelasagasti baseria zegoen.



Hauexek dira bere koordenatuak:
X: 575779 Y: 4779081 Z: 73
Long.: -2 4 4.4 Lat.: 43 9 35.7
Altuera: 73m.



Historia

Baserri hau XIX. mendearren hasieran eraiki zen. Dena den, baliteke orube honetan Mikelasagasti edo Argindegia baserrien menpeko eraikin txikiago bat izatea honen aurretik. Topatu dugun aurreneko agiria 1809koa da, baserriaren jabea Josefa Arzadun zenekoa. Nolanahi ere, hau da Anoetan sortu den azkenengo baserrietako bat.

XIX. mendearren bukaeran, Beizamako Urdanpiletagoikoa baserriko Jose Miguel Amonarriz eta Elduako bere emazte Marai Antonia Lauzako bizi ziren bertan. Hurrengo belaunaldia Ramon Amonarriz eta Claudia Otaegi –Beizamakoa ere– senar-emazteek osatu zuten. Azken hauek bederatzi seme-alaba izan zituzten: Ramon, Antonio, Jose, Jose Agustin, Ignazio, Arantza, Feli, Anjel eta Maria Dolores.

Arkitekturaren ezaugarriak

Bere oinplano luzeak eta azalera urriak –140 m²– adierazten digute hau ez dela XVI. mendeko nekazaritza-ustiategi handietako bat. XIX. mendeko eraikinetik harri-hormak, harrizko eskantzuak eta ukuiluko kareharri harlanduzko ate zuzena gordetzen dira. Gainerakoa XX. mendeko 80ko hamarkadan berritu zen eta garai horretakoak dira gaur egun dauden leiho guztietako baoak eta teilatua, orduan altxatu zena.

Baserriaren aurrean eta bidearen beste aldean, “Txuloko borda” izeneko eraikin txikiago bat zegoen. Borda hau eraitsi egin zuten eta egun “Bordatxo” izeneko etxebitzitzera-eraikin bat dago.





Amonarriz familiaren argazki bilduma

Ramon Amonarriz eta Claudia Otaegi beren seme-alabekin 1944. urtean

Agiri zaharren aipamenak

- **1872:** Jose Joakin Arribillaga ahalordeak, Jose Maria Furundarenari eta bere lagunei egindako Asteasuko Larrea etxe eta Anoetako Txulo etxearen salerosketa-izkribua. Izkribu hau, Jose Maria Etxeberriak jarritako kereila batengatik emandako ahozko auzian erabili zen. 1867 tik 1872 artekoa Asteasuko Udala; Udal ; 243/29.

Ramon Amonarriz eta
Claudia Otaegi beren
seme-alabekin 1932.
urtean. Atzekaldean
Argindegia baserriaren
etxeordea eta bertako
Dolores Amonarriz



Amonarriz familiaren argazki bilduma

Txulo baserriko familia. XIX. mende bukaera



Amonarriz familiaren argazki bilduma

Izenaren esanahia

Hurritzen lekua. Izena "urritz" terminoak eta "-eta"(-ren lekua) atzizkiak osatzen dute. Hauexek dira denboran zehar izan dituen aldaerak: Urreçeta (1450), Urreyçeta (1541), Urreiceta (1569,1578,1591), Urreiceta (1601), Urrizeta (1645), Urrizetta (1692), Urriceta (1771)...



Kokapena

Ergoien auzoaren hegoaldean dago. Hernialdeko errepidean zegoen, Tolosaroko errepidearekin lotzen duen adar baten hasieran, hain zuzen ere. Adar honek trenbidearen ibilbidea zeharkatzen du Iurpeko pasabide baten bidez. Parean Oria ibaiaren gaineko zubi zaharra zuen eta egun Anoetako ikastola dago bertan.

Hauexek dira bere koordenatuak:

X: 575778 Y: 4779023 Z: 73

Long.: -2 4 4.5 Lat.: 43 9 33.8

Altuera: 73m.



Historia

Hauxe da agirietan azaltzen den Anoetako lehenengoetako baseria. Bazen Erdi Aroan eta ezagutzen dugun aurreneko nagusia Joan de Urriceta da, 1450ekoa. Ondoren, jabeak izango dira oinordekoak. Lehenik, Domenja Urritzeta eta Pedro Arrutarte; hauek, hurrenez hurren, Orendaingo Martin Jauregiri eta gero Tolosako Santiago Igorri errentan eman zieten. Dena den, azkena bota egin zuten, jabeen baimenik gabe baseria biralokatu zuelako. Hurrengo nagusiak Maria Joan Urreizeta eta bere senar Anton Galatas izango dira eta 1591n, etxearekiko eskubideei buruzko zenbait desadostasunen ondoren, Ana Urreizetak eta Santiago Igorrek eskuratuko dute jabetza. XVII. mendeko lehenengo hamarkadan, baseria Amezketako Pedro Agirreri eta honen emazte Maria Fuldaini alokatu zitzaien. Azkenik, Mariana Igor Urrizetak etxea saldu zion 900 dukaten truke Anoetako erretore Migel Idiaketzi. Une honetatik aurrera esan dezakegu eten zela jatorrizko familiaren eta etxearen arteko lotura.

XIX. mendetik, gutxienez, baserriak bi etxebizitza eta bi maizter ditu: Migel Jose Aiestaran eta Juan Bautista Bidaror dira 1832an agirietan azaltzen direnak. XX. mendeko 80ko hamarkadan sute bat izan zen bertan eta bere orubearen zati batean, jabeetako batek zurezko txaliet aurrefabrikatu bat eraiki zuen.

Arkitekturaren ezaugarriak

Sutearen ondoren, sastrakak nekez estalitako hondakin batzuk besterik ez dira geratzen: harri-hormak eta harlanduzko pieza kateatu batzuk bao baten inguruan, harrizko baseri barrokoetako ohiko obrak gogora ekartzen dizkigunak. XX. mendearren hasierako argazkietan bi eraikin ikusten ditugu: bata nagusia, etxebizitza duena, eta bestea, aurrekoaren paraleloan, aziendaren bazka eta nekazaritzako lanabesak gordetzeko, segur aski.



Anoetako Udalerren argazki bilduma

Urritzeta baserriaren ikuspegia

Urritzeta baserriaren
aztarnak egun



Agiri zaharren aipamenak

- **1569 - 09 - 14:** Tolosako Martin Urrutiak, Pedro Arrutarteren emaztea den Anoetako Domenja Urritzetari, Domingo Etxeberriari eta Amasako Miguel Galatasi dukat 56 zentsuan mailegatuak. 4 dukat urtero. Ordainketa bermatzeko: Anoetako Urritzeta eta Etxeberria etxeak eta Amasako Galatas etxea. GAO; PT; sorta 18; orriak 86 a. - 90 a.
- **1578 - 08 - 04:** Pasaia eta Anoetako Maria Galatas alarguna eta Pedro eta Domenja Urritzeta senar-emazteen arteko hitzarmena. Anoetako Urritzeta etxearen jabetzari buruzkoa. GAO; PT; sorta 56; orriak 517 a. - 520 g.
- **1583 - 05 - 21:** Anoeta eta Pasaiako Maria Urritzetak korrejimenduko prokuradorei Iuzatutako ahalordetza. Anoetako Marina Bustinagaren aurkako duen auzia jarraitzen. Urritzeta etxearen jabetzaren inguruan. GAO; PT; sorta 87; orriak 171 a. - 171 g.
- **1583 - 07 - 03:** Anoetako Pedro eta Domenja Urritzeta senar-emazteek Orendaingo Martin Jauregiri alokatutako Anoetako Urritzeta etxea. Baldintzak zehazten dira. GAO; PT; sorta 87; orriak 235 a. - 236 g.
- **1587:** Anoetako Pedro Arrutarte eta bere emazte Dominga Urritzetak, Anoeta eta Tolosako auzokidea den Santiago Igor, Urritzeta etxetik botatzen dute, etxe hau beste pertsona batik alokatua ziotelako. 1583 tik 1587 artekoa Valladolideko Agiritegia; pc; sorta Pleitos; orriak 75.
- **1590 - 03 - 07:** Anoetako Pedro Arrutarteren alarguna den Domenja Urritzetak bere alaba Maria Joaneiz Urritzetari dohaintzan emandako Anoetako Urritzeta etxea. Baldintzak zehazten dira. GAO; pt; sorta 73; orriak 255 a. - 257 g.
- **1591 - 06 - 10:** Maisu Anton Galatas eta Mari Joan Urritzetaren alabak diren Anoetako Mari Alonso Galatasek eta Pasaiako Mari Galatasek Iruñeako eliz-kabilduko prokuradorei Iuzatutako ahalordetza. Lehen egindako Anoetako Urritzeta etxearen eskubideari uko egitea bertan behera uzteko. GAO; PT; sorta 76; orriak 941 a. - 941 g.
- **1591 - 10 - 29:** Pedro Arrutarteren alarguna den Domenja Urritzeta, Santiago Igor eta Ana Urritzeta senar-emazteek eta Maria Joaneiz Urritzetaren arteko hitzarmena. Anoetakoak. Urritzeta etxearen jabetzaren inguruan daukan auzia konpontzeko. GAO; PT; sorta 75; orriak 413 a. - 418 g.
- **1597 - 05 - 01:** Anoetako Santiago Igorrek Anoetan bizi den Pedro Agirreri alokatutako Anoetako Urritzeta etxea 6 urtez. Baldintzak zehazten dira. GAO; PT; sorta 133; orriak 686 a. - 687 g.
- **1600 - 05 - 02:** Bedaion maizterra den Joanes Ibarluzeak Anoetako Urritzeta etxearen maizterra den Pedro Agirreren aldeko obligazio-gutuna. 27 dukat 2 idiren truke. GAO; PT; sorta 136; orriak 210 a. - 210 g.
- **1601 - 12 - 09:** Anoetako Santiago Igor eta Ana Urritzeta senar-emazteek Amezketako Pedro Agirreri emandako ordainagiria. 95 dukat Anoetako Urreitzeta etxearen 5 urteko alokairuaren truke. GAO; pt; sorta 137; orriak 199 a. - 199 g.
- **1603 - 1 - 10:** Anoetako Santiago Igor eta Ana Urritzeta senar-emazteek Pedro Agirre eta Maria Fuldain senar-emazteei alokatutako Anoetako Urritzeta etxea 6 urtez. GAO; pt; sorta 139; orriak 463 a. - 464 g.
- **1604 - 12 - 15:** Anoetako Santiago Igor eta Ana Urritzeta senar-emazteek Anoetako Urritzeta etxearen maizterra diren Pedro Agirre eta Maria Fuldain senar-emazteei emandako ordainagiria. 22 dukat etxearen alokairuaren urteko errentagatik. GAO; PT; sorta 140; orriak 140 a. - 140 g.
- **1608 - 07 - 04:** Anoetako Ana Urritzeta alargunak Pedro Agirre eta Ana Fuldain senar-emazteei alokatutako Anoetako Urritzeta etxea 2 urtez. Baldintzak zehazten dira. GAO; PT; sorta 144; orriak z.g.
- **1609 - 11 - 29:** Anoetako Ana Urreitzeta alargunak Amezketako Pedro Agirre eta Maria Fuldain senar-emazteei emandako ordainagiria. 22 dukat Anoetako Urreitzeta etxearen alokairuaren truke. GAO; PT; sorta 145; orriak 126 a. - 126 g.
- **1630 - 04 - 21:** Anoetako Mariana Igor alargunak bertako Migel Idiaketz erretoreari salduztako Urritzeta etxea 900 dukaten truke. Etxearen zorrak zehazten dira. GAO; PT; sorta 159; orriak 362 a. - 363 g.
- **1771 - 12 - 20:** Anoetako Katategi baserriaren jabea eta Tolosako apaiza den Juan Bautista Arenasek Anoetako Urritzetako maizterra den Santiago Barrena salatzen du. Bi baserrien arteko mugarriak aldatu dituelako. GAO; CO CRI; 155-157 (3).
- **1810 - 11 - 25:** Anoetako Jose Ezeizarrenak Legazpiko Josefa Gorosabalen aldeko obligazio-gutuna. 767 erreal Anoetako Urritzeta etxearen heren bat maiztertzen duelako. GAO; PT; sorta 2777; orriak 140 a. - 141 a.

Izenaren esanahia

XIX. mendean azaltzen da. Bere esanahia argia da: "Urrutiren etxea". Urruti abizenak eta -nea atzizkiak osatzen dute. Lagunartean "Urrutiñe" esaten zaio.



Kokapena

Tolosara doan errepideak eta atzeko fatxadatik bi metrora igarotzen diren trenbideek inguratzen dute baserri hau. Iparraldean, Iriarte baseria ordezkatu zuen eraikina du atxikita.



Hauexek dira bere koordenatuak:
X: 575797 Y: 4779267 Z: 68
Long.: -2 4 3.6 Lat.: 43 9 41.7
Altuera: 68m.



Historia

XVIII. mendean eraikitako baserri hau Anoeta zeharkatzen zuen bide nagusiaren bazterrean zegoen. XIX. mendearen lehen hamarkadetan jabea Francisco Maria Barrenetxea eta maizterra Martin Bidaror dira.

Arkitekturaren ezaugarriak

Egungo etxeen harri-hormak dituen zatirik zaharrena nabamentzen da. Harri-horma hauetan oraindik ikus daiteke XVIII. mendeko baserriaren zurezko bilbadura. Oinplano angeluzuzena, bi solairu eta barruko zurezko egitura ditu. Errepidera begira dagoenurrealde nagusia berriztatu eta alboetatik handitu egin zen aurreko mendean.





Agiri zaharren aipamenak

- 1804-11-8: Miguel Franzisko Barrenetxeak Franzisko Barrenetxea bere oinordekotzat aukeratzen. C. HIP. (OGPAR) 1 lib. 36 zenb. 17 or.
- 1827 - 12 -31: Anoetako Urrutinea baserriko jabea den Ibarrako Franzisko Maria Barrenetxeak parrokiako erretoretzarako Miguel Munitaren alde bozkatzen du GAO; PT; sorta 2805; orriak 183 a. - 183 g.
- 1829 - 02 -23: Anoetako Miguel Manuel Olozaga eta Matias Bidaror suhien arteko hitzarmena. Matias Bidarorren emaztea zen Maria Andres Olozagaren heriotzaren ondoren, Urrutinea baseria elkar bizitzen jarraitzeko. Heriotzaren nondik norakoak azaltzen dira. Baserriaren jabea Ibarrako Francisco Maria Barrenetxea da. GAO; PT; sorta 2807; orriak 218 a. - 219 a.



Etxebizitzako sarrera

Izenaren esanahia

"Zume" terminotik dator. Ipintza –zumearekin ere lotutako deitura– baserriaren ibar berean dago, kasualitatea ote?. Halaber, Zumalakar zumearen aldaera izan daitekeen zuhaixka baten izena da.

Zumalikardi baserriaren ikuspegia panoramikoa




Argazkia: Karlos

Kokapena

Asteurrekin egiten du muga.
Anotatik Asuribar, Aginaga
Etxeberria eta Bideondo baserrietatik pasatzen den errepidetik irits daiteke. Zumalikardiko bizilagunak ditugu Asteasuko lehen baserriaren, hau da, Zabalgoena sagardotegiaren arduradunak.

Hauexek dira bere koordenatuak:
X: 574828 Y: 4781236 Z: 171
Long.: -2 4 45.5 Lat.: 43 10 45.9
Altuera: 171m.



Historia


Baserri hau XVII. mendearen bigarren erdian eraiki zen. 1822an jabea Domingo Gaiztarro izan zen. 1832an, berriz, jabea Jose Francisco Larrunbide eta maizterra Juan Ignacio Garaialde izan ziren. Egun Aniceto Sarasola Imazen eta Maria Mujika Gaztañagaren esku dago. Azken hau Asteasuko Mikelasagasti baserrian jaioa da. 1958. eta 1960. urteen artean, garia egiteari utzi zitzalon eta 1998an haragitarako aziendak kendu egin ziren. Zumalikardi da nekazaritzako eta abeltzaintzako ustiapen tradizioletik sagardoaren ekoizpen eta salmentara igaro den Anoetako baserri bakarra. Baserriak dolare bat zuen barruan, etxe-koen kontsumora zuzendutako sagardoa egiteko. Alabaina, 1973tik Anicetok eta bere seme Inaziok sagardoa ekoizteria bideratu zituzten ahalegin guztiak eta sagardotegi bat ipini zuten aldameneko Zabalgoena baserrian. Sagardotegi hau Asteasun egon arren, Anoetarekiko mugetatik metro gutxira dago.

Arkitekturaren ezaugarriak

Gutxi dira mantendu diren osagai arkitektoniko zaharrak eta horrek eraikinaren bilakaeraren azterketa zehatz bat egitea galarrazten du. Barruan, segur asko XVII. mendearen bigarren erdikoak diren jatorrizko zutabe batzuk ikus daitezke. Baserria aldatzen joan da denboran zehar, biztanleen beharretara egokituz. Oinarritzko tipologiari eutsi dio, alegia, oinplano angeluzuzenari eta bi isurkiko teilatuari. Azken berritze-lan garrantzitsuak 1995. eta 1996. urteen artean egin ziren, aurrealdeak berriztatuz eta teilatuak berrituz.




Aniceto Sarasola bilduma



Aniceto Sarasola argazki bilduma




Aniceto Sarasola argazki bilduma



Zumalikardi baserriaren ikuspegia orokorra, bailararen beste magalean Ipentza baseria

6. Agirien eranskina Anexo documental





1541-12-28 ANOETA

ANOETAKO BIZILAGUNEK IRUÑEAKO ELIZBARRUTIKO PROKURADOREEI LUZATUTAKO AHALORDETZA, SAN JOAN ELIZAKO ERRETOREA HAUTATZEKO. MARTIN GARMENDIA, ALKIZAKO APAIZA, PROPOSATZEN DUTE. ANOETAKO ETXEAK ETA BIZILAGUNAK AIPATZEN DIRA.

Poder de los vecinos de Anoeta remitido a los procuradores de la diócesis de Pamplona proponiendo como rector de la iglesia de San Juan a Martin Garmendia sacerdote de Alkiza. Se mencionan las casas y vecinos de Anoeta.

Gipuzkoako Artxibo Orokorra, PT 2 (85 a. - 89 g.). Eskribaua: Franzisko Luzuriaga. Lehenengo dokumentua soilik transkribaturik. Hurrengo biak, antzekoak, transkribitu gabe.

"In dey nomine, amen. Magnifico sea a todos los que la presente veran comno en la tierra de Anoeta, juridicion de la villa de Tolosa () a veynte ocho dias del mes de deziembre () de mill e quinientos e quarenta un años, en presencia de mi Francisco de Luçuriaga, escrivano de sus magestades e del numero de la dicha villa e testigos de yuso escriptos, parescieron presentes Juanes de Sarobe e Juan de Ateaga e Domenja de Ateaga, su fija, muger legitima de Juanes de Echeberria o de Ateaga, e Francisco de Arrutarte e Domenja de Arrutarte, su legitima muger, e Juan de Aguirre e Catalina de Aguirre, su fija, e Domingo de Tapia, mayor de dias, e Elena de Aguirre o de Tapia, muger legitima de Martin de Tapia, e Pavlo de Erausia e Juanes de Miquelesagasti e Domenja de Urreyçeta, biuda muger que fue de maese Juan de Aguinaga, e Catalina de Urreyçeta, biuda, e Maria Juanes de Urreyçeta, muger legitima de Anton de Galatas, e Catalina de Barrundia, biuda muger que fue de Esteban de Tapia, e Juanes de Mendiguibel e Domenja de Mendiguibel, su muger, e Juan de Arguindegui e Maria Juango de Alliri, biuda muger que fue de Martin de Alliri, todos vezinos de e moradores de la dicha tierra de Anoeta, dezmeros parrochianos de la yglesia parrochial de Señor Sant Juan de la dicha tierra de Anoeta, todos los cuales e cada uno del los por sy e sobre sy e cada uno dellos por su casa, es a saber, el dicho Juanes de Sarobe por la su casa de Sarobe, e los dichos Juanes e Domenja de Ateaga por la su casa de Ateaga e los dichos Francisco de Arrutarte e Domenja de Arrutarte, su muger, por la su casa de

Arrutarte, y el dicho Juanes de Aguirre por la su casa de Aguirre, y el dicho Domingo de Tapia por la su casa de Tapia, e la dicha Catalina de// Aguirre, con liçençia y consentimiento y voluntad del dicho Juan de Aguirre, su padre, por la su casa de Errencabia, e la dicha Elena de Aguirre o de Tapia por la suc casa de Tapia, y el dicho Pavlo de Erausia por la su casa de Erausia, y el dicho Juanes de Miquelesagasti por la su casa de Miquelesagasti, e la dicha Domenja de Urreyçeta por la su casa de llamada la casa de Aguinagarena, e la dicha Catalina de Urreyçeta por la su casa llamada la casa de Catalina de Urreyçeta, e la dicha Maria Juanes de Urreyçeta por la su casa de Urreyçeta, e la dicha Catalina de Barrundia por la su casa de Barrundia, e los dichos Juanes de Mendiguibel e Domenja de Mendiguibel, su muger, por la su casa de Mendiguibel, y el dicho Juan de Arguindegui por la su casa de Arguindegui, e la dicha Maria Juango de Alliri por la su casa de Alliri. Dixieron que por razon que por voluntad de Dios hera fallescido desta presente vida podia aver veynte dias poco mas o menos tiempo don Juan de Luçuriaga, que santa gloria posea, ultimo rector que fue en la dicha yglesia y estava vacante por su fallescimiento la dicha retoria e beneficio della, y por quanto a los sobredichose cada uno del los por si e por las dichas sus casas como patronos legos () les pertenesçia e pertenesçe el derecho de elegir, nonbrar y presentar retar para la dicha yglesia. Por ende, todos los susodichos, cada uno dellospro sy e sobre sy dis-tinta e apartadamente dixieron que consyderando que don Martin de Garmendia, clero de misa, vecino y natural de la tierra de Alquiça, que es a media legoa de la dicha tierra de Anoeta, entre los parrochianos dezmeros della tenia muchos parientes y amigos, hera persona avile e suficiente para ser retor de la dicha yglesia e servir a Dios en ella y persona de buena vida y costumbres, por ende dixeron// que () elegian al dicho don Martin de Garmendia por retor de la dicha yglesia de Sant Juan e que le davan e dieron sus presentaciones e que muy humillmente suplicavan a su Santidad e e so su Santidad al ilustre e muuy reverendissimo señor obispo de Panplona e su vicario generale oficial e vezes tenientes que mandasen aceptar por tal retor de la dicha yglesia al dicho don Martin e su Santidad e señoría le mandasen dar su titulo de la dicha retoriae beneficio della para que gozase segund sus pasados e que en la mejor forma e manera que podian e de fecho e de derecho devian, davan e die-ron su complido e plenario poder conliber e general facultad e admis-

nisracion a Juan de Ariça e Anton de Orendayn e Miguel de Aria e Juan Martines de Echaçarreta e a Bernart de Redin, e a todos los otros procuradores causidicos del consisterio de Panplona e de la curia romana, todos juntamente () para que en nonbre de los sobre dichos patronos parrochianos dezmeros fiziesen la dicha presentacion ante su Santidad () se pudiesen suplicar e suplicasen le mandasen dar e diesen su titulo de la dicha retoria e beneficio della al dicho don martin para que el oviese e gozase con todos sus onores e oblações e diezmas e entanticas e molumentos a la dicha retoria pertenesientes e para que sobre ello fiziesen todos los autos e suplicaciones nescessarios ()// e dixieron que prometian e que obligavan e obligaron a sus personas e bienes muebles e raizes avidos e por aver cada uno dellos por sy de aver por firme e valedera esta dicha presentacion e suplication () dixieron que juravan e juraron a Dios e a Santa Maria e a las palabras de los Santos Evangelios e a la señal de la Cruz que cada uno dellos con su mano derecha toco, de aver por firme e valedera esta dicha presentacion y elecion e de no bariar della e de no rebocar ni pedir avsolucion deste juramento a su Santidad ni a otro alguno que para ello poder tenga, sopena de ser perjuros ynfames e personas de menos valer (). Testigos llamados e rogados: Juanes de Arrutarte e Domingo de Arrutarte, vezinos e moradores de la dicha tierra de Anoeta, e Domingo de Amezqueta, vecino de la villa de Villabona, e porque todos los dichos otorgantes dixieron que no sabian escrivir, rogaron al dicho Domingo de Amezqueta, testigo, que firmase por ellos, el qual dicho Domingo de Amezqueta, testigo, a ruego de los dichos otorgantes firmo aqui de su nombre.

Rubricado: por testigo Domingo de Amezqueta. Francisco de Luçuriaga." //

1556-01-12. ANOETA

ALKIZAKO JOANES ANTZIETA ETA ANOETAKO KATALINA AROZETXEAREN ARTEKO EZKONTZA-HITZARMENA.

Acuerdo matrimonial entre el vecino de Alkiza Joanes Antzieta y Katalina Arozetxea.

Gipuzkoako Artxibo Orokorra, PT 7 (408 a. – 411 a.). Eskribaua: Juan Lopez Olazábal.

"En la unibersidad de Ahanoeta, juridicion de la villa de Tolosa, dentro en la casa llamada Arozechea, a doze dias del mes de henero de mill e quinientos e cinquenta e seys años, ante mi Joan Lopez D'Olazabal, escribano de sus magestades e del numero de la villa de Tolosa e su juridicion e en presencia de los testigos de yuso escriptos, parescieron presentes Maria de Miquelesagasti de Arozechea, bihuda muger legitima que fue de Sebastian de Arozechea, su marido defunto, vezina de la dicha universidad, e Miguel de Ançieta e Catalina de Ançieta, su muger legitima, vecinos de la tierra de Alquiça, con Joanes de Ançieta, su hijo legitimo, e dixieron que por quanto antes de agora fue celebrado matrimonio e casamiento por palabras de presente segund orden de la Santa Madre Iglesia por manos de don Martin de Catategui, retor de la dicha tierra Ahanoeta entre el dicho Joanes de Ançieta por esposo e marido e Catalina de Arozechea, hija legitima e natural de la dicha Maria de Miquelesagasti de Arozechea e Sebastian de Arozechea, defunto, por su espesa e muger, e para en ayuda del dicho casamiento e por que aquel fuese mas honroso e mejor pudiesen sostener las cargas del matrimonio, conformandose con lo que el dicho Sebastian de Arozechea por su ultimo testamento mando, dixo la dicha Maria de Arozechea de Miquelesagasti que en aquella mejor via, forma e manera que, de derecho lugar aya, hazia e hizo donacion proternupcias fuerte e firme a la dicha Catalina de Arozechea, () para con el dicho Joanes de Ançieta, su marido, e hijos que del dicho su matrimonio ovieren, de los bienes siguientes, conbiene a saber: De la dicha casa de Arozechea con todo el bastaño e axuar della, e con las cubas que estan// en la dicha casa e de todas sus pertenencias, tierras mançanales, castañales, prados e pastos () mejorandola como dixo que la mejoraba e mejoraba en el tercio e quinto de todos los dichos bienes () e demas dello dio e dono a la dicha Catalina de Arozechea, su hija, seis abejas e seis corderos e un



nobillo de dos años e una cama cumplida buena e una caxa de madera de las que al presente ay en la dicha casa, e demas dello mando a la dicha Catalina su hija una saya de paño de pieza de color verde escuro e un sayuelo de paño negro de valor de tres ducados, e mas mando un asno que de presente tiene para el servicio de la dicha casa, las quales dichas donaciones e cada una dellas dixo la dicha Maria de Miquelesagasti de Arozechea que le hazia e fizo()con las condiciones siguientes: primeramente con condicion que la dicha Maria de Miquelesagasti donadora, aya de mantener e mantenga a los dichos donatarios por tiempo de un año e medio complido, los quales ayan de servir a sirban a la dicha donadora en el dicho tiempo e trabajen para ella, la qual por razon dello aya de llevar e lleve por entera la prestacion de la dicha casa de Arozechea e sus pertenencias, e sy pasados el dicho año e medio no se pudiere haver de vivienda en uno, que en tal caso ayan de partir e partan a medias la prestacion de la dicha casa e sus pertenencias, e aquella goze la dicha donadora e Martin de Arozechea, su suegro e donatarios a medias por el tiempo que el dicho Martin bibiere e quando fallesciere aya de gozar e goze la dicha Maria donadora de la tercia parte de la prestacion de la dicha casa e sus pertenencias, e los dichos// donatarios de las otras dos tercias partes conforme a la costumbre de la dicha tierra, e asy como gozaren ayan de contribuir e contribuyan en los cargos espirituales e temporales que la dicha casa tiene y es obligado. Otrosy con condicion que quando el dicho Martin de Arozechea e Maria de Miquelesagasti, donadora, fallecieren desta vida presente, que en tal caso los dichos donatarios sean obligados a haver los complimentos de su enterrorio, nobena e cabo de año () y que las dichas obejas e corderos que asy a dado e donado a los dichos donatarios con mas una puerca paridera, que asy bien dio e dono a los dichos donatarios la dicha Maria de Miquelesagasti, sea obligada a dar a los dichos donatarios pasado el dicho año e medio e quando de bivienda no se pudieren haver en uno y no en el entretanto. Otrosy la dicha Maria donadora reserbo para si e su mandar la madera de una cuba que esta en la dicha casa de Arozechea con mas toda las otras caxas que ay en la dicha casa e camas e ropa blanca e bestidos e dineros e ganados e reçibos para disponer de todo ello a su libre voluntad. Otrosy con condicion que auando la dicha Maria de Miquelesagasti, donadora, se quisiere hechar al mantenimiento de los dichos donatarios e relaxar a ellos la tercia parte de la prestacion

